UPV/EHU
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila

Doktore Tesia

Hiztegigintza Elebiduna: Euskara-Alemana

Euskarazko Bertsioa

David Lindemann
david.lindemann@ehu.eus
orcid.org/0000-0002-8261-6882

alemanezko bertsioarekin batera
2015eko urrian aurkeztua

Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)
- *Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Argitalpen Zerbitzua*
- University of the Basque Country (UPV/EHU) Press
- ISBN: **978-84-9082-543-3**

Izenburua: Hiztegigintza Elebiduna: Euskara-Alemana

Egilea: David Lindemann

Zuzendaria: Miren Azkarate Villar, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila

Doktorego Programa: Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua

2015eko urrian euskaraz eta, aldi berean, alemanez aurkeztua

Doktore tesi hau Eusko Jaurlaritzaren BFI-2011 beka programaren laguntzaz egin da

Aurkibidea

0 Sarrera.....1

1 Hurbilketa Diakronikoa: Aurrekariak.....7

1.1 Sarrera.....7

1.2 XIX. mendeko lanak.....8

1.2.1 Humboldt 1817.....9

1.2.1.1 Humboldt alemanezko euskalaritzan aurrendaria.....9

1.2.1.2 Humboldten hiztegigintza.....10

1.2.2 Mahn (ms.).....14

1.2.2.1 C.A.F. Mahn euskalaria.....14

1.2.2.2 Eskuizkribua.....17

1.2.2.3 Eskuizkribua editatzeko prolegomena.....23

1.2.3 Charpentierren eskuizkribua.....26

1.2.3.1 Charpentier geologoa euskalari.....26

1.2.3.2 Eskuizkribua.....26

1.3 1968 geroztik argitaratutako lanak.....29

1.3.1 Löpelmann 1968.....29

1.3.1.1 Martin Löpelmann III. Reich-en.....29

1.3.1.2 Löpelmannen ”Hiztegi Etimologikoa“.....30

1.3.2 Kühnel 1999.....35

1.3.3 2007ko Euskara-Alemana Hiztegia.....39

1.4 Ondorioak.....46

2 Hiztegigintza Elebiduna gaur egun.....48

2.1 Sarrera: Aro elektronikoaren ataria.....48

2.1.1 Zenbait oinarrizko kontzeptu.....51

2.1.1.1 Makroegitura: hiztegiaren antolamendua.....52

2.1.1.2 Mikroegitura: Sarreren barruko antolamendua.....56

2.1.2 Iturburu irekiko hiztegigintza.....60

2.2 Alemanarekiko hiztegi elebidun elektronikoak.....62

2.3 Euskarazko hiztegi elektronikoak.....65

2.4 Euskarazko hainbat hiztegiren egituraren konparaketa.....68

2.5 L2-Ikasleentzako hiztegigintza elebiduna.....76
2.5.1 DaF ikasleentzako hiztegigintza elebidunerako desiderata edo irizpideak.....76
2.5.1.1 Makroegitura eta marko-egitura.....77
2.5.1.2 Mikroegitura.....77
2.5.2 Hiztegiaren funtzio komunikatiboak eta hiztegien erabilpena.....78
2.6 Ondorioak.....82

3 EuDeLex hiztegiaren egitura.....85
3.1 Sarrera.....85
3.2 Makroegitura: Maiztasunean oinarritutako lemategia.....86
3.2.1 Alemanezko maiztasun-lemategia.....87
3.2.2 Euskarazko maiztasun lemategia: proposamen berria.....90
3.2.2.1 Aurrekariak.....90
3.2.2.2 Euskarazko corpusetatik erauzitako maiztasun-zerrendak.....92
3.2.2.3 Maiztasun-lemategien prozesamendua.....93
3.2.2.4 Hiztegi-lemategiak.....95
3.2.3 Euskarazko maiztasun-lemategia: emaitzak.....96
3.2.3.1 Maiztasun-zerrenden arteko antzekotasuna.....96
3.2.3.2 Hiztegi-lemategiak corpusetan.....99
3.2.3.3 Oinarrizko hiztegi-lemategia.....100
3.2.3.3.1 Hitz bakarreko unitateak.....100
3.2.3.3.2 Bigramak.....105
3.2.4 Euskarazko maiztasun-lemategia: ondorioak eta gerorako erronkak.....106
3.3 Mikroegitura.....107
3.3.1 Hiztegiaren xml egitura.....109
3.3.2 Alemanezko lemari buruzko argibideak.....114
3.3.2.1 Etimologia.....114
3.3.2.2 Flexio morfologia.....114
3.3.2.3 Sinonimoak.....114
3.3.2.4 Domeinua edo jakintza-arloa.....115
3.3.2.5 Zehaztapen semantikoak.....115
3.3.2.6 Polisemia: Adieren zerrenda zenbakitua.....116
3.3.2.7 Itzulpen-ordainak eta baliokidetasuna indartzeko osagaiak.....117
3.3.2.8 Erabilera-adibideak.....119
3.3.3 Alemanezko izena hiztegi-sarreran.....120

3.3.4 Alemanezko aditza entitate sintaktiko gisa....121
3.3.4.1 Mikroegiturako elementuen hierarkia: ordena sintaktikoa....121
3.3.4.2 Balentzia edo argumentu-egituraren gauzatzearen inguruko argibideak....123
3.3.5 Alemanezko adjektiboa eta adberbioa hiztegi-sarreran....124
3.3.6 Gainontzeko kategoria gramatikalak....126
3.4 Euskara-alemanezko sarreren egitura....126
3.5 Erabiltzaile-interfazearen egitura....131
3.6 Ondorioak....135

4 Aleman-euskarazko ordainen definizioa....137
4.1 Glosario elebidunen zirriborratze automatikoa....137
4.1.1 Dentsitatea....138
4.1.2 Corpus paralelo eskuragarriak....140
4.1.3 Metodoak....142
4.1.3.1 Corpus paraleloen ustiaketa: hitzaren eremuko lerrotzea....142
4.1.3.2 Corpus konparagarrien ustiaketa: Elhuyar Pibolex hiztegiak....145
4.1.3.3 Wiktionary eta Wikipedia....146
4.1.3.4 WordNet sare semantikoak....147
4.1.4 Ebaluazioa....147
4.1.5 Emaitzak....150
4.1.5.1 Alemanezko erreferentzia-lemategiaren estaldura....150
4.1.5.2 Glosarioen egokitasuna....152
4.1.6 Glosario elebidunak zirriborratzea: Ondorioak....155
4.1.7 Glosario elebidunak zirriborratzea: Gerorako erronkak....157
4.2 Bi arazo pisutsu: Polisemia eta Lexikalizatze Asimetrikoa....158
4.2.1 Arazoaren deskribapena....158
4.2.2 Polisemiaren desanbiguatzea: Metodo erdi-automatikoak....163
4.3 Eskuzko lana....171
4.3.1 Ebazpen zailak....175
4.4 Corpus paraleloen ustiaketa....177
4.4.1 Konkordantzia paraleloak hiztegi elektronikoetan: artearen egoera....180
4.4.1.1 Corpus paraleloak hiztegigintzan: zenbait ondorio....184

5 Ondorioak....186

6 Erreferentzia Bibliografikoak.....190

7 Eranskinak.....212

7.1 MAH1840 eskuizkribuko laginaren transkribapena.....212

7.2 Euskarazko hiztegietako laginak.....227

7.2.1 Aizquibel 1883 (AIZ1883).....227

7.2.2 Azkue 1984 [1905-06] (AZK1905).....228

7.2.3 Bera-Mendizabal 1909, 1916, 1962 (BERA1909, MEND1926).....229

7.2.4 Lhande 1926 (LHA1926).....232

7.2.5 Diccionario "IKAS" 1976 (IKAS1976).....234

7.2.6 Diccionario Retana de autoridades 1976 (RET1976).....235

7.2.7 Kintana 1977 (MOD1977).....236

7.2.8 Barandiaran & Etxeberria 2000 (MOD2000).....237

7.2.9 Etxeberria 2001 (ETX2001).....238

7.2.10 Adorez/Bostak Bat 1980 - 2013 (ADO).....239

7.2.11 Múgica 1981 (MUG1981).....243

7.2.12 Aulestia & White 1992 (AUWH1992).....244

7.2.13 Morris 1998 (MORR1998).....245

7.2.14 Martínez Rubio 2007 (EAH2007).....247

7.2.15 Arratibel, Atela & Navarro 2000 (LUR2000).....248

7.2.16 Mitxelena & Sarasola (OEH1988).....248

7.2.17 Sarasola (SHLH 1994, SEIH1999, SEH2007).....262

7.2.18 Elhuyar 1996, 2000 2013 (EEG).....265

7.2.19 Euskaltzaindia 2000, 2010, 2012 (HB2000, HB2010, EHA2012).....270

7.3 Maiztasun lemategiak.....272

7.4 EuDeLex hiztegia.....278

7.4.1 EuDeLex laginaren inguruko estatistikak.....278

7.4.2 Lagina a-beschleichen.....285

7.5 Curriculum Vitae.....500

Hiztegi-laginen Aurkibidea

1.1 Lagina: HUM1817:33.....11
1.2 Lagina: HUM1817:25.....12
1.3 Lagina: LAR1745:I,303.....13
1.4 Lagina: HUM1817:24.....13
1.5 Lagina: MAH1840:55.....18
1.6 Lagina: MAH1840:66.....22
1.7 Lagina: MAH1840:338.....22
1.8 Lagina: MAH1840:287,339.....22
1.9 Lagina: Eys 1867:8;2.....23
1.10 Lagina: MAH1840:373.....24
1.11 Lagina: CHA2002 laneko laginak.....28
1.12 Lagina: CHA2002:161.....28
1.13 Lagina: LÖP1968:750.....32
1.14 Lagina: Lhande 1926:642h.....33
1.15 Lagina: LÖP1968: s.v. 'hel'.....34
1.16 Lagina: KÜH1999: s.v. 'heldu'.....35
1.17 Lagina: ADO1984: s.v. 'heldu'.....36
1.18 Lagina: KÜH1999:124.....37
1.19 Lagina: EAH2007: s.v. 'fahren'.....39
1.20 Lagina: EAH2007: s.v. 'Fahrer(in)'.....39
1.21 Lagina: EAH2007: s.v. 'joan'.....41
1.22 Lagina: EAH2007: s.v. 'ausscheiden'.....42
1.23 Lagina: EAH2007: s.v. 'scheiden'.....42
1.24 Lagina: EAH2007:179.....43
2.1 Lagina: AUG2009:578.....53
2.2 Lagina: CEDO: s.v. 'bake'.....56
2.3 Lagina: Duden online: s.v. 'backen'.....57
2.4 Lagina: PONS DE-ES: s.v. 'backen'.....58
2.5 Lagina: SLGR1932: s.v. 'fahren'.....59
2.6 Lagina: LEO DE-ES online-hiztegia: s.v. 'Kiefer'.....62
2.7 Lagina: dict.cc DE-ES online hiztegia: s.v. 'Kiefer'.....63
2.8 Lagina: PONS DE-ES online-hiztegia: s.v. 'Kiefer'.....63
2.9 Lagina: PONS Bildwörterbuch online: s.v. 'Kiefer'.....64
2.10 Lagina: DWDS: s.v. 'Kiefer'.....65
3.1 Lagina: EuDeLex: s.v. 'abdecken', 'Absatz', 'Abstufung'.....108

3.2 Lagina: EuDeLex: s.v. 'beißen'.....116
3.3 Lagina: EuDeLex: s.v. 'abschlagen'.....117
3.4 Lagina: EuDeLex: s.v. 'Ausdruck'.....120
3.5 Lagina: EuDeLex: s.v. 'Anhänger', 'Anhängerin'.....121
3.6 Lagina: EuDeLex: s.v. 'abstimmen'.....122
3.7 Lagina: EuDeLex: s.v. 'bedanken' (aberastua).....123
3.8 Lagina: EuDeLex: s.v. 'ausleihen'.....124
3.9 Lagina: EuDeLex, s.v. 'anständig', 'anteilig', 'arg'.....125
3.10 Lagina: EuDeLex: s.v. 'anders'.....125
3.11 Lagina: EuDeLex: 'heldu' eta 'irakin' sarrerak (lehenengo proposamena).....128
3.12 Lagina: EuDeLex: 'baso' sarrera (lehenengo proposamena).....128
3.13 Lagina: EuDeLex: 'sakon' sarrera (lehenengo proposamena).....130
4.1 Lagina: EuDeLex: s.v. 'ausleihen'.....161
4.2 Lagina: de.wiktionary.org: s.v. 'Begriff'.....172
4.3 Lagina: DGW2011: s.v. 'Begriff'.....173
4.4 Lagina: EuDeLex: s.v. 'Begriff', corpus paraleloetako adibideekin.....175
4.5 Lagina: EuDeLex: s.v. 'Achterbahn', 'Achterbahnfahrt', 'Aktionismus', 'alleinerziehend', 'Altersteilzeit'.....176
4.6 Lagina: EuDeLex, azalpen entziklopedikoa duten zenbait sarrera.....177
4.7 Lagina: Linguee EN-ES: s.v. 'falda'.....181
4.8 Lagina: Linguee ES-EN: s.v. 'en cuanto a'.....183
7.1 Lagina: AIZ1883: s.v. 'baso'.....227
7.2 Lagina: AIZ1883: s.v. 'heldu'.....227
7.3 Lagina: AZK1905: s.v. 'heldu'.....228
7.4 Lagina: AZK1905: s.v. 'baso'.....228
7.5 Lagina: BERA1909: s.v. 'baso'.....229
7.6 Lagina: BERA1909: s.v. 'heldu'.....229
7.7 Lagina: BEME1916: s.v. 'baso'.....230
7.8 Lagina: BEME1916: s.v. 'heldu'.....230
7.9 Lagina: MEND1962: s.v. 'baso'.....231
7.10 Lagina: MEND1962: s.v. 'heldu'.....231
7.11 Lagina: LHA1926: s.v. 'baso'.....232
7.12 Lagina: LHA1926: s,v, 'heldu'.....233
7.13 Lagina: IKAS1976: s.v. 'baso'.....234
7.14 Lagina: IKAS1976: s.v. 'heldu'.....234
7.15. Lagina: RET1976: s.v. 'baso'.....235
7.16 Lagina: RET1976: s.v. 'heldu'.....235

7.17 Lagina: MOD1977: s.v. 'baso'....236
7.18 Lagina: MOD1977: s.v. 'heldu'....236
7.19 Lagina: MOD2000: s.v. 'baso'....237
7.20 Lagina: MOD2000: s.v. 'heldu'....237
7.21 Lagina: ETX2001: s.v. 'baso'....238
7.22 Lagina: ETX2001: s.v. 'heldu'....238
7.23 Lagina: ADO1980: s.v. 'baso'....239
7.24 Lagina: ADO1984: s.v. 'baso'....239
7.25 Lagina: ADO1986: s.v. 'baso'....239
7.26 Lagina: ADO1993: s.v. 'baso'....239
7.27 Lagina: ADO1996: s.v. 'baso'....239
7.28 Lagina: ADO2013: s.v. 'baso'....239
7.29 Lagina: ADO1984: s.v. 'heldu'....240
7.30 Lagina: ADO1980: s.v. 'heldu'....240
7.31 Lagina: ADO1986: s.v. 'heldu'....240
7.32 Lagina: ADO1993: s.v. 'heldu'....241
7.33 Lagina: ADO1996: s.v. 'heldu'....241
7.34 Lagina: ADO2013: s.v. 'heldu'....242
7.35 Lagina: MUG1981: s.v. 'heldu'....243
7.36 Lagina: MUG1981: s.v. 'baso'....243
7.37 Lagina: AUWH1992: s.v. 'baso'....244
7.38 Lagina: AUWH1992: s.v. 'heldu'....244
7.39 Lagina: MORR1998: s.v. 'baso'....245
7.40 Lagina: MORR1998: s.v. 'heldu'....246
7.41 Lagina: EAH2007: s.v. 'baso'....247
7.42 Lagina: EAH2007: 'heldu'....247
7.43 Lagina: LUR2000: s.v. 'baso'....248
7.44 Lagina: LUR2000: s.v. 'heldu'....248
7.45 Lagina: OEH1988: s.v. 'baso'....248
7.46 Lagina: OEH1988: s.v. 'heldu'....253
7.47 Lagina: SHLH1994: s.v. 'heldu'....263
7.48 Lagina: SHLH1994: s.v. 'baso'....262
7.49 Lagina: SEIH1999: s.v. 'baso'....262
7.50 Lagina: SEH2007: s.v. 'baso'....262
7.51 Lagina: SEIH1999: s.v. 'heldu'....263
7.52 Lagina: SEH2007: s.v. 'heldu'....264
7.53 Lagina: EEG1996: s.v. 'baso'....265

7.54 Lagina: EEG2000: s.v. 'baso'.....265
7.55 Lagina: EEG2006: s.v. 'baso'.....265
7.56 Lagina: EEG2013: s.v. 'baso'.....266
7.57 Lagina: EEG2000: s.v. 'heldu'.....267
7.58 Lagina: EEG1996: s.v. 'heldu'.....267
7.59 Lagina: EEG2006: s.v. 'heldu'.....268
7.60 Lagina: EEG2013: s.v. 'heldu'.....269
7.61 Lagina: HB2000: s.v. 'baso'.....270
7.62 Lagina: HB2010: s.v. 'baso'.....270
7.63 Lagina: EHA2012: s.v. 'baso'.....270
7.64 Lagina: HB2000: s.v. 'heldu'.....270
7.65 Lagina: HB2010: s.v. 'heldu'.....271
7.66 Lagina: EHA2012: s.v. 'heldu'.....271

Taulen Aurkibidea

0.1 Taula: 'heiß', 'Blut', 'heißblütig' eta itzulpen-ordainak....3
0.2 Taula: Zubi-hizkuntzatik eta buelta....4
1.1 Taula: Humboldten iturriak: Laburdurak....19
1.2 Taula: Humboldt/Mahn: Iturriak....21
1.3 Taula: Euskal atzizkiak eta itzulpenak (KÜH1999:79hh)....38
1.4 Taula: 'scheiden' eta 'ausscheiden' aditzak: alemanezko ordainak....42
1.5 Taula: EAH2007: ordainak eta proposamenak....45
2.1 Taula: Hiztegiaren egitura deskribatzeko kontzeptuak....51
2.2 Taula: DIN 5007:1991, alemanerazko hizki bereziak....54
2.3 Taula: Kategoria gramatikal ezberdineko entitate bati baino gehiagori dagozkion lemak....55
2.4 Taula: Sareko euskarazko hiztegien zenbait ezaugarri....66
2.5 Taula: Zenbait hiztegi elebidun eta elebakarren euskarazko lemategiak....68
2.6 Taula: 'baso' lema-ikurra hainbat hiztegitan....71
2.7 Taula: 'heldu' lema-ikurra hainbat hiztegitan....75
2.8 Taula: Funtzioak eta hiztegiak EU-DE konbinazioan....80
3.1 Taula: DeReWo zerrendaren egokitzapena zenbakietan (A hizkia)....89
3.2 Taula: Entitate sintaktikoen kategoriak: Banaketa alemanezko lemategian....90
3.3 Taula: Maiztasun-lemategien 500 hitz ohikoenen arteko alderaketa Spearman ranking korrelazio neurriaren bitartez....97
3.4 Taula: Estaldura-datuak....99
3.5 Taula: Aberaste-datuak....99
3.6 Taula: Elh200 corpusetik erauzitako maiztasun-datuak, 'alegia' lema-ikurrarentzat....101
3.7 Taula: EDBLtik kanpoko corpusetako lemen banaketa....103
3.8 Taula: SEH1996: EDBL datu-basean ez, baina corpusetan bai agertzen diren lema kopuru batzuk....103
3.9 Taula: Alemanezko 'brennen' aditza eta preposiziozko aurrizkia duten hiponimoak....119
4.1 Taula: Dentsitatearen zenbait adierazle, alemanari eta euskarari begira....139
4.2 Taula: DE-EU corpus paraleloak....143
4.3 Taula: POS-estekak TreeTagger (Alemanera) eta EusTagger....144
4.4 Taula: Alemanezko baliabide lexikoen eta DeReWo zerrendaren elkarrekiko estaldura....150
4.5 Taula: Alemanezko baliabide lexikoetatik erauzitako glosarioen elkarrekiko estaldura (3.406 lematako gold standard, A hizkia)....151

4.6 Taula: Giza++ tresnak erauzitako glosarioen, DeReWo zerrendaren eta gainontzeko glosarioen elkarrekiko estaldura.....152
4.7 Taula: Bifid tresnak erauzitako glosarioen, Pibolex hiztegien, DeReWo zerrendaren eta gainontzeko glosarioen elkarrekiko estaldura.....152
4.8 Taula: Glosario elebidunen ebaluazioa: Emaitzak.....154
4.9 Taula: Metodoen sailkapena, ebaluazio kualitatiboaren arabera.....155
4.10 Taula: Alemanezko 'Holz' izena eta hiponimoak, euskarazko ordainekin.....161
4.11 Taula: 'egur' izena EusWN datu-basean eta sinonimo interlingualak.....162
4.12 Taula: Adieren eta itzulpen-ordainen klusterrak ingelesezko 'pot' izenarentzat (Levefer 2012: 87-tik hartua).....165
4.13 Taula: Alemanezko 'Absatz' izena GermaNet datu-basean.....166
4.14 Taula: Alemanezko 'aufgeben' aditza GermaNet datu-basean.....167
4.15 Taula: 'Absatz, Schuhabsatz' synset-aren zenbait erlazio semantiko WordNet sareetan.....167
4.16 Taula: 3 WordNet saretatik erauzitako datuak 'adar' izenerako.....169
4.17 Taula: WordNet sareak munduan zehar (Bond & Paik (2012:66) lanetik hartua). 170
4.18 Taula: 'Begriff' izenaren ordainak konkordantzia elebidunean.....173
4.19 Taula: 'Begriff' izena duten hitz anitzeko unitateak eta ordainak.....174
4.20 Taula: Corpus paralelotik erauzitako alemanezko 'Ärger' lemaren konkordantziak.....179
7.1 Tabelle: MAH1840: Lagineko euskarazko formak.....226
7.2 Taula: 5 hiztegietako EDBL-tik kanpoko lema-hautesleak.....273
7.3 Taula: HB2010: EDBL-tik kanpoko lema-hautesleak.....274
7.4 Taula: OEH: EDBL-tik kanpoko lema-hautesleak.....275
7.5 Tabelle: Taula: EusWN: EDBL-tik kanpoko lema-hautesleak.....276
7.6 Taula: EEG2013: EDBL-tik kanpoko lema-hautesleak.....277
7.7 Tabelle: Taula: SEH1996: EDBL-tik kanpoko lema-hautesleak.....278
7.8 Taula: xml elementu eta atributuak.....280
7.9 Taula: Adieraren jakintza-arloa.....281
7.10 Taula: Adieraren erregistroa.....282
7.11 Taula: Balentzia-formulak.....284

Irudien Aurkibidea

1.1 Irudia: Mahn eskuizkribuaren "hodei" lemari dagozkion sarrerak, TEI xml formatuan....25
3.1 Irudia: 'alegia' lema-ikurra datu-base bateratuan....96
3.2 Irudia: Hiztegi-lemategiak corpusetan....100
3.3 Irudia: Oinarrizko xml hiztegi-sarrera: 'alegia'....102
3.4 Irudia: EuDeLex xml, 'Abstufung'....109
3.5 Irudia: Oinarrizko xml hiztegi sarrera....110
3.6 Irudia: SEH1996 lemei lotutako datetan oinarritutako grafikoa (Azkarate & Lindemann (2015) lanetik hartua)....111
3.7 Irudia: TshwaneLex (TLex) aplikazioaren interfazea....112
3.8 Irudia: EuDeLex xml: s.v. 'abschlagen'....119
3.9 Irudia: EuDeLex erabiltzaile-interfazea eta glosak....132
3.10 Irudia: 'Häusern' formaren analisi morfologikoa EuDeLex hiztegian....133
3.11 irudia: Argitaratze prozesuan erabilitako tresna eta scriptak....135
4.1 Irudia: Pibotatzea eta anbiguotasuna, Saralegi et al. (2012:1443) lanetik hartua....145
4.2 Irudia: Hiru WordNet saretako datu bateratuak....147
4.3 Irudia: TLex aplikazioko argazkia: eskuzko ebaluazioa....150
4.4 Irudia: Lexikalizatze asimetrikoa....160
4.5 Irudia: Linguee ES: ikustaldi-maiztasun zerrenda....183

Oharra:

Lanaren atalak, hiztegietako laginak, irudiak eta taulak adierazten dituzten zenbakizko erreferentziak pdf-bertsioan lasterbide automatikoak dira, hots, saguaz gainean klik eginez, dagokion tokira eramaten dute.

Laburtzapenak: Lehen Iturriak

Jarraian ematen dugun zerrendako hiztegi eta bestelako baliabide lexikoen erreferentzia osoak erreferentzia bibliografikoen atalean aurkitzen dira, egileen arabera ordenaturik.

ADO1980	Kintana et al. (1980): *Hiztegia 80: euskara-espainiera, espainiera-euskara, vasco- español, español-vasco*
ADO1984	Kintana et al. (1984): *Hiztegia bi mila: euskara-espainiera espainiera-euskara, vasco-español español-vasco*
ADO1986	Uribarren et al. (1986): *Euskararako Hiztegia*
ADO1993	Uribarren et al. (1993): *Europa hiztegia: eskola berrirakoa*
ADO1996	Uribarren et al. (1996): *3000 Hiztegia*
ADO2009	Adorez Taldea (2009): *Adorez 5000 Hiztegia*
ADO2013	Bostak Bat Kultur Elkartea (2013): *5000 Hiztegia* (sarean) http://www.azkuefundazioa.eus/euskara-sarean-josten/baliabideak/hiztegiak/5000-hiztegia
AIZ1883	Aizquibel (1883). *Diccionario basco-español titulado euskeratik erderara biurtzeco itztegia*
AUG2009	Augst (2009): *Wortfamilienwörterbuch der deutschen Gegenwartssprache*
AUWH1992	Aulestia & White (1992): *Euskara-Ingelesa Ingelesa-Euskara Hiztegia*. Donostia: Elkar
AZK1905	Azkue (1984 [1905-06]). *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo: Euskaltzaindia [1905-06ko lehenengo argitalpenaren faksimilea]
BEME1916	Bera & Mendizabal (1916). *Diccionario castellano-euzkera / Bera'tar Eroman Mirena aba, buruñurduna. Euzkel-erdel iztegia / López Mendizabal'dar Ixaka*
BERA1909	Bera (1909). *Euzkel-iztegitxua / Bera'tar Erroman Aba*
CHA2002	Charpentier (Charpentier 2002 [1823]): *Wörterverzeichnis, „in der zu Saint Etienne (Donostiÿ) Hauptdorf des Thales von Baigorrÿ bei Saint-Jean-Pied-De-Port üblichen Mundart“*
CEDO	*Cambridge English Dictionary Online* (sarean) http://dictionary.cambridge.org/dictionary/english/
dict.cc	dict.cc sareko hiztegiak http://dict.cc
DGW2001	*Duden - Das große Wörterbuch der Deutschen Sprache*, 4. arg. (DUDEN 2011)
DUE2007	Moliner (2007): *Diccionario de Uso del Español,* 3. arg.
DWB	Grimm & Grimm (2001 [1854-60]): *Deutsches Wörterbuch* (sarean) http://woerterbuchnetz.de/DWB/

EAH2007	Martínez Rubio (2007): *Euskara-Alemana Hiztegia*.
EDBL	Aldezabal et al. (2001) *Euskarazko Datu-Base Lexikala*
EEF2012	Elhuyar Hiztegiak: *Euskara-Frantsesa*, 2. arg. (Pikabea et al. 2007) (sarean) http://hiztegiak.elhuyar.org
EEG1996	Elhuyar Hiztegiak: *Euskara-Gaztelaina*, 1. arg. (Azkarate et al. 1996)
EEG2000	Elhuyar Hiztegiak: *Euskara-Gaztelaina*, 2. arg. (Azkarate et al. 2000)
EEG2006	Elhuyar Hiztegiak: *Euskara-Gaztelania*, 3.arg. (Azkarate et al. 2006)
EEG2013	Elhuyar Hiztegiak: *Euskara-Gaztelaina*, 4. arg. (Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak 2013) (sarean) http://hiztegiak.elhuyar.org
EEN2007	Elhuyar Hiztegiak: *Euskara-Ingelesa*, 2. arg. (Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak 2007) (sarean) http://hiztegiak.elhuyar.org
EER1997	Elhuyar Hiztegiak: *Euskara-Errusiera*, 1. arg. (Serrano et al. 1997)
EHA2012	Euskaltzaindia (2012): *Euskaltzaindiaren hiztegia: Adierak eta adibideak*
EM1987	Etxebarria, J.M. & Mujika, J.A. (1987). *Euskararen oinarrizko hiztegia: maiztasun eta prestasun azterketa*.
ETX2001	Etxeberria (2001): *Ikaslearen Hiztegia*
EUNL1996	Jansen, W.H. (1996): *Baskisch-Nederlands, Nederlands-Baskisch = Euskara-nederlandera, nederlandera-euskara*
EusWN	*Euskal WordNet* (Pociello 2007; Pociello et al. 2011)
HB2000	Euskaltzaindia (2000): *Hiztegi Batua*
HB2010	Euskaltzaindia (2010): *Hiztegi Batua*
HUM1817	Humboldt (1817): *Berichtigungen und Zusätze...*
IATE	*Interactive Terminology for Europe* (lehen: EURODICAUTOM, sarean): http://iate.europa.eu
IKAS1976	Montiano & Urquijo (1976): *Diccionario "IKAS" Euskera-Castellano Castellano-Euskara. Dialectos vizcaíno y guipuzcoano*
KÜH1999	Kühnel (1999): *Wörterbuch des Baskischen*
LAR1745	Larramendi (1745): *Diccionario Trilingüe*
LEO	LEO sareko hiztegiak. http://www.leo.org
LHA1926	Lhande (1926). *Dictionnaire basque-français et français-basque: dialectes Labourdin, Bas-Navarrais et Souletin*
LÖP1968	Löpelmann (1968): *Ethymologisches Wörterbuch der baskischen Sprache*
LUR1996	Arratibel, Atela & Navarro (1996): *LUR Eskolarako Hiztegi Entziklopedikoa*
MAH1840	Mahn (1840): Baskisches Wörterbuch I & II (ms.)

MEND1962	López-Mendizabal (1962). *Diccionario vasco-español*, 4. arg.
MOD1977	Kintana (1977): *Euskal Hiztegi Modernoa*
MOD2000	Barandiaran & Etxeberria (2000): *Euskal Hiztegi Modernoa*, 2. arg. berritua
MORR1998	Morris (1998): Morris Student Plus. Euskara-Ingelesa, English-Basque
MUG1981	Múgica Berrondo (1981): *Diccionario vasco-castellano*
OEH1988	Euskaltzaindia (Mitxelena & Sarasola 1988): *Orotariko Euskal Hiztegia*
PONS	PONS sareko hiztegiak. http://www.pons.eu
PONS2011	Wolski & Cyffka (2011): *PONS Großwörterbuch Deutsch als Fremdsprache*
RET1976	Sota, Lafitte & Akesolo (1976): *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca: con cientos de miles de nuevas voces y acepciones, antiguas y modernas*
SEH1996	Sarasola (1996): *Euskal Hiztegia*
SEH2007	Sarasola (2007): *Euskal Hiztegia*
SEIH1999	Sarasola (1999): *Euskara Ikaslearen Hiztegia*
SHLH1994	Sarasola (1994): *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*. (sarean) http://www.euskara.euskadi.-net/r59-sarasola/eu/sarasola/sarasola.apl
SMH1982	Sarasola (1982). *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia: 1977ko corpus batean oinarritua*
SLGR1932	Slabý & Grossmann (1932), *Wörterbuch der deutschen und spanischen Sprache in zwei Bänden, Band II. Deutsch-Spanisch*
UZEI1987	*Euskalterm* (UZEI 1987, sarean) http://www.euskara.euskadi.net/r59-euskalte/eu/q91Eus-TermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do
UZEI2004	UZEI (2004): *Maiztasun Hiztegia*
UZEI2006	UZEI (2006): *Atzekoz aurrera. Hitz-bukaeren hiztegia*
WDG	Klappenbach & Steinitz (1985): *Wörterbuch der Gegenwartssprache* (sarean). http://ww-w.dwds.de
ZEH2005	Sarasola (2005): *Zehazki: gaztelania-euskara hiztegia.* (sarean) http://www.ehu.eus/ehg/cgi/zehazki

0 Sarrera

Euskarazko hizkuntza-baliabideak gero eta gehiago eta anitzagoak dira azken hamarkadotan. Hiztegigintza elebakarrean nahiz Hizkuntza Azterketa eta Prozesamenduaren arloko tresnerian, aurrerapauso garrantzitsuak gauzatu ahal izan dira normalizazio batera eta europar hizkuntza handiagoetako artearen egoerara. Euskararekiko hiztegigintza elebidunari dagokionez, antzeko baieztapen bat egin daiteke: aspalditik eta ohikoak ditugun gaztelania eta frantsesarekiko hiztegiez gain, ingelesarekiko zenbait hiztegi garrantzitsu ditugu orain, paperezko argitalpen zein hiztegi elektroniko gisa, eta, egun arte, bestelako zenbait hizkuntza bikote ere landu izan dira maila profesional batean, errusiera, esaterako.

Bestalde, hainbat eta hainbat hizkuntza bikotetarako, ez dugu behar eta irizpide profesionalei erantzungo liekeen argitalpenik: zenbaitetarako, poltsikoko paperezko hiztegia edota glosario arrunta eta laburra besterik ez dugu eskuragarri, eta beste asko erabat landu gabe izan dira egun arte. Egoera hori gainditzeko ekimenak urriak dira oraindik. Hiztegigintza Elebidunean prestakuntza zientifikoa eta dagozkion hizkuntzetako prestakuntza dituzten euskal hizkuntzalarien kopurua murriztua izatea eta argitaletxe komertzial batek horrelako hiztegien salmentatik espero beharko lukeen errentagarritasuna ez lortzea izan daitezke arrazoietako batzuk. Bi arrazoi horiekin lotuta, hirugarren batek ere garrantzia du, zalantzarik gabe: gaztelania edo frantsesa zubi-hizkuntza gisa erabiltzeko ohitura, alegia; hau da: euskarazko edo kanpo-erdara bateko hitz baten ordaina bilatzean, barne-erdararekiko hiztegi elebidun bat erabiltzea. Alemanaren kasuan, esaterako, puntako baliabideak ditugunez gaztelaniatik edo gaztelaniara itzultzeko, hizkuntza-ikasle euskalduna alemana ikastean, itzultzaile euskalduna alemanetik itzultzean, eta baliabide egokirik ezean beste edozein hiztegi-erabiltzaile ere, zubi-erdara batera jotzeko premiaren aurrean aurkitzen da.

Hizkuntza-irakaskuntzan, dilema ezaguna dugu hori; kanpo-erdarak barne-erdara batetik (eta ez euskaratik bertatik) irakasteko eta ikasteko ohiturarekin apurtuz eta irtenbideak eskainiz euskararen normalizaziorako bidean beste urrats bat emateko asmoa dago horrekin lotuta. Alemana euskaratik ikasteko lehenengo testuliburua, adibidez,

2007an argitaratu zen (Reuter & Wolff 2007). Hurrengo urteetan, alemana euskaldunei irakasteari buruzko zenbait ikerlan burutu ziren (Braun 2010; Reuter 2010; Wolff 2010). Horietan ematen diren zenbakien arabera, urtero euskara L1 duten 1330 bat ikaslek hasten dituzte aleman-ikasketak bigarren hezkuntzako esparruan, eta beste 1.000 batek unibertsitateetan eta Hizkuntza Eskola Ofizialetan. Ikasleentzako hiztegi elebidunerako balizko erabiltzaile kopurua, beraz, aintzat hartzekoa da. Beste kanpo-erdara batzuen ikasle kopuruak txikiagoak badira ere, hizkuntza-pedagogia eta hizkuntza-eskubideekin lotutako irizpideak berberak dira.

Euskara-alemana bikoteari begira, egun ez dugu beste hainbat konbinaziotako hiztegien mailarekin konpara daitekeen lanik, ez tamainaren, ez kalitatearen aldetik, nahiz eta hizkuntza bikote horren lanketak hiztegigintzan bi mendeko historia izan.

XIX. mendean, hiru lan zenbatzen ditugu, eta XX. mendeko hasieratik gaur arte, beste horrenbeste. Lan honen lehenengo atalean, gaur arte euskara eta alemanaren artean buruturiko hiztegigintza-lanak ikusiko ditugu. Euskara eta alemanaren arteko sei lan horiek aztertuko ditugu metodo deskriptiboez baliatuta, eta lan berriagoei begira, baita hiztegigintza-kritika baten ikuspegitik, lanak euren garaiko testuinguruan jarriz. Hemen ezin izango dugu azterketa osorik eskaini, baina lan horien edukia gaurko erabiltzaile zein aurretik landutako hiztegietako datu-bildumak erabili nahi dituen hiztegilearentzat noraino izan daitekeen interesgarria galdetuko dugu, lan horietako bat ere formatu elektronikoan eskuragarri ez izan gorabehera.[1] Horietako bati, C.A.F. Mahnen eskuizkribu argitaratu gabeari (MAH1840), arreta berezia eskainiko diogu: haren edukien jatorria zehazteko saiakera bat egingo dugu, baita eduki horiek formatu digital batean editatzeko proposamena egin ere, edizioa euskararen Hiztegigintza Historikoan baliotsua izan daitekeelakoan.

Lan honen bigarren atalean, metalexikografiaren zenbait oinarrizko kontzeptu ikusiko ditugu, erabiltzailearen ikuspegiari lehentasuna emanez: gaurko hiztegigintza elebidunak, lanabes elektronikoez baliatzen den eta argitalpen elektronikoak egiten dituen horrek, zer eskaintzen digun ikusiko dugu.

---

[1] Charpentierren hiztegia (CHA2002 [1823]) B. Hurchek, eskuizkribua editatu duenak, eskuragarri jarri dit testu-fitxategi gisa. Alabaina, hiztegi hau beste arraozi batzuengatik horrelako erabilpen baterako ez da egokia, XIX. mendeko Behe-Nafarroko formak ditu-eta, kasu askotan gaurko Euskara Batutik urrun gelditzen direnak.

Aro digitalaren aurreko hiztegi elebidunean garrantzia zuten arazo filologikoek, noski, eta ez dute gaurkotasunik galdu, ondorengo gogoetak erakusten digun bezala: hiztegi elebidunak hizkuntza bikote bakoitzari egokiturik garatu behar dira, bikoteko kideen berezitasunak behar bezala kontuan hartu eta bigarren hizkuntza batean modu egoki batean islatu ahal izateko. Hirugarren zubi-hizkuntza batetik abiatzeko beharrak, hiztegi-erabiltzaile euskaldunari, esan bezala, ezaguna zaion oztopo horrek bide luzeagoa eta deserosoagoa ibili behar izatea esan nahi du, eta, gainera, kasu askotan ez du emaitza zuzenera eramaten.

Aipa dezagun adibide esanguratsu bat. Demagun alemanezko testu batean *heißblütig* adjektiboa aurkitzen dugula; *odolbero* da horren euskarazko ordain bat, hitz-elkartea zatitzean ikus daitekeenez, eta ez bakarrik semantikoki, hitz-eraketari begira ere oso antzekoa baita (ikus 0.1 taula). *Odolbero-heißblütig* bikotearen zentzu metaforikoa, hitzaren bi zatien batuketa hutsa (*odol beroa*) baino gehiago da, irudi bat ematen du, eta hori itzulpenean gordetzea interesatu beharko zaio itzultzaileari.

DE	EU[2]	ES[3]
heiß	(oso) bero	caliente, caluroso, adusto, ávido, tórrido
Blut	odol	sangre
heißblütig	odolbero	fogoso, vehemente, ardiente

0.1 Taula: 'heiß', 'Blut', 'heißblütig' eta itzulpen-ordainak

Orain, gaztelaniazko hiztegietara joz, nekez helduko ginen emaitza horretara. Euskaraz eta alemanez oso modu antzekoan erabiltzen den hitz-elkarte horren gaztelerazko kalkoa, hots, *de/con sangre caliente*, odol beroko animaliak odol hotzekoetatik bereizteko bakarrik erabiltzen da (alemanez *Warmblütler*, euskaraz *odol beroko [animalia]*). Hiztegiak *heißblütig* terminoaren ordain gisa ematen dituen gaztelaniazko proposamenek (*fogoso, vehemente, ardiente*) sei adjektibotara bideratzen gaituzte, ES-EU hiztegian begiratuta, eta ES-DE hiztegian, berriz, 7 adjektibotara, horien artean *heißblütig* dagoelarik. Gure alemanezko testua gaztelaniaren bidez

[2] EAH2007 hiztegiaren araberako ordainak (s.v.)
[3] LEO hiztegiaren araberako ordainak (s.v.)

euskaratuz gero, euskarazko ordainik egokiena bidean galtzeko arrisku handia dago, beraz, eta kontrako norabidean, ere bai.

ES	EU
fogoso, vehemente, ardiente	suhar, kartsu, gogotsu, susper, jorantsu, sutsu[4]
ES	DE
fogoso, vehemente, ardiente	feurig, hitzig, heftig, sehnlich, vehement, ungestüm, heißblütig[5]
EU	ES
odolbero	impulsivo, calenturiento[6]

0.2 Taula: Zubi-hizkuntzatik eta buelta

Beste kasu batzuetan, aldiz, hiru hizkuntzotako metaforak antz handia dute, modu berdinean lexikalizatuta daude, eta itzultzaileari ez zaio zail gertatuko ordainak ezartzea, hala nola *astakeria – burrada – Eselei*, edo goiko gure adibidearen kontrako zuzena: gaztelaniazko *a sangre fría* eta euskarazko *odol hotzean,* biak *kaltblütig* lexemaren ordain egokiak dira. Erabiltzaileak espero dezake haren hiztegiak horrelako erlazioak argitzea.

Homonimiak eta polisemiak hiztegi-erabiltzaileari sortzen dizkion arazoak eta gaizki-ulertzeak – gogora ditzagun *El Corte Inglés* etxeko ”*gizonezko jantziak bigarren landarean*“ edo alemana ikasle batek aurten aurkeztu zidan “*am Wochenende fahre ich in mein Volk*”[7] bezalakoak – korapilatsuak izan daitezke bi hizkuntzen artean, eta zubi-hizkuntza erabiltzeko beharra izanez gero, areagotzen direla onar dezakegu. Homonimia eta polisemia modu egoki batean islatzea hiztegigilearen arazo nagusietako bat da, eta hiztegigintza elebidunean modu berezi batean, iturri-hizkuntzako polisemia beste hizkuntza batean islatzeko bi era baitira: batetik, iturri-hizkuntzaren egituraren araberakoa, hizkuntza horretako hiztegi elebakar batean aurkituko genukeen adiera-

[4] ADO1996: s.v. *fogoso, vehemente, ardiente*
[5] LEO: s.v. *fogoso, vehemente, ardiente*
[6] ADO1996: s.v.
[7] Gaztelaniazko *pueblo* izenak, euskarazko *herri* izenak bezala, alemanez *Volk* izenaz itzul daiteke, *populus/people* adierazten badu; pueblo/herri (*village*) itzultzeko, aldiz, *Dorf* da egokia. Ikaslea ez zen ohartu sareko hiztegiak eman zion ordainen zerrendatik ezin izango zuela edozein hautatu, ez zen ohartu jatorrizko polisemia alemanez modu simetrikoan ematen ote den egiaztatu beharko zuela, gaztelaniaz zein euskaraz, hots, bere L1 hizkuntzetan, izen horrek bi adierok elkarrekin dutelako, beharbada.

sailkapena mantenduz, eta, bigarrenik, helburu-hizkuntzako itzulpen-ordainen araberakoa, itzulpen-ordain bera duten adierak batuz. Iturri-hizkuntzako adiera bat helburu hizkuntzan zatitzeko beharra ere ager daiteke, gaztelaniazko *planta* eta *pueblo* adibideetan ikusi dugun bezala. Horri buruz hitz egingo dugu, eta homografiaren, homonimiaren eta polisemiaren arazoa adibide hartuko dugu lan honetan zehar zenbait aldiz, hiztegi ezberdinen proposamenak aztertzean.

Doktore-tesi honentzako ikerketan, hizkuntzalari konputazional batzuen laguntza eskatu eta jaso egin dugu, eta testuan zehar, hala badagokio, aipatuko ditugu. Hiztegigintza konputazionalaren ezaugarria diziplinartekotasuna da: alde batetik, Hizkuntzalaritza arloko ezagutzak, eta, bestetik, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamenduaren (HAP, edo NLP, ingelesez) alorreko gaitasunak eskuratu behar du hiztegigintza konputazional batean jardun nahi duenak. Bi mundu horietan ikerlariak, literatura eta metodo berezituak ditugu, eta bi munduak uztartzeko ahaleginean aurkitzen dira HAP alorrera hurbildu nahi duten hiztegigileak, eta alderantziz.[8] Lan-erreportaia gisa ulertzen dugun tesi honen bitartez, diziplinak uztartzea erraztuko duen ekarpena egin nahi dugu. Filologiatik datorren hiztegigintza klasiko batean aritu den irakurleari, tesi honetako bigarren eta hirugarren ataletan aurkezten ditugun gogoetak ezagunak izango zaizkio, beharbada; informatikaren arloko azalpenak, ordea, aberasgarriak. HAP alorrean jantzita dagoenari, berriz, arazo eta azalpen filologikoak interesatuko zaizkio, batez ere.

Lanaren hirugarren eta laugarren ataletan, hiztegigintza aplikatura igaro, eta hiztegi elektroniko berri baten ezaugarri eta eduki batzuk zehazten saiatuko gara. Hiztegi berriak zein funtzio bete beharko lituzkeen galdetuko dugu ezer baino lehen: Alemana ikasten duen euskaldunarentzako tresna lagungarria garatzeko asmoa dugu. Funtzio horretarako bete beharko liratekeen irizpideak eta horietan oinarritutako urrats praktikoak aurkeztuko ditugu. Hirugarren atala hiztegi berriaren egiturari eskaintzen diogu, eta laugarrena, berriz, alemana-euskarazko itzulpen-ordain bikoteak definitzeko metodoei, bereziki. Bi atal horietan, metodo automatikoak edo automatiza litezkeenak zein eskuzko lanak izango ditugu hizpide.

---

[8] A. Kilgarriff († 2015) eta M. Rundellek urtero antolatutako *Lexicom* jardunaldiak bi munduak uztartzeko ahaleginaren adibide bikaina dira, bertan bi diziplinako ikerlariak bilduta, elkarren ezagutzatik ikasten baitute. 2013. urtean horrelako *workshop* batean parte hartzeko aukera izan nuen.

Azkenik, doktoretzarako ikerketak burutu ditugun urte hauetan eskuz editaturiko hiztegi-edukiak aurkezten ditugu lan honen eranskinetan.

1 Hurbilketa Diakronikoa: Aurrekariak

1.1 Sarrera

Erdi Aroko bidaiariek eta latinaren eta herri-hizkuntzen arteko itzultzaileek egindako hitz-zerrendak eta glosarioak hiztegigintzaren hastapentzat har daitezke. Aztergai dugun euskara-alemana konbinazioan, 1500. urteko Arnold von Harff bidaiariaren hitz-zerrenda dugu, zenbait euskal hitzen alemanezko ordainak ematen dituena (Mitxelena (1964) bilduman editatua; zerrendari buruz Meyer-Lübke (1900)). Tankera horretako hitz-zerrendek komunikatzeko premiari eta helburu didaktikoei erantzuten zieten, kasu gehienetan garaiko herri-hizkuntza baten hitzei latinezko ordainak emanez, latina nazioarteko kultura-hizkuntza baitzen mendebaldeko Europan.

Schlaeferrek proposatutako alemanezko hiztegigintzaren periodizazioaren arabera (2009: 128hh), XV. eta XVI. mendeetako *Dictionaria Germanicolatina* deritzen lanek lehenengo garai horri bukaera eman zioten. Hortik aurrerako hiztegiak haien funtzioaren arabera diseinatzen ziren sistematikoki, latinaren eta alemanaren arteko itzulpengintza-lanabes gisa balio izateko, adibidez. Hiztegigintzari buruzko gogoeta sistematikoa, gaur lexikologia deitzen duguna, garai horretan hasten da garatzen. Alemana, erromantzeak eta euskara bezalako Europako ”herri-hizkuntzak“ garrantzia irabazi, eta latinarekin batera, ”kultura-hizkuntza“ izaera partekatzen hasiak ziren. Hizkuntza horien gramatika idatziak eta latinetik edota latinera itzultzeko tresna profesionalagoak sortu ziren leku guztietan (Malkiel 2003: 59) Euskara kultura-hizkuntza bihurtzeko bidean aurrerapen handia izan zen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* (1745).

Herri-hizkuntzak kultura-hizkuntza gisa erabiltzen – eta latinaren lekua pixkanaka hartzen – hastearekin bat, Europan zehar hiztegi elebakarrak sortzeko beharra sortu zen. Alemanerako, Grimm anaiek 1837an garatzen hasi ziren *Deutsches Wörterbuch* (Grimm & Grimm 2001 [1854-61]) dugu lan garrantzizkoena. Lan horrek garai berri bati hasiera eman zion hiztegigintzan, eta herri xehearen hizkuntza zenak kultura-hizkuntza estatusa lortzeko pausotzat har daiteke, hiztegigintzaren bitartez ”helburu nazionalak eta kultural-patriotikoak lortzeko“ pausotzat, alegia (Schlaefer 2009: 130).

Alemana bera aztertzen eta bizkortzen zuen hiztegigintza elebakarrez gainera, alemanezko hizkuntzalaritzatik abiaturiko hiztegigintza elebidunak edo eleanitzak ere XIX. mendearen hasieran garapen-urrats handiak egin zituen. Horren haritik, alemanaren eta gaztelaniaren arteko hiztegigintzan XIX. mendeko lehenengo hamarkadetan argitalpen garrantzitsuak izan ziren (ik. Corvo Sánchez 2008). Thiabaut, Motin eta Sachs ziren frantsesaren eta alemanaren arteko aurrekaririk gabeko XIX. mendeko lan handiak egin zituztenak (ik. Rettig 1991), eta ingelesa-alemana konbinazioan, Ludwigek 1717an jadanik argitaratu zuen lehendabiziko hiztegia (ik. Hartmann 1989), Baileyk, Klausingek & Arnoldek 1770eko hamarkadan eta gero Wagner eta Hilpert (ik. Pätzold 1991) autoreen lanek jarraituta. Baina Europako hizkuntza nagusiez gainerako hizkuntza marjinal edo ”exotikoak“ ere, interesgune bihurtu ziren. Haenschek (1991: 2917) aipatzen dituen XIX. mendeko hiztegi eleanitzen artean, alemana-errusiera [1802] eta alemana-greziera modernoa [1837] aurkitzen dira. Alemanaren eta portugesaren arteko lehenengo hiztegia 1811koa da (Welker 2003: 6), eta alemanaren eta hungarieraren arteko lehena, 1856koa (Fejér 1995).

1.2 XIX. mendeko lanak

Jarraian, XIX. mendeko hiru alemanezko lan aztertuko ditugu, eta bereziki, horietan ditugun euskarazko datu lexikoak.[9]

Aurretik agertu ziren hitz zerrendatxoetatik abiatuta, Wilhelm von Humboldt izan zen lehendabiziko ekarpen aipagarria egin zuena haren *Mithridateserako zuzenketak eta eransketak* (1817, itzulp. Gárate (Humboldt 1933a)) lanean aurkitzen dugun alemanez glosaturiko euskal hiztegiarekin, euskara-alemanezko hiztegigintza elebidunari hasiera-puntu nabarmena emanez.

Bigarrenik, Humboldten lanari jarraipena eman nahian, C.A.F. Mahnek hiztegigintza-egitasmo askoz hedatuago bat proposatu zion bere buruari. Haren aurrekari famatuak jadanik erabilitako eta haren ondarean utzitako lanabesez aparte, garaiko beste hainbat iturri ugariz baliatu zen 1840an dataturiko eskuizkribua osatzeko. Mahnek euskal

[9] XIX. mendeko lan horiei buruzko gure ikerketaren lehenengo emaitza batzuk Lindemann (2011; 2012) artikuluetan aurkeztu ditugu; tesi honetako 1. atala oinarri horretatik abiatzen den garapen bat da.

hiztegirik argitaratu ez arren, berak utzitako eskuzko materialak aintzat hartuko ditugu garaiko hiztegigintzaren lekuko gisa.

Aztertuko dugun hirugarren lana Johann von Charpentier-i dagokio. 1820an dataturiko haren eskuizkribuan aurkitzen diren datuak Charpentierrek berak bildu zituen, bost urtez Pirinioetan lan geologikoak burutu bitartean. Eskuizkribua Hurchek & Kerejetak 2002an egindako edizioan dugu eskuragarri.

Humboldten eta Mahnen euskarazko ekoizpen lexikografikoen funtzioa jakin-min filologikoa asetzea zen, neurri handi batean. Europako unibertsitateetan nagusi zen joerarekin bat, hizkuntza guztien katalogorako eta azterketa tipologikorako ekarpen gisa ulertzen dute Humboldtek (Rousseau 2001: 2417) eta Mahnek haien lana; baina lan horiek ez ziren erabilpen praktikorik gabe gelditu: Humboldtek argitaratutako lan nagusiari esker, Charpentier natura-zientzialariak Euskal Herrian bertan burutu zuen ikerketak alemanezko literaturarekin prestatzeko aukera izan zuen. Horrela, ongi jantzita ekin ahal izan zion bere proiektu filologikoari.

Charpentierren jarduera lexikografikoa beste mota batekoa da, hark datuak bere aurrekarien lanetatik bildu beharrean, Baigorrin bildu baitzituen, herriz herri eta hiztunez hiztun. Bilketa horiek bere garaian ez ziren argitaratu, baina lanabes garrantzitsu ditu geroko euskal dialektologia diakronikoak.

1.2.1 Humboldt 1817

1.2.1.1 Humboldt alemanezko euskalaritzan aurrendaria

Johann Christoph Adelung (1732-1806), Saxoniako gortearen aholkularia eta liburuzaina zen. *Mithridates edo hizkuntzen azterketa orokorra eta Aita Gurea ia bostehun hizkuntzatan hizkuntza-adibide gisa* lan erraldoia Adelungen heriotza baino lehen bukaturik ez zegoenez, Johann Severin Vater (1771-1826) teologoa eta hizkuntzalaria izan zen *Mithridates* 1806tik aurrera editatu eta argitaratu zuena, Adelungen *Cantabrisch oder Baskisch* artikulua (Adelung 1809) eta bost euskarazko *Aita Gurea* barne. *Mithridates*en 1809ko bigarren bolumena argitaratzeko orduan, Vaterrek jadanik bazuen Adelungek utzitako euskarari buruzko artikulua hobetzeko asmoa; baina ondorengo edizio batean ekin nahi izan zion hura hobetzeari. Larramendiren lanak ezagutzen zituen berak; baina, ororen gainetik, Humboldten

euskararen gaineko jarduera aprobetxatu nahi zuen (Urquijo, Humboldt (1933b) lanaren hitzaurrean. 13. or.), eta haren 1817ko *Mithridateserako zuzenketa eta eransketak* monografia da eskaera haren erantzuna, *Mithridates* lanaz arduratu zen argitaletxe berak argitaratu zuena. 1809ko *Mithridatese*k alemanaz glosatutako hitz solteak ditu testuan, eta Humboldtek bere lanean erakutsiko zuenez, akatsez josita daude, eta ez dira azterketa lexikografiko baterako aintzat hartzeko multzora iristen.

Wilhelm von Humboldt (1767-1835) bere garaiko hizkuntzalaririk gailena dugu. Lan honetarako, hark euskararen gainean egindako jarduera interesatzen zaigu, eta, bereziki, hiztegigintzari dagokiona. Gramatikaren arloan, euskarari dagozkion zenbait ekarpen garrantzitsu harenak dira, hainbatetan aztertu izan direnak (Gómez 1996; Gómez 2006; Hurch 2003a; Hurch 2003b; Perlick 1992; Vollmann 2000). Antropologian kokatuko genituzkeen testu batzuk ere utzi dizkigu (horietatik osatuena Humboldt 1909). Euskal hizkuntzari eta nazioari buruzko haren ikerketak bilduko zituen idazlan luze bat argitaratu gabe geratu zen (egitasmoaz ik. Humboldt 1812; Mahn 1857a: IX), eta hiztegigintzari dagokionez, 1817ko lanean duguna baino luzeagorik ez zuen argitara eraman.

Goiz piztu zitzaion Humboldti euskararen gaineko interesa. 1799an, 32 urte zituela, ditugu lehenengo aipamen idatziak, Goethe eta Schiller idazleenganako gutun-harremanetan aurkitzen direnak. Hona hemen, adibide gisa, 1799an idatzitako pasartea:

> ”Puntu txikia baina bitxia da Baskonia: berezko hizkuntza primitiboa gordetzen duen Europako herrialde bakarra da, hizkuntza berri oro baino zaharragoa dena, eta beste hizkuntzekin inolako analogia hurbilik ez duena.“ (*apud* Gárate 1933: 8, itzulp. DL).

1.2.1.2 Humboldten hiztegigintza

Alexander, Wilhelmen anaia, Madrilen zegoela aprobetxatuz, urte horretan iberiar penintsulan zehar bidaiatu zuen, eta handik Alemaniara itzuli baino lehen, euskararen gainean azterketa sakonagoak hastea erabaki zuen:

> ”Parisera itzulita, 1800. urteko udan, euskara aztertzen aritu nintzen berriz ere, etenaldi baten ondoren. Beharrezko lanabesez hornitu nintzen: hiztegi inprimatuaz [Larramendi], eta eskuz idatzitako eta Pariseko Liburutegi Nazionaleko bildumetan aurkitzen den beste batez [Pouvreau], eta bertako askorekin hasi nintzen harremanetan [Astarloarekin, besteak beste].“ (Humboldt 1933c: 215, itzulp. DL)

Aztergai dugun 1817ko lanean, Humboldtek haren jarduera lexikografikoak bete beharreko duen hutsunea eta haren metodoa azaltzen ditu:

> ”Larramendiren hiztegia espainol-euskarazkoa da soilik. Hurrenkera horrek hizkuntzalariari laguntza gutxi eskaintzen diolako, nire lehendabiziko ardura zera izan zen: Larramendiren hiztegitik abiatuta beste bat egitea, euskara-espainolezkoa, lehenengoaren erregistro gisa. Hiztegi hori, ondoren, bestelako iturriekin osatu nuen, eta euskarari buruzko nire lanean beti erabiltzen dut.“ (Humboldt 1817: 61, itzulp. DL)

Haren lanabes pertsonalez gain, Humboldtek berak argitara eraman zuen lan lexikografiko bakarra *Zuzenketa eta eransketak* lana dugu (1817: 15–34). Ikus ditzagun adibide batzuk (1.1 lagina):

Usoa, die Taube.
Uste (mit dem Hülfsverbo *izan*), scheinen.
Utsa, hohl, leer; *utsunea,* die Grube; bloſs, *ogui utsa,* bloſses Brot; *utsitu, ustu,* ausleeren. *Utsa,* auch figürl. Mangel, Fehler.
Uzcaldu, binden, anbinden.
Uzquia, eperdia, epurdia, der Hintere.
Uzta, die Ernte.
Yelosgotu, wetteifern, nacheifern.
Yotorra, der Wiederhall, nähmlich der wirklich wiederhohlte Laut. Der Ort des Wiederhalls heiſst *oyarzuna, arribicia* (lebender Stein).
Zabala, weit, ausgedehnt.
Zabarra, langsam.
Zabaya, das Gerüst, die Bühne.
Zagueitu, vegetiren, (ein Pflanzenleben führen).
Zailla, hart, stark.
Zaina, zaya, zaitzallea, zaitzaria, der Wächter, Hüther. Die beyden ersten werden gewöhnlich den Substantiven hinten angehängt. *Arzaya* (von *Ardia*), der Schäfer.

1.1 Lagina: HUM1817:33

Euskal hitzak letra etzanean datoz; hori da bereizketa tipografiko bakarra, paratestuak zein alemanezko ordainek eta azalpenek letra arrunta konpartitzen baitute. Hiztegiaren 600 bat sarrerak alfabetoaren arabera antolatuak dira, erroka: *Utsa* (adjektiboa), *utsunea, utsitu, ustu* eta *utsa* (izena, ”hutsegite“) ”huts“ erroa konpartitzen duten hitzak sarrera berean datoz. Erro baten inguruan kokatuko ildo semantikoa osorik agerrarazi eta bidenabar euskal hitz-eraketari eta etimologiari buruz zerbait adierazteko asmotan, ondorengo adibideen tankerakoak ematen dira:

Iracurri sarreran ematen den informazioa, aditzaren esanahi historiko estuagoa (’[laborea] ”fisikoki“ aletu, garautu‘ eta geroko esanahi hedatuak, ’hautatu, irakurri‘,

Iracurri, auskörnen, aber im physischen Sinn; auslesen, lesen.
Iragoa, vergangen. *Dembora iragana,* vergangene Zeit.
Iratzea, Farrenkraut. *Irailla,* (Farrenkraut-Monath).
Burulla, September.

1.2 Lagina: HUM1817:25

alegia, Larramendiren *desgranar* (LAR1745: I, 278) eta *leer* (II, 38) sarreretan aurkitzen ditugu. *Iratzea* sarreran, *Irailla* 'iratze-hilea' glosatzen du alemanez.

Kasu askotan, Larramendirengandik hartutako euskarazko sinonimoak agertzen dira sarrera-buru baten ondoren. Izenkiak absolutibozko forma mugatuan ematen dira, eta aditzak, partizipioan. Inoiz bestelako adierak datoz, *uste* aditza "mit dem Hülfsverbo *izan*" [*izan* aditz laguntzailearekin batera] agertzearen argibide sintaktikoa, adibidez.

Sarreraren gorputzean ematen diren alemanezko ordainen ortografiak garaiko ohiturei jarraitzen die, eta gaurko ikuspegitik arkaismotzat joko genukeen zenbait grafia agertzen zaizkigu, adibidez: *nähmlich* ['alegia'][10] *blosz* ['soilik'][11] eta *Hülfsverbum*[12] ['aditz laguntzaile']. Izenek genero gramatikala adierazten duen nominatibozko artikulua daramate[13]. Kasu batzuetan, hitz-elkarteak glosatzen (*arzaya* < ardia + zaina), edota literalki itzultzen dira, irakurle alemanak hitzaren eraketa esanahiarekin lotu ahal izateko (*arribicia* (lebender Stein [harri bizia])". Semantikoki oso hurbil dauden euskarazko hitzak inoiz gorputzean datoz, eranskin gisa. Horrela, adibidez, *oyarzuna* eta *arribicia*, Larramendiren arabera "*yotorra* dagoen lekua" adierazten duten hitzak. *Arribicia* hitz-elkartearen alemanerazko glosa salbu, kasu honetan gehitutako adierak ere Larramendiren lanetik hartuak dira, ondorengo faksimile zatiak erakusten digun bezala:

Larramendi, hiztegi honen iturri nagusia, sakonki aztertu du Humboldtek, inolako zalantzarik gabe[14]. Bere bigarren iturritik, hots: Pouvreauren lanetik[15] hartutako adierek

---

10 *h* idaztea lehenengo silabaren bokalaren luzetasuna adierazteko Grimmdarrek (DWB s.v. *nämlich*) jadanik arkaismotzat hartzen dute.

11 *sz* txistukaria, gaur bokal luzeen ondoren *ß* idazten dena, Grimmdarren (DWB) hiztegian, esaterako, oraindik *sz* idazten da oro har.

12 Grimm (DWB: s.v.): *Hilfe / Hülfe* [laguntza]. Gaur onartutako forma bakarra: *Hilfe.*

13 Izenak generoa adierazten duen artikuluarekin batera emateak alemanezko hiztegigintzaren ohitura orokorrari erantzuten dio. Sorterriko alemanak ez direnentzat ezinbesteko argibidea izateaz gain, genero gramatikala adierazteak anbiguetatea saihesten du zenbait homonimoren kasuetan (der Kiefer *m.* ('masailezur') ≠ die Kiefer f. ('pinu'); der Zoll m. ('aduana') ≠ das Zoll n. ('hazbete'); etab.)

14 Larramendiren hiztegiari buruz, ikus Lakarra (1993), Urgell (2004), besteak beste.

15 Pouvreau, Sylvain [1665]: *Euskara-frantses(-latin-gaztelaniazko) hiztegia*. Bibliothèque Nationale, Fond Basque-Celte: MS 7-8, Paris. Ikus hiztegiaren azterketa Lakarra (1995) lanean. Ikus Urquijo

Eco, lugar, ò paraje donde ſe haze, *oyar-zuna*, *arribicia*. Lat. Locus echonem gignens.
Eco, la miſma voz, ò ſonido repetido, *yotorria*. Lat. Echo, us; echo, onis.

1.3 Lagina: LAR1745:I,303

”Nach der Pariser Handschrift [Pariseko eskuizkribuaren arabera]“ oharra dakarte, ondorengo adibidean, esaterako: ”adjektibo gisa ere bai, *bigun*“.

Guria, die Butter. Nach der Par. Handschrift auch als Adject. weich.

1.4 Lagina: HUM1817:24

Era berean, Astarloa-ren *Apologia*-ra edota Harrieten hiztegira eramaten gaituzten aipamenak agertzen zaizkigu dagozkion lekuetan. Aipagarria da *abendua* hila izenaren etimologiari buruzko ohar bat: ”*Abendua*, Astarloaren Apologiaren arabera (394) euskal jatorrizkoa, baina nire ustez ’Advent‘-etik endekatua“.

Euskarazko grafiari dagokionez ere, esan daiteke Humboldtek erabiltzen dituen iturrietan aurkitzen duena islatzen dela. Hasperenaz hasten diren bost lema baino ez dira agertzen: *Haguna, Halsarrac, Haztatu, Hiru, Hitza*; *una(tu)* lexemaren ”lapurterazko“ *huna* aldaera hasperenduna ere agertzen da (HUM1817:27).

Humboldtek ematen duena haren iturri nagusian aurkitzen dugunarekin bat dator. Horren haritik, Larramendirengandik hartutako lexemei dagokienez, hitzen euskalki-eremu ezberdinetan duten erabilera, hots, informazio dialektala, ez dator, haren lanean bezalaxe. Halaber, horren berri izanez gero, Humboldtek informazio dialektala ematen du. *Mamia, muna, muña, una* sarreran, esaterako (HUM1817:27-28), ondorengo glosak datozkigu:

> (*unatu,* ermüden, abarbeiten) (Labort. *huna*), das Mark. Im Lab. Dial. wird *muina* für Mark, *mamia* aber für Brotkrume [ogi-apurra] gebraucht. Die letztere heißt dagegen im Guipuzc. Dial. *apurra, papurra, liperra, pantala.*

Aipagarria da Humboldtek alemanez ordainik ez daukan lexema baten kasuan egiten duena: *Laya* sarreran, ordaina eman beharrean, azalpen entziklopedikoa ematen dio

(1909).

irakurleari, eta sarrerari erantsitako oin-ohar batean *laia* izenaren gaineko ohar etimologikoak gehitu:

> ”*Laya*, lurra lantzeko tresna, sardeak bezala bi adar duena, lurra hedatzeko. *Layatu*, tresna horrekin lan egin. Lan hori elkarren ondoan dauden langileek batera egiten dute. Hortik datoz espainolezko esapideak: Son de la misma laya, klase berekoak dira, esto es de otra laya, hau beste jite batekoa da. Espainolera iragan den hitzaren azalpenek, espainolezko hiztegietan agertzen direnek, metafora deskribatzen dute, eta [etimologia] horren bidez azaldu behar da.“ (HUM1817: 26h, itzulp. DL])

Hiztegi hau Humboldtek bere buruarentzat prestatu zituen lanabes lexikografikoen zati txikia baino ez da. Humboldtek berak idazten duenez (1933c: 215), LAR1745 hiztegiko kopia bat aurkitu zuen, eta, horretaz gain, 1800. urteko udan, Parisen Pouvreauren eskuizkributik datuak kopiatzeari ekin zion. Hortik kopiatutako datu-bildumak gaur Krakoviako liburutegian gorderik daude, Aizpitarteren euskara-gaztelainazko hiztegitik[16] eta euskaraz-frantsesezko lan anonimo batetik kopiatutakoarekin batera. Kerejetaren zenbakien arabera (1997: 4), Larramendirengandik 6.000 bat sarrera kopiatu zituen, baina kopia horiek Humboldten ondasunetatik desagertu ziren, beste zenbait dokumentu bezala (Kerejeta 1997; Hurch 2006). Bestalde, C.A.F. Mahnek eskuizkribu gisan eskuragarri zituen Humboldten lanabes lexikografikoak, eta ondorengo urteetan erabili zituen haren asmoa aurrera eramateko, euskara-alemanezko hiztegia, alegia. Iturri gehiagoren datu lexikografikoak biltzen jardun zuela ikusiko dugu.

1.2.2 Mahn (ms.)

1.2.2.1 C.A.F. Mahn euskalaria

Carl August Friedrich Mahn (1801-1887) hizkuntzalaria eta hizkuntza irakaslea zen Berlinen. Frantsesa, ingelesa, italiera, latina eta grekoa ikasteko metodoen egilea da. Ikerkuntzari dagokionez, etimologia izan zen hark landutako gai nagusia. Besteak beste, 1864ko ingelesezko *Webster‘s* hiztegian (Webster et al. 1864) bildu dira hark proposatuko hainbat etimologia. Euskararen gainean zenbait jardueratan ibili zen, Humboldt baino belaunaldi-erdi geroago, eta hiru argitalpenetan eman zituen haren ikerketen emaitzak (Mahn 1857a; Mahn 1857b; Mahn 1863). Mahn bera euskaldun

[16] 1782 inguruan sortua, Hurch (2002a) lanean editatu eta aztertua.

aktiboa zenaren ebidentziarik ez dago, baina euskararen oinarriak ondo ezagutzen zituen.[17] Alemanezko hizkuntzalaritzan, hamarkada horietako euskalari bakarra zen. Humboldten hastapenei jarraitzea izan zen Mahnen asmoa. Bere kaxa, Berlingo bere bulegotik, eskuragarri zituen material guztiak bildu zituen, eta haren aurretik beste hainbatek bezala, euskararen gramatika eta hiztegia garatzea proposatu zion bere buruari, kasu honetan, alemanez.

> "C.A.F. Mahn salbuespentzat har dezakegu, hark euskarazko hiztegia egiteko asmoa erakutsi baitzuen. Horrez gain, "Denkmäler der Baskischen Sprache" liburuan (Berlin 1857a) eta haren erromantzeari buruzko ikerketa etimologikoetan (1863), ekarpen aipagarriak egin zituen euskararen azterketarako. Bestela, Humboldten ikerketen ondorengo mende-erdian, Alemanian inor gutxi aritu zen hizkuntza hori ikertzen." (Pott 1876, itzulp. DL)

Denkmaeler der baskischen Sprache (1857a) haren lanaren lehenengo zazpi orrialdeak Vinsonek frantsesera itzuli zituen[18] (Mahn 1922) eta Mahnen euskalaritzari buruzko iruzkinaz osatu (Vinson 1922). *Denkmaeler* lanaren lehenengo hamar orrialdeetan, euskaldunen historia, euskalaritzaren garaiko egoera eta euskarazko testu zahar eskuragarrien berri ematen du. Jarraian, Humboldten *Ankündigung einer Schrift* [”idazlan baten iragarpena“] (lehenik argit.: Humboldt (1812), gaztelaniaz Garate (1933) bilduman) ematen du hitzez hitz, haren ustez ordura arte testu horri behar bezalako arreta eskaini ez zitzaiolako. Testu horretan, Humboldtek euskalaritzan egin nahi izan zituen pausoak deskribatzen ditu, gero bukatu gabe geratu ziren Euskal Herriari eta euskarari buruzko monografiaren edukiak izango zirenak, alegia. Mahnek bukatu gabeko egitasmo horren jarraipen gisa ulertzen du bere ekarpena. XX. orrialdetik aurrera, euskararen kokapen tipologikoari buruzko gogoetak ematen dira, alemanaren hizkuntzalaritzako lanak aipatuz (Steinthal 1850, bereziki), eta, ondoren, izen- eta aditz-morfologiaren deskribapena. Sintaxiari eta fonetikari ere kapitulu labur bana eskaintzen die. Euskal erroa arreta bereziaz aztertzen du: hainbat erro mono- eta bisilabikoren adibideak ematen ditu, alemanerako itzulpenarekin batera. Hitz-eraketari dagokionez, faktitiboaren *-ra-* morfema hautatzen du adibide, eta Astarloaren (1805) lanean agertzen diren azalpenak ematen ditu laburbilduta.

---

[17] Coseriu-ren arabera, Mahn Steinthal-en ”euskara-irakaslea“ zen (Coseriu 2002: 30).

[18] Vinsonek 1922an *RIEV*-en argitaratutako itzulpenak ”a suivre“ oharrarekin amaitzen du, baina jarraipenik ez du izan.

Egun arte horren itzulpenik eskuragarri ez dagoenez, hemen *Denkmaeler* lanaren gramatika ataleko izenburuak euskaraz ematen ditugu, Mahnek ezarritako paragrafo-zenbakien arabera (Mahn 1857a: XXIII–LVI):

1. Forma semantikoaren eta forma fonetikoaren harremana
2. Eransletasuna eta flexioa: konparaketa tipologikoak
3. Erroa, izenaren eta aditzaren deribazioa
4. Izenaren eta izenordainaren ”flexio eranslea“
5. Aditz-flexioa
6. Fonetika
7. Azentua
8. Erro mono- eta polisilabikoa, konparaketa tipologikoak
9. Hitz-eraketa, deribazioa
10. Atzizkiak
11. Hitz-elkarteak
12. Sinonimo-kutxaren aberastasuna
13. Genero gramatikalaren eza izenean
14. Genero gramatikalaren eza adjektiboan
15. Singularra eta plurala izenean
16. Dualaren eza
17. Konparatiboa eta superlatiboa
18. Artikulu mugatua ”-a“ eta ”bat“ zenbatzailea artikulu gisa
19. Izenordain erlatiboak
20. Hitz-hurrenkera
21. Euskarazko etimologiak erromantzeetan
22. Konparaketa tipologikoa euskara-sanskritoa
23. Aditza II: zenbait aditz sintetiko (”era zaharra“) eta aditz perifrastikoa (”berriagoa“)

Zenbaki arabiarrak daramatzaten 80 orrialdeak euskarazko testuen edizioari dagozkio. Mahnek hainbat iturritatik biltzen ditu, ”Testamentu Berria, Rochellon, Pierre Hautin 1571“ eta ”The Bonaparte Polyglott, London 1857“ erreferentzia bibliografikoak daramatzatenak, besteak beste. Latinezko eta grekozko testu klasiko batzuen itzulpenak

ere badatoz, Garibairen errefrauak 1etatik 63ra, Oihenarten ”Atsotizac eta Refraüac“ [1657] 541. zenbakiraino, eta, azkenik, hainbat kantu eta bertso.

1.2.2.2 Eskuizkribua

Mahn 1887an zendu zen. Aztergai dugun eskuizkribua 1889. urtean Prusiako Liburutegi Errealera (gaurko ”Staatsbibliothek Preußischer Kulturbesitz“) iritsi zen, ”aus Mahn‘s Nachlaß (Steglitz)“, hots, Berlingo Steglitz auzoko Mahnen etxean gordeta zeuden ondasunetatik. Liburutegian, 1840. urtearekin dataturik gordetzen da. Data hori, ikusiko dugunez, ez da egokia, beranduago argitaratutako iturri bat aipatzen baita bertan, van Eysen *Essai de grammaire de la langue basque*, alegia (1. arg. 1867). Garatek bazuen eskuizkribuaren berri:

> ”Del lingüista Mahn hay en la “Collectánea lingüística de Berlín” un diccionario manuscrito de la lengua vasca, con numerosas adiciones de otras fuentes; es muy considerable y lleva la fecha de 1840 (Quart, 79).“ (Garate 1936: 54)

Eskuizkribuari dagokionez, ikerketa sakonenak M. J. Kerejetari zor dizkiogu. Humboldten desagertutako lanabesen, eskuetan daukagun eskuizkribuaren iturri direnen gainean eta Mahnen ondarean aurkitutako eskuizkribu honen historiari buruz, honela dio Kerejetak:

> ”Humboldt cita repetidas veces una copia-inversión del diccionario de Larramendi llevada a cabo por él, por ejemplo en *Berichtigungen* y en *Quellen*, entre otras. Y da incluso el número exacto de páginas que contenía: ’auf 177 Quartseiten ungefähr 6000. Wörter enthält‘ (Quellen.: 18, Gárate (1933): 138). Desgraciadamente parece haberse perdido sin remedio de su legado. Esta inversión del diccionario de Larramendi aparece sin embargo también citada en una enumeración de materiales utilizados en la confección de un voluminoso diccionario (ms.) vasco (lengua original de la fuente utilizada) hallado recientemente en Berlin en el legado de Mahn, cuya autoría no está aún establecida. Lo que sí es patente es que el autor o autores utilizaron profusamente los materiales y trabajos manuscritos inéditos de Humboldt, entre otros, esta inversión del diccionario de Larramendi que ya no se encuentra por ninguna parte y de cuyo extravío fueron seguramente causantes.“ (Kerejeta 1997: 4)

Izenburu honetaz hasten da eskuizkribuaren lehenengo orrialdea, eta, bertan, jadanik lehenengo argibidea aurkitzen dugu, eskuizkribuaren oinarria noren lana den, hain zuzen ere:

> ”Diccionario Bascuence-Castellano para servir de Indice al Diccionario trilingüe Castellano-Bascuence y Latin del Padre Manuel de Larramendi. Dialecto Guipuzcoano. Acabado en Paris el mes de Julio 1801.“ (MAH1840:1)

Humboldtek hiztegigintzaren arloan egin zituen urratsak aurkitzen ditugu bertan. Antza denez, eskuizkribuaren 461. orrialdetan zehar, Mahnek[19] Humboldtek 1801. urtean Parisen egindako apunteak kopiatu zituen: Pouvreauren eta Larramendiren hiztegietatik hartutakoa, aldatutako hurrenkeran, euskaratik abiatutako hiztegia sortzeko asmoari erantzunez. Aurreko kapituluan aipatu dugun bezala, Larramendiren lana kopiatu izanaren eta erabiltzen zituen bestelako lanabesen berri dugu, Humboldtek berak zenbait aldiz aipatzen dituelako; baina haren ondarean hiztegigintza-jarduera horren emaitzarik ez da agertu, eta galdutzat ematen zuten ikertzaileek (Hurch 2006: 6; Kerejeta 1997). Alabaina, badirudi Humboldten lanabes galduen parte bat eskuetan daukagun Mahnen lanaren funtsa dela, hain zuzen ere.

Goian aipatutako gaztelaniazko izenburupean, Humboldten hitz-zerrenda agertzen da, beste hainbat iturritako hitzekin osatuta. Badirudi Mahnek Humboldtek berak idatzitako hitz-zerrenda baten gainean lan egiten zuela, hots, Humboldten idazkuna hartu eta bestelako iturrietako hitzak tartekatu zituela. Eskuizkribua osorik Mahnek idatzi izanaren ebidentziatzat ondorengoa hartzen dugu: alde batetik, eskuizkribu guztian zehar, grafia berbera dela ematen du. Bestetik, hitz-zerrendan aurkitzen dugun lerroarteneurri handiak eta alfabetoaren hizki bakoitzak amaitu ondoren utzitako tarte zuriek pentsarazten digute egileak Humboldten zerrenda hasiera batetik oinarri gisa ulertu, eta, bigarren pauso batean, bestelako iturrietako hitzekin osatu zuela. Hona hemen (1.5 lagina) zentzu horretan esanguratsua den zati baten faksimilea.

1.5 Lagina: MAH1840:55

Iturriaren aipamenik ez duten gaztelaniaz glosaturiko *Arrantzitu* eta *Arraparia* sarreren artean, *Arrapa, arrapatu* sarrera agertzen da txertaturik, alemaneko ordainarekin, latinezko etimologiarekin eta iturriaren aipamenarekin batera: ”Adel. Mithr. 13“, hau da, Adelung (1809: 13). *Mithridates* lanean, *arrapa, arrapatu* sarrera era

[19] Kerejetak (1997) eta Hurchek (kom. perts.) Mahnen egiletasuna zalantzan jartzen dute. Eskuetan daukagun eskuizkribuaren egile(ak) zehazteko, beharrezkoa izango litzateke ikerketa grafologikoak egitea.

berean ematen da, aipatutako lekuan. Larramendiren hiztegian begiraturik, espero genitzakeen sarrerak aurkitzen ditugu: ”arrebozar manjares *arrantzitu, arrantzindu*. Lat. Gibos ovis, ac farini incrustare“ (LAR1745:I,98), eta ”pillador *pillazalea, arraparia, lapurra, ohorna.* Lat. Prædator.“ (LAR1745:II,172).

Ustez Humboldtena den zerrendan, Larramendiren eta Pouvreauren lanetik hartutakoak baino hitz gehiago agertzen dira. Hitz-zerrendaren hasieran, iturri horien aipuak datozkigu, laburdura-indize gisa. Eta iturri horiek guztiak Humboldtek erabiltzen zituela badakigu (ik. Humboldt 1933b). Beraz, eskuizkribuaren 1. eta 2. orrialdeetan agertzen zaizkigun eta oraintxe aipatuko ditugun iturri-laburdurekin glosatutakoa ere Humboldten beraren lana dela uste dugu, eta hipotesi berari jarraitzen dio Kerejetak. 1.1 taulan, Humboldten iturri-aipu horiek ematen ditugu:

Laburd.	***Erreferentzia***
I.	Humboldten beraren ”Vaskische handschriftliche Wörterbücher“ [eskuz idatzitako euskal hiztegiak]
II.	Humboldten beraren ”Vaskische Collectanea I. S. 1-290“ [Euskal bilduma I.]
A.	”Mein aus Larramendi gemachtes W.B.“ [Larramendirengandik egindako nire hiztegia]
C.	”Harriets Grammatik“ (Harriet 1741)[20]
D.	”der [...] Manuskript“ [irakurgaitza][21]
E.	*Règle de déclinaison de la langue Basque* (Anonymus), (ed. Hurch 2002)[22]
B.	*Dictionnaire de la langue Basque expliqué en Français* (Pouvreau)

1.1 Taula: Humboldten iturriak: Laburdurak

Mahnek, bere aldetik, 1801 baino lehenago zein geroko bestelako iturri batzuetatik hartutako hitzak gehitzen ditu, iturri-laburdurak glosatu gabe. Ondorengo 1.2 taulan,

[20] Harrieten gramatikarekin batera argitaratutako hiztegia 1995ean editatu zen (Lakarra 1995a).

[21] ”algo que cita como ’der biscayische Manuscript‘, probablemente el vocabulario ms. de Astarloa“ (Kerejeta 1997: 4)

[22] *Règle de la déclinaison Basque* eskuizkribua, Humboldtek erabiltzen zituen iturrietako bat, haren lanetan zenbait aldiz aipatzen da, honako izen honen pean: *Table des choses les plus usuelles en guise de Dictionnaire François & Basque pour un François commençant à apprendre le Basque. Quellen und Hülfsmittel zum Erlernen der baskischen Sprache* lanean (ms. 1815, itzulp. Garate [Humboldt 1933c]), Humboldtek aipatzen du, norbaitek, ez duela gogoratzen nork, Euskal Herrian bertan eman ziola. Lanean dioenez, eskuz idatzitako frantses-euskarazko hiztegiaren edukiak haren hitz zerrendetan jaso zituen noizbehinka, apala eta bukatu gabea izan arren, ”hainbat hitz beste inon agertu eta beste batzuk beste inon baino hobeto azaltzen direlako“ (*apud* Hurch 2002: 216-17, itzulp. DL). Hurchek eskuizkribua editatu zuen lehenik, (2002c) bilduman.

erabiltzen dituenetatik deszifratu ahal izan ditugunak ageri dira, horietako zenbait guk geuk glosaturik. Humboldtek jadanik erabilitako Larramendi eta Harriet iturriak hemen ere agertzen zaizkigu. Horrek bi hipotesi ahalbidetzen ditu: Mahnek Humboldten zerrendan agertzen zitzaiona haren laburduraz glosatu izana, edota Humboldten zerrendan ez zeuden hitz batzuk aipatutako iturrietatik Mahnek hartu izana. Mahnek hitz bera hainbat iturriren aipuen bitartez jasotzen du kasu askotan.

Laburdura	***Erreferentzia***
(Ast.) Apol. / Ap.	Astarloa 1802 (”Apologia“)
Adel. Mithr.	Adelung 1809 (”Mithridates“)
Bullet. / Bull.	Bullet 1754-60[23]
Drg	Darrigol 1827[24]
Erro mund.	Erro 1815
Et.	
Eys	Eys 1867 [1865]
Faur. / Fauriel	*Claude Fauriel (1772-1844)[25]
Gb. Mult.	
Gb. unlf.	
Gr.	
Harr.	Harriet 1741
Larr.	Larramendi 1745 (Hiztegia)
Larr. Prol.	Larramendi 1745 (Hitzaurrea)
Lecl.	Lecluse 1826[26]
Mithr.	Humboldt 1817 (”Mithridateserako zuzenketak“)
Oih. prov.	Oihenart 1657 (”Atsotizac eta Refraüac“)[27]
prov. voc.	
Ramos.	
Voss etym.	Vossius 1662

1.2 Taula: Humboldt/Mahn: Iturriak

Eskuizkributik hartutako adibide horretan (1.6 lagina) agertzen zaigun aipua Darrigolen lanean era berean agertzen da (Darrigol 1827: 20).

[23] *Dictionnaire Celtique* atalean (II. lib., 1-5. or.) euskarazko hitzak daude, Bulleten ustez euskara hizkuntza zeltikoa zelako (ikus Igartua 2009).
[24] Darrigolen gramatikaz ikus Gómez (2008).
[25] Euskara zenbait aldiz aipatzen duen Faurielen lan nagusia (1846) *post mortem* eta eskuetan daukagun eskuizkribuaren dataren ondoren argitaratu zen. Ezin izan dugu zehaztu Mahnen aipuak zein lanari dagozkion.
[26] *ASJU* aldizkariko *separatum* batean editatua (Lakarra & Urgell 1988).
[27] Ohienarten lanari dagokionez, ikus Urkizu (1994).

Luzatcea alonger, prolonger. H.
Luzea da il est long. Lecl.
Luzeeunza longitude. Lecl.
Luzamendua retard. Lecl.
Luzatcea prolonger, différer. Lecl. allonger. H. Lecl.
Luzatugabe sans délai. Lecl. rallonger. Lecl.

1.7 Lagina: MAH1840:338

Lécluseren hiztegitik Mahnek hitz asko eta asko hartzen ditu, batzuetan bakarrik eta beste batzuetan taldeka dagokion orrialdean txertatuz. 1.7 laginean haren metodoari jarrai diezaiokegu: Harrietengandik hitz bat kopiatu eta gero (*luçatcea*), hitz horren familia-edo beste iturriarekin osatzen du beste iturriak baliatuz, kasu honetan Harriet eta Lécluse. Lécluseren hiztegian begiratuta (Lakarra & Urgell 1988: 140), hitz horiek aurkitzen ditugu zehazki.

Ygás antaño Gr. 331. el año pasado. Eys 8.
Luzatu estirar. crecer. Elargi. Eys 2

1.8 Lagina: MAH1840:287,339

Willem J. van Eys autorearen *Essai de grammaire de la langue basque (1. arg. 1865, 2. arg 1867)* lanetik hartutako hitz batzuk agertzen dira eskuizkribu honetan. Beraz, eskuizkribuak 1840 baino beranduagoko idatzaldiak izan ditu, eta horren data, dagozkion aipuetan eta Berlingo liburutegiko katalogoan orain arte 1840 izan dena, 25 urte beranduago ezarri beharko litzateke, gutxienez. Ikus ditzagun bi adibide, Mahnen eskuizkribuan (1.8) eta Eysen lanaren 1867ko bigarren edizioan (1.9). Iturriaren edukiak eskuizkribuko oharrekin bat datozela ikus daiteke. Kasu batean, Mahnek fransesezko ordaina (*l'année dernière*) gaztelaniaz jaso du (*el año passado*), beste kasuan, aldiz, bere horretan kopiatu du.

Igaz, l'année dernière

luzatu, élargi

1.9 Lagina: Eys 1867:8;2

Eskuetan daukagun eskuizkribuak zirriborro baten ezaugarriak ditu oro har. Zuriz geratutako tarteak, behin eta berriz antolatutako sarrerak eta urratu asko eta asko aurkitzen ditugu. Argi dago Mahnek garaiko euskalaritzako literatura ondo ezagutu eta sakonki aztertu zuela. Eskuizkribuaren kopurua ikusita, 461 orrialdeetan antolatutako milaka sarrera, Mahnek hiztegigintza-proiektu handia prestatzen zuela ematen du, haren aurrekarien edukiak bilduz ordura arteko lanak kopuruz gaindituko zituzkeena.

1.2.2.3 Eskuizkribua editatzeko prolegomena

Eskuizkribua era digitalean editatzeko lanetan abiatzeko proposamena aurkezten dugu. Azken urteotan *Digital Humanities* izenpean zabaldu den diziplinan, garai batean eskuizkribu edo inprimatutako testu gisa aurkeztu ziren dokumentuak anotazio semantikoak dituen formatu elektronikoetan editatzen dihardute. Horretarako, TEI *xml* formatua erabiltzen da batik bat, edizio digitalak gauzatu eta mundu akademikoan trukatze aldera, editorea bera ez den beste edozeinek ulertu eta lanabes gisa hartu ahal izateko, egun arte garatu den proposamen egokiena eta hedatuena baita (Pierazzo 2011: 473). TEI P5 formatua (ikus TEI Consortium 2015) testu arrunta *xml* elementu eta argumentu gisa islatu eta elementu horiek hierarkia batean elkarrekin erlazionatzeko modu zehatza da.

1.10 Lagina: MAH1840:373

Jarraian, MAH1840 eskuizkribuaren lagin bat ikusiko dugu TEI P5 *xml* formatuan islaturik (1.1 irudia), Euskara Batuko *hodei* lemari dagozkion eskuizkribuaren sarrerak dituena: *hodea* eta *hodeia* (eskuizkribuaren H letrari dagokion 275. orrialdekoak), eta *odeia, edoya, hodei, orz, horz, odei, hedoi* eta *edoi* (O letrari dagokion 373. orrialdekoak, ikus 1.10 lagina). Elementuen eta argumentuen izenak TEI P5 estandarreko ingelesezko laburdurak dira. Eskuizkribuko sarrerak Euskara Batuko lema banarekin lotzea proposatzen dugu, 1.1 irudian islatzen dugun legez: aipatutako forma guztiak *hodei* <*superEntry*> batean baturik datoz. Horrela, eskuizkribuko datuetan Euskara Batuko lemaren araberako bilaketak egiteko gauza izango ginateke, baita eskuizkribu horren edukiak euskarazko beste hainbat baliabide lexikoren edukiekin lotzeko ere. Jokabide hori *hiztegi-corpus* (*corpus lexikográfico*[28]) izenpean ezagutzen dugun hiztegien sarea eraikitzeko metodoa dugu, hain zuzen ere: gaurko estandarra den *super-lema* baten azpian hiztegi ezberdinetako sarrera-buruak (eta horien azpian, sarrera horien edukiak) batzea.

Ikusten denez, bi sarrera mota ezberdintzea erabaki dugu proposamen honetarako: ezkerrean datozen sarrera arruntak, ustez lehenengo idatzaldi bati dagozkionak (*entry type="main"*), eta ustez geroago gehitu direnak (*entry type="supplemental"*). Sarrera motarekin batera, horren kokapena orrialdean adieraztea erabaki dugu (*ezk/ezk-erd/esk-*

[28] Vigoko unibertsitatean landu duten galegozko hiztegi-corpusa, esaterako, honako helbide honetan eskuragarri dago, eta galegozko hainbat hiztegiren edukiak ikus daitezke bilaketa bakarra eginez: http://sli.uvigo.es/DdD/. Alemanari dagokionez, Triereko Unibertsitatean garatzen duten *Wörterbuchnetz* ataria ("hiztegien sarea") antzeko ekimena dugu, garai ezberdinetako hainbat hiztegiren edukiak lotzen eta bilaketa-emaitza bateratuak eskaintzen dituena: http://woerterbuchnetz.de/.

```xml
<superEntry>
   <form><orth type="Hiztegi_Batua">hodei</orth></form>
   <entry type="main" facs="275">
      <form type="ms_sarrera" location="ezk"><orth type="ms">Hodea</orth></form>
      <cit type="translation" xml:lang="fr"><orth type="ms">nuée</orth></cit>
   </entry>

   <entry type="supplemental" facs="275">
      <form type="ms_sarrera" location="ezk-erd"><orth type="ms">Hodeia</orth></form>
      <cit type="translation" xml:lang="es"><orth type="ms">nubes</orth>
         <bibl>Halku.Ag.<biblScope>1, 9</biblScope></bibl>
      </cit>
      <note>Larr. Odeia</note>
   </entry>

   <entry type="main" facs="373">
      <form type="ms_sarrera" location="ezk"><orth type="ms">Odeia</orth></form>
      <cit type="translation" xml:lang="es"><orth type="ms">nube</orth></cit>
   </entry>

   <entry type="supplemental" facs="373">
      <form type="ms_sarrera" location="ezk-erd"><orth type="ms">edoya</orth></form>
      <cit><orth type="ms">osá</orth></cit>
   </entry>

   <entry type="supplemental" facs="373">
      <form type="ms_sarrera" location="ezk-erd"><orth type="ms">hodei</orth><bibl>Eys</bibl></form>
      <form type="ms_sarrera" location="ezk-erd"><orth type="ms">orz</orth><bibl>Eys</bibl></form>
      <form type="ms_sarrera" location="ezk-erd"><orth type="ms">horz</orth><bibl>Eys</bibl></form>
      <form type="ms_sarrera" location="ezk-erd"><orth type="ms">odei</orth><bibl>Eys</bibl></form>
      <form type="ms_sarrera" location="ezk-erd"><orth type="ms">hedoi</orth><bibl>Eys</bibl></form>
      <form type="ms_sarrera" location="ezk-erd"><orth type="ms">edoi</orth><bibl>Eys</bibl></form>
   </entry>
 </superEntry>
```

1.1 Irudia: Mahn eskuizkribuaren "hodei" lemari dagozkion sarrerak, TEI *xml* formatuan

erd/esk). Horrela, eskuizkribuan aurkitzen ditugun sarrerak motaren edota kokapenaren arabera sailka daitezke, beste zenbait lemategirekin konparatu ahal izateko, ezkerreko zutabeko sarrera "arrunt" horiek LAR1745 hiztegiko euskarazko lemategiarekin konparatzeko, adibidez. Bestetik, erreferentzia bibliografikoen araberako zerrendak erauzi ahalko ditugu banan-banan –Wilhelm van Eys autoreari lotzen zaizkionak, esaterako–, erreferentziok <*bibl*> elementu bati esleitzen dizkiogueta.

Proposamen honekin digitalizatzeko hastapen bat besterik ez dugu eskaintzen, datuak era digitalean islatzeko aukerak eztabaidatu, eta, ondoren, edizio-lanari ekin ahal izateko.

Bestetik, eskuizkribuko lagin batean aurkitzen diren euskarazko formak transkribatzeko saioa egin dugu. 372. orrialdetik 378. orrialdera, hauek dira O hizkiari dagozkion lehenengo zazpi orrialdeetan aurkitzen diren euskarazko formak zerrendatu ditugu, eskuizkribuan bildutako formen aberastasuna irudikatzeko. Formak dituen 7.1 taula eranskinetan aurkitzen da.

1.2.3 Charpentierren eskuizkribua

1.2.3.1 Charpentier geologoa euskalari

Johann von Charpentier (1786, Saxonia - 1855, Suitza) geologoa zen berez, eta diziplina horretan hainbat lan garrantzitsu egin zituen, Pleistozenoko glaziarren eraketaren gainean bereziki (Grapes et al. 2008: 118). Bost urteko egonaldi baten bitartean Pirinio mendikateaz egin zuen lanaren emaitzak ondoren frantsesez argitaratutako Pirinioen geologiari buruzko monografia luzean bildu zituen (Charpentier 1823a). Euskararen gaineko jakin-mina piztu zitzaion, eta Humboldten *Zuzenketak* (1817) lana irakurri zuen. Pirinioetako iparraldean burutu zuen euskarari buruzko idazlan bat, orain aztergai daukagun 1823ko eskuizkribua, honako izenburu luze hau daramana: *Paradigmen Baskischer Declinationen und Conjugationen, nebst einem kleinen Wörterverzeichnisse, in der zu Saint Etienne (Donostiÿ) Hauptdorf des Thales von Baigorrÿ bei Saint-Jean-Pied-De-Port üblichen Mundart.* [Euskal deklinazio eta konjugazio-paradigmak, eta hiztegi laburra, Done Sebastiane (Donostiÿ) herrian, Donibane Garazitik gertu dagoen Baigorri ibarreko herri nagusian, ohikoa den dialektoan].

Euskarari buruzko lanak filologiari dagozkion bakarrak dira, Charpentier diziplina horretan bestela aritu ez baitzen (Hurch 2002b: 119).

Humboldtek Charpentierren eskuizkribua jaso zuen, baina beranduegi haren lanetan kontuan hartu ahal izateko. Humboldten ondarean aurkitu zen eskuizkribuaren kopia Bernhard Hurch-ek eta Mari Jose Kerejetak egindako edizioaren oinarria da (Charpentier 2002). Genevako liburutegian beste kopia bat dago, guk Ricardo Gomezek daukan kopian ikusten dugunez eta Hurchek (kom. perts.) egiaztatzen duenez, editatuko bertsioaren berdina hitzez hitz. Genevako liburutegiko kopiak *Premier Dictionnaire de la langue basque par le géologue Jean de Charpentier, vers 1820* titulua darama, ustez liburutegiak ezarria.

1.2.3.2 Eskuizkribua

Eskuizkribuaren lehenengo atala gramatikari dagokio. Euskal fonetikaren berri eman ostean, deklinazio-paradigmak ematen ditu Charpentierrek. ”Artikulu mugatuaren deklinazioa“ kapituluetan nominatiboa (gaurko ergatibo eta absolutibo kasuak

adierazteko Humboldtek lanean erabilitako ”nominatibo egile“ eta ”nominatibo jasaile“ terminoak aurkitzen ditugu bertaen), genitiboa, datiboa, akusatiboa, bokatiboa eta ablatiboa biltzen ditu. Charpentier ez da ohartzen *nominatibo jasaile* eta *akusatiboa* eta *bokatibo*ren berdintasun funtzional eta formalaz, eta hiru izenpeetan ematen ditu dagozkion formak. Partitiboa nominatibo gehi artikulu mugagabe gisa interpretatzen du, hots, latinezko kasu-sistema du oinarri, aurreko eta garaiko gramatikariek izan ohi zuten bezalaxe, Humboldt (1817) barne. ”Postposizioak“ atalean, deklinabidearen gainerako paradigma batzuk ematen ditu, alemanez glosatua: *-an/-etan; baithan; -at, -rat, -tara; -eco; -quin; -gaindi*. Zenbatzaileak eta izenordainak zerrenda gisa ematen ditu kapitulu banatan, erabilerari buruzko oharrekin eta alemanezko itzulpenekin batera. Berriz ere Humboldten laneko terminologia[29] erabiliz, aditzaren ”konjugazio erregularra“ (perifrastikoa) eta ”irregularra“ (sintetikoa) deskribatzen ditu. Charpentierrek Baigorri ibarrean erabilitako adizkiak haren kabuz bildu eta aditzaren gaineko kapituluan ematen ditu, zerrendetan.[30]

1.400 bat sarreratako corpusean, izenena da talde osatuena. Adjektibo gisa interpreta daitezkeen izenkiak gehienetan adjektibo gisa (*ciquina*, schmutzig, Charpentier 2002:161; *erguela,* einfältig, 162), batzuetan izen gisa (*hilla,* der Todte, 166) eta inoiz bi gisatan glosatzen dira (*ecin hilla,* das was nicht sterben kann, unsterblich, 161). Zenbait adizlagun agertzen dira (*gaisqui,* 164), eta zenbait izenki, adjektibo gisa azaldu ondoren, adizlagunaren *-qui* atzizkiarekin agertzen dira, alemanez adizlagun gisa glosatuta (*emea*, *emequi,* 162).

Tankera ezberdinetako hitz-elkarteak agertzen dira (*Biscarmakhurra*, 159; *Guiçonhilçaila*, der Mörder, 165; *Iguzquihaicia*, der Ostwind, 168, *Cembaitaldiz*, 160), eta hainbat atzizki ere bai, 1.11 laginean islatzen den eretan:

[29] Termino horiek Larramendirengandik hartu zituen Humboldtek.

[30] Eskuizkribuaren gramatika-atalaren azterketa sakonago baterako, ikus Hurchen (2002b) kapitulua (edizioaren hitzaurrea).

-çaila: Ferraçailla, 163, *Guiçonhilçaila,* 165
-çaina: Baratçaina, 157
-daria: *Gueçurdaria,* 165
-tassuna: Eritassuna, 163, *Handitassuna,* 165
-mena: Goçamena, 164
-dura: *Çoladura*, 161
-goa: Cilhequigoa, 160
-(k)eria: Ciquineria, 161
-aria, *Edaria,* 161
-gaÿa: Emaztegaÿa, 162
-bidea: Eguinbidea, 162

1.11 Lagina: CHA2002 laneko laginak

Charpentier natura-zientzialaria zela corpusean islatzen dela esan daiteke; animaliei, landareei eta naturari oro har dagozkien hitzek pisuko garrantzia dute corpusaren barruan. Oro har, natura-zientziaren eta antropologiaren oinarrizko corpus orekatua aurkitzen dugu, XIX. mendeko bizitzaren alderdi batzuen oinarrizko zereginei erantzuten diena, hala nola senitartekoari, lanbideei, kristautasunari eta ohitura herrikoiei.

Çorci, acht.
Çoria, die Laus.
Çoroa, eine Art Sack von Leder.
Çorra, das was man zu thun oder zu geben schuldig ist; die Schuld.
Çoriçaitea, schuldig seyn.
Corroa, streng, genau.
Çucena, ist so viel als *Chuchença*.
Cucussoa, der Floh
Çubia, die Brücke.
Çuhurcia, die Weisheit.
Çura, das Holz, z.B. *Udarecoçura*, Birnbaumholz.
Çurgatcea, saugen.
Çurguina, der Zimmermann, gebräuchlicher ist *maistria*.
Çurubia, die Leiter (wahrscheinlich von *çura* und *bidea*;
auch *çubia* kann vielleicht eine gleiche Ethymologie haben).
Çurruminoac, die Stechfliegen, auch die Blattern (*la petite verole*).
Cussia, der Vetter.

1.12 Lagina: CHA2002:161

Erakuskari gisa ematen dugun 1.12 laginean ikusten dugunez, euskarazko hitzei alemanezko ordain batek jarraitzen die (aldaera grafiko baterako erreferentzia baino ez da adierazten kasu batzuetan: *Çucena* = *Chuchença*), gehienetan ordain bakarra hitz

bakarrean, eta inoiz esaldi batean. Alemanezko izenak forma artikuludunean ematen dira, bidenabar generoa adieraziz; euskarazko izenak, berriz, absolutibozko forma mugatuan agertzen dira beti. Aditz-izena ematen da euskal aditzari dagokion lema gisa, iparraldeko ohiturari jarraituz, eta infinitiboan alemanezkoa. Zenbait kasutan, frantsesezko ordaina ere datorkigu (*Blattern = veróle, der folgende Tag = le lendemain*).

Ordain hutsaz aparte, sarrera batzuetan erabilerari buruzko oharrak aurkitzen ditugu (*maistria* "maizago erabilia" *çurguina* baino). Charpentierrek haren gogoetak gehitzen ditu zenbait hitzen "etimologiaren" (hitz-eraketaren) gainean (*çurubia* < *çura* + *bidea;* eta, "beharbada", *çubia* < *çura* + *bidea*).

Euskarazko hitzen grafian ere, haren garaiko iparraldeko usadioa islaturik dago, Charpentierrek gaurko *z* txistukaria *ç* idazten baitu. Gaurko *x*, *ch* gisa (*Churia,* 160) eta gaurko *tx*, *ch* gisa idazten ditu (*Jatxa,* 167). Gaurko *ki/ke qui/que* eran agertzen dira, eta gaurko *ka/ko/ku*, berriz, *ca/co/cu.* Hasperenaz hasten diren 130 bat sarrera zenbatzen ditugu. Hitz barruko hasperen dezente idazten ditu Charpentierrek, adibidez: *Chinhauria,* 160; *Chehea,* 160; *Çuhurcia*, 161.

1.3 1968 geroztik argitaratutako lanak

Ehun urte baino gehiagoko tartea igaro eta-gero, 1968an, Arantzazuko bileraren urtean, XX. mendeko lehenengo argitalpena agertzen da euskara-alemanezko hiztegigintza elebidunean. Martin Löpelmannen lana, bitxikeriatzat eta astakeriatzat jo daitekeen arren, ez dugu gure ikusbidetik baztertuko, bi bolumeneko lan erraldoia baita, eta euskara eta alemanaren artean dabilenari liburutegian agertuko baitzaio.

Mende horretan bigarrengoa Kühnelen lana dugu. 1999. urtean, aurrekoek eskura ez zeuzkaten lanabesez baliatu zen autore alemana. Lan hori bi norabideei dagozkien atalak dakartzana da: 75 orrialdeko euskara-alemanezko atalak, 19 orrialdeko euskarazko gramatikari buruzko gehigarriak eta 113 orrialdeko aleman-euskarazko atalak osatzen dute hiztegia, lehendabiziko aldiz alemanetik itzultzeari lehentasuna emanez.

1.3.1 Löpelmann 1968

1.3.1.1 Martin Löpelmann III. Reich-en

Franz Martin Wilhelm Löpelmann (Berlin, 1891-1981) irakaslea, NSDAP alderdiaren kidea eta hezkuntza-politikaria zen. NSDAP 1933an boterera iritsi baino lehen,

Löpelmann auzipetua izan zen zenbait aldiz, errepublikaren kontrako aldarrikapenak eta jarrera antisemita izatea leporaturik. 1933tik aurrera, nazien hezkuntza-ministerioan maila altuko kargua izan zuen, eta hezkuntza-sistemaren iraultza nazional-sozialista zuen xede. 1936an galdu zuen haren postua, ez zuelako bere horretan onartzen haren alderdiaren jarrera[31] haur elbarrienganako.

Löpelmannen erretiro goiztiar behartua haren filologia-jardueren abiapuntua izan zen. Haren 64 argitalpenen artean, ezagunenak ipuin zeltikoez egindako itzulpenak eta edizioak dira, eta berrargitaratuak izan ziren 2000tik aurrera. Euskara ere haren interesgunea izan zen.[32]

1.3.1.2 Löpelmannen "Hiztegi Etimologikoa"

Löpelmannek 1968an de Gruyter argitaletxean argitaratzen duen *Ethymologisches Wörterbuch der baskischen Sprache* hiztegi elebidunak (Löpelmann 1968, LÖP1968) iruzkin txarrak baino okerragoak jaso ditu oro har. Ikus ditzagun bi adibide:

> "Liburu hau fantasia hutsa besterik ez da, eta inolaz ere ez litzateke hartu behar informazio-iturri errespetagarri gisa. Eta autorearen fantasiarik gogokoena sumerieraren eta euskararen arteko lotura da, aukera duen bakoitzean jarraitzen duena. Halako aukerak ez dira berez gehiegi; izan ere, sumerierak, bere erro monosilabiko ugariekin, ez du hain monosilabiko gutxi dituen euskararen antzik, eta Löpelmannek egin dezakeen hoberena ustekabeko antzekotasun saihestezinak seinalatzea da." (Trask 1998: 94)

> "[...] this work is unreliable and downright fanciful. On the one hand, its author shows a peculiar inclination to derive Basque words from Portuguese; on the other, he frequently suggests absurd connections with Sumerian an other improbably remote languages. His fantasies are punctuated by the odd plausible etymology, but the author provides no sources for any of his etymologies, rendering the word almost useless even when it is sober. In short, this volume, in spite of its reassuring title, cannot be trusted and should not be taken seriously." (Trask 1997: 74)

> "Zer azal ederra, zer paper ederra, zer argitalpen garestia horrelako astakeria metarentzat. Aitortu behar zaigu, alemanek eman dizkigutela euskalari hoberenak eta txarrenak." (Peillen 2008: 82)

Lan horri ekiteko, Löpelmann egilearen motibazioa ondorengoa da:

---

[31] Alderdiak haur elbarrituak "bizitzea merezi ez dutenen" artean kokatzen zituen; kontzentrazio-esparruetan eta bestelako lekuetan, milaka eta milaka erailak izan ziren.

[32] Löpelmann ez da jarrera baskofilo azaltzen zuen nazi bakarra, Herbert Briegerrek 1944an egindako "Im Land der Basken" filmak, besteak beste, erakusten duen bezala. Gai horren inguruan, ikus Niebelen tesia (2014).

> ”Euskararen tasuna Europako hizkuntza eransle bakar gisa zuzenki kokatzea, bere historia argitzea, eta, horren bitartez, hizkuntza bitxi horren gaineko misterioa. Aldi berean, uste nuen hutsune hori itxiz hizkuntzalaritzaren beste adar batzuei mesede bat egin niezaiekeela“ (LÖP1968: VII [itzulp. DL])

Tovar autorearen (1959) lanetik abiaturik, Löpelmannek euskararen hizkuntza hamitikoekiko ahaidetasunean sinesten du (*ibid.*: VIII), eta euskal hitzak, maileguak ez direnak eta euskararen berezko ”aitzin-substratuari“ (*Urbaskische Grundschicht*) dagozkionak, jatorri hamitikoak eta ”Afrikatik ekarritakoak“ direla (*ibid.*:XV). Euskara eta iberikoaren arteko ahaidetasunik, ordea, ez du ikusten (*ibid.*:XI); hainbat alemanezko autorek, Humboldtek barne, bai, ordea. Lafonen (1951) eta Bouda-ren (1948; 1949) lanak aipatzen ditu Löpelmannek, baina autore haiek aldarrikatutako euskararen eta hizkuntza kaukasikoen arteko ahaidetasun teoriak haren ustez ”porrot egin du erabat“ (*ibid.*:XIX). Bergerrek proposatzen duen euskararen eta burušaskiaren arteko ahaidetasuna ere ”ez da konbentzigarria“ (*ibid.*:XX).

Ondorengo orrialdeetan, Löpelmannek euskal fonologiari eta gramatikari buruzko oharrak ematen ditu. Fonologiari dagokionez, gaurko euskaran agertzen diren fonemen berri ematen du, eta atala Mitxelenaren (1961) lana aintzat hartu edota aipatu gabe bukatu[33]; beraz, 1968an eskuragarri zuen literatura klasikoa ez du kontuan hartzen.

Gramatikaren atalean, pasarte batzuk aipagarriak dira, euskarazko hiztegi ororen erabiltzaileari lagungarri gerta dakizkiokeenak:

> ”Hiztegian ematen diren hitz-kategorien adierazleak, hots, substantiboa, aditza, adjektiboa, adizlaguna, etab., ezin dira Europako hizkuntza flexiboen edo hizkuntza semitikoen hiztegietan bezala ulertu, hitz-eraketaren lehengaia modu ezberdin batean erabiltzen baita. Adierazle horiek erabiltzeko aukerak besterik ez dituzte adierazten. Euskara hizkuntza eranslea denez, hemen hitza [*Wort*] edo erroa [*Wortstamm*] (termino hori inguru honetan erabiltzea zilegi baldin bada) era batean zein bestean erabil daiteke, eta, beraz, perpausean substantibo, adjektibo, aditz edo adizlagun baten funtzioa izan dezake. Atzizkiek eta perpausaren esanahiak erabakitzen dute hitza zein kategoriakotzat har daitekeen.“ (*ibid.*: XXIV, [itzulp. DL])

Baina ikus dezagun orain Löpelmannen lan lexikografikoaren lagin bat (1.13).

Lagin honetan ikusten denez, hiztegia erroka antolatua da. Bertan, adibidez, *lagun* sarrera-burupean, hitz beraz gainera, *lagun-* hasten diren hitz-elkarteak agertzen dira.

---

[33] XXIX. orrialdean, Löpelmannek zera aldarrikatzen du: ”Hitzen aldaera historikoak ezin dira euskaran bertan eratu“. Mitxelenak (1961) kontrakoa erakutsi zuen, Löpelmannek haren lanari ekin baino dezente lehenago.

Aldaera fonetikoak (*lagün*) ematen dira, eta hitzaren eta hitz horrekiko elkarteen ordainak ere bai, zenbait kasutan etimologia-proposamenez osaturik. Kasu honetan, Löpelmannek ematen duen etimologia itzulita jasotzen dugu:

Jatorri ziurtasungabekoa; ustez arabiarra, erlaziodun: laǧina, vulg. lagina (Afrik.)

lagun, lagün Gefährte, Begleiter, Kamerad, Gesellschafter, seines Gleichen; Gatte, Gattin (gew. letzteres), Partner, Gehilfe, der Nächste (als Mensch): -arte Gesellschaft; -di Gemeinschaft, Gesellschaft; -du begleiten, geleiten, dienen, helfen, (übtr.) begleiten (musik.), wohlanstehen, zu Hilfe kommen, zusammen einen Weg gehn; -garri geeignet od. fähig zu begleiten od. zu helfen, begleitbar, wem man helfen kann; -go Begleitung, Verzierung, alles was begleitet, vervollständigt, Hilfe, Beistand, Gesellschaft; -kari gesellschaftsliebend, Geselligkeit suchend; -kida Kompanie (Soldaten); -kide Gesellschafter, Partner, Mitarbeiter, der Nächste (relig.); -kin gesellig, sympathisch, kameradschaftlich; -pide Hilfe, Beistand; -tari Beschützer, Kompagnon, Hilfsarbeiter; -taşun Gesellschaft, Vereinigung, Syndikat; -tşu reich an Freunden; -tsa, -tša Beistand, Hilfe, Begleitung, Gesellschaft; -tsabide Hilfe; -tsadun mit Hilfe versehen; -tsagabe hilflos; -tsaile, -tsale, -sale Helfer, Gefährte, Führer; -tse Inf. zu lagundu (s.o.), Hilfe; -skatu sich zusammentun, sich vereinigen (zu gemeinsamer Tat, welche die Kraft eines einzelnen übersteigt), anspannen od. einem Gespann helfen. § Hkft. unsich.; vmtl. arb., zu laǧina haften, anhangen, kleben an, vulg. lagina (Afrik.), dazu laǧne Ausschuss, Kommission, Komitee, vulg. liǧne (Syr.). Zwfh. ist Identität mit iber. lagun (inschr. l·a·gu·n auf dem Bleitäfelchen von Ampurias) und Bezieh. zu etr. lacane, denn in beiden Fällen steht die Bed. nicht fest. Fern bleiben ahd. dëgan Diener, mir. laech Held, Laie, lat. lāicus Laie.

lagunbat 1. Sonnabend, s. larunbat
lagunbat 2. ein Gefährte, s. lagun, bat
lahapoka Adv. auf vier Pfoten: -tu auf vier Pfoten gehn, sich auf die vier Pfoten niederlassen; s. larrapoka

lahar Dornranke, Dornbusch: -de, -di Dorngestrüpp; -dekatu, -deki, -dekitu die Haut abreissen od. abziehen, abhäuten, schinden, sich die Haut abreissen; -dekasale Gerber; -mahats Stachelbeere; -pe Dornbusch, Rankengewirr; -tegi, -tei Ort mit reichlich viel Dornengerank; -tşu dornig, voller Dornenranken, Sb. Dorngestrüpp; -tu sich mit Dornbüschen bedecken (Land); -s toi = -tegi (s.o.); —— laharr (vor Vok.) Dornranke, Dornbusch, Brombeerstrauch: -aga Dorngestrüpp; -arants Weiss- od. Rotdorn (Crataegus); -esi Dornhecke; -eta Dorngestrüpp; -esko aus Dornenranken gemacht, Dornen-. § Var. zu elhorri. — s. auch laparr, kaparr, naharr.

laharroka(s) Adv. auf vier Pfoten, im Galopp; s. larrapoka

lahatša Krapp (Rubia tinctorum). Nbf. laatš. § wohl kontam. aus *garantsa zu fz. garance, sp. granza Krapp (Et. unsich.) und vlkset. verknüpft mit larrantsa Dorn wegen der hakenförmigen Stacheln des Krapps, bei Ausfall des intervok. r. — s. auch latşa 1.

lahiña leichte Schneedecke. Nbf. lahişa. § aus lahi- für *lani- (vgl. bearn. laniu flach) zu sp. llano flach, platt, eben (vgl. die dazu gehörigen dim. Formen: llanito, llanico, llanillo ein wenig flach) + dim. Suff. -ña, bezw. -şa.

lahişa dünne Schneedecke, (übtr.) Schluck (ardolahişa ein Schluck Wein); s. lahiña

lai 1. Hacke, Grabehacke: -an Adv. grabend, mit der Hacke umgrabend; -ari Arbeiter, der mit der Grabhacke arbeitet. § arb., zu laij Biegung, laija Krümmung, Biegung (: lawā drehen, krümmen, biegen). Aus dem Bask.: sp. laya Spaten. Vgl. laia 3.

lai 2. Zweiglein, Sträusschen, Rebe. § arb.; Grdf. *lain zu arb. lāna weich, zart, biegsam sein od. werden, lajjin weich, zart, schmiegsam, biegsam; ebdah. som. lán Zweig, lánto Zweiglein.

1.13 Lagina: LÖP1968:750

Bereizketa tipografiko hirukoitza dugu: sarrera-buru diren euskarazko lexemak, hizkien arteko espazio handia utziz, eta azpisarrerak direnak, berriz, azpimarratuta. Alemanezko glosak letra arruntean datoz, eta etimologiaren atalak, aldiz, ”§“ ikurra darama aurretik.

Löpelmannek aitortzen duenez (LÖP1968:VII), Pierre Lhanderen hiztegiaren (LHA1926) 1938ko bigarren edizioa zen haren iturri nagusia. Ikus dezagun lagina bera Lhanderen lanean (1.14):

- **dura** (Hb.) brièveté, diminution.
- **egi** *L. N.* trop court.
- **egin** *L.* (Hb.) raccourcir.
- **egitu** *L.* (H.) rendre ou devenir tr court, trop bref, trop abrégé.
- **era** *N. L.* (A. H.) — 1° en abrég en résumé; — 2° résumé. *Libu hoŕen laburera egin dut*, j'ai fait résumé de ce livre.

LAFA-LAFA *N.* (A.) *onomat.* lap-la bruit que fait le chien en mangeau

***LAFATIÑA, laphatiña** *S.* bardan herbe aux teignes. [Cf. lat. *lappa*

- **xehe** *S.* (A.) aigremoine (bot.)

LAGOŔI *L.* (A.) épouvante, stupeur.

LAGUMBAT *V. lagunbat I.*

LAGUN *L. N.* (H.), **lagũn** *S.* (H.) — compagnon, qui accompagne q un. *Ethoŕi zitza kunibi lagunekin b raskaltzera*, il vint dîner avec des compagnons; — 2° camarade. *L gun izaŕekin bil dadina, egin ohi d hekiekin bardina* (Oih.) qui va ave de mauvais compagnons, devien habituellement semblable à eux; - 3° compagnon, associé. *Egiteko hers dezadan baino lehen, ene lagu arekin mintzatu behaŕ dut*, je doi avant de conclure l'affaire, en pa ler avec mon associé; — 4° comp gnon, qui va avec ses pareils. *gaŕen lagun dira*, ils s'entendent; 5° compagnon, semblable, de m me usage. *Esku laŕu bat eta b laguna*, un gant et son pareil; - 6° époux, épouse; (habituellemen épouse.) *Lagun bat hartu*, prend femme. *Bizi-lagun*, compagnon vie; — 7° partenaire de jeu, danse. *Ene lagunak galdu nau*, m partenaire m'a perdu; — 8° a *Laguntzat ekhaŕi*, faire venir po travailler un peu; — 9° le procha *Lagunaren gaitzaz damu eta o atsegin izan*, avoir peine du m et plaisir du bien du prochain. (dit plus souvent : *proisimo-lag urko-lagun.*)

- **arte** *N. L.* société. *Lagunarteau da holakorik egiten*, cela ne fait pas en société.
- **di** (G. H.) compagnie. *Jesusen lagu dia*, la Compagnie de Jésus, Jésuites
- **du** *L. N.* (H.) — 1° *v. a.* accompagn q.q. un, aller avec lui. *Lagun nau etxeraino*, il m'a accompag jusqu'à la maison; — 2° acco

16

pagner, conduire, guider; — 3° servir, aider, en parlant de la messe; — 4° accompagner (à l'orgue, à l'harmonium); — 5° convenir, aller bien, faire bien avec. *Lotsak edertasuna laguntzen du*, la modestie sied à la beauté; — 6° aider, secourir. *Jainkoak laguntzen dauku*, ou encore *laguntzen gaitu*, Dieu nous aide; — 7° *v. int.* aider, venir en aide, au secours. *Adina laguntzen bazaika*, si l'âge l'aide, lui donne la force; — 8° s'accompagner, aller ensemble. *Beldurŕa ta esperanza laguntzen dira* (Ax.) la crainte et l'espérance s'accompagnent.

- **gaŕi** (H.) — 1° qui peut, est propre à accompagner, aider, secourir; — 2° que l'on peut aider, accompagner, secourir.
- **go** (H.) — 1° accompagnement, ornement, ce qui accompagne, complète, ce qui supplée. *Lagungo hoŕekin hobeki iduri duzu*, vous avez meilleur air avec cet ornement; — 2° aide, secours, assistance; — 3° *S.* (A.) société, compagnie. Syn. : *laguntza, laguntasun.*
- **kari** *C.* qui aime la compagnie.
- **kide** *L.* (*test. beŕ.*) compagnie, de soldats, p. ex.
- **kide** — 1° *L. N.* (*Esk.*) associé, collaborateur; — 2° *S.* (Laf.) le prochain.
- **kin** *L. N.* (A.), **-koi** *L. N.* sociable, bon camarade, sympathique.
- **pide** *S. zalg.* secours, aide.
- **tari** *L.* (Hb.) protecteur, compagnon, auxiliaire.
- **tasun** *L.* (*Esk.*) compagnie, société, syndicat.
- **tsu** *L. N.* qui a beaucoup d'amis.
- **tza** *N. V. laguntza.*
- **tza** et composés. *V.* ce mot.
- **tzaile, -tzale, -zale** (H.) — 1° aide; — 2° compagnon; — 3° guide.
- **tze** *N. L.* — 1° *inf.* de *lagundu*; — 2° *L. N.* (A.) aide.
- **tzatu** *N.* (H.) — 1° *en gén.* se mettre à plusieurs ensemble pour quelque action et travail qui dépasse les forces d'un seul; — 2° atteler ou ajouter un attelage. *V. lauzkatu.*

LAGUNBAT I *L.* (H.) samedi. Var. *larunbat.*

LAGUNBAT II *C.* un compagnon. [*lagun-bat*]

LAGUNTZA *C.* (H.) — 1° assistance, secours, aide. *Jaunaren laguntzarekin*, avec l'aide du Seigneur: — 2° accompagnement. *Zure laguntza ezpadu, ahalge izanen zaio mintzatzeko*, si vous ne l'accompagnez pas, il aura honte de lui parler; — 3° compagnie. *Konsekrazionean, zerutaŕ guzien laguntzan jausten da Jesukristo*, au moment de la Consécration, Jésus-Christ descend en compagnie de tous les habitants du Ciel. [Cf. *lagun*].

- **bide** *L. N.* (Duv. A.) secours, aide.
- **dun** *L.* (Duv. A.) secouru, qui est secouru, qui a reçu du secours.
- **gabe** *L. N.* (Duv. A.) désemparé, sans secours.

LAGŨN et composés *S.* (Fx.) *V. lagun.*

LAHAPOKA *S. N.* (H.) à quatre pattes. Var. *laŕapoka.* Syn. : *potikoka.*

- **tu** *S. N.* (H.) aller, se mettre à quatre pattes.

LAHAR *L. N.* Var. de *lahaŕ* devant consonne. *V. nahaŕ.*

- **de, -di** *L. N.* (A.) ronceraie. *V.* ce mot.
- **mahats** *L.* (Hb.) groseille.
- **pe** *L. N.* (Duv. A.) roncier, ensemble de ronces.
- **tegi, -tei** *L. N.* (H.) lieu où l'on peut ramasser des ronces en suffisante quantité.
- **tsu** *L. N.* (H.) — 1° ronceux, plein de ronces. Syn.: *elhoŕitsu*; — 2° ronceraie.
- **tu** *L. N.* (A.) se couvrir de ronces (la terre.)
- **ztoi** *N.* (H.) *V. lahartegi.*

LAHARDE *L. N.* ronceraie. Var. de *lahardi.*

- **katu** *C.*, **-ki** *S.*, **-kitu** *C.* (H.) — 1° dépiauter, écorcher; — 2° s'écorcher.
- **kazale** *S. zalg.* corroyeur.

LAHAŔ *C.* (H. A.) — 1° ronce, mûrier (bot.); — 2° *C.* (H.) *p. ext.* buisson; — 3° *par analogie: Lahaŕak baino gehiago etzaitu utziko*, il ne vous laissera pas plus qu'une ronce ou une tique. [Cf. *laphaŕ, khapaŕ, nahaŕ.*]

- **aga** *C.* (H.) ronceraie.
- **arantz** *L.* (H.) aubépine. Syn. : *elhoŕi-xuri.*
- **esi** *L.* (H.) clôture, haie de ronces et d'épines.

1.14 Lagina: Lhande 1926:642h

Bistakoa denez, Löpelmannen metodoa ondorengoa da: Lhanderen hiztegitik sarrera oro hartu, eta frantsesezko ordainak alemaneratzea. Hitzaren erabilera argitzen duten Lhanden esapideak eta adibideak, ordea, ez ditu aintzat hartzen, ezta bertan maiz emandako informazio dialektala ere. Horren partez, sarrera-gorputzaren amaieran, haren berezko etimologia-proposamenak gehitzen ditu Löpelmannek, inolako iturri-aipamenik gabe.

Trasken, Peillenen eta besteen iruzkinek gaitzesten duten etimologiari buruzko ahoberokeriak baztertuta ere, Löpelmannen lan honen balioa murriztuta gelditzen da gaur egungo ikuspegitik. Lan hau denez errokako antolakuntzaren euskara-alemana bikoteko adibide bakarra, alemaneik abiatzen den euskaldun berriak honen bitartez erro bakoitzaren inguruko hitz-eraketaren aberastasuna ikus dezake. *Hel-* sarrera, adibidez, zentzu horretan adierazkor gertatzen da (ikus 1.15 lagina).

hel 1. Intj. herbei!: -a Ruf beim Eintritt in ein Haus; -bide, -dura, -pide, -tura Hilfe, Zuflucht; -egin zu Hilfe rufen; -heles Adv. in Not; -ka Hilfe herbeirufend; -tari Retter; -tura egin helfen, zu Hilfe eilen; -du ds. Nbf. el. § aus hei- Intj. (s. hei 2) + Suff. -la, vgl. hela, hola 1.

hel- 2. (kommen, ankommen, dazwischen kommen od. treten, eingreifen, erreichen, gelangen, kommen lassen): -antsa Ereignis, Erfolg (glücklicher od. unglücklicher), Epidemie; -arasi, -erasi (an)kommen od. gelangen lassen, hinüberschaffen; -arantsa Ankunft, Bewirkung; -arte Umstand; -atu zielen, schiessen; -bide, -pide Ziel, Weg od. Mittel zum Ziel; -bidian Adv. in Reichweite; -buru Ziel, erstrebter Endpunkt; -de Gelegenheit, Begegnung, Umstand, Fall; -du ankommen, erreichen, erreichen lassen, richten auf, ergreifen, begreifen, treffen, verletzen; -dura Möglichkeit, Chance, Glücksfall, Fortschritt; -gabe unreif; -gaits Unglück; -garai Empfang; -gia Zugang; -gune breite Strasse, Ufer; -kaits Unglück; -kaisti Unglücklicher, unglücklich; -kari Ereignis; -men Entfernung (vom Ziel); -oin Grund, Ursache, Entschuldigung, auf die man sich verlassen kann; -tasun Reife; -tarsün Beendigung, Mündung, Dazwischenkunft, Eingriff, geschlechtliche Reife; -tse Ankunft; -de Gelegenheit; -bürü Ende. § Hkft. unsich.;

vmtl. zu berb. ili sein (Imper. lli/a, intens. aor. ttili), dazu tili sich begegenen, il Fluss (Zenag.), som. il Quelle, eig. wohl das Entgegenkommende; zur Bed. vgl. äg. ij, iw sein, kommen, ij, iwt gekommen, iw-j ich bin, ij-tij sei willkommen, usw. Kaum zu sum. il herausgehen, hinaufkommen, ausgehen. Nicht wrschl. ist Entl. aus kelt. ell- gehn (vgl. air. ad-ellaim ich gehe hin, besuche, t-ella lässt mitgehen, stiehlt, a n-adall ocus a tadall zu Besuch gehn und kommen, korn. yllyf dass ich gehe (1. p. sg. pr. conj.) zu idg. *elā- treiben, sich in Bewegung setzen, gehn).

hel- 3. (krank): -antsa, -arantsa eingewurzelte, veraltete Krankheit; -dajo von einer Krankheit od. Seuche befallen; (übtr.) unnütze Person; Adj. schwach, kraftlos, erschöpf zerschlagen (aus helde-jo); -dari Epidemie; -de Epidemie, Seuche, Pestzeit, (übtr.) Fülle, Menge, Unendlichkeit (aus heri-te); -deri Ansteckung; -desko epidemisch; -gaits -gais Fieber, pl. -gaitsak Wechselfieber; -gaitsdun, -gaisdun fiebrig; -geren Tertian fieber (für helgaits heren); -gorri Masern; -kaits = -gaits. § kontrah. aus heri krank, s. eri

1.15 Lagina: LÖP1968: s.v. 'hel'

Dena den, Löpelmannek ez du EU-DE bikoteko hiztegigintza lanik egin, oro har frantsesezko bitartekora jotzen baitu, Berlingo haren idazmahaitik euskarazko datuak alemaneratu eta haren gogoetak erantsi ahal izateko. Lhanderen frantsesezko datuak itzultzeko zer iturri eta metodo lexikografikoez baliatzen den, ilunpetan uzten du autore honek.

1.3.2 Kühnel 1999

Helmut Kühnelek Alemaniar Errepublika Demokratikoak (ARD, 1949-90) iraun zuen bitartean zenbait hiztegi eta gramatika didaktiko argitaratu zituen, eta, horien artean, Siriako arabiarraren haren alemanezko ”hizkuntza-gidaliburua“ lau argitalpenetan. DE-FR hiztegia ere egin zuen 1984an Leipzigeko *Enzyklopädie* argitaletxerako, geroago *faux amis*-en hiztegi batek osatua. ARD-ko hizkuntzalaritzan zientzialari estimatua izan zen Kühnel, eta jorratzen zituen gaiak ondo ezagutzen zituela esaten dute (Gerd Wotjak, Leipzig, kom. perts.). Euskarari buruzko haren argitalpen bakarra 1999eko *Wörterbuch des Baskischen* da (Kühnel 1999, KÜH1999), erretirodun bihurturik hasi zuena, tamalez aipagarria litzatekeen kalitatekoa ez dena.

Hitzaurrean aitortzen duenez (KÜH1999:VII), *Bi Mila* hiztegiko (ADO1984) 1991ko argitalpenean oinarritzen du Kühnelek bere lana, eta, horrez gain, zenbait euskal egunkaritan eta bestelako hiztegitan. 5.000 sarrera ditu EU-DE atalak, eta 8.500 bat, berriz, DE-EU norabideari dagozkionak.

hel(du) 1. ankommen, kommen ; **hel niri !** helfen Sie mir !, Hilfe ! 2. reifen
helbide Anschrift *f*, Adresse *f*
helburu Ziel *n*
heldu reif (*auch fig*)
helgaitz unzugänglich
helmuga Ziel *n*

1.16 Lagina: KÜH1999: s.v. 'heldu'

Hel- erroarekin hasten diren hitzei dagozkien sarrerak ditugu faksimile zati honetan (1.16 lagina), eta hiztegi honen irismen murriztua bistan dago berehala: Ordain bakar edo bikoitzeko sarrera sinpleek XIX. mendeko lanak gogorarazten dizkigute. *hel(du)*

hel(du): *ad.* **1** llegar, venir, -ido; **heldu den urtean:** el año que viene. **2** madurar, -ado: **sagar helduak:** manzanas maduras. **3** *adj.* maduro, juicioso; **gizon heldua:** hombre maduro. **4** agarrar, -ado (transit. y con dativo); **honela heldu diot:** lo he agarrado así. **5** morder, -ido; **txakurrak heldu dizte** ha mordido el perro. **6** socorrer, ayudar, -ado; **hel niri!:** ¡ayudadme!

1.17 Lagina: ADO1984: s.v. 'heldu'

aditzaren sarreran, esate baterako, bi adiera polisemiko besterik ez dira islatzen. Lehenengo esanahiari, hau da, ’ankommen, kommen‘, ADO1984 hiztegitik hartutako esapide bat gehitzen zaio. *heldu* partizipioak (adjektibo gisa ulertuta) bere sarrera du, eta, bertan, *hel(du)* aditzaren bigarren esanahia, ’reifen‘, agertzen da berriz ere, eta hor esanahi bakartzat hartzen da, ”zentzu hedatuan ere bai“. Konpara dezagun *hel-* eremua erakusteko modua ADO1984 lanak eskaintzen digunarekin (1.17):

Hemen, euskal *hel* erroaz hasten diren 19 sarrera zenbatzen ditugu. *Hel(du)* aditzari dagokion sarreran, polisemia 6 zenbakitan banatuta dago, hirugarrena bigarrenaren zentzu hedatua izanik. Kühnelek ematen duen *hel niri!* esapidea oraingoan seigarren esanahiari lotzen zaio. *Heldu* [adjektibo] sarrerarik ez dago; forma hori gaztelaniara itzuliz partizipio zein adjektibo gisa uler daitekeela argi uzteko jokabidearen arrazoia hau da: aditzaren sarreran bertan, gaztelaniazko partizipioa zein adjektiboa (’madurado‘, ’maduro‘) aipatzea. Kühnelek makroegiturari dagozkion moldapenak egin ditu, eta, beraz, kasu honetan, *heldu* adjektiboari berezko sarrera ematen du.

Humboldten (1817) lanetik ezagutzen ditugun hitz-eraketa irudikatzeko itzulpen literalak agertzen zaizkigu hemen ere: ”*agor*, trocken, ausgetrocknet, ohne Wasser; *agorril,* August ('Trockenmonat' [“hilabete lehorra”])“ (KÜH1999: s.v.).

Kühnelen lanen akatsen bila, ez da bide luzerik egin behar gauza aipagarririk aurkitu baino lehen. ADO1984 hiztegian ’pluralidad, pluralismo‘ gisa itzulita dagoen *aniztasuna*, alemanez ’Mehrheit‘ omen da, *gehiengoa* euskaraz. ADO1984 hiztegian ematen den ordaina ez da egokiena, hura bakarrik emanda, behintzat (EEG2006 hiztegiak, adibidez, ’variedad, diversidad; pluralidad, pluralismo‘ ematen du, hurrenkera horretan); baina ’pluralidad‘ alemanez ez da ’Mehrheit‘ inondik inora ere, ’Pluralität‘ baizik. Dena den, lexema horrek berez ez luke arazorik izan beharko alemaneratzeko orduan, horren eraketa erabat paraleloa baita:

anitz - viel(e); *-tasuna* - -heit/-keit/-e; *aniztasuna* - ’Vielheit‘, Vielfältigkeit

Gainera, KÜH1999 hiztegiak *anitzeledun* ’Vielsprachig, polyglott‘ sarrera dakar, ez ADO1984, OEHn, ez Hiztegi Batuan aurkitzen ez dena, hiztegietan dokumentatua dugun *eleaniztun* ekarri beharrean. *Gehiengoa* ’Mehrheit‘ izenaren ordaina dela esaten zaigu DE-EU atalean begiratuta, bertan ondorengoa aurkitzen baitugu: *Mehrheit,* “gehiengo, gehientasun”. Azken hori ezingo litzateke hain erraz horren aurretik agertzen denaren baliokidetzat hartu[34]. Baina Kühnelek horixe egiten du: *gehientasun,* “Mehrheit”. Eta sarrera horretan aurkitzen dugun bigarren ordaina, hots, “Maximum”, berriz ere desegokia da[35].

Halaber, *alokairu*, ”Lohn“ (KÜH1999: s.v.): alemanezko ordain horren euskarazko baliokidea *soldata* izango litzateke, eta ez *alokairua*; akats hori ADO1984 hiztegian ez dugu aurkitzen.

Ikus dezagun alemanezko sarrera bat, *fahren* aditzari dagokiona, aurrerago aditz horretara itzuliko garelako (1.18 lagina):

fahren a) *vi* 1.: ~ **nach** -rantz joan (**mit dem Auto** kotxez, **mit dem Zug** trenez) 2.: ~ **Sie (bitte) rechts !** eskuinera (, mesedez) ! b) *vt* eroan, gida(tu); *transportieren* garraia(tu)

1.18 Lagina: KÜH1999:124

Sarreraren gorputzak bi atal ditu. Lehenik, aditz iragangaitzari dagokion atalean, *joan* ordaina ematen da, erabilera-adibide batean: *fahren nach*: '-rantz[36] joan'. Jarraian, bi adibide, *zerez* osagaiarekin euskaraz, alemanez *womit* dena: *mit dem Auto*, 'autoz'. Sintaxia argitzeaz gain, adibideek argibide semantikoa dira: alemanez, ’fahren‘ aditzak ibilgailu bidezko mugimendua denotatzen du. Zenbaki batek bereizita, beste adibide bat: *fahren Sie (bitte) rechts* bidaiari turistaren oinarrizko hizkerari dagokio. Bigarrenik, aditz iragankorraren atalean, 'eroan, gida(tu)*'; transportieren* 'garraiatu*'* ordainak proposatzen ditu Kühnelek, semantikoki egokia dena asmaturik. ADO1984 hiztegiak

[34] OEH: s.v.: *gehientasun, gehientarzun,* 1. ’autoridad; superioridad, primacía‘; 2. ’mayoría‘.
[35] hobeto: ’gehienezko, maximo‘ (ADO1984: s.v.)
[36] ’nach x‘: hobeto x-*ra* (x-*rantz joan*): ’in Richtung x fahren‘

dakarren 'eraman' (s.v. *llevar*) aditzaren ordez bizkaierazko *eroan* ematearen arrazoia ez dago argi.

Kühnelek eskaintzen duen gramatika-gehigarria zentzu batean lagungarri gertatzen den berrikuntza da. Zenbait aditz trinkoen paradigmak emateaz aparte, 13 orrialdetan euskal hitz-eraketari buruzko txostena dago. Bertan, euskal atzizkien balio anitza azaltzen da, kasu askotan alemanezko eraketarekin duen paralelotasuna agerian utziz. Ondorengoekin hasten dira azalpena eta alemanezko ordaina dakarren atzizkien zerrenda (KÜH1999:79hh):

> -a; -ada; -ago; -aia; -aira; aitzin-; -ak; -alde; -aldi; -an, -(e)n, *Pl* -etan; -anda; -antz; -ar (1); -ar (2); -art; -arteko (= -arte + -ko); -artza; -aurre, aurre-; -azpi, azpi-; ba- ; -bera (-pera); -bide (-pide); -bil (-pil); bir- (berr-); -bitxi; -buru; -da-; -daino; -danik; des-; -di; di-, dizki-; -dun (-tun); -dura; -duru (-turu), -duri; -egi, -(e)ino; -ek; -(e)la (...)

Tankera guztietako atzizkiak agertzen dira hurrenkera alfabetikoan, kasu-atzizkiak, postposizioak, perpaus konpletiboa, konparatiboa edo superlatiboa adierazten duten markatzaileak, atzizki-elkarteak, hitz-elkarte ugaritan agertzen diren lexemak, besteak beste. Euskaldundu gabeko erabiltzailea gehigarri honetaz balia daiteke, euskal hitzak zatitzen ikasteko ahaleginean. Itzultzaile aurreratuari, beharbada, atzizki batzuen ordaina interesatzen zaio, alemanez baliokide paralelorik dagoen ikusteko. Batzuetan, paralelotasuna agerikoa da. Tamalez, hemen ere hainbat itzulpen ez dira egokienak. Hona hemen Kühnelen proposamen aipagarrietako batzuk:

atzizkia	**ordaina**	**adibideak**
-koitz	-mal, -fach	*bikoitz* – doppelt, zweifach; *anizkoitz* - vielfach
-kor	Neigung zu, -haft	*iraunkor* – dauerhaft, *ugalkor* – fruchtbar, *izukor* – schreckhaft, feige; *baikor* – optimistisch, bejahend
-keria	-elei, -erei (pej)	*astakeria* – Eselei, *handikeria* – Grosstuerei, Eitelkeit
-koi	Anhängerschaft, Begeisterung (für)	*berekoi* – Egoist, *herrikoi* - Patriot[37]
-tasun	Abstraktum (-heit, -keit, -e)	*edertasun* – Schönheit, *garbitasun* – Reinheit, Reinlichkeit; *askatasun* – Freiheit, *zintzotasun* - Treue[38]

1.3 Taula: Euskal atzizkiak eta itzulpenak (KÜH1999:79hh)

[37] *herrikoi*, egokiago: 'volksnah', 'volkstümlich'
[38] ordain egokiagoa: 'Ehrlichkeit', eta 'Treue' ordaintzeko, berriz, *fideltasun, leialtasun.*

Hiztegi hau Euskal Herrian erabiltzen denaren ebidentziarik ez dugu. Bertako liburutegietan ere ez da aurkitzen. Hiztegiaren edukia murriztua dela-eta, formatu handiko eta estalki gogorreko argitalpen gisa baino, poltsiko neurrian argitaratzea komenigarriagoa izango litzatekeen, hiztegia bidaian eta antzeko egoeretan erabili ahal izateko.

1.3.3 2007ko Euskara-Alemana Hiztegia

Euskaltzaindiak 90eko hamarkadan zehar burututako araugintzak (ik. Alberdi & Ugarteburu 1999) kontuan hartu zuen lehenengo euskara-alemana bikoteko hiztegi elebiduna 2007an Elkar argitaletxeak editatu zuen lana da (Martínez Rubio 2007, EAH2007), eta, orobat, hizkuntza bikote horretako euskal autore baten lehenengo lana ere bada. Hiztegiaren azalean adierazten denez, 32.400 sarreraz gehi 4.600 ”adibidez eta esapide argigarriz“ osatuta dago; zenbaki horiek alemana-euskara eta euskara-alemana norabideko atal bien edukiari dagozkio. Hiztegiak betetzen duen funtzioa orokorra da. Horrela dio hitzaurreak:

> ”Hiztegi honek baliabide izan nahi luke alemana eguneroko bizitzan erabili behar duten euskaldunentzat, bai itzultzaile bai mota guztietako ikasleentzat ere, hein berean aleman hiztunari zuzentzen zaiolarik.“ (EAH2007: IX)

Lan horrek bere funtzioa betetzen du neurri handi batean. Poltsikoko hiztegiak erabili ohi diren egoeretarako, hau da, bidaietarako, irakurketarako eta solasaldi informaletarako, euskararen eta alemanaren artean dabilenak laguntzaile baliotsua irabazi du argitalpen horrekin. Egun, euskararen eta alemanaren arteko tresna erabilgarri bakarra dela esan daiteke, gaztelania edo beste zubi-hizkuntza batera jo nahi ezean.

Hiztegigintzak, beste hainbat konbinaziotan, poltsikoko neurria baino lan askoz sofistikatuagoak eskaintzen ditu, noski, eta ez bakarrik argitalpenaren loditasunari dagokionez. EAH2007 hiztegiaren adibide batzuk ikusiko ditugu orain, eta erabiltzaileak hiztegi elebidun garatuago batetik zer espero dezakeen galdetuko dugu.

fahren *[ist]* (ibilgailuz) joan ▸*er fährt jetzt nach Hause* ▹*etxera doa orain* ‖ ibili ▸*mein Auto fährt nicht* ▹*nire autoa ez dabil* ‖ *[hat]* (lenken) gidatu

1.19 Lagina: EAH2007: s.v. 'fahren'

Fahrer(in) *m/f (-s, -)/(-, -nen)* gidari

1.20 Lagina: EAH2007: s.v. 'Fahrer(in)'

1.19 eta 1.20 laginetan hiztegi horretako bi sarrera ikusten ditugu. Aditzaren kasuan, aditz laguntzailearen hautapena adierazten da euskal hiztegigintzan ohikoa den eran, hau da, *[ist]* (eusk. 'da') edo *[hat]* (eusk. 'du') aditz laguntzaile singularreko hirugarren pertsonari dagokion forma ikur gisa jarriz. Izena bada, genero gramatikalaren *m/f/n* ikurrak eta genitiboa eta pluraleko formak eratzeko morfemak agertzen dira, deklinazio-paradigmaren adierazle gisa.

Ondoren, alemanezko ordaina, gehienetan bakarra, eta ordainetik grafikoki hiruki batez bereizita, adibide bat edo batzuk datoz maiz. *Fahren* mugimendu-aditzaren kasu honetan, erabilera iragangaitzerako bi ordain ematen dira, eta erabilera iragankorrerako bat.

Lehengo ordainari parentesi arteko ohar bat gehitu zaio: *(ibilgailuz) joan*, alemanerazko 'fahren' aditzak ibilgailu bidezko mugimendua denotatzen baitu, gurpil gainean kasu gehienetan. Adibide labur batean, lema testuinguru ohikoenetako batean agertzen da: *etxera doa orain.* Autoz, taxiz, autobusez edo bizikletaz doa, *fahren* egiten bada; oinez ibiltzeko ekintza izendatzeko baino ez du *gehen* aditza hautatzen hiztun alemanak. Adibidea, beraz, ez dugu guztiz egokitzat hartzen, itzulpenak ez baitu mugimenduaren modua argitzen.

Ibili aditzaren adierak bereizteko erabiltzen den marratxo bertikal bikoitzaren ondoren ematen den bigarren ordaina, 'fahren' aditzaren itzulpen egokia da ibilgailua bera dena mugitzen denean, eta ez ibilgailuz joaten den pertsona. Euskaraz, ibilgailuak ibili egiten dira, *ondo* ala *txarto* edo *bizkor*, eta alemanez, 'fahren', adibideko ezezko kasuan eta beste edozein kasutan. Itzulpena, beraz, egokia litzateke.

Hirugarrenik, aditzaren erabilera iragankorraren euskarazko itzulpena ematen da: *gidatu.* Oraingoan, parentesi artean emandako alemanerazko sinonimo batek ulertarazten digu norbaitek ibilarazten duena berriz ere gurpildun ibilgailu bat dela: 'lenken', *gidatu*. Polisemia desanbiguatzen duten azalpenak, hortaz, batzuetan alemanez, batzuetan euskaraz ematen dira. *Fahren* aditza *lenken* aditzaren sinonimoa den testuinguruetan 'gidatu' aditzaz itzultzen dela ulertu behar du erabiltzaileak. Ibilgailuak edo ibilgailuz mugitzen diren zamak agertzen dira testuinguru horietan, *fahren* predikatuaren akusatibozko osagai gisa. Argibide hori, aditz iragangaitzaren adierekin erkatu behar du erabiltzaileak edo haren alemanari buruzko ezagutzarekin?

Zergatik ez aditz iragangaitzaren adierako irizpide berari jarraitu, hots, '(ibilgailua) gidatu', '(zama) garraiatu'? KÜH1999 hiztegian ikusten dugun bezala, *fahren* iragankorrari 'eraman′ eta 'garraiatu′ ordainak gehitu ahal zaizkio.

joan *[da]* (weg)gehen ‖ (weg)fahren ‖ (aus)scheiden ▸*joan egin behar dugu* ▷*wir müssen gehen* ▸*goazen!* ▷*lass uns gehen!* ‖ (toki batetik bestera) ziehen ▸*amaren etxera joan dira bizitzera* ▷*sie sind zu ihrer Mutter gezogen* ‖ *[zaio]* anbelangen ‖ angehen ‖ betreffen ‖ sich beziehen (auf) ‖ zustehen ‖ zukommen ▸*niri doakidanez* ▷*was mich anbelangt / was mich angeht / was mich betrifft* ▸*zeri doakio haiek esandakoa?* ▷*worauf bezieht sich ihre Aussage?* ▸*doakion(a)* ▷*Interessent(in) m/f*
joanaldi *iz* Hinfahrt *f* ‖ Hinreise *f*
joanaraz(i) *[du]* hinschicken
joanera *iz* Abreise *f* ‖ Abgang *m* ‖ Abfahrt *f* ‖ Fortgang *m*
joan-etorri *iz* Hin- und Rückfahrt *f* ▸*joan-etorriko txartel* ▷*Rückfahrkarte f*

1.21 Lagina: EAH2007: s.v. 'joan'

Begira diezaiogun EU-DE atalari. *Joan* aditza polisemikotzat hartu behar da, eta alemanezko ’fahren‘ denotatzen duena baino esanahi zabalagoa du. Jarraian emandako laginean, EU-DE norabidean polisemia nola desanbiguatzen den ikus daiteke (1.21 lagina).

[da] iragangaiztasun-ikurraren ondoren, '(weg)gehen' ematen da lehen ordain gisa, '(weg)fahren' bigarren, '(aus)scheiden' hirugarren, eta '(toki batetik bestera) ziehen' laugarren. Mugimenduaren norabidearen adierazlea, parentesi arteko (weg)[39], hirugarren kasuan euskaraz agertzen da: '(weg)ziehen' ematearen ordez, hemen '(toki batetik bestera)' ematen da. 'Fahren' ordainak hemen ez dakar *ein Fahrzeug* tankerako ibilgailu bati dagokion oharrik, ezta adibiderik ere.

[39] ingelesez antzekoa: *go (away), drive (away), move (away)*

scheiden	1. *vt* dibortziatu;
	2. *vt* banandu, bereizi
	3. *vi* [goi., zah.] joan, abiatu
ausscheiden	1. *vt* [Biol] iraitzi;
	2. *vt* kanporatu, arbuiatu
	3. *vi* (multzo batetik) kanpo gelditu, [Kirol] kanporaketa jasan
	4. *vi* (taldea) utzi, dimisioa eman

1.4 Taula: 'scheiden' eta 'ausscheiden' aditzak: alemanezko ordainak

'(Aus)scheiden' ordainak ere ez du haren erabilera argituko lukeen adibiderik. Bada, testuinguru jakin batean alemanezko aditz hori *joan* aditzarekin itzul daiteke, guk *scheiden* eta *ausscheiden* aditzentzako proposatuko genituzkeen euskarazko ordainek erakusten dutenez (polisemia WDG-ko adieretan oinarrituta islaturik, ikus 1.4 taula).

EAH2007ren aditz horiei dagokien sarrerak 1.23 eta 1.23 laginetan ikusten den bezala antolatuta daude. 'Banandu' ordaina, *scheiden* iragangaitzaren zein iragankorraren ordaina izan omen daitekeena, bi aldiz agertzen da, sarreraren mikroegiturak behartuta: aditz laguntzailearen hautapenaren seinale diren ikurrek banatzen dituzte sarreraren edukiak, eta ez polisemiaren araberako zenbakiek. Baina, iragangaitz gisa, *scheiden joan*, *abiatu* da, eta ez *banandu*; ordain hori *scheiden* iragangaitzaren atalean soberan dago, beraz.

1.23 Lagina: EAH2007: s.v. 'scheiden'

1.22 Lagina: EAH2007: s.v. 'ausscheiden'

Datu horiek ikusita, 'ausscheiden' eta 'scheiden' ordainak agertzea *joan* aditzari dagokion sarreran, inolako testuinguru-markatzailerik gabe, problematikoa da. Horiek agertzearen arrazoia dela-eta, ondorengo susmoa dugu: hiztegiko norabide bat sortu da bestea alderantziz jarriz, eta horregatik azaltzen dira lexema berak alde batean lema, bestean ordain gisa. Hiztegi elebiduna zirriborratzeko, horrelako jokabidea zilegi iruditzen zaigu, ondoren datuak egiaztatzen badira, bederen.

Joan sarreran (1.21 lagina), [zaio] ikurraren azpitik dator *niri doakit* bezalako datibo-erabilerak nola itzuli. Kasu honetan, euskarazko zenbait adibidek argitzen dizkiote erabiltzaileari euskarazko erabilera horiek, alemanez ordain zuzena eta bakarra ez dutenak. Bost ordain ematen dira oraingoan: 'anbelangen', 'angehen', 'betreffen', 'sich beziehen (auf)', 'zustehen', 'zukommen'. Lehenengo laurak elkarrengandik oso gertu daude, eta laurak talde gisa azken bietatik urrun. Datozkigun bi adibide horietako bat hirukoitza (hiru sinonimo islatzen dituena) lehenengo taldeari dagokio soilik, 'zustehen' eta 'zukommen' ordainak mereziko luketen adibiderik gabe uzten dituelarik.

Lemategiaren osaketaz, gauza bat aipagarria da: alemanezko eta euskarazko hitz-elkartuen eraketa oso antzekoa den arren[40], horietako ugari ematen dira bi norabideen ataletan. Ikus dezagun adibide bat 1.24 laginean. *Märchen*, 'ipuin'; *Buch,* 'liburu'; *Sammlung*, 'bilduma' - alemanezko hitz-elkartuak lexemetan zatitzen dakien edonork zatien ordaina jakitea nahikoa du elkartea itzultzeko, elkarteen eraketak paraleloak dira eta. *Märchenerzähler* izenaren kasuan, itzulpen paraleloa, 'ipuin-kontalaria', alegia, ordain egokiagoa izango litzateke beharbada, ipuinlariak ipuinak idazten baititu (SEH2007: s.v., behintzat, adierazten duen moduan), eta ez 'kontatu' (*erzählen*) bakarrik. Bestalde, *märchenhaft* adjektiboaren ordain literala, 'ipuin antzeko', ez luke zertan agertu behar, 'ametsetako' itzulpenak adjektibo aleman horren testuinguru guztiak estaltzen dituelako (gazt. 'fabuloso' adjektiboak modu simetrikoan estaltzen dituenak). Hemen ematen diren bi ordainak, zentzu estua eta zentzu hedatua, alegia, bi adiera bezala jasotzen dira, marratxo bertikal bikoitzaz banaturik.

Märchen *n (-s, -)* ipuin
Märchenbuch *n (-(e)s, ¨ -er)* ipuin-liburu
Märchenerzähler(in) *m/f (-s, -)/(-, -nen)* ipuinlari
märchenhaft *Adj* ipuin antzeko ‖ (übertr) ametsetako
Märchensammlung *f (-, -en)* ipuin-

1.24 Lagina: EAH2007:179

[40] Hitz elkartuen zatiketa paraleloa den kasuetan, paralelotasuna izango litzateke hitz-elkarte horien lema izateko eskubidea murrizteko arrazoia. Euskarak zein alemanak amaigabeko hitz-elkarteak sortzeko gaitasuna dute. Erromantzeetan, ordea, *complementos preposicionales con 'de'* ditugu baliabide horren ordez. *Cuento, cuentacuentos* eta *fabuloso,* gaztelaniaz ere, lema izateko eskubide gehiago dute *libro de cuentos* eta *colección de cuentos* baino.

Lexema beraz hasten diren hitz-elkartuen zerrenden segida ugari aurkitzen dira hiztegian zehar. Adibidez: *Pelz, Pelzgeschäft, Pelzhändler, Pelzjacke, Pelzmantel, Pelzladen*[41]*; Mond, Mondbahn, Mondfinsternis, Mondlicht, Mondschein; Heidelbeere, Heidelbeerstrauch*[42]*; Wal, Nordwal*[43]. Kasu batzuetan, jakina, zerrenda horietako hitz-elkarte batek lema izateko eskubide osoa du poltsikoko neurriko hiztegi baten leku murriztuan, alemanezko ordainaren eraketa ez baita paraleloa, hau da: ez delako emaitza egoki batera heltzen, alemanezko hitz-elkartearen zatiei dagokien ordainak euskaraz modu berean antolatuz. Horrela, *Mondfinsternis,* 'ilargi-ezkutaldi' [lit: 'ilargi-iluntasun', DL] terminoaren kasuan eta ondorengo kasuetan alemanezko eraketa imitatzeak ordain egokiagoak emango lituzke ordain bakar gisa ematen direnak baino: *Mondphase,* 'ilargiaren aldi'[44], *Mondlicht,* 'ilargi zuri'[45] (EAH2007: s.v.). Bestalde, hiztegiaren lema kopurua murriztean hitz-elkarketa jasotzeko irizpidea haren maiztasuna izan daiteke. *Deutscher Referenzkorpus* corpus sinkronikoan maizen agertzen diren 40.000 hitzen artean[46], *Märchen-* izenaz hasten diren lau elkarteak aurkitzen dira, baita 'fabuloso' adjektiboa ere: *Märchenerzähler, märchenhaft, Märchenstunde, Märchenwald, Märchenwelt. Pelz* hutsaz gainera, ordea, *Pelz* hitzaz hasten denik ez da agertzen. EAH2007 hiztegiko lemategiaz, beraz, bi gauza esan daitezke: (1) 16.000 bat lematako lemategian, maiztasun gutxiko hainbat hitz agertzen dira, 40.000. tokia baino atzeragokoak; horrenbestez, (2), maitasun handiko hainbat hitz ez dute lemategian lekurik.

Hiztegigilearentzat zailak diren izenek, hots, kontzeptu abstraktuak denotatzen dituztenak batik bat, oso itzulpen egokia dute kasu ugaritan: *Herri mina* – 'Heimweh'*; hutsezin* – 'unfehlbar'*; nahaspila* – 'Unordnung', 'Wirrwarr'*; bidegabe* – 'eigenmächtig'*; Willkür* – 'nahikeria', 'bidegabekeria', 'nagusikeria'*; epelkeria* – 'Kleinmut', 'Verzagtheit'*; Herrschsucht* – 'nagusikeria'*; fazati* – 'gekünstelt', 'blasiert'*; Großmut* – 'eskuzabaltasun'; *handigura* – 'Ehrgeiz'*; Gesinnungsgenosse* – 'gogaide', 'gutar'.

---

41 *Pelz:* 'larru (iletsu)' materiaren izena, eta denda, saltzailea, jaka, berokia eta, berriz, denda
42 *Heidelbeere:* 'ahabia' eta -zuhaixka
43 *Wal:* 'Balea', *Nordwal*: 'Balea groenlandiar'
44 hobeto: *aldarte* (*cf.* ZEH2005: s.v.)
45 Iparraldeko kolokazio honen aldamenean, *ilargi-argi* (*cf.* UZEI1987: s.v.)?
46 *DeReWo* maiztasun-zerrendari buruz, ikus aurreragoko 3.2.1 atala.

orr.	lema	EAH2007-ko adierak	proposamena
33	Becher	kopa	edalontzi, edontzi, kikara
41	Baso	Wald, Forst	1. Wald, Forst; 2. *(Trinkgefäß)* Glas
60	Dollmetscher	aldibereko itzultzaile	interprete[47]
88	esne-opil	Milchbrot	Milchbrötchen[48]
103	ganora	Ordnungssinn	Hingabe, Fleiß
103	ganoragabekeria	Liederlichkeit	*Schlamperei; goi* Liederlichkeit
116	Glas (Trinkglas)	edalontzi, edontzi, godalet	edalontzi, edontzi, baso
126	helbideratu	domizilieren[49]	[ekon.] Einzugsermächtigung erteilen[50]
140	Hubraum	[tech.] zilindro kopuru	[tekn.] zilindraia[51]
186	Mixgetränk	irabiaki	(edari) konbinatu, koktel
267	Trinkbecher	edalontzi, edontzi, godalet	edalontzi, edontzi, baso
267	Trinkglas	edalontzi, edontzi, godalet	edalontzi, edontzi, baso
328	Zulassung	onespen	baimena, onarpen; *Kraftfahrzeug-Zulassung – Ibilgailuen zirkulazio-baimena*; *Zulassung zum Studium – onarpena unibertsitate-ikasketetan*
329	Zuruf	dei; *durch Zuruf – aho batez*	dei, ahozko agindua; *von freudigem Zuruf begrüßt erschien der Sänger – gora-goraka ari zirela agertu zen abeslaria; der Hund kam auf den Zuruf seines Herrchens heran – txakurra bere jabearen aginduz hurbildu zen*

1.5 Taula: EAH2007: ordainak eta proposamenak

Bestalde, badira proposamen problematikoak. Zenbait adibidetako zuzenketak eta eransketak bilduta daude 1.5 taulan, hitz ”zail“ horien sailekoari zein terminologia unibokoari dagokienez.

47 *cf.* UZEI1987: s.v.
48 *opil,* ’Brötchen‘ (AEH: s.v.)
49 gaztelaniazko ’domiciliar‘ delakoaren kalkoa, alemaneraz erabiltzen ez dena
50 cf. IATE: s.v. *domiciliar*
51 *cf.* UZEI1987: s.v.

2.4 atalean, hiztegiak *baso* lemaren homografia eta homonimia islatzeko ematen duen proposamenaren lagina ematen dugu (7.41 lagina). Bertan ikusten denez, ontzia denotatzen duen *baso* izenaren homonimoa ez da jasotzen, OEH (s.v.) hiztegiaren arabera euskaraz XVII. mendetik aurrera erabilera dokumentatua duen mailegu hori. Alemanez-euskarazko atalean begiraturik, ez da 'baso' ordainik aurkitzen *Glas*, *Becher*, *Trinkglas* eta *Trinkbecher* sarreretan, ondorengo ordainak baizik: 'edontzi', 'edalontzi' eta 'godalet' (ik. 1.5 taula). Erromantzezko *baso* mailegua, beraz, ez da hiztegi honetan agertzen (ZEH2005 lanean, esaterako, 'edontzi' eta 'edalontzi' orainekin batera gaztelaniazko *vaso* sarreran agertzen delarik). Bestalde, 'godalet' ordaina agertzen zaigu hemen, SHLH1994 hiztegiaren arabera Zuberoan erabiltzen den hitza, ZEH2005 lanean ez, ETC corpusean, aldiz, bai agertzen dena. EAH2007 hiztegian *godalet* hizta euskalki-markarik gabe agertzen da, eta gure intuizioaren arabera harritzekoa izango litzateke Euskal Herrian bidaiatzen duen batek, poltsikoko hiztegi "orokor" hau eskuan, edozein euskal hiritan edo Hego Euskal Herriko edozein herritan "godalet bat ur" eskatuko balu.

Goian esan bezala, poltsikoko paperezko hiztegi horrek, oro har, bere funtzioa betetzen du. Zenbait alderdi kritiko aipatu ditugu, horien artean batzuk argitalpen-formatu horretan konpontzeko zailak, baina, bestalde, formatu txikian ere hobeto egin daitezkeenak, lemategiaren osaketa, mikroegiturako koherentzia eta hainbat itzulpen-ordainen hautapena kasu.

1.4 Ondorioak

Atal honetan esandakotik zenbait ondorio biltzeko, hasieran egin dugun galderara itzuliko gara: Noraino balia gaitezke aipatutako lanez, alemana ikasten duten euskaldunentzako hiztegi elektronikoa garatzeko?

2000. urtean baino lehen argitaratuak diren lan guztiek arazo bat dute elkarrekin, edukiak bere horretan eta osorik hiztegi berri baten zirriborro gisa erabiltzea zailtzen duena: Gaurko Euskara Batua hemen ez oraindik ez da islatzen. Lan horietako lemategiak gaurko estandarrari ez dagozkion formak dituzte. Horretaz gain, arazo teknikoen aurrean aurkituko ginateke: Hiztegi horiek ez ditugu formatu digital batean eskuragarri, hau da, testu- edo taula-fitxategi gisa. Orain arte, CHA2002 da salbuespen bakarra, taula-egitura duen testu-fitxategi gisa baitaukagu. Alabaina, aipatu berri dugun

lehenengo arrazoia dela-eta haren edukiak ez dira hiztegi berri batean onartzeko egokiak, XIX. mendeko forma dialektalak baititu, eta, horrez gain, ez baitu lematizatzeko gaurko (garai batean, Hegoaldeko) usadioa islatzen. Bestalde, lan horien azterketa Hiztegigintza Historikoaren baitan zentzuduna da, zalantzarik gabe.

Aztertutako lanen tamainari begira, XX. mendeko bi lanak interesgarriak izango lirateke hiztegi berriarentzat egokitzeko, XIX. mendekoak, aldiz, ez, euskara-alemanezko ordainen bikote gutxiegi dutelako horien ustiapena interesgarria izateko. LÖP1968 lana ere ez da horrelako egitasmo bati begira aintzat hartzekoa, bertako alemanezko ordainak frantsesetik itzuliak baitira. Hemen ebaluazio kualitatiborik burutu ez arren, zubi-hizkuntza baten bitartez sortutako hiztegia izanik, eta zubi-hiztegia 1926. urtekoa izateagatik arrazoi nahikoa dugula datu hauek ez ustiatzeko erabakia hartzeko. Gainera, datu horiek ustiatzeak edukien digitalizazioa eta *parsing* lanak burutu beharra genuke, egitasmo neketsua kasu horretan.

Honaino aztertutako lanetan aurkitu dugun ideiaren bat, aldiz, aipagarria dela iruditzen zaigu, horien artean KÜH1999 laneko gramatikari dagokion atala, mota guztietako euskal atzizkiak batzen eta ordainez osatzen dituen taulak barne, baita hitz-elkarketaren bitartez sorturiko euskarazko hitzen itzulpen simetriko-literalak, hitzaren esanahia haren zatietatik azaltzen, eta, aldi berean, euskarazko hitz-altxorrez argibide esanguratsuak ematen eta euskara ikasleari zentzumena zorrozten diotenak. Goian aipatutako adibide bat txiste bat egiteko ere balio du: CHA2002 lanaren arabera, *zubi* hitza *zur* eta *bide* osagaiak ditu, alemanez literalki 'Holzweg'. Orain, alemanezko *Holzweg* esapide zahar batean agertzen da: *Sich auf dem Holzweg befinden*, 'bide okerra hartu'. Hitzak itzultzeko asmoz zubi-hizkuntza batera jotzen duenak, beraz...

Aztertu dugun lan berriena, EAH2007, alegia, aipatu ditugun gabezi guztiak gorabehera, itzulpen-ordainen bikoteak erauzteko aintzat hartzeko moduko oinarria izan ahalko litzateke, hiztegi berriarentzako zirriborroa izan litekeena. Tamalez, lan horren bertsio irekirik ez dago, eta haren moldapena egile-eskubideak dituen argitaletxearen baitan baino ezin izango da gauzatu.

2 Hiztegigintza Elebiduna gaur egun

2.1 Sarrera: Aro elektronikoaren ataria

Azken hamarkadotan, hiztegigintza eremu elektronikora igarotzen ari dela edo igaro dela esan daiteke. Igaro da, era burutuan, erabilpenari dagokionez. Nahiz eta datu zehatzik ez eduki (sareko hiztegien erabilpena neur daiteke; paperezko hiztegien erabilpenari hurbiltzeko, aldiz, salmenta kopuruak besterik ez ditugu), hiztegigintzako literaturan aipatzen den joera argi dago: hiztegigintzan sareko eskaintza gero eta gehiago dugu, "*an explosion of online-based dictionaries*" (Lew 2015: 11). Erabiltzaileak sareko eskaintzeetara jotzen du gero eta gehiago, haren bilaketa zehatza paperezko hiztegiren batek hobeto erantzungo balu ere, hiztegi-erabilpenaren ikerketaren azken emaitza batzuek argi uzten dutenez.[52]

Bestalde, zenbait argitaletxek paperezko hiztegien salmenta bertan behera utzi dute dagoeneko, eta beren sareko eskaintza baino ez dute garatzen. Ingelesezko *Macmillan* hiztegiak, esate baterako, 2012tik aurrera formatu elektronikoan soilik argitaratzen dira,[53] eta 150 urte baino gehiagoko tradizioa eta prestigio gorena dituen *Oxford* hiztegiaren hurrengo argitalpena ere sarean soilik argitaratuko dutelako berria zabaldu zen 2010. urtean.[54] Paperezko hiztegiek inprimatutako entziklopedien (sarean doan kontsulta daitekeen *Wikipedia* entziklopedia elektronikoaren eraginez) zorte bera izango dutela sumatzen du Rundell hiztegi-editoreak, erabiltzaile gazteek darabiltzaten hiztegien kasuan dagoeneko horrela delako:

> "The English Advanced learner's dictionary - a publishing success story in the twentieth century - now faces an uncertain future. Its main user group is in the 17-24 range, and most of this cohort are now 'digital natives': people who routinely go to the Web for information of any kind, and generally expect to get it for nothing.

[52] Jin & Deifell autoreek (2013) erabilpena-ikerketari buruzko literatura aztertzen dute, egun *digital natives* diren hizkuntza-ikasleen ohitura berriei eta hizkuntza irakaskuntzaren moldapen beharrari begira. Domínguez autorearen arabera, hizkuntza ikasleen ohiturak aldatu egin dira, eta hiztegi erabilienen artean „*einige für die Forschungsliteratur nicht etablierte lexikographische Nachschlagewerke*" aurkitzen dira, bestela esanda, edozein hiztegi erabiltzen dute (2015: 295), hiztegi klasikoetan ezagutu genuen kalitate-estandarrari erantzuten ez dioten lanak barne, gure susmoaren arabera, klasiko horiek oraindik ez baitira sarean erabilgarri. Susmo horri begira, 2.2 atalean gehiago.

[53] Ikus Michael Rundell Macmillan argitaletxeko hiztegien arduradunaren gogoetak: http://www.macmillandictionaryblog.com/bye-print-dictionary.

[54] Ikus http://www.thesundaytimes.co.uk/sto/news/uk_news/National/article382033.ece.

> If the fate of printed encyclopedias is any guide, the transformation, once started, will be rapid." (Rundell 2012: 15)

Baina hiztegigintza elektronikoak, CD-ROM bezalako euskarri elektronikoen bitartez eta sarean kontsulta daitezkeen hiztegiak ekoiztea ahalbidetzeaz gain, beste aurrerapen garrantzitsu batzuk ekarri dizkigu, *hutsetik* hiztegi elektroniko gisa garatu diren hiztegietan aurkitzen ditugunak. Izan ere, hutsetik, hau da, paperezkoa zen hiztegi bat abiapuntu izan gabe, elektroniko bihurturiko baliabide horiek hiztegigintza elektronikoak eskaintzen dizkigun aukeren aurrean motz gelditzen dira.[55] Horretaz ohartu zen Nesi autorea, esaterako, 2000. urtean:

> "[...] better products will be created if publishers are prepared to invest in purpose-built electronic texts rather than those adapted from hard-copy sources. Electronic dictionaries would be most effective if they were designed from scratch with computer capabilities and computer search mechanisms in mind." (Nesi 2000: 140)

Bitartean, hiztegigintza elektronikoan dugun artearen egoerak aurrera egin du. DeSchryver-en (2003) eta Rundell-en (2012) artikuluek berrikuntzen berri ematen digute. Ondorengoak dira hiztegigintza elektronikoak dakartzan abantaila batzuk, geure egitasmoan (ikus 3 atala) ere balio dutenak:

- Hiztegi elektroniko batean ez dugu toki-murriztapenik, ezta tokia aurrezteko beharrik ere. Hiztegigileak nahi beste datu aurkez daitezke. Laburdurak erabiltzeko premiarik ez dago.
- Corpus handiek eskaintzen dituzten ebidentziak eta corpusen datuak prozesatzeko tresnek hizkuntza aztertzeko eta hiztegigintzan prozesatzeko bide berriak zabaltzen dituzte.
- Hiztegiak ekoizteko aplikazio berezituak (*Dictionary Writing Systems*) erabiltzeak hiztegigintza-lanak errazten eta sistematizatzen ditu, talde bateko lana bada, batez ere. Sistema horiek hiztegian agertzekoak diren datuak anotazioekin aberasten dituzte, aurretik zehazturiko eskema batetik abiatuta. Anotazio horiei esker, ordenagailuak erabakitzen jakingo du: hiztegi-sarrera honetan, zer da lema-ikurra, zer da itzulpen-ordaina, zer argibide pragmatiko, zer erabilpena-adibide. Horrela jokaturik, hiztegiaren edukiak editatzearen osteko *parsing* lanik ez da beharrezkoa (itzuliko gara horretara).

[55] 3.3.1 atalean haren arrazoi tekniko batzuk aipatzen ditugu, hiztegi elektronikoen egituraz ari garenean.

- Sareko hiztegiak etengabe egunera daitezke.[56]
- Erabiltzaileak berak iruzkinak edo bestelako ekarpenak egin ditzake, eta ekarpen horiek hiztegi-sarrerari erants dakizkioke berehala, eztabaida-hari formatu batean, esaterako.

Lan honetan zehar, puntu horietara itzuliko gara. Momentuz, gogora dezagun gorago aipatu duguna: egun hiztegi elektroniko gisa sarean agertzen zaiguna kasu askotan ez da paperezko hiztegietako eskaintzaren mailara iristen. Sareko hiztegi askoren kalitate txarra kritikatu izan da, eta horiek ebaluatzeko irizpideak finkatzeko proposamenak ditugu (Kemmer 2010, adibidez). 2.2 atalean ikusi dugunez, egun gehien erabiltzen diren hiztegi elektronikoen artean, batzuk glosario elebidun hutsa baino ez dira, eta asko falta zaie paperezko lan goreneko mailara iritsi arte.. Bestetik, hiztegi elektroniko asko eta asko euren paperezko arbasoetatik sareko sarbidearengatik baino ez dira desberdintzen: lemaren araberako bilaketa ahalbidetzen dute, hiztegi sarrera oso batez erantzuteko. De Schryver autorearen ametsak (2003) bete arte, urrats batzuk egiteke ditugu, erabiltzailearen ikuspuntuari dagokionez, batez ere. Tarp autoreak aro digitalak ekarri dizkigun berrikuntzak ikuspuntu kritiko batetik eztabaidatzen ditu, horien arriskuak aipatuz. Honela laburbiltzen ditu hiztegigilearen ardurak:

> 1) to establish the exact types of information need for each type of foreseen user in each type of situation to be covered by the dictionary in question;
> 2) to determine, upon this basis, the exact types of data required to meet these needs;
> 3) to prepare the corresponding lexicographical data by means of the most adequate methods;
> 4) to ensure that these data can be accessed as quickly and easily as possible by the foreseen users. (Tarp 2014: 245)

Ardura horiek ez dira berriak, baina zehazki betetzea posible dugu egungo teknologiekin, erabiltzaile mota eta komunikazio-egoera guztientzat. Eta horixe dugu aukera berri garrantzitsu eta benetan iraultzailea hiztegiak argitaretzeko orduan: funtzio anitzak betetzeko garatu dugun datu-base beretik elikatuta, sareko hiztegi-atari batean ematen ditugun datu-aurkezpenak erabiltzaile bakoitzaren beharrari (*monofunctional*

[56] Elhuyar Fundazioak garatutako sareko hiztegia da etengabe eguneratzen den euskarazko lehenengo hiztegia: 2013tik aurrera, aldaketak berehala egiten dira horren datu-basean, paperezko hurrengo argitalpena prestatu arte itxaron gabe. Bestalde, oraindik bukatu gabe dagoen EEH zuzenean sarean argitaratzen dute, hizkiei dagozkien atalak prestatzen diren heinean.

dictionary gisa (Tarp)) *berehala* egokitzea, erabiltzaile hark ikusi behar duen guztia erakutsiz, eta hori baino ez.

2.1.1 Zenbait oinarrizko kontzeptu

Hiztegigintza elebiduna[57] izenburupean burututako lan aplikatuei buruzko gogoeta teorikoek erakusten digute hiztegiak hizkuntza bikote bakoitzarentzat bereziki diseinatu behar direla, hizkuntza bakoitzak berezko arazoak baititu haren ezaugarri lexikoak eta gramatikalak azaltzerakoan, eta berezko ezaugarri horiek bigarren hizkuntza baten ikuspegitik azaldu behar baitira. 3. atalean itzuliko gara horretara, alemana-euskara gure bikoteari buruzko gure proposamenaz ari garenean. Horrez gain, ez da berdina hiztegi elebidunak hiztunari testu arrotz batean agertzen zaiona haren ama-hizkuntzan adierazten laguntzea edo ama-hizkuntzakoak ez diren adierazpenak egiten laguntzea. Hiztegi bakoitzaren *funtzio komunikatiboak* betetzeko ezaugarri zehatzak ezartzeko laguntza eskaintzen du hiztegigintzari buruzko zientziak, hau da, metalexikografiak.

Hiztegi baten egitura deskribatzeko, hiru atal bereiz ditzakegu: *mikroegitura*, *makroegitura*, eta *marko-egitura* (batzuetan, *mega-egitura*). Kontzeptu horiek metalexikografiaren tradiziotik datoz (lehenik Rey-Debove 1971; Haensch 1982; ikus Wiegand & Hausmann 2003), eta, egun, nazioartean estandar bihurtutako terminoak direla esan daiteke (ikus, esaterako, Atkins & Rundell 2008: 160).[58] Ikus dezagun ondorengo 2.1 taulan atal bakoitzari zer dagokion.

Marko-egitura (*Frame structure*)	Hiztegiaren hitzaurrea, hitz-atzea, aipamenak, erabilera-argibideak, edukien zerrendak, aurkibideak
Makroegitura (*Macrostructure*)	Sarrera-buru diren lema-ikurrak eta horien antolaera
Mikroegitura (*Microstructure*)	Hiztegi-sarreren edukiak eta horien antolaera. Lemareni buruzko argibide fonetikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta semantikoak

2.1 Taula: Hiztegiaren egitura deskribatzeko kontzeptuak

Engelberg eta Lemnitzer autoreak (2004: 143f) zuzen daude, hiztegigintza elektronikoan marko-egitura, makroegitura eta mikroegituraren arteko mugak desagertuz

[57] ES *lexicografía bilingüe*, EN *bilingual/interlingual lexicography*, DE *bilinguale/interlinguale/zweisprachige Lexikographie*

[58] Euskaraz ere erabiltzen direla terminook; ikus, esaterako, Hirigoyen (2002) edo https://eu.*Wikipedia*.org/wiki/Hiztegigintza

doazelako oharra egiten badute, erabiltzailearen ikuspegitik, behintzat, besteak beste, makroegitura ez baitu zertan hiztegi elektronikoetan hiztegiaren edukietara heltzeko edo sarreraz sarrera igarotzeko bide bakarra izan behar, makroegiturako elementuak inoiz mikroegituraren baitan agertzen baitira,[59] eta mikroegitura bera, printzipioz, erabiltzailearen aginduz alda daitekeelako. Makroegitura eta mikroegiturari buruzko hurrengo kapituluetan, zenbait gogoeta teoriko aurkeztuko ditugu, eta bertan erabiliko ditugu kontzeptuok zentzu klasikoan, ez baitugu erabiltzailearen ikuspegia erabiltzen, hiztegiaren egitura deskribatu baizik. Eremu praktikoan, 3. eta 4. ataletan itzuliko gara jarraian eskainiko ditugun alderdietara.

2.1.1.1 Makroegitura: *hiztegiaren antolamendua*

Makroegituran material lexikoaren antolamendua islatzen da, hiztegia erabiltzeko orduan hiztegiaren edukietara sarbide ematen duen egitura, hiztegi-sarretara bidaltzen duena hurrenkera alfabetikoan datozen lema-ikurren bitartez, esaterako. Tesi honetan ikusten ditugun ia hiztegigintza-lan guztiak hiztegi semasiologikoak dira, lema-ikurraren arabera alfabetikoki ordenatutakoak. Badira beste zenbait antolamendu posible (Haensch 1982: 452): alfabetoaren arabera, baina alderantziz, hitz-familien arabera, edo sistema kontzeptualak oinarritzat hartuz. Antolamendu onomasiologikoa, kontzeptuaren araberakoa, tesauroetan eta *WordNet* datu-baseetan (ikus 4.1.3.4 atala) ikusten dugu. Komunikazio-egoeraren araberako antolamendu bat, berriz, hiztegi didaktiko batzuetan agertzen zaigu, "hizkuntza-gidaliburuetan", euskara alemanez aurkezten duen Beaumont & Lazkano (2002) lana kasu. Hurrenkera alfabetikoaz, UZEIk garatutako hitz-bukaeren hiztegia (UZEI2006) aipa daiteke, hitzaren amaierako hizkia aintzat hartzen duena, eta, bertsolaritzan, adibidez, aplikazio praktikoa izan dezakeena.

Hitz-familiaren araberako ordena irizpide nagusitzat duen hiztegirik ere badago: *Wortfamilienwörterbuch der deutschen Gegenwartssprache* (AUG2009) hiztegian, erroak dira sarrera-buruak, eta inguruko hitz-familia, hots, aurrizkien eta atzizkien bitartez eratutako hitzak sarreraren gorputzean agertzen dira, lexemen hurrenkera alfabetikoa apurtuz horrela.

[59] *EuDeLex* hiztegiko "lemma-browser" horretarako adibidea da: Bilatutako hitzaren aurreko eta ondorengo lemategi-sarrerak ematen dira bilaketa-emaitzaren barnean, saguz hauta daitezkeen lasterbide gisa (ikus 3.5 atala).

2.1 laginean, *-helf-/-hilf-* erroa konpartitzen duten mota guztietako lexemak biltzen dira. Hiztegian, taulan agertzen den familia-kideei azpisarrera bana dagokie, ondorengo taula honetan ikus daitekeen bezala. Aditzak, izenak, aditzak eta adizlagunak zein bi tankerako nominalizazioak[60] agertzen dira. Lexema bat baino gehiagoko hitz-elkarteak, ordea, ez dira agertzen (*Hilfeleistung, Nothilfe, Hilfsmaßnahme, Helfershelfer* hitz-elkarteak, adibidez).

	helf en
	Helf er
	Hilf e
	hilf los
ab	helf en
Ab	hilf e
auf	helf en
aus	helf en
Aus	hilf e
be	helf en
un be	holf en
Be	helf
be	hilf lich
durch	helf en
Ge	hilf e
Ge	hilf in
hinweg	helf en
mit	helf en
Mit	hilf e
nach	helf en
Nach	hilf e
ver	helf e
weg	helf en
weiter	helf en

Die Nominalisierung wird mit -hilfe *gebildet:*

	helfen	**Hilfe**
ab-	x	x
aus-	x	x
mit-	x	x
nach-	x	x

2.1 Lagina: AUG2009:578

Haensch-ek hurrenkera alfabetikoari buruzko arazo batzuk deskribatzen ditu (1982: 454–456). Gaztelaniaren *ñ* eta *ll* eta *ch* hizki osotzat hartu ohi dira, gaztelaniazko hiztegigintzaren ohiturari erantzunez eta mendebaldeko beste hizkuntzetako ohituraren kontra[61]. Hiztegigintza elebidunean, irizpideen ezberdintasunak koherentzia-arazoak sortzen ditu. Halaber, alemanezko hiztegigintzan, alemanezko hizki bereziak, hots, *ä*, *ö*,

[60] *(das) Helfen – laguntze(a); (die) Hilfe - laguntza*

[61] María Molinerrek zuzendutako hiztegiak (DUE2007) Europako ohiturari jarraitzen dio, *ch* eta *ll* hurrenkera alfabetikoan txertatuz. *Ñ* hizkiak, berriz, bere lekua izaten jarraitzen du, *N* eta *O* artean. Bestalde, informatikaren munduan gaztelaniazko hiru berezitasun horiek ez dira kontuan hartzen, eta ingelesa oinarri duen edozein tresnak *ch* eta *ll* prozesatzean bi hizki ikusten ditu bat beharrean; bestetik, *ñ* berdin *n* irakurtzen ditu.

ü eta *ß*, tratatzeko ohitura bi daude. Hiztegigintzan, hizki horiek ondorengo eskeman islatzen den bezala tratatu ohi dira, nazioarteko (ingelesezko) ohiturarekin bat etorriz. Telefonozko eta bestelako aurkibideetan, berriz, beste ohitura bati jarraitzen zaio. DIN 5007:1991 arauak hurrenkera alfabetikoak arautzen ditu, eta honako bi tratamendu deskribatzen dira bertan, ikus 2.2 taula:

Hizki berezia	*ä*	*ö*	*ü*	*ß*[62]
Hiztegian	a	o	u	ss
Telefono-aurkibidean	ae	oe	ue	ss

2.2 Taula: DIN 5007:1991, alemanerazko hizki bereziak

Arazoak sortzen dituen euskarazko hizki bakarra *ñ* da, nazioarteko alfabetoan agertzen ez delako. Izan ere, ingelesezko alfabetoan oinarritutako aplikazio informatikoek, *Google*-k besteak beste, *ñ* eta *n* berdin irakurtzen dituzte. Gaur nagusi diren euskal hiztegi guztietan, hizki osotzat hartzen da *ñ*, eta *n* eta *o* artean txertatzen da.

Sarrera-buru gisa hiztegian agertuko diren lemak hautatzea, zeregin problematikoa da zenbait zentzutan. Haensch autoreak (ibid.: 462h) zerrendatzen dituen arazoen artean, hiru dira nagusiak:

1. Homonimia: kategoria gramatikal berdineko bi lema homografo
2. Homografia: kategoria gramatikal ezberdineko lema homografoak
3. Polisemia: adiera bat baino gehiago duen lema

Badira hominimia eta homografia makroegituran desanbiguatzen dituzten hiztegiak, entitate homonimo edo homografo bat baino gehiago sarrera-buru gisa antolatuz, eta auzi horiek mikroegituran ere agertzen dira, hau da, sarrera-buru baten azpian hiztegi-sarrera berean erabakitzen dituztenak, baita bi kasuentzako irizpide ezberdinak dituztenak ere.

Homonimiari dagokionez, alemanezko hiztegigintzan Kempcke autoreak deskribatzen duen irizpidea da nagusi: lema izateko bi hautesle homografoetan ezberdintasun morfosintaktikoak baditugu, homonimotzat hartuko ditugu; ezaugarri morfosintaktiko berdinekoak badira, aldiz, lema bera izango dira hiztegi-lemategian

[62] ß: historikoki, sz (cf. DWB [1854-60] hiztegian erabilitako grafiak)

(Kempcke 2001: 67), morfosintaxia ezberdineko homografoak erlazio semantikorik izango ez baitute, alde batetik, eta hiztegiaren erabiltzaileak, hizkuntza-ikasleak batik bat, ezaugarri morfosintaktikoak lema batekin batera ikus eta ikas ditzan, bestetik. Sarrera bana merezi duten homonimoak izango dira, beraz, *die Kiefer* (izena, f.) eta *der Kiefer* (izena, m.) bezalako bikoteak, baita *Ausdruck* (izena, m., *ausdrücken*, "adierazi" aditzetik deribatua), eta *Ausdruck* (izena, m., *ausdrucken*, "inprimatu" aditzetik deribatua)[63] ere.

Euskaraz, irizpide hori ezin da besterik gabe aplikatu: *baso* (eremua) eta *baso* (ontzia) hiztegi gehienetan homonimotzat hartu eta sarrera bitan ematen dira, nahiz eta ezaugarri morfosintaktikoetan ezberdintasunik ez azaldu. Kasu honetan, jatorria, etimologia ezberdina izatea da irizpidea. Homonimia eta homografiaren gainean euskarazko hainbat hiztegik zer jokabideri jarraitzen dioten era sistematikoago batean 2.4 atalean aztertuko dugu.

Lemategia	*Homografoak*
EuDeLex deutsch (Buchstabe A) c*ase sensitive*	% 0,5
EusWN	% 5,3
EDBL	% 6,9

2.3 Taula: Kategoria gramatikal ezberdineko entitate bati baino gehiagori dagozkion lemak

Izan ere, homografia euskaraz askoz garrantzi handiagoko fenomenoa da alemanerazko hiztegian baino, eta horra hor arazo horiei lan honetan hainbesterako arreta eskaintzeko arrazoi bat. Erabiltzailearen ikuspegitik esan daiteke, arazo horiei hurbiltzeko euskarazko hiztegietan aurkitzen ditugun jokabide ezberdinak dira-eta, zalantzak sortzen direla erabiltzailearengan, eta zeregin neketsua izan daiteke bilatutako argibideak hiztegian aurkitzea. 2.3 taulan, euskaraz eta alemanezko lemategietako homografoen eta homonimoen kopuruak ematen ditugu. Alemanezko datuak *EuDeLex* hiztegitik (A hizkia) hartutakoak dira, eta izenen hasierako hizki larriak eta gainerakoen hasierako hizki xeheak (*Abseits* IZE eta *abseits* ADB bezalako bikoteak) grafia ezberdintzat (heterografotzat) hartu ditugu, alemanerako hiztegietan gertatu ohi den

[63] Azken homonimo bikote hau adibide izango dugu *EuDeLex* hiztegiko izen-sarrerari buruzko 3.3.3 atalean.

bezala. Euskararentzako datuak EDBL eta *EusWN*[64] datu-base lexikaletako datuen gainean kalkulatu ditugu. Zenbakiek kategoria gramatikal ezberdineko homografoak baino ez dute aintzat hartzen, *baso* eta *baso* zein *Ausdruck* eta *Ausdruck* bezalako bikoteak, beraz, hemen ez ditugu kontuan hartzen.

2.1.1.2 Mikroegitura*: Sarreren barruko antolamendua*

Hiztegian agertuko diren lemak hautatuz, multzo ireki batetik sarrera-burua diren lema-ikurren multzo itxi bat finkatzen da, hiztegi semasiologiko baten makroegitura izango dena. Lema-ikurrei buruzko argibideak, berriz, hiztegi-sarreretan ematen dira. Sarrerak motz-motzak izan daitezke, glosario itxurakoak, elebidunen kasuan lema bakarrari ordain bakarra emanez, inolako argibiderik gehitu gabe, edota kopuru handikoak, sarrera-buruarekin erlazionaturiko azpi-sarrerekin eta tankera ezberdineko argibideekin Lemma beschreiben (ikus Haensch 1982: 462hh; Atkins & Rundell 2008: 246–257; Svensén 2009: 344–367).

bake
verb UK US /beɪk/
Definition
• [I or T] to cook inside a cooker, without using added liquid or fat
I made the icing while the cake was baking.
a baked potato
freshly baked bread
Bake at 180°C for about 20 minutes.
Bake for 5-7 minutes in a preheated oven.
a baking dish/tin/tray
• [I or T] to make something such as earth or clay hard by heating it, usually in order to make bricks
• [I] INFORMAL to be or become very hot
It's baking outside.
You'll bake in that fleece jacket!
(Definition of bake verb from the Cambridge Advanced Learner's Dictionary & Thesaurus © Cambridge University Press)

2.2 Lagina: CEDO: s.v. 'bake'

Lan honetan zehar, eta euskarazko hainbat hiztegiren sarrerak elkarren aldamenean aurkezten dituen 2.4 atalean (irudiak 7.2 eranskinean), bereziki, adibide franko ikusiko dugu. 3.3 atalean, berriz, *EuDeLex* hiztegi egitasmoarentzat mikroegitura eratzeko proposamenak egingo ditugu. Bertan, hiztegi elebidunen mikroegiturari dagozkion arazo eta eztabaida nagusi batzuk azalduko ditugu.

Ondoren ere hizpide izango dugun gai bat aurreratu nahi dugu hemen, argibide mota ezberdinetan hiztegiz hiztegi ematen zaizkion garrantzia mikroegiturako elementuen

[64] *EusWN* datu-basean, izenak, aditzak, adjektiboak eta adberbioak baino ez dira jasotzen. *Arte* eta *arte* bezalako bikoteak, beraz, datu horietan ez dira agertzen, EDBL-eko datuetan, aldiz, bai.

backen

Wortart: unregelmäßiges Verb
Häufigkeit:

Rechtschreibung Nach oben

Worttrennung:
ba|cken

Bedeutungen Nach oben

1. a. aus verschiedenen Zutaten einen Teig bereiten und diesen unter Hitzeeinwirkung im Backofen gar und genießbar machen
   b. durch Backen herstellen
   c. (österreichisch, sonst landschaftlich) in der Pfanne, im Topf auf dem Herd oder im Ofen in [schwimmendem] Fett unter starker Hitzeeinwirkung garen [und knusprig braun werden lassen]
   d. in den Teig mischen und damit einem Gebäck o. Ä. zusetzen
2. in der Ofenhitze eines Backofens garen
3. (umgangssprachlich) etwas zu Backendes auf bestimmte Weise garen
4. (landschaftlich) durch Hitzeeinwirkung dörren, trocknen

Wussten Sie schon? Nach oben

Dieses Wort gehört zum Wortschatz des Zertifikats Deutsch.

2.3 Lagina: Duden online: s.v. 'backen'

hierarkian nola islatzen denaren adibide esanguratsua: Aditzaren inguruko argibideen hierarkia hiztegi-sarreran.

Hiztegi askotan, aditzari dagokion sarrera semantikaren arabera ordenaturik dago, hau da, adieren arabera, eta ez aditzak entitate sintaktiko gisa dituen ezaugarrien arabera. (Hainbat kasutan, ezaugarri sintaktikoak ez dira aipatu ere egiten.) Horrelako ordena sintaktikoa ingelesezko hiztegigintzaren usadioarekin bat dator, baita TEI estandarrarekin ere: TEI araudiari jarraituz, sintaxiaren inguruko argibideak *grammar group* (<*gramGrp*>) izeneko elementuan ematen dira, adieraren (<*sense*>) elementuaren barruan kokaturik. Inprimatze-ikuspegian, 2.2 lagineko bezalako ordena da horren emaitza: Aditzaren *trantsitibo* eta *intrantsitibo* ezaugarriak adiera bakoitzaren barruan agertzen dira. Ordena horri jarraiki, askotan ondorengo irizpidea ere erabiltzen da: Trantsitibotasunaren argibiderik ematen ez bada, erabilera trantsitiboari zein intrantsitiboari dagozkio argibide semantikoak (ZEH2005 hiztegia kasu).

Beste kasu batzuetan, ezaugarri sintaktikorik ez da aipatzen, 2.3 lagineko *Duden* sareko hiztegiko adibidean, esaterako.[65] Hemen, erabiltzaileak asmatu behar du erabilera intrantsitiboa ote dagoen, hiztegiak ematen dituen adibideetatik ere ezin baitu ondorioztatu.

Hainbat hiztegik, aldiz, alderantzizko irizpideari jarraitzen diote, hots, orden sintaktikoari. Horren arabera, "trantsitibo" eta "intrantsitibo" bezalako ezaugarri sintaktikoaren araberako entitate sintaktikoen azpian txertatzen dituzte polisemiaren sailkapenak. Horrelako hierarkia baterako, alemanezko hiztegigintzan adibide ugari dago, aleman-gaztelaniazko PONS hiztegia, esaterako (2.4 lagina).

I. backen <backt [o. bäckt], backte [o. buk], gebacken> ['bakən]
VERB intr (gar werden)

backen	cocer

II. backen <backt [o. bäckt], backte [o. buk], gebacken> ['bakən]
VERB trans (Brot, Kuchen)

backen	hacer (en el horno)
backen	hornear
ein selbst **gebackener** Kuchen	un pastel casero [o hecho en casa]
das Brot ist frisch **gebacken**	es pan recién hecho
die frisch **gebackenen** Eheleute	los recién casados

2.4 Lagina: PONS DE-ES: s.v. 'backen'

Badira hierarkia ezberdinak, beraz. Alemana ikasten ari denaren ikuspegitik zentzuduntzat jotzen dugu aditzaren gaineko argibide sintaktikoak esplizituki ematea, baita semantikaren gaineko hierarkia-mailan ere. 3.3.4 atalean itzuliko gara eztabaida horretara, aleman-euskarazko hiztegi elebidun berria egituratzeko proposamenaz ari garenean.

Atal honi amaiera emateko, alemanarekiko hiztegigintza elebiduneko klasiko batetik ekarriko dugu adibide bat: SLGR1932 hiztegian *fahren* lema-ikurrari dagokion sarrera (2.5 lagina). Adibide horrek erakusten digu, alde batetik, zein argibide ugari eta zehatz eman daitezkeen semantikaren inguruan, kolokazioak, esapideak eta bestelako adibideak barne (eta honekin konparatu beharko lirateke gaurko hiztegi elebidunak, ikus 2.2 atala),

[65] DGW2011. Duden argitaletxeko sareko hiztegiaren edukiak DGW2011 hiztegiarekin (edota argitaletxeko beste batekin) beti bat ote datozen, ez dago argi. Duden etxeko sareko eskaintza: http://www.duden.de.

fa'hren (a/ä, u, u):

I. ~ *vi*: 1. andar, ir *bzw* venir *bzw* volver *bzw* viajar (en coche, ferrocarril, auto, barco, trineo, avión, bicicleta) || *poet* marchar, vagar || [hinauf-] subir (a) || [hinunter-] bajar (a) || [hinein-] entrar (en) || *Mar* navegar (gut bien, schlecht mal) || **mit der Bahn (Post)** ~ tomar el tren *bzw* tranvía (la diligencia) || **auf Grund** ~ *Mar* encallar || **reiten und** ~ andar a caballo y en coche || **den Strom aufwärts (abwärts)** ~ remontar (descender) el río || **rechts (links)** ~ [Wagen] circular por la derecha (izquierda) || **spazieren** ~ ir de paseo, pasear *od* dar un paseo en coche, automóvil etc. || **die Züge** ~ **nicht (~ nur Sonntags)** los trenes no circulan (circulan sólo los domingos) || **wir wollen lieber** ~ más vale tomar un taxi (el tranvía, el tren etc.) || **wie lange** ~ **wir bis Madrid?** ¿cuánto se tarda en llegar a Madrid? || **morgen fahre ich nach Berlin** mañana me marcho a Berlín || **nach Rom, ins Heilige Land** ~ [wallfahrten] ir en pergrinación a Roma, a Tierra Santa || **zu einem Heiligtum** ~ ir en romería (a un santuario).

2. + *prep*: **ans Kai** ~ *Mar* atracar al muelle || **an den Kopf** ~ [Wurfgeschoß] dar en la cabeza de || *fig* [v. Personen] precipitarse sobre || **aus Land** ~ *Mar* tomar tierra || desembarcar || **am Ufer** ~ navegar cerca de la costa || **aufs Land** ~ ir al campo || **auf das Land zu** ~ *Mar* abordar tierra || **auf den Markt** ~ mit ... llevar (sus productos etc.) al mercado || **aus dem Bette** ~ saltar de la cama, levantarse precipitadamente, despertar sobresaltado || **aus der Hand** ~ [Messer usw.] escaparse (de la mano) || **aus der Haut** ~ **wollen** [vor Ungeduld] estar a punto de perder la paciencia, *fam* salirse de sus casillas || **es ist um aus der Haut zu** ~ *fig* es para volverse loco || **aus den Wolken** ~ [Blitz] descargarse de las nubes || **durch den Kopf** ~ [Gedanke] pasar por la cabeza || **durch die Lande** ~ andar errante *od* vagar *od* rodar por el mundo || **durch die Stadt** ~ pasear (en coche etc.) por (las calles de) la ciudad || [Auto, Straßenbahn usw.] circular por la ciudad || [hindurchfahren] pasar por la ciudad, cruzar la ciudad (en un sentido determinado) || atravesar la ciudad || **gegen et.** ~ dar al chocar con, atropellar u/c || **gen Himmel** ~ *poet* subir al cielo (*Rel* a los cielos) || **in die Grube** ~ *Bgb* bajar a la mina || *fig* [sterben] morir (**mit Leid** de pena) || **jdm in die Haare** ~ [streicheln] acariciarle los cabellos a u. || [mit dem Kamm, der Hand] pasar el peine (la mano) por el cabello || **einander in die Haare** ~ *fig* andar a la greña || **in den Hafen, den Hof** ~ entrar en el puerto, en el patio || **in die Höhe** ~ levantarse de sobresalto, sobresaltarse || **in die Kleider** ~ vestirse (de prisa) || ponerse el vestido || **in die Stiefel** ~ calzarse las botas || **in die Tasche** ~ meter la mano en el bolsillo || **was ist bloß in ihn gefahren?** *fam* ¿qué (demonios) le ha pasado? || **der Teufel ist in ihn gefahren** se lo llevó el demonio || está poseído del demonio || **nach et.** ~ [mit der Hand] tratar de alcanzar *od* asir u/c, extender la mano para coger u/c || **über et.** (acc) ~ pasar, atravesar (un puente, una calle), cruzar (un río) || **mit der Hand über die Haare** ~ pasar la mano por los cabellos || **jdm über den Mund** ~ *fig* [v. Personen] [1] a alg. || **den Leuten gern über den Mund** ~ *fig* [v. Personen] [1] || **über jdn hinweg** ~ [Auto usw.] pasar por encima de, atropellar a u. || **um die Ecke** ~ doblar la esquina || **sich mitten unter die Menge** ~ [Auto usw.] (curioso etc.) sobre [Auto: penetró en) la multitud || **vom Stuhle** ~ levantarse bruscamente || **mit** ~ [Auto usw.] pasar por encima de, atropellar a u. || **um die Ecke** ~ doblar la esquina || **sich mitten unter die Menge** ~ [Auto usw.] (curioso etc.) sobre [Auto: penetró en) la multitud || **vom Stuhle** ~ levantarse bruscamente || **aus dem Bette** ~ saltar de la cama || **aus der Haut** ~ [Messer usw.] escaparse (de la mano) || **aus der Haut** ~ **wollen** [vor Ungeduld] estar a punto de perder la paciencia, *fam* salirse de sus casillas || **es ist um aus der Haut zu** ~ *fig* es para volverse loco || **aus den Wolken** ~ [Blitz] descargarse de las nubes || **durch den Kopf** ~ [Gedanke] pasar por la cabeza || **durch die Lande** ~ andar errante *od* vagar *od* rodar por el mundo || **durch die Stadt** ~ pasear (en coche etc.) por (las calles de) la ciudad || [Auto, Straßenbahn usw.] circular por la ciudad || [hindurchfahren] pasar por la ciudad, cruzar la ciudad (en un sentido determinado) || atravesar la ciudad || **gegen et.** ~ dar al chocar con, atropellar u/c || **gen Himmel** ~ *poet* subir al cielo (*Rel* a los cielos) || **in die Grube** ~ *Bgb* bajar a la mina || *fig* [sterben] morir (**mit Leid** de pena) || **jdm in die Haare** ~ [streicheln] acariciarle los cabellos a u. || [mit dem Kamm, der Hand] pasar el peine (la mano) por el cabello || **einander in die Haare** ~ *fig* andar a la greña || **in den Hafen, den Hof** ~ entrar en el puerto, en el patio || **in die Höhe** ~ levantarse de sobresalto, sobresaltarse || **in die Kleider** ~ vestirse (de prisa) || ponerse el vestido || **in die Stiefel** ~ calzarse las botas || **in die Tasche** ~ meter la mano en el bolsillo || **was ist bloß in ihn gefahren?** *fam* ¿qué (demonios) le ha pasado? || **der Teufel ist in ihn gefahren** se lo llevó el demonio || está poseído del demonio || **nach et.** ~ [mit der Hand] tratar de alcanzar *od* asir u/c, extender la mano para coger u/c || **über et.** (acc) ~ pasar, atravesar (un puente, una calle), cruzar (un río) || **mit der Hand über die Haare** ~ pasar la mano por los cabellos || **jdm über den Mund** ~ *fig* [v. Personen] [1] a alg. || **den Leuten gern über den Mund** ~ *fig* [v. Personen] [1] || **über jdn hinweg** ~ [Auto usw.] pasar por encima de, atropellar a u. || **um die Ecke** ~ doblar la esquina || **sich mitten unter die Menge** ~ [Auto usw.] (curioso etc.) sobre [Auto: penetró en) la multitud || **vom Stuhle** ~ levantarse bruscamente || **mit** ~ [Auto usw.] pasar por encima de, atropellar a u. || **um die Ecke** ~ doblar la esquina || **sich mitten unter die Menge** ~ [Auto usw.] (curioso etc.) sobre [Auto: penetró en) la multitud || **vom Stuhle** ~ levantarse bruscamente || **aus dem Bette** ~ saltar de la cama || **aus der Haut** ~ [Messer usw.] escaparse (de la mano) || **aus der Haut** ~ **wollen** [vor Ungeduld] estar a punto de perder la paciencia, *fam* salirse de sus casillas || **es ist um aus der Haut zu** ~ *fig* es para volverse loco || **aus den Wolken** ~ [Blitz] descargarse de las nubes || **durch den Kopf** ~ [Gedanke] pasar por la cabeza || **durch die Lande** ~ andar errante *od* vagar *od* rodar por el mundo || **durch die Stadt** ~ pasear (en coche etc.) por (las calles de) la ciudad || [Auto, Straßenbahn usw.] circular por la ciudad || [hindurchfahren] pasar por la ciudad, cruzar la ciudad (en un sentido determinado) || atravesar la ciudad || **gegen et.** ~ dar al chocar con, atropellar u/c || **gen Himmel** ~ *poet* subir al cielo (*Rel* a los cielos) || **in die Grube** ~ *Bgb* bajar a la mina || *fig* [sterben] morir (**mit Leid** de pena) || **jdm in die Haare** ~ [streicheln] acariciarle los cabellos a u. || [mit dem Kamm, der Hand] pasar el peine (la mano) por el cabello || **einander in die Haare** ~ *fig* andar a la greña || **in den Hafen, den Hof** ~ entrar en el puerto, en el patio || **in die Höhe** ~ levantarse de sobresalto, sobresaltarse || **in die Kleider** ~ vestirse (de prisa) || ponerse el vestido || **in die Stiefel** ~ calzarse las botas || **in die Tasche** ~ meter la mano en el bolsillo || **was ist bloß in ihn gefahren?** *fam* ¿qué (demonios) le ha pasado? || **der Teufel ist in ihn gefahren** se lo llevó el demonio || está poseído del demonio || **nach et.** ~ [mit der Hand] tratar de alcanzar *od* asir u/c, extender la mano para coger u/c || **über et.** (acc) ~ pasar, atravesar (un puente, una calle), cruzar (un río) || **mit der Hand über die Haare** ~ pasar la mano por los cabellos || **jdm über den Mund** ~ *fig* [v. Personen] [1] a alg. || **den Leuten gern über den Mund** ~ *fig* [v. Personen] [1] || **über jdn hinweg

sailkapena, gainera, are urrunago doa hemen, aditz intrantsitiboaren semantika balentziaren arabera sailkaturik dator-eta (ikus 'I. 2. +Präposition', 'I. 3. in adverbiellen Verbindungen ["adberbiozko egituretan"]').

2.1.2 Iturburu irekiko hiztegigintza

Alemana bezalako baliabide askoko eta *dentsitate* handiko hizkuntza[66] batean, baliabide lexiko ugari ditugu eskuragarri, liburu gisa nahiz formatu elektronikoan. Hiztegigileek ezin konta ahala hiztegi editatu dituzte, eta alemanezko lemen gaineko argibide fonetikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta semantikoak behin eta berriro batu eta editatu izan dira, edo aurreko argitalpen batetik eguneratu.

Hala ere, aurrekari aipagarririk ez duen eta datu-base lexiko handiak dauzkan argitaletxe baten baitan sortzen ez den hiztegi-egitasmo berri batek aintzat hartzeko moduko iturburu irekiko (*open source*) datu multzoak eskuragarri ditu, hau da, datu-base edo zerrenda oso gisa[67] eta erabilpena debekatzen ez duen lizentzia batekin eskura daitezkeen datu lexikalak. Datu horiek, era berean, egitasmo berriaren abiapuntua izan daitezke. Oro har, aurretik existitzen diren datu-base lexikaletatik erauzitako datuak bi eratan erabil daitezke egitasmo berri baten abiapuntu edo osagai gisa:

(1) Datu lexikalak datu-base berrira inportatuz, ondoren eskuz zuzendu eta egokitzeko (*Semi-Automatic Dictionary Drafting*, ikus 4.1 atala);

(2) Hiztegi elektroniko baten erabiltzaile-interfazean, erabiltzaileak bilaketa gauzatzen duen momentuan (*on the fly*), datu lexikalak kanpoko iturrietatik erauziz eta emaitza-orrian txertatuz (ikus gure adibidea 3.5 atalean).

Alemanaren kasuan, ondorengo iturburu irekiko baliabide hauek daude nagusiki: *Openthesaurus*[68] datu-basea, eta erabiltzaileen komunitateak sortu eta mantenduriko *Wiktionary*-ren[69] alemanezko bertsioa. Baliabide horiek hazten jarraituko dute etengabe, eta profesional izatera iritsiko dira, beharbada (Meyer & Gurevych 2010; Meyer &

---

66 *Dentsitatea* corpus-hizkuntzalaritzan erabiltzen den kontzeptua da, eta sarean hizkuntza batean eskuragarri dagoen testuaren kopurua denotatzen du. Alemana *high density language* dela esan daiteke; euskara, aldiz, *medium density*. 4.1.1 atalean gehiago irakur daiteke kontzeptuaz.

67 Hainbat baliabide lexikoren edukiak eskuragarri ditugu sareko erabiltzaile-interfazearen bitartez, datu-base oso gisa, aldiz, ez. Erabiltzaile-interfazeek banan-banako bilaketak eginez gero baino ez badute ematen datuak, horiek osorik deskargatzea saihesteko, hain zuzen ere, eta, horrenbestez, ez diegu iturburu irekikoak deituko.

68 https://www.openthesaurus.de/.

69 http://de.*Wiktionary*.org/.

Gurevych 2012). Alemanezko gainerako hiztegiak, aldiz, ezin dira euren osotasunean eskuratu eta erabili, ohiko *copyright* lizentzia baitute. Duden, Klett (PONS izenpean) eta Langenscheidt etxeetako hiztegiak, esaterako, dagokion argitaletxetik kanpo lan egiten duen hiztegigileak beste erabiltzaile ororen era berean erabiltzeko aukera besterik ez du, hau da, banan-banako bilaketek ematen dizkioten datuak ikustea, hiztegi berria editatu bitartean aldamenean izateko. Horietako beste hiztegiren baten lemategi osoa, esaterako, ezin du fitxategi batean eskuratu, eta are gutxiago mikroegiturako edukiak. Horrelakorik lortzeko, beharrezkoak izango lirateke diruz ordaindutako hitzarmenak, errentagarritasun ekonomiko gutxiko edo irabazteko asmorik gabeko hiztegigintza akademiko batekin bateragarriak ez direnak.

Erabiltzeko lizentziari dagokionez, kasu berezia da *GermaNet* datu-basea, alemanezko *WordNet* ezin baitaiteke osorik eskuratu eta erabili, baliabidea garatzen duen Tübingen-eko unibertsitatearekin lizentzia-hitzarmena egin ezean. Erabilpena diruz ordaindu behar ez bada ere, hitzarmenaren bitartez zehaztutako helburura mugatu behar du lizentzia eskuratu nahi duenak.

Bestetik, IDS erakundeak garatzen dituen eta *Creative Commons* lizentziapean eskura daitezkeen corpusetan oinarritutako *DeReWo* maiztasun-lemategiak (ikus 3.2.1 atala) abiapuntu egokia dira, gure ustez, alemanezko hiztegi-lemategia hutsetik eraikitzeko lanetan.

Euskararen kasuan, euskara baliabide eta hiztun gutxiagoko hizkuntza izan arren, lizentzia libre eta iturburu irekiko baliabide lexiko aipagarriak ditugu:

1. HB2010 hiztegiaren eduki guztiak biltzen dituen *xml* fitxategia[70]
2. *EusWN* datu-base lexikala[71]

Halaber, testuinguru akademikoan garatutako hainbat baliabide dugu, garatzaileekin akordio egokia eginez gero euren osotasunean erabil ditzakegunak.[72]

[70] Euskaltzaindiaren atarian eskuragarri dago: http://www.euskaltzaindia.net/dok/eaeb/hiztegibatua/
[71] EHUko IXA taldeko atarian eskuragarria: http://ixa2.si.ehu.eus/mcr/
[72] Gure ikerketa-lanetan datu-base oso gisa erabili ahal izan ditugun euskarazko baliabideen zerrenda 3.2.2.4 atalean.

2.2 Alemanarekiko hiztegi elebidun elektronikoak

dict.cc eta *leo.org* dira egun gehien erabiltzen diren Europako hizkuntza nagusien eta alemanaren arteko *online* edo sareko hiztegiak.[73] Municheko Unibertsitateko informatika-fakultatean garatzen hasi zen eta egun LEO GmbH enpresak kudeatzen duen LEO eta Paul Hemelsberger egileak Vienan garatu duen *dict.cc* hiztegiek erabiltzaileari zer eskaintzen dioten ikusiko dugu.

2.6 Lagina: LEO DE-ES online-hiztegia: s.v. 'Kiefer'

2.6 laginean ikusten denez, LEO hiztegiak *Kiefer* eskaerari ordainen zerrenda hutsa emanez erantzuten dio, jakintza-arloaren markarekin batera. *Kiefer* izenaz eta polisemiaz ez du argibiderik ematen. Makroegiturari eta mikroegiturari dagokienez, LEO hiztegiak, beraz, glosario baten antza handiagoa du, hiztegi batena baino. Bestalde, erabiltzaileak lemaren ondoko ikurretan klik egiten duenean, artxibategi fonetiko digitaleko grabaketa entzun dezake, eta flexio-taula bat ikusi.

dict.cc hiztegian, antzeko irudia topatzen dugu (2.7 lagina) glosario itxura duen ordain-zerrendari dagokionean, jakintza-arloaren markaz gain hiperonimoak (*Kiefer*>*Knochen*) eta arlo semantikoa (*de animal*) eta dialektoa (*sur*) markaturik badatoz ere. Bestalde, kasu honetan alemanezko hiztegi elebakar baten edukiak gehitzen zaizkio bilaketa-emaitzari. *Kiefer* izenerako, hiru homonimo ezberdintzen dira gaztelaniazko itzulpenik gabe datorren atal horretan, *openthesaurus* zerbitzutik (ikus aurreko 2.1.2 atala) hartutako sinonimoekin batera. Halaber, nabaritzen da ez dela polisemia ezberdintzen, "noun 2" eta "noun 3" bi lema homonimo beharrean lema beraren bi adieratzat jo beharko bailirateke, *Kiefer=mandíbula* eta *Kiefer=pino* flexio-morfologia ezberdineko lema homonimoak izan bitartean.

[73] http://dict.cc, *Alexa* zerbitzuak argitaratzen duen alemanezko webgune erabilienen zerrendako 41. posizioan dago, eta http://leo.org, aldiz, 64. posizioan (Datuak: *Alexa*, 2015eko ekaina).

Wörterbuch Spanisch ← Deutsch: **Kiefer** Übersetzung **1 - 5** von **5**

Spanisch		Deutsch		
–		NOUN 1 der / [bayer., österr. ugs. auch] das Kiefer | die Kiefer NOUN 2 die Kiefer [Baum] | die Kiefern NOUN 3 (die) Kiefer [Holz] | - SYNO Kiefer | Kieferknochen | [Berg-]Kiefer ...		edit edit edit
mandíbula {f}	anat.	**Kiefer** {m} [Knochen]	13	
pino {m}	bot.	**Kiefer** {f}	11	
carretilla {f} [sur]	anat.	**Kiefer** {m}	2	
maxilar {m}		**Kiefer** {m} [Knochen]		
quijada {f} [de animal]		**Kiefer** {m} [Knochen]		

2.7 Lagina: *dict.cc* DE-ES online hiztegia: s.v. 'Kiefer'

Klett argitaletxeak PONS izenpean sarean eskaintzen duen alemanezko sareko hiztegi eleaniztunak gehiago eskaintzen du, goian aipatutako bi baino askoz gutxiago erabiltzen bada ere[74] .

Hemen (2.8 lagina), izena desanbiguaturik dator, homonimo bakoitzak flexio-paradigma eta jakintza-arloa ditu alboan, eskaintza digital honen jatorri den paperezko hiztegian datorren bezalaxe. Sarrera bakoitzean, itzulpen-ordainak ditugu, bakoitza audio-artxibo batekin lotua.

Kiefer[1] <-, -n> ['ki:fɐ] SUBST *f* BOT

Kiefer	**pino** *m*

Kiefer[2] <-s, -> SUBST *m* ANAT

Kiefer	**maxilar** *m*
Kiefer	**mandíbula** *f*

2.8 Lagina: PONS DE-ES online-hiztegia: s.v. 'Kiefer'

Klett argitaletxeak haren aleman-gaztelaniazko datu-basean dituen edukiez gainera, erabiltzaileak errenkada bakoitzean dagoen "gehi" ikurrean klik eginez gero, *Kiefer* izenari buruzko beste webgune batzuek duten edukietara bidaltzen duen lotura sorta batera heltzen da. DWDS hiztegia,[75] Leipzigeko Unibertsitateak garatzen duen *Projekt Deutscher Wortschatz*,[76] *Canoo*,[77] *Wikipedia* entziklopedia, *Wiktionary* hiztegia eta

[74] http://pons.eu atala *Alexa* zerbitzuko zerrendan 75.000. tokian baino atzerago dago (2015eko ekaina).
[75] http://www.dwds.de
[76] http://wortschatz.uni-leipzig.de/
[77] http://canoo.net/

PONS argitaletxearen beraren *Bildwörterbuch* ('irudi-hiztegia', ikus 2.9 lagina) dira modu horretan zuzenean eskura daitezkeen edukiak.

2.9 Lagina: PONS Bildwörterbuch online: s.v. 'Kiefer'

Esan gabe doa hiztegi elebidunek betetzen dituzten funtzioak horrelako loturen bitartez aniztu egiten direla. 2.9 lagineko argibideek, adibidez, alemana ikasten ari denari laguntzen diote, eta edozeini ere bai, dagokion hitza testuinguru batean ezagutu nahi badu (hemen, txakur baten eskeletoa hartu da anatomia arloko terminoak irudikatzeko).

Argibide aurreratuagoak ikusi nahi dituen erabiltzaileak, berriz, DWDS atariko eskaintzetara joko du, hala nola DWDS atariak (2.10 lagina) erabiltzaileari lexemaren WDG hiztegitik hartutako definizio entziklopedikoa, sinonimoak, hiper- eta hiponimoak eta corpusetako adibideak eta agerkideak eskaintzen ditu. Beraz, sareko beste ataletarako loturen bitartez beharrean, DWDS interfazeak hainbat iturriren emaitzak batu eta batera ematen ditu. Zentzu horretan, aitzindaria da alemanezko hiztegigintzan eta zenbait autoreren arabera, hauxe da datorkigun joera hiztegigintza elektronikoan: hiztegigintza klasikoaren ekoizpena formatu elektronikora moldatu eta corpus-hizkuntzalaritzak, fonetika-artxibo digitalak eta bestelako iturriek eskaintzen dutenarekin batera ematea (ikus, besteak beste, Sanmarco 2008; Torres del Rey 2009).

2.10 Lagina: DWDS: s.v. 'Kiefer'

2.3 Euskarazko hiztegi elektronikoak

Euskarazko baliabide lexikoak ere aro digitalera igarotzen ari dira. Egun, erabiltzaileak hainbat hiztegiren artean hauta dezake, sarean kontsultatzeko.

EHUko Euskara Institutua, Elhuyar, UZEI eta Adorez taldea arduratzen dira, besteak beste, hiztegigintza elektronikoaz, eta haiek sortutako hiztegi elektronikoek erabilera hedatua dutela esan daiteke. UZEIko ETM eta Ibon Sarasola garatzen ari diren EEH salbu, lan horiek guztiak euren paperezko bertsioaren moldapen elektronikoak dira, hots, papera euskarri duen argitalpen bati material beraren argitalpen elektronikoak jarraitzen dio kasu horietan. ETM eta EEH, berriz, zuzenean formatu elektronikoan sortu dira.

Jarraian, erabiltzailearen aldetik garrantzizkoak diren euskarazko hiztegi elektronikoen ezaugarri batzuk ikusiko ditugu (2.4 taula). Ondorengo parametroak interesatzen zaizkigu hemen:

- Lema bat bere horretan soilik bila daiteke, edota hitz-hasieraren arabera ere bai?
- Hiztegiaren eduki osoan bilatzeko aukerarik al dago?

- Hitzen forma ez kanonikoak bilaketa-eremuan sartuz gero, dagokion lemara bidaltzen al du?
- Hiztegia bere osotasunean behera kargatzerik al dago?
- Hiztegi-sarrera baten lotura zuzena eta iraunkorra (*permalink*) gorde daiteke (lasterbide-marka gisa, adibidez)?
- Erabiltzaileari hiztegi-sarrera bat iruzkintzeko aukera ematen al zaio?

	lema bere horretan bilatu	*hitz-hasiera bilatu*	*forma ez kanoni-koaz lema bilatu*	*testu osoan bilatu*	*download (doan)*	*permalink*	*iruzkinak egiteko aukera*
Elhuyar hiztegiak (EEG2013 etab.)	bai	bai	ez	bai	ez	ez	bai
ETM	bai	ez	ez	ez	ez	ez	ez
MORR1998	bai	ez	ez	ez	ez	ez	ez
HB2010	bai	bai	ez	ez	bai	bai	ez
OEH	bai	ez	ez	ez	bai	bai	ez
SHLH1994	bai	bai	ez	ez	ez	ez	ez
ZEH2005	bai	bai	ez	bai	ez	bai	ez
ADO2013	bai	bai	ez	ez	ez	bai	ez
EEH	bai	bai	ez	ez	ez	bai	ez

2.4 Taula: Sareko euskarazko hiztegien zenbait ezaugarri

Wiktionary familiako euskarazko hiztegia[78] egun arte ez da iritsi kontuan hartzeko moduko tamaina eta kalitate batera. Hiztegi hori da erabiltzaileak egiten dituen ekarpenak zuzenean jasotzeko aukera ematen duen euskarazko baliabide bakarra. Euskarazko *Wiktionary* hiztegiari buruzko estatistikak argi uzten duenez, oso ekarpen gutxi jasotzen dira oraindik oso erabiltzaile-komunitate txiki baten aldetik: egunean batez beste bi artikulu berri sortzen dira.[79] Egun, 48.000 bat artikulu sortuak dira, baina gehienak euskaraz bestelako hizkuntzetako lemei dagozkie; *Wiktionary* hiztegiko euskarazko sarrera-buru orri-izenburu gehienak zenbaki kardinalak eta ordinalak dira.

[78] https://eu.wiktionary.org/.
[79] http://stats.wikimedia.org/wiktionary/EN/TablesWikipediaEU.htm helbidean estatistikak eskuragarri daude (2015eko uztailean kontsultatu ditugu).

Gure ustez, baliabide horrek abiatzeko esku-hartze masiboa beharko luke, erabilgarri izateko, eta, hortik aurrera, erabiltzailearentzat interesgarri bihurtzeko. Euskarazko *Wikipedia* entziklopediak ere horrelako laguntza jaso zuen abiatzeko:

> "2010ean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erabaki zuen Lur hiztegi entziklopedikoaren eta Lur entziklopedia tematikoaren edukiarekin euskal wikipedia aberastea, Jaurlaritzarenak baitira hiztegi horien jabetza eskubideak. Lehiaketa publikora atera zuen lan hori 2011. urtean, eta uztailean argitaratu zen Elhuyar Fundazioak irabazi zuela eduki horrekin euskal wikipediako 11.000 artikulu sortu edo osatzeko kontratua. [...] Halaxe, zenbait wikilarirekin batera Elhuyar Fundazioak egindako lanari esker, 11.015 sarrera landu ziren, helburua baino 15 sarrera gehiago. Sarrera horietatik, % 80 (8.785 sarrera) berriak ziren, hau da, lehendik euskal wikipedian ez zeudenak, eta % 20 (2.230 sarrera) lehendik wikipedia honetan sarrera ziren." (Iturria: *eu.wikipedia.org*[80])

Euskararekiko hiztegigintza elebiduna hainbat konbinaziotan garatuta dago. euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa dira, jakina, argitalpen gehien izan dituzten konbinazioak, Euskal Herriko bertako hizkuntzen elkarbizitzaren ondorioz. Egun, euskaldun gehien-gehienak elebidunak dira, bigarren hizkuntza dagokion estatuko ofiziala izanik, hau da. frantsesa iparraldean eta gaztelania hegoaldean. Hiztegigileen hizkuntza-gaitasunarengatik, eta bestalde, gaztelaniaren edo frantsesaren eta euskararen artean hizkuntza-ikasketak eta itzulpenak burutzeko beharrarengatik hizkuntza bikote horietako hiztegigintza askoz garatuagoa da beste konbinazioetakoa baino.

[80] https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskarazko_Wikipedia (2015eko uztailean kontsultaturik).

Hiztegia	Lema kopuruak
OEH	130.740 sarrera eta azpi-sarrera
MORR1998	67.000 sarrera (hitzaurrearen arabera)
ADO2009	61.974 sarrera (homografoak desanbiguaturik)
EEG2013	60.671 lema (homografoak baturik)
EusWN[81]	49.896 unitate lexiko (homografoak baturik)
SEH1996	38.512 sarrera eta azpi-sarrera (homogr. disanbig.)
HB2010	36.399 lema (homografoak baturik)
AUWH1992	34.000 sarrera (hitzaurrearen arabera)
EEF2012	20.000 sarrera eta azpisarrera[82]
EER1997	(210 orrialde)
EAH2007	16.000 sarrera[83]
EUNL1996	11.000 (hitzaurrearen arabera)

2.5 Taula: Zenbait hiztegi elebidun eta elebakarren euskarazko lemategiak

Euskarazko hiztegien konparaketa kuantitatiboa egiteko, hiztegietan jasotako euskarazko lemategiak alderatuko ditugu (ikus 2.5 taula). Makroegiturako datuok erakusten digutenez, euskara-ingelesa bikoterako eskuragarri ditugun baliabideak kopuruz euskara-gaztelaniazkoen mailan daude. Frantsesa, errusiera, alemana eta nederlandera, aldiz, zerrendaren amaieran aurkitzen ditugu, hurrenkera horretan. Bestetik, badira euskararen eta beste zenbait hizkuntzen arteko hiztegi elebidun txiki batzuk.[84]

2.4 Euskarazko hainbat hiztegiren egituraren konparaketa

Atal honetan, euskarazko hiztegietan aurkitzen ditugun mikroegituren gaineko konparaketa aurkeztuko dugu. Konparaketa burutzeko hautatu ditugun adibideak *heldu* eta *baso* lema-ikurrei dagozkien sarrerak dira, lema horiek arazo bereziak baitakartzate: *heldu* lema aditz, adjektibo eta izen gisa agertzen zaigu, eta *baso*, berriz, izen zein

[81] *EusWN* ez da hiztegia, datu-base lexikoa baizik. Ingelesezko *WordNet* datu-basera loturak ditu (ikus 4.1.3.4 atala).
[82] Azaleko testuaren arabera, hiztegi honek 36.667 sarrera eta 5.367 azpisarrera ditu.
[83] Azaleko testuaren arabera, hiztegi honek 32.400 sarrera ditu EU-DE eta DE-EU ataletan.
[84] http://www.hiztegia.net atarian, hiztegi txiki horien berri eman, eta horietarako lotura eskaintzen da. Egun (2015eko udan) horietako lotura gehienak, aurreko urteetan funtzionatzen zutenak, apurturik daude (arrazoia ez dago argi).

adjektibo gisa. Horrez gain, *baso* lema-ikurra etimologia ezberdineko bi izen homonimori dagokio. Ikus dezagun, beraz, hiztegigileek homografiaren eta homonimiaren aurrean zer jokabide proposatzen duten. Ikusiko dugunez, hiztegi batzuetan eta makroegituraren eremuan kategoria gramatikalaren desanbiguazioa eskaintzen dute, lema-ikur homografo berdina behin baino gehiagotan sarrera-buru gisa erabiliz, eta beste batzuetan, berriz, mikroegituraren eremuan, hots, lema-ikur beraren azpian, hiztegi-sarrera berean.

Gainera, *heldu* aditzaren aditz laguntzailearen hautaketari eta polisemiari buruzko argibideak non eta nola ematen diren interesatuko zaigu, bereziki. Aditz horren polisemia zenbat adieratan desanbiguatzen den galdetu dugu konparaketa kuantitatiboa egiteko, eta, bestetik, aditz laguntzailearen hautapena nola islatzen den: argibide sintaktikoa polisemiaren sailkapenean txertatuz, ala alderantziz, aditz laguntzailearen arabera polisemiaren sailkapen bana eskainiz, horiexek baitira aurkitzen ditugun bi jokabideak.[85] Hiztegietan aurkitzen ditugun argibide semantikoei berei ez diegu erreparatuko (ez dugu galdetuko, adibidez, IKAS1976 hiztegian hapax gisa agertzen zaigun *sazonar* gaztelaniazko aditza euskarazko *heldu* aditzaren ordain egokia den edo izan zen ala ez), bai, ordea, esan bezala, jasotako adieren kopuruei.

Atal honi dagozkion hiztegi-lagin guztiak 7.2 eranskinean ematen ditugu, denak batera ikusi eta atal honetan irudi-zama gehiegi saihesteko. Bertan ematen dugun bildumari beste balio erantsi bat eman nahi izan diogu, eta, horregatik, gaur ustez gutxi erabiltzen diren hiztegi zaharragoen datuak ere jaso ditugu: hiztegi-sarrera bera ahalik eta euskarazko hiztegi gehienetan nola ematen den erakutsi nahi izan dugu, irakurleak ikus dezan hiztegigintza-corpus edo *corpus lexikografikoa* deitzen zaion baliabide batek zer ekarpen egin diezagukeen.[86] Interes orokor baten arabera lema baten eta horren islapen lexikografikoaren bilakaera hiztegietan zehar ikusteko, baita kapitulu honetan egiten ditugunak bezalako galdera zehatzak erantzuteko ere, baliabide baliotsua iruditzen zaigu. Hemen aintzat hartzen ditugun hiztegiak ez dira inondik ere euskarazko

[85] Hirugarren antolaera bat posible litzateke, eta hori da alemanezko hiztegi askotan agertzen zaiguna (ikus 2.1.1.2 atala): aditza entitate sintaktiko iragankor edo iragangaitz gisa aurkeztu ondoren, entitate bakoitzak azaltzen duen polisemia ematea. MORR1998 hiztegiko egitura hirugarren aukera horretatik hurbilen dagoena dela esan daiteke. Mikroegiturako elementuen hierarkiari buruz, 3.3 eta 3.4 ataletan gehiago.

[86] Corpus lexikografikoaz, ikus 28 oin-oharra.

hiztegi guztiak, 1968 baino lehenagoko beste lan asko baitira (OEH-ko “referencias bibliográficas” atalean, adibidez, lan honetan aipatzen ez ditugun beste hainbat hiztegi historikoren erreferentzia aurkitzen da); hona ekarri duguna, egun dugun eskuragarritasunaren araberako hautaketa bat da, hiztegi-erabiltzailea liburutegian edo etxeko apalean eduki dezakeena, alegia. Hiztegigintzaren bilakaera nolabait irudikatzeko asmotan, 1968 baino lehenagoko zenbait lanetako laginak ere jasotzen ditugu hemen.

Hiztegia	**Hizk.**	**lagina**	**sarrera-buruak**		**'baso' IZE (eremua)**	**'baso' IZE (ontzia)**	**'baso' ADJ**
AIZ 1883	EU-ES	7.1	2	a) 'baso', b) 'basoa'	a) adiera 1(ord. 1, 2 sinon.); b) adiera 1 (6 ord.)	b) 1 ord.	
AZK 1905	EU-ES-FR	7.4	1	'baso'	1 adiera (ord. bana ES, FR)	-	-
BERA 1909	EU-ES	7.5	1	'baso'	2 ord.	-	
BEME 1916	EU-ES	7.7	1	'baso'	3 ord.	-	
LHA 1926	EU-FR	7.11	2	a) 'baso' I, b) 'baso' II	2 adiera (ord. bana), 5 hitz-elkarte eta deribatu	2 ord., 2 hitz-elkarte, adibidea, etimologia	
MEND 1962	EU-ES	7.9	1	'baso'	3 ord.	-	
IKAS 1976	EU-ES	7.13	1	'baso'	adiera 1 (2 ord.)	adiera 1 (ord. 1)	-
RET 1976	EU-ES	7.15	1	'baso'	3 adiera (ord. bana), adibideak	1 ord., adib.	3 ord., 2 adibide
MOD 1977	EU	7.17	3	'1 baso', '2 baso', '3 baso'	azalp. entzikl., 2 adibide,azpisarrera 'baso garai'	2 adiera (sinon. 1/azalpen entziklopediko 1, adibidea)	2 sinon., esapidea, adibidea
ADO 1980	EU-ES	7.23	1	'baso'	adiera 1 (3 ord.)	2 adiera (ord. bana)	-
MUG 1981	EU-ES	7.36	2	'baso', 'baso-'	2 adiera, hainbat ord., esapide, sinon.	2 ord.	adiera 1 (4 ord.)
ADO 1984	EU-ES	7.24	1	'baso'	adiera 1 (3 ord.)	2 adiera (ord. bana)	-
ADO 1986	EU	7.25	1	'baso'	azalp. entzikl., sinon.	azalp.entzikl.	-
OEH 1988	EU-ES/FR	7.45	4	'baso', 'baso', 'baso', 'baso'	adiera 1 (3 ord., 2 sinon, aipuak), 8 azpisarrera.	adiera 1 (ord. 1, 2 sinon., aipuak)	adiera 1(3 ord.)
AUWH 1992	EU-EN	7.37	1	'baso'	adiera 1 (2 ord.)	adiera 1 (ord. 1)	-
ADO 1993	EU	7.26	1	'baso'	azalp. entzikl., sinon.	azalp. entzikl., sinon.	-

Hiztegia	Hizk.	lagina	sarrera-buruak		'baso' IZE (eremua)	'baso' IZE (ontzia)	'baso' ADJ
SHLH 1994	EU	7.47	3	'baso, basa-', 'baso', 'baso'	azalp. entzikl., sinon., adib.-sint. eta perp.	sinon., adib.-sint. eta perp.	sinon., adib.-sint., azpisarrera 'baso izan'
ADO 1996	EU	7.27	1	'baso'	adiera 1 (2 ord.), itz. adib.-sint.	adiera 1 (ord. 1)	2 adiera (1/4 ord.), adib.-sint.
EEG 1996	EU-ES	7.53	3	'baso', 'baso', 'baso'	adiera 1 (2 ord.), itzulitako 4 adib.-sint.	2 adiera (ord. 1/1), itz. 2 adib.-sint.	adiera 1 (2 ord.), azpisarrera 'baso izan'
MORR 1998	EU-EN	7.39	4	'baso', 'baso', 'baso', 'baso'	3 adiera (2/1/0 ordain), itzulitako adib.-sint. eta -perp.	2 adiera (ord. 1, sin. 1/ord. 1)	adiera 1 (ord. 1), azpisarrera 'baso izan'
EEG 2000	EU-ES	7.54	3	'baso', 'baso', 'baso'	adiera 1 (2 ord.), itzulitako 4 adib.-sint.	2 adiera (ord. 1/1)	adiera 1 (2 ord.), azpisarrera 'baso izan'
SEIH 1999	EU	7.48	2	'baso', 'baso'	azalp. entzikl., sinon., adib.-sint.	sinon., adib.-sint. eta perp.	-
HB 2000	EU	7.61	2	'baso', 'baso'	sinon.	sinon.	-
LUR 2000	EU	7.43	3	'baso', 'baso', 'baso'	adiera 1 (azalp. entzikl., sinon., adib.-sint. eta perp.)	2 adiera (sinon., adib.-sint./erref.)	-
MOD 2000	EU	7.19	3	'baso', 'baso', 'baso'	adiera 1 (azalp. entzikl., adib.-sint.), 2 azpisarrera	2 adiera (sinon. 1/azalp. entzikl. 1, adib.-perp.)	adiera 1 (2 sinon.), azpisarrera 'baso izan'
ETX 2001	EU	7.21	2	'baso', 'baso'	azalp. entzikl., adib.-sint.	2 adiera (sinon. 1/azalp. entzikl. 1, adib.-sint./erref. 1)	-
EEG 2006	EU-ES	7.59	3	'baso', 'baso', 'baso'	adiera 1 (2 ord.), itzulitako 5 adib.-sint.	adiera 1 (ord. 1), azpisarrera 'baso erdi'	adiera 1 (2 ord.), azpisarrera 'baso izan'
SEH 2007	EU	7.49	3	'baso', 'baso', 'baso'	azalp. entzikl., sinon., adib.-sint. eta perp., azpisarrera	sinon., adib.-sint. eta perp.	esapidea, sinon., adib.-perp.
HB 2010	EU	7.62	4	'baso', 'baso', 'baso', 'baso'	sinon., adib.-sint.	sinon., adib.-sint.	esapidea, sinon., adib.-perp.
EHA 2012	EU	7.63	2	'baso', 'baso'	azalp. entzikl., adib.-sint. eta perp., esaera zah.	sinon., azalp.entzikl., adib.-sint. eta perp.	-
ADO 2013	EU-ES	7.34	2	'baso', 'baso'	adiera 1 (2 ord.), itzulitako 6 adib.-sint.	2 adiera (ord. 1/erref. 1), itz. 2 adib.-sint.	adiera 1 (4 ord.)
EEG 2013	EU-ES	7.56	3	'baso', 'baso', 'baso'	adiera 1 (2 ord.), itzulitako 4 adib.-sint.	2 adiera (ord. 1/erref. 1), itz. 2 adib.-sint.	adiera 1 (2 ord.), azpisarrera 'baso izan'

2.6 Taula: 'baso' lema-ikurra hainbat hiztegitan

Aipatu ditugun irizpideen gainean, ondorengo baieztapenak egin ditzakegu 2.6 eta 2.7 tauletan laburbilduta datozen 7.2 ataleko datuak ikusi ondoren:

(1) Zenbait hiztegitan, *baso* izenaren homonimia polisemia izango balitz bezala jokatzen da, hau da, homonimo biren adierak batera erakusten dira, homonimia aipatu gabe. Horren adibiderik modernoenak AUWH1992 hiztegia eta Adorez taldeko lanak (ADO1996 arte) dira. Homonimia desanbiguatzen duen lehena LHA1926 da.

(2) *Baso* izenaren bi homonimoren adierak hiztegi guztietan aipatzen dira, EAH2007 lanean salbu (hor, 'edalontzi' sinonimo duen homonimoa ez da jasotzen). Bestetik, 'hodi' sinonimotzat (hobetsia) duen medikuntzako terminoa hirugarren izen-homonimo gisa jasotzen da zenbait hiztegitan (MORR1998, LUR2000, HB2010), besteetan 'edalontzi' sinonimoa duenarekin batera agertzen delarik.

(3) *Heldu* lema-ikurrari dagozkion entitate guztiak espresuki jasotzen dituen lan bakarra MORR1998 da (horri buruz ikus (4), baita 3.4 ataleko (4) puntua ere).

(4) Hainbat hiztegik aditzari dagozkion polisemia aditz laguntzailearen hautaketaren arabera antolatzen dute, hots, aditz laguntzailearen hautaketaren azpiko maila hierarkiko batean. Sarasolaren hiztegietan, horrez aparte, aditz laguntzailearen paradigma jakin bat hautatzen duten entitateetan banatzen da espresuki (A, B, C, D letrak, eta azpian, polisemiaren zenbakiak, SHLH1994, SEH1996, SEIH1999 eta SEH2007 lanetan, baita Sarasolaren parte hartzeaz garatu diren LUR2000 eta HB2010 lanetan ere). Ezberdin jokatzen du Morrisek (MORR1998): lan horretan, *dio* paradigmari jarraitzen dioten adizkia *du* atal batean dator, ustez, trantsitibotasun sinplea (eta ez ditrantsitibotasuna) markatzeko. *du* ikurra duen atalaren barruan, Morrisek [*dio*] marka batez adierazten du osagaia datibozkoa dela, eta ez absolutibozkoa, egitura trantsitibo erregular batean bezala. Beste hiztegi guztietan, ordena semantikoa dugu, eta aditz laguntzailearen hautapenari buruzko argibideak, ematen direnean, adiera bakoitzaren atalaren barruan agertzen dira.

Laburbiltzeko, euskarazko hiztegigintzan homografia, homonimia eta polisemia islatzeko jokabide anitz aurkitzen direla esan daiteke, eta ez dagoela, hortaz, estandarrik

horri dagokionez. 3.4 atalean aurkeztuko dugu gure proposamena, homografia eta homonimia berdin tratatzea, alegia, eta lema-ikur berari dagozkion entitate guztiak batera 'super-sarrera' batean batzea. Orain arte, ez da horren lehenagoko adibiderik izan. MORR1998 hiztegian, homografoak sarrera berean ematen dira, guk proposatuko dugun bezala; kategoria gramatikal bereko homonimoak, aldiz, sarrera banatan jasota daude. Aditz-sarrerari begira, guk proposatuko dugun mikroegituratik hurbilenak Sarasola eta Morris egileak lirateke, aditzaren propietate sintaktikotik lehen mailako sailkapena eraikitzen baitute, polisemiari heldu baino lehen.

Hiz-tegia	**Hiz-kun-tzak**	**la-gina**	**Sarrera-buruak**		**POS mar-ka**	**ADI**	**IZE**	**ADJ**	**aditza: ordena**	**'heldu' aditzaren polisemia**	**'heldu' izena**	**'heldu' adjektiboa**
AIZ 1883	EU-ES	7.2	2	a) 'hel', b) 'heldu'	ez	bai	ez	ez	SEM	a) 2 adiera (bina ord.), b) 2 adiera (3/1 ord.)	-	-
AZK 1905	EU-ES-FR	7.3	1	'eldu'	ez	bai	bai	bai	SEM	10 adiera (1-2na ord. ES/FR bakoitzak, adib.-perp.), ize/adj/adi nahasirik	-	-
BERA 1909	EU-ES	7.6	1	'eldu'	ez	bai	bai	bai	SEM	4 adiera (1/1/3/2 ord.), adibideak	adiera 1 (ord. 1)	ord. 1
BEME 1916	EU-ES	7.8	1	'eldu (heldu)'	ez	bai	bai	bai	SEM	6 adiera (1/2/2/1/2/2 ord.), adibideak	adiera 1 (2 ord.)	adiera 1 (ord. 1)
LHA 1926	EU-FR	7.12	3	'heldu' I-III	ez	bai	ez	ez	nahasi-rik	3 homonimo (2/10/6 adiera, hainbat ord.)	-	-
MEND 1962	EU-ES	7.10	1	'eldu (heldu)'	ez	bai	bai	bai	SEM	5 adiera (1/2/2/1/2 ord.), adibideak	2 adiera (1/2 ord.)	adiera 1 (ord. 1)
IKAS 1976	EU-ES	7.14	1	'eldu'	ez	bai	ez	bai	SEM	3 adiera (4/3/2 ord.)	-	adiera 1 (2 ord.)
RET 1976	EU-ES	7.16	1	'heldu'	ez	bai	ez	ez	nahasi-rik	15 adiera (1tik 3ra ord. adiera bakoitzerako), adibideak	-	-
MOD 1977	EU-EU	7.18	2	'1 hel(du)', '2 heldu'	bai	bai	ez	bai	SEM, ADL	11 adiera, azalp.entzikl., sinon., adibideak	-	3 adiera, azalp.entzikl., sinon.

Hiz-tegia	Hiz-kun-tzak	la-gina	Sarrera-buruak		POS mar-ka	ADI	IZE	ADJ	aditza: ordena	'heldu' aditzaren polisemia	'heldu' izena	'heldu' adjektiboa
ADO 1980	EU-ES	7.30	1	'hel(du)'	ez	bai	ez	bai	SEM, POS nahasi-rik	5 adiera (3/1/1/1/2 ord.), itz. adibideak	-	3 adiera (aditzen adieretan txertaturik)
MUG 1981	EU-ES	7.35	3	'eldu', 'eldu', 'eldu'	ez beti	bai	bai	bai	SEM	17 adiera, horietatik zenbait esapide gisan aurkeztuta	4 adiera (2/1/2/3 ord.)	5 adiera (3/1/3/2/1 ord.)
ADO 1984	EU-ES	7.29	1	'hel(du)'	ez	bai	ez	bai	SEM, POS nahasi-rik	5 adiera (3/1/1/1/2 ord.), itz. adibideak	-	3 adiera (aditzen adieretan txertaturik)
ADO 1986	EU	7.31	2	'hel(du)', 'heldu'	ez	bai	bai	ez	SEM, ADL	6 adiera, azalp.entzikl., sinon., adib.	adiera 1 (azalp.entzikl., adib.	-
OEH 1988	EU-ES/FR	7.46	1	'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM	10 adiera (1-4na ord., Sinon., ai-puak), 17 Azpisar-rera.	3 adiera (1-2na ord., si-non., aipuak)	aditzaren ata-lean esplizitu-ki
AUWH 1992	EU-EN	7.38	1	'heldu'	bai	bai	ez	bai	SEM	6 adiera (2/3/2/2/3/3 ord.)	-	adiera 1 (2 ord.)
ADO 1993	EU	7.32	2	'hel(du)', 'heldu'	ez beti	bai	ez	ez	SEM, ADL	6 adiera, azalp. entzikl., sinon., adibideak	-	adiera 1 (azalp. entzikl., adibidea, 3 sinon.
SHLH 1994	EU	7.50	1	'heldu, hel, heltzen	bai	bai	ez	ez	SINT.	da (5), du (1), zaio (1), dio (2 adiera), sinon., adib.-perp.	-	-
ADO 1996	EU	7.33	2	'heldu', 'hel(du)'	bai	bai	ez	bai	SEM, ADL	8 adiera (1tik 3ra adiera bakoitzak, itz. adib.-perp.	-	adiera 1 (ord. 1)
EEG 1996	EU-ES	7.58	2	'hel(du)', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM, ADL	11 adiera, 2tik 3ra ord. bakoitzak, itz. adib.-perp.	adiera 1 (2 ord., itz. adib.-perp.)	2 adiera (1/3 ord., itz. adib.-perp.)
MORR 1998	EU-EN	7.40	1	'heldu'	bai	bai	bai	bai	SINT.	du/dio (3), da (5), zaio (1 adiera), sinon., ord., adib.-perp.	2 adiera (1/2 ord.), sinon., adib.-perp.	2 adiera (1/4 ordain), sinon., adib.-perp.
SEIH 1999	EU	7.51	1	hel(du), heltzen	bai	bai	ez	ez	SEM, ADL	12 adiera, azalp. entzikl., sinon., adib.-sint. eta perp.	-	-
EEG 2000	EU-ES	7.57	2	'hel(du)', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM, ADL	13 adiera (1tik 4ra ordain bakoitzak), itzulitako adib-perp.	adiera 1 (2 ord., itz. adib.-perp.)	2 adiera (1/3 ord., itz. adib.-perp.)

Hiz-tegia	Hiz-kun-tzak	la-gina	Sarrera-buruak		POS mar-ka	ADI	IZE	ADJ	aditza: ordena	'heldu' aditzaren polisemia	'heldu' izena	'heldu' adjektiboa
EEG 2006	EU-ES	7.59	2	'heldu, hel, heltzen', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM, ADL	13 adiera (1tik 4ra ordain bakoitzak), itzulitako adib-perp.	adiera 1 (2 ord., itz. adib.-perp.)	2 adiera (1/3 ord., itz. adib.-perp.)
HB 2000	EU	7.64	3	'heldu', 'heldu', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM	7 adiera, sinon., adib.-sint. eta perp.	adiera 1 (sinon., adib.-perp.)	adiera 1 (adib.-perp.)
LUR 2000	EU	7.44	1	'heldu'	bai	bai	ez	ez	SINT.	da (5 adiera), du (1), zaio (1), dio (1), sinon. 1na, adib.-perp.	-	-
MOD 2000	EU	7.20	2	'hel(du)', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM, ADL	11 adiera, azalp.entzikl., sinon., adibideak	2 adiera (azalp.entzikl., adib. perp./sinon.)	3 adiera (azalp. entzikl., sinon., azalp., adib. perp.)
ETX 2001	EU	7.22	2	'hel(du)', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM, ADL	9 adiera (azalp. entzikl., sinon., adib.-sint. eta perp.)	adiera 1 (azalp.entzikl., adib.-perp.	2 adiera (azalp. entzikl., adib.-perp. eta sint.)
SEH 2007	EU	7.52	1	'heldu, hel, heltzen'	bai	bai	ez	ez	SINT.	da (6), du (1), zaio (2), dio (1 adiera), sinon., adib.-perp.	-	-
HB 2010	EU	7.65	3	'heldu, hel, heltzen', 'heldu', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM, ADL	6 adiera (sinon., adib.-perp. eta sint.)	adiera 1 (sinon., adib.-perp.)	adiera 1 (adib.-perp.)
EHA 2012	EU	7.66	3	'heldu, hel, heltzen', 'heldu', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM, ADL	9 adiera (azalp. entzikl., sinon., adib.-sint. eta perp.)	adiera 1 (sinon., adib.-perp.)	adiera 1 (azalp. entzikl., adib.-sint. eta perp.
ADO 2013	EU-ES	7.34	2	'heldu, hel, heltzen', 'heldu'	bai	bai	bai	ez	SEM	8 adiera (1tik 3ra adiera bakoitzak, itz. adib.-perp.	adiera 1 (2 ord., itz. adib.-perp.)	-
EEG 2013	EU-ES	7.60	2	'heldu, hel, heltzen', 'heldu'	bai	bai	bai	bai	SEM, ADL	13 adiera (1tik 4ra ordain bakoitzak), itzulitako adip-perp.	adiera 1 (2 ord., itz. adib.-perp.)	2 adiera (1/3 ord., itz. adib.-perp.)

2.7 Taula: 'heldu' lema-ikurra hainbat hiztegitan

Aipatu dugun hiztegigintza-corpusaren egitasmoaz beste zenbait ohar gehitu nahi dugu hemen. Lehenik aipatu nahi dugu lehenengo hiztegi-eskuizkribuetatik 1981. urtera

arte argitaratu ziren hiztegi gehien-gehienen datuak OEH1988 lanean bildurik daudela,[87] euskara batuari egokitutako makroegitura batean. Horrela, *heldu* lema-ikurraren azpian, hau da, *heldu* sarreran, lema horri dagokion hainbat forma dialektal eta historiko bildurik daude (ikus 7.46 lagina), hots, OEH-ko egileek hiztegi historikoen sarrerak euskara batuko *super-lema* baten azpian kokatu dituzte, eta horixe da hiztegiginta-corpusaren oinarrizko antolaera.

Hortaz, hiztegigintza-corpusa osatzeko, 1981. urtera arteko datuak OEH-ko edukietatik abiatuz bil daitezke. Horretarako, OEH-ko sarreretatik hiztegi historikoetatik jasotako aipuak *parsing*-aren bitartez erauzi eta *xml* bezalako egitura batean jaso beharko lirateke. Bestalde, OEH-ko makroegitura hiztegigintza-corpusaren super-lemategitzat har daiteke. Hurrengo pauso batean, OEH-n agerpenik ez duten hainbat hiztegitako datuez aberastuko litzateke super-lema bakoitzari dagokion sarrera.

2.5 L2-Ikasleentzako hiztegigintza elebiduna

EuDeLex hiztegiaren egitura hizkuntza-ikasleen beharren araberakoa izatea nahi baitugu, erabiltzaile-talde horrentzako hiztegigintza elektroniko batean bereziki kontuan hartu beharrekoaz arituko gara atal honetan, deskribatutako funtzio komunikatiboari erantzun diezaioketen makro- eta mikroegituraren eremuko irizpideak proposatuz. Gure asmorako aintzat hartu beharreko bigarren erabiltzaile-talde bat alemanetik euskarara itzultzen duten itzultzaileak dira, eta talde horren premiei begira ere, zenbait gogoeta eskainiko ditugu.

2.5.1 DaF ikasleentzako hiztegigintza elebidunerako desiderata *edo irizpideak*

Erabiltzaileak hiztegi elektronikoetatik zer espero dezakeen, hots, hiztegi elektronikoek zer funtzio bete lezaketen hainbat hausnarketaren galdegaia izan da (ikus, besteak beste, Kemmer 2010; Tarp 2012). Hizkuntza-ikasleentzat diseinaturiko hiztegiek zer ezaugarri izan beharko luketen ere arestian egindako ikerketen gaia da (Fuertes Olivera 2010; Fuertes-Olivera & Bergenholtz 2011 bildumako ekarpenak). Gure arloari dagokionez, DaF ikasleentzako hiztegigintza elebidunari dagokionez, alegia, argitalpen berezitu bakarra dugu egun (Meliss 2013).

[87] OEH-ko erreferentzia atalean aipatzen den lanik berriena MUG1981 hiztegia da.

Aipatutako argitalpenetan aipatzen diren desiderata abiapuntu izanik, jarraian hiztegi elebidunak DaF ikasleen beharrei egokitzeko zenbait irizpide aurkeztuko ditugu. Horietako batzuk hiztegigintza elebidunari dagozkio oro har; beste batzuk, berriz, alemana ikasten dutenen beharrei, bereziki.

2.5.1.1 Makroegitura eta marko-egitura

Hiztegiaren makroegiturari eta marko-egiturari begira, ondorengo irizpideak aipatuko ditugu:

- Hiztegi elebidun batek hiztegiaren edukia eta erabilpenerako argibideak aurkezten dituen hitzaurrea eduki beharko luke, bi hizkuntzetan. Hiztegi elektronikoen erabiltzaile-interfazeek bi hizkuntzak meta-hizkuntza gisa hautatzeko aukera eman beharko lukete, hots, lema-ikurraz, horren sinonimoez eta itzulpen-ordainez gainerako edukiak bi hizkuntzetan ikusi ahal izateko aukera.
- Hitzen forma kanonikoak, hiztegietan ohikoa den legez sarrera-buru gisa agertzen diren lemak agertu ez ezik, lema horien forma flexionatuak bilatzeko aukera ere eman beharko lukete erabiltzaile-interfazeek, suposatu behar baitugu hizkuntza-ikasle batek ez duela jakingo forma flexionatu bati dagokion lema zein den. Erabiltzaileak forma ez-kanoniko bat bilaketa-eremuan sartzen badu, interfazeak forma horren analisi morfologikoa eta dagokion lemara bidaltzen duen lasterbidea eskaini ditzake.
- Hitz bakarreko lema-ikurrez gain, hitz anitzeko unitateak ere aurkitzeko aukera eman beharko litzateke erabiltzaile-interfazearen bitartez, hala nola hitz anitzeko unitate lexikoak (*lan egin*), lokuzioak eta esapideak.

2.5.1.2 Mikroegitura

Hiztegi-sarrera elebidunak lemaren adierak desanbiguatzeko eta adiera bakoitza itzulpen-ordain egokiekin lotzeko argibideak eman behar ditu, jakina. Hizkuntza-ikasleentzako hiztegiez ari bagara, hizkuntza arrotzaren lemari dagozkion morfologiaren, sintaxiaren eta pragmatikaren gainean bestelako hainbat argibide izatea egokia iruditzen zaigu. DaF ikasleentzako hiztegi batean, ondorengoak lirateke:

- Flexio-morfologiaren paradigma edota flexio-taula osoa, alemaneko aditzarentzat, izenarentzat eta adjektiboarentzat
- Alemanezko aditzentzat: aditz laguntzailearen hautapena
- Balentzia edo argumentu-egituraren gauzatzeari buruzko argibideak
- Alemanezko sinonimoak
- Maiztasun-informazioa
- Agerkideak, kolokazioak
- Pragmatika (erregistroa)
- Corpus elebidunetatik erauzitako itzulpen-adibideak

2.5.2 Hiztegiaren funtzio komunikatiboak eta hiztegien erabilpena

Hiztegi elebidunak erabiltzaile motei begira diseinatzen dira espresuki. Hiztegiaren hitzaurrean, askotan horri dagozkion oharrak aurkitzen dira, eta horrela ez bada, zein erabiltzaile motatarako balio duten kontuan izanik sailka daitezke, behintzat. ADO1984 hiztegiaren hitzaurrean, esaterako, erabiltzaileari euskarazko oinarrizko ezagutza izatea eskatzen zaio, eta ondoren dator horren azalpena:

> ”Para utilizar este diccionario vasco también es necesario tener un mínimo de conocimientos de la lengua y su estructura, así como cierta dosis de sentido común. Sin ello, incluso con el mejor de los diccionarios, los principiantes pueden componer frases tan asombrosas como *neska hori oso zerrenda da*.“ (ADO1984: XXIV)

Baieztapen hori zuzena den gorabehera (polisemia desanbiguatzeko argibide ugari eman daitezke hiztegi batean), hiztegi batean ageri diren argibideak erabiltzaile mota zehatz batzuentzat egokiak direla argi dago, beste batzuentzat, berriz, egokiak ez diren heinean. Kasu batzuetan, egileak badaki zehazki nori zuzentzen dion hiztegia:

> ”Este diccionario [...] está dirigido a un tipo de usuario muy concreto: el vascohablante que quiere traducir del castellano al euskera. [...] Está dirigido, en la práctica, a vascohablantes que dominan el castellano y que, debido a la falta de normalización de nuestro idioma o a otros motivos, encuentran dificultades para verter al euskera lo que expresan fluidamente en castellano.“ (ZEH2005: VII)

Tarp eta Bergenholtz autore bikoteak garatutako proposamenak eurek sortutako *funtzio komunikatibo* kontzeptutik abiatzen dira (Tarp 2008; Tarp 2005; Tarp & Bergenholtz 2005a; Tarp & Bergenholtz 2005b; Tarp 2007). Autore horien metalexikografiak helburu praktikoa du: hiztegigileari bere egitasmoaren diseinua

zehazten laguntzea. Tarp & Bergenholtz autoreek ondorengo galdera hauek egiten dituzte, hiztegiaren funtzioak zehazten laguntzeko (2005a: 15–16):

- Zein ama hizkuntzaz (L1) jabetu da erabiltzailea?
- Bere L1ean, zenbaterainoko hizkuntza-gaitasuna du erabiltzaileak, ahoz eta idatziz?
- Erabiltzaileak, zenbateraino menperatzen du hizkuntza arrotza (L2)?
- Zer nolako gaitasun entziklopedikoa eta kulturala du?
- Jakintza-arlo berezian, zer ezagutza du erabiltzaileak?
- Jakintza-arlo berezian, zer ezagutza du erabiltzaileak haren ama-hizkuntzan?
- Jakintza-arlo berezian, zer ezagutza du erabiltzaileak hizkuntza arrotzean?

Erabiltzaile bakoitzak berezko beharrak ditu. Hiztegi berri bat sortzekotan, balizko erabilerak aztertu eta ordenatzea komeni da. Erabiltzaile eta hiztegi moten konbinaketa guztiak ondorengo taulan islatzen dira, eta zer funtziotarako zer hiztegi mota den egokiena adierazi. Erabiltzaileen premiei erantzutea da hiztegigintzaren beharra, banan-banako hiztegi-proiektuen edota funtzio anitzak betetzeko gaitasuna duten hiztegien bidez. Tarpen sailkapena (1995: 44; 2008: 50) gure kasura egokiturik, 2.8 taulan adierazitako erabilerak aipa daitezke. Markatutako eremuek erabilera mota, egoera komunikatibo eta hiztegi motaren konbinazio egokia adierazten dute.

Hiztegiak eskainitako laguntzaz, erabiltzaileak testua ekoiztu edo hartu eta ulertu nahi du, haren ama-hizkuntzan (L1) zein bestelako hizkuntzetan, horiek ama-hizkuntza ez direnean (L2). Erabiltzaileak L2 horietan duen mailaren arabera, hizkuntza horren hiztegi elebakarrera joko du, edo, bestela, L1>L2 hiztegi elebidun batera batez ere. Bestalde, erabiltzaileak haren L1 hizkuntzan ekoizteko, behar dituen argibideetako batzuk L1 hiztegi elebakarrean eta haren L1etik abiatzen den hiztegi elebidunean aurkitzea esperoko du.

Bereizkuntza garrantzitsu bat, alemanera irakasten izan genuen esperientziarekin bat datorrena, L2 hizkuntzako ikasketetan, kasu honetan, alemanaren ikasketetan hasi berriak direnen eta eskarmentu gehiagoko ikasleen artekoa da. Ikasle hasi berriak ez dakite alemanerako hiztegi elebakarrak erabiltzen, ezta alemana ikasten dutenentzat eginak badira ere. Orain, geure esperientziaren araberako ondorengo xehetasuna erantsi nahi diogu Tarpek egindako sailkapenari: Irakasleak ikasleentzako hiztegi elebakarrak

erabiltzea ikasle guztiei, baina, bereziki, maila ertainekoei gomendatu gorabehera, ikasleak behar dituzten argibideak hiztegi elebidunetan aurkitzen saiatzen dira.

	Elebakarra EU	Elebiduna EU>DE	Elebakarra DE	Elebiduna DE>EU
Euskara L1 hiztuna				
Ekoizpena L1	X	X		
Ulermena L1	X	X		
Ekoizpena L2 (L2 ikaslea))		X		
Ekoizpena L2 (L2 trebea))		X	X	X
Ulermena L2			X	X
Itzulpena L1>L2		X		
Itzulpena L2>L1				X
Alemana L1 hiztuna				
Ekoizpena L1			X	X
Ulermena L1			X	X
Ekoizpena L2 (L2 ikaslea)				X
Ekoizpena L2 (L2 trebea)	X	X		X
Ulermena L2	X	X		
Itzulpena L1>L2				X
Itzulpena L2>L1		X		

2.8 Taula: Funtzioak eta hiztegiak EU-DE konbinazioan

Hiztegien erabilpenaren inguruko ikerketaren emaitza batzuek Domínguez autoreak (2015) eskaintzen du gai honi begira. Haren azterketari jarraiki, hiztegi elebidunak dira hizkuntza-ikasleen artean ezagunenak direnak. Hizkuntza ikasleek itzulpen-ordainak definitzeko ariketan maizago *Google Translate* bezalako sareko eskaintzetara jotzen dutelako ebidentzia jaso du autore honek, hots, itzulpen automatikorako algoritmo estatistikoetan oinarritutako zerbitzuetara, hiztegietara baino. Hemen, ikasleei eskura duten baliabideei buruzko argibideak ematea da irtenbide bakarra: Ikasleek jakin behar dute polisemia desanbiguatzea bezalako zailtasunetan laguntza eskaintzen dioten hiztegiak egon badaudela, itzulpen automatikorako tresnek baino emaitza zehatzagoak

ematen dizkieten hiztegiak eskuragarri dituztela. Alemana irakasten batu dugun esperientziaren arabera, 2.2 atalean ikusi dugun LEO hiztegia bezalakoak ezagutzen dituzte, lema baten adierak bereizteko argibideak emateko orduan ere ezer gutxi eskaintzen dutenak, itzulpen-ordainen zerrenda hutsa baino ez baitute ematen. Horrelako hiztegien eta itzulpen automatikorako tresnen arteko aldea ez da handia, eta ikasleak ez dira ezberdintasunaz ohartzen. Gainera, *Google Translate* erabili nahiz LEO hiztegian edozein ordain (normalean, zerrendaren buruan datorkiena) hautatu izanagatik, akats berdinak errepikatzen dira alemanezko lema-adierei begira. Hortaz, Marello (2014) autorearekin bat gatoz, hiztegien erabilerak hizkuntza-irakaskuntzan berezko tokia merezi duela ondorioztatzen badugu.

Erabiltzaileak haren hiztegiari eskatzen dizkion argibideak ondorengoak izan daitezke: ortografia, irregulartasuna, argumentu-egituraren gauzatzea edo balentzia, kolokazioak, agerkideak, esapideak, jakintza-arloari buruzko azalpenak edo azalpen entziklopediko motzak, sinonimoak, antonimoak, hiperonimoak eta hiponimoak, eta, *last but not least*, itzulpen-ordainak. Ikasleek zer argibide-mota zer maiztasunekin hiztegian bilatzen duten aztertzen du Domínguezek (*op. cit.*), eta haren arabera, itzulpen-ordainak dira maizen bilatzen dituztenak, baina bestelako argibideetara alde txikia dago.

Itzultzaileen beharrei begira, itzulpengintzarako hiztegia nola definitzeko proposamena egiten du Tarpek:

> ”Un diccionario de traducción es una herramienta cuya función es cubrir las necesidades de información que tengan los traductores en relación con el proceso de traducción. [...] Para trasladar la definición provisional de diccionario de traducción a un producto lexicográfico concreto hace falta determinar cuáles son las respectivas necesidades de información, lo que solamente puede hacerse sobre la base de un análisis lexicográfico tanto del proceso de traducción como de las características de los traductores.“ (Tarp 2007: 231h)

Tarpek itzulpengintza-hiztegia sortzean aintzat hartzeko proposatzen dituen irizpideetan oinarrituta (2007: 236hh), ondorengo zerrendan ematen ditugu gure kasuan ere aintzakotzat hartzekoak izango diren irizpide batzuk:

- Hiztegiaren metahizkuntza eta hiztegian eman behar diren azalpen fonetikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta semantikoak erabiltzaileen L1aren araberakoak izango dira.

- Itzulpengintzan eskarmentua izatera iritsi baino lehen, itzultzaileak eduki lexikografiko hutsez gainerako argibideak behar izaten ditu, hiztegia erabiltzeko argibideak kasu.
- Itzulpengintzan jarduten duten askok itzuli behar duten L2 hizkuntzan ulermen arazoak izaten dituzte, L2 horren ezagutza ertaina baita. Hortaz, L2 buruzko argibide gehiago behar dituzte. Horrez gain, itzultzaile espezializatu gisa (jakintza-arlo zehatz batean) lan egiten duten askok ondo menperatzen dute euren jakintza-arloaren terminologia L1 zein L2 hizkuntzan, baina L2ri buruzko argibide *orokorrak* behar dituzte. Itzultzaile espezializatu batzuek jakintza-arlo jakin batean lan egin, eta arlo horretan L1ean zein L2an ezagutza-maila handi batera heltzen diren bitartean, beste batzuek jakintza-arloz aldatzen dira, arlo zehatz batean sakondu gabe, eta eskakizun gehiago izango dituzte hiztegi espezializatuari dagokionez.
- Hainbat jakintza-arlok, hala nola kimikak, antzeko terminologia dute mundu guztian, maileguetan oinarritutakoa. Beste zenbait, aldiz, herrialdez herrialde aldatzen dira: zuzenbidean edo nekazaritzan erabiltzen den hiztegian, adibidez, tokian tokiko berezitasunak aurkitzen ditugu. Horregatik, jakintza-arlo batzuetan, itzultzailearen argibide-premia desberdina izan daiteke beste batzuen aldean. Hiztegia jakintza-arlo batean espezializatuta baldin badago, arloa haren tokiko testuinguruan azaltzen duten eranskinak gehitu ohi dira, zuzenbide-hiztegietan, esaterako.

2.6 Ondorioak

Atal honetako ondorio gisa, eta hemen eskaini dugunetik abia litezkeen lanetarako proposamenak laburbiltzeko, hiru puntu aipatu nahi dugu jarraian.

Lehenik, euskara eta alemanarekiko hiztegi elebidunak izan ditugu aztergai atal honetan. Alemanarekiko eskaintza elektronikoak ondorengo helburuarekin ikusi ditugu batez ere: Egun gehien erabiltzen diren sareko hiztegiak funtzio komunikatibo zehatz bati erantzuten dion eskaintza egoki batetik urrun daude. Gure kasurako, hots, alemana ikasten dutenentzako aleman-euskarazko hiztegi elebidun baterako aintzat hartzeko

irizpide sorta garatu dugu, mota horretako hiztegi-erabiltzaileak hiztegi elebidun batera jotzeko orduan duen beharrak aztertuz.

Bigarrenik, *baso* eta *heldu* lema-ikurrak adibide hartu ditugu euskarazko hainbat hiztegietan aurkitutako hiztegi-sarrerak elkarren ondoan jarri eta azaleko konparaketa bat egiteko, makroegitura eta mikroegiturako alderdi batzuk aintzat harturik, alegia, homografiaren, homonimiaren eta polisemiaren islapen lexikografikoa. Lema-ikur berei dagozkien edukiak hainbat hiztegitik ekarri eta elkarren ondoko erakusketa antolatzea ekimen berria da, guk dakigunez, euskararako. Aldi berean, erakusketa horrek euskararen corpus lexikografikoa (edo hiztegigintza-corpusa) izan litekeenaren aurrerapen bat izan nahi du. Horrelako corpusa sortzeko metodoaren inguruko proposamena egin dugu.

Hirugarrenik, hiztegiaren erabilera izan dugu hizpide. Ikerketa-arlo horretan euskarazko eremuan, oraindik, ez dugu lan handirik, ikerketan jarduteko arrazoiak izan arren, atal honetan zenbait susmoen gainean egin ditugun oharretatik ondoriozta dezakegun bezala. Susmo horien artean, zubi-hizkuntzetako hiztegiak erabiltzea aipa daiteke, baita existitzen diren eskaintza lexikografikoen ezagutza-maila ere, eta eskaintza horietatik egokia izan daitekeena hautatu eta erabiltzeko ikasleen gaitasuna. Horren inguruan, azterketa sistematikoak komenigarriak izango lirateke. *EuDeLex* egitasmoaz gogoan dugun erabiltzaile motari begira, ondorengoak izan daitezkeen ikerketaren bitartez argitzeko galderak, eta horrelako ikerketa EHUko Letren Fakultatean egin liteke, esaterako, ikastetxe hartan euskara (eta gaztelania) L1 duten zein gaztelania L1 bakar gisa duten ikasleak aurki baitaitezke, ingelesa, alemana eta beste hainbat hizkuntza ikasten ari direnak:

(1) Ikasten ari diren L2 hizkuntzan, zer maila dute ikasleek?
(2) Zenbat (eta zein) L1/L2 hizkuntzatan dagoeneko eskuratu dituzte gaitasunak?
(3) Zein hiztegi elebidun eskuragarriak dituzte L1-L2 konbinazioan?
(4) (3) puntuko hiztegietatik, zeintzuk ezagutzen dituzte?
(5) Zeintzuk dira gaztelania L1 duten ikasleek erabiltzen dituzten hiztegi eta bestelako baliabideak?
(6) Zeintzuk dira euskara L1 duten ikasleek erabiltzen dituzten hiztegi eta bestelako baliabideak?

(7) Euskara L1 duten ikasleek zubi-hizkuntzako hiztegia erabiltzen badute: Zer da arrazoiak?
   (a) Ohitura
   (b) Hizkuntzaren didaktika zubi-hizkuntzan oinarritua izatea
   (c) Euskara eta dagokion hizkuntza lotzen dituen hiztegirik ez dago edo ez dute ezagutzen
   (d) Euskara eta dagokion hizkuntza lotzen dituen hiztegiak ez dira zubi-hizkuntzakoaren mailara iristen, makroegitura zein mikroegiturari begira

Galdera bakoitzerako bildutako datuen korrelazioa ere interesgarria izango litzateke, adibidez, (3)-tik (7)-ko galderen bariazioa (1) eta (2) ataletako neurketaren arabera aldetzen ote duten.

Hiztegiaren erabilaren gaineko ikerketak argitzeko lagun lezakeena, jakina, beste hainbat arloetarako hedadura du; hala nola, hiztegi elebidunen mikroegituraren inguruko galdeketetara, hau da, adibidez, ikasleek zer argibide mota bilatzen duten, argibideak nola aurkeztea nahiago duten eta zein aurkezpen mota hoberen laguntzen duen emaitza zuzenera heltzen, eta abar. Maila teoriko zein metodikoan, hiztegien erabileraren ikerketak baliabide askotxo bildu ditu egun arte (Nesi 2002; Nesi 2013; Müller-Spitzer 2014).

3 *EuDeLex* hiztegiaren egitura

3.1 Sarrera

EuDeLex izenpean, alemana-euskarazko hiztegi elebidun elektronikoa garatzea da gure asmoa. Hiztegia alemana ikasten duten euskaldunei zuzentzen diegu batez ere. Izan ere, alde batetik, balizko erabiltzaileen artean ustez talde handiena osatzen dute, eta bestetik, egun arte, baliabide egokirik eskuragarri ez dutenez, zubi-hizkuntza batera jotzera behartuta daude, hau da, alemanari erdararen baten bitartez heltzea.

2.5 atalean bigarren hizkuntza bat ikasten ari direnei zuzendutako hiztegigintzaz jardun dugu, baita alemanari bereziki dagozkion irizpide batzuen gainean ere. Jarraian, *EuDeLex* hiztegiarentzat proposatzen ditugun makroegitura (3.2 atala) eta mikroegitura (3.3) aurkeztuko ditugu, hiztegigintza elebidunaren gaineko eztabaida elikatzeko asmoz. Alemana-euskara hizkuntza bikotearen eta guk ezarritako funtzio komunikatiboen araberako gure hiztegi-proposamenaren egokitasuna dugu galdegaia; baina, horrez aparte, proposamenok beste hizkuntza bikote batzuetan ere aplikatzeko aukerarik dagoen aztertzea ere interesatzen zaigu. Azken galdera horri hurbiltzeko, beste bikote horietan lan egin nahi dutenekin hitz egiteko oinarri bat eskaini nahi dugu tesi honen bitartez.

2013ko apiriletik, *EuDeLex* hiztegiaren lehenengo bertsio bat kontsulta daiteke sarean.[88] Sareko erabiltzaile-interfazearen egitura 3.5 atalean deskribatuko dugu. Eranskinetako 7.4.2 atalean, berriz, egun arte *EuDeLex* hiztegian eskuz landuta ditugun edukiak aurkezten ditugu, 3.2.1 atalean zehazten dugun alemanezko lemategiaren % 10 ingururi dagozkionak, alegia. Izan ere, alemana-euskara ataleko makro- eta mikroegitura proposatu ondoren, alemanezko lemategiaren % 10 hori eskuz lantzeari ekin genion, 4.1 atalean aurkeztuko ditugun metodoen ebaluazioan *gold standard* hiztegi gisa erabili ahal izateko datu sorta eskura izateko. Egitasmo hau hutsetik abiatzen den hiztegia denez, gure helburu garrantzitsuenetako bat eskuzko editatze-lanak murriztea da. Horregatik, neurtu nahi izan dugu zer punturaino hel gaitezkeen hiztegi elebiduneko edukiak metodo konputazionalen bitartez osatzen.

[88] http://www.ehu.eus/eudelex

3. eta 4. ataletan emango duguna, beraz, hiztegigintza lan-erreportaia gisa ulertzen dugu, alemanezko literaturan *lexikographische Werkstattberichte* direlako ekarpenetan egin ohi den legez. Eztabaidarako balio izan dezala.

3.2 Makroegitura: Maiztasunean oinarritutako lemategia

Hiztegigintzak gaur egun corpusetara jotzen du hiztegiko sarrera berrien bila; baina, nola erabaki termino batek hiztegian agertzeko nahikoa garrantzia duen? Hizkuntzaren Analisiaren eta Prozesamenduaren (HAP) alorrean garatutako teknikei esker, sarrera izateko hautagaien informazio estatistikoa biltzeko gai gara. Informazio horrek hautagai baten erabileraren gaineko informazioa eskaintzen digu, eta hautagai hori hiztegian sartzeko ebidentziak azaleratzen lagundu. Ebidentzia horien artean erabiliena hitzen erabileraren maiztasuna da.

Maiztasuna bi zentzutan da garrantzitsua hiztegigintzan:

(1) lemaren erabilera-maiztasuna, corpus-baliabideen bitartez neur daitekeena, eta lema horren hiztegi-sarreraren ikustaldi kopurua (*look-up frequency*) erlazionatuta daude neurri handi batean (De Schryver et al. 2010; Wolfer et al. 2014);

(2) maiztasun-datuak hiztegi-sarreran bertan erabiltzaileari eman ahal zaizkio. Besteak beste, hizkuntza-ikaslearen beharrei begira, aspalditik oso zentzuduntzat jotzen da maiztasunari buruzko argibideak ematea hiztegian; ingelesa ikasten duenak, esaterako, 1990eko hamarkadatik aurrera maiztasun-datuak aurkitzen ditu ikasleentzako hiztegietan (Kilgarriff 1997).

Atal honetan aurkezten dugun ikerketan, alemanezko eta euskarazko maiztasun-lemategi bana garatzea izan da gure asmoa, alemanez existitzen diren *DeReWo* lema maiztasun-zerrendak abiapuntu eta eredu harturik.[89] Azalduko dugunez, *DeReWo-40.000* (IDS 2009) maiztasun-zerrenda izango da *EuDeLex* hiztegiaren alemanezko lemategia eraikitzeko lehengaia. *EuDeLex* hiztegian erabiltzeko euskarazko maiztasun-lemategia, aldiz, geuk garatu dugu, *DeReWo* zerrendaren egitura eredu izanik.

[89] Euskarazko maiztasun lemategiaren inguruko ikerketa hau Iñaki San Vicenterekin batera burutu dut; 3.2 atal hau Lindemann & San Vicente (2015a) argitalpenean lehendabizi aurkeztu genuenaren garapena da.

EuDeLex hiztegiaren lehen edizio baten abiapuntu izango den oinarrizko lemategia garatzeaz aparte, ondorengo asmo orokorragoari jarraitu diogu: lemategi batean sartzeko hautagaiak aukeratzeko irizpideak aztertu eta lantzea, metodologia bat proposatuz. Horretarako, corpusetatik erauzitako lemen maiztasun-zerrendak baliatuko ditugu, eta horietatik erauzitako ebidentzien egokitasuna aztertuko dugu. Horrez gain, eskura izan ditugu euskarazko zenbait hiztegi eta baliabide lexikalen lemategiak, eta corpusetatik lortutako lemategiak horiekin ere alderatuko ditugu.

Halaber, garrantzitsua da aipatzea gure eszenatokia ez dela dagoeneko existitzen den hiztegi bat sarrera berriekin aberastea, hutsetik landu beharreko hiztegi bat osatzea baizik, euskara ikasten lagunduko duen oinarrizko hiztegi bat, hain zuzen ere.

Jarraian, atal honen antolaketa labur azalduko dugu. Hasteko, hurrengo atalak euskarazko nahiz alemanezko maiztasun-lemategien gaineko lanen deskribapen laburra aurkezten du. 3.2.2 atalean lan honetan erabili diren baliabideak eta metodologia aurkezten dira, eta 3.2.3 emaitzen atalak burututako esperimentuak eta emaitza gisa lortutako lemategiak aurkezten ditu. Amaitzeko, 3.2.4 atalak egindako lanaren gaineko hausnarketa eta ondorioak nabarmentzen ditu.

3.2.1 Alemanezko maiztasun-lemategia

Mannheim-go *Institut für Deutsche Sprache* erakundeak *DeReKo* corpusetan oinarritutako maiztasun-zerrendak argitaratzen ditu *DeReWo* izenburupean, hiztegigintzari lehengaia eskaintzeko asmoz, batik bat. *DeReKo* corpusek (ikus Kupietz et al. 2010) 1980tik aurrerako literaturaren, zientziaren eta kazetaritzaren arloetako testuak biltzen dituzte, besteak beste. 2014. urtean, 24 bilioi testu-hitzetara heldu ziren DeReKo corpusak.

Corpusetatik erauzitako maiztasun-datu gordinek hiztegigintzan lema-hautesle bilduma gisa balio izateko, hainbat egokitzapen beharrezkoak dira, automatikoak nahiz erdi-automatikoak eta eskuzkoak, metodo automatikoen bitartez sortutako zerrendetako sarrera guztiak ez baitira egokiak. Corpusetan agertzen diren formei *lema* edo *lem-pos* (lema, kategoria gramatikala) bikote bana esleitu ahal izateko, hau da, formen maiztasun-datuetatik lemen maiztasun-datuetara heldu ahal izateko, corpusa lematizatu eta etiketatze morfosintaktikoarekin osatu behar da, etiketatatzaile linguistiko batez

baliaturik. Bestetik, sarrera izateko hautagai bat lantzeko orduan, gutxieneko maiztasun bat eskatu ohi zaio, lexikografo batek hitz baten esanahia zehazteko beharko lukeen agerpen kopuru minimoa, hain zuzen ere (Sinclair 2005). Kopuru hori unigramentzat 20 agerpenetan finkatzen bada ere (Sinclair, *op. cit.*), hainbat faktoreren eraginpean dago, hala nola lema-ikur horri dagozkion homografoen kategoria gramatikalak eta adierak.

DeReWo-ren kasuan (IDS 2009), metodo orokor hau erabiltzen da datuak balioztatzeko: (i) lehenagotik existitzen diren hiztegien lemategiekiko ebakidurak egokitzat hartzea, eta (ii), gainontzekoak, hau da, hiztegi lemategietan agertzen ez direnak, metodo erdi-automatikoen bitartez (taldeka) eta eskuz (banan-banan) aztertu eta ontzat eman ala baztertzea.

DeReWo zerrendako sarrerak alemanezko oinarrizko hiztegi batekin konparatu ditugu, *Zertifikat Deutsch als Fremdsprache*[90] agiria lortzeko azterketa ofizialetan erabiltzen denarekin, alegia, ondorengo emaitzarekin: oinarrizko hiztegi horren sarrera guztiak[91] *DeReWo-40.000* zerrendan agertzen dira. Hiztegi-lemategi gehiago eskuragarri izanez gero, horrelako konparaketekin jarrai daiteke, oinarrizko hiztegi-lemategia aberasteko. Horrela, euskararen kasuan ere egitea proposatzen dugu (ikus 3.2.3.3.1 atala).

DeReWo-40.000 maiztasun-zerrenda lematizatua (IDS 2009) *EuDeLex* hiztegiaren alemanezko lemategia zehazteko lehengaia izan da. Horren lehenengo % 10a (A hizkia) eskuz editatu ondoren, zerrendako lemen % 95a bere horretan aurkitu dugu hiztegiaren lemategian, eta eskuz moldatutakoek eta gehitutakoek gainontzeko % 5a baino ez dute osatzen. Zenbaki horiek adierazten dute zerrenda hori zenbateraino den egokia hiztegi baten sarrera-multzoa zehazteko lanean, ia inolako eskulanik ez baitu behar. 3.1 taulan *DeReWo* zerrendako % 5 horren banaketaren berri ematen dugu.

---

[90] Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera, alemanezko B1 mailari dagokio.

[91] Erabilitako *Zertifikat Deutsch als Fremdsprache* hitz-zerrendak 3.448 sarrera ditu. B1 mailari dagokion zenbait hitz-zerrenda eskuragarri daude sarean eta paperezko hainbat argitalpenetan, guk horietan osatuena erabili dugu: http://goo.gl/2aAQU7.

	Kopurua	Adibideak
Baztertuak		
• DGW erreferentzia-hiztegian ez aurkituta	-101	*Abstimmungskampf, Arbeitsamtsbezirk*
• izen bereziak	-24	*AOK, Alster*
• beste batzuk ("zarata")	-7	*achteinhalb, Anwachs, Ärmste*
Formaz egokituak	37	*Abbrucharbeit* > *Abbrucharbeiten*
Gehitutakoak		
• homonimoak	11	*Ausdruck*
• infinitiboak[92]	37	*Aberkennung, aberkannt* > *aberkennen*
• giza generoa[93]	150	*Abiturient*>*Abiturientin*
• bigarren iturrietakoak	93	*Baskenland*
Guztira	159	159/3453=4,6%

3.1 Taula: *DeReWo* zerrendaren egokitzapena zenbakietan (A hizkia)

Esan bezala eskuz landu ondoren, *DeReWo-40.000* lemategia (A hizkia) eta *EuDeLex* lemategia (A hizkia) konparatu ditugu. Lema-ikur bakoitzari dagozkion entitate sintaktikoak zenbatu ditugu, hau da, zein kategoria gramatikaleko entitate gisa jaso dugun lema-ikurra. A hizkirako, eskuzko landaketak emandako entitateak ditugu (*EuDeLex*). *DeReWo* lemategiko sarrerentzat, bi metodoz zehaztu ditugu entitate sintaktikoen kategoriak: (1) lema-zerrenda *RFTagger* tresnaz (Schmid & Laws 2008) etiketatuz, eta (2) lema-zerrendaren eta alemanezko *Wiktionary* hiztegiaren intersekzioarentzat, *Wiktionary* hiztegian ageri diren kategoria-markak erauziz.

3.2 taulako zenbakiek erakusten dutenez, A hizkian aditz gehiago dago beste hizkietan baino. Gure ustez, A hizkiz hasten diren hiru preposizioez sortutako preposizioa+aditza konbinazioek azal dezakete datu hori (*abfahren*, *ankommen*, *auffallen* bezalakoak). Aditz-partizipioak zenbatzean ageri diren ezberdintasunak (*EuDeLex* A eta *DeReWo-RFTagger* A), berriz, honela azaltzen ditugu: *EuDeLex*

[92] Kasu hauetan, aditz-partizipioa edo aditz-izena aurkitu dugu *DeReWo* zerrendan; dagokion aditz-infinitiboa, aldiz, ez. Infinitibozko forma lemategiari gehitu diogu.

[93] Kasu hauetan, gizonezkoari ala emakumezkoari dagokion forma bakarrik ageri da zerrendan. Beste generoari dagokiona gehitu dugu.

hiztegian, partizipio morfologikoak diren adjektiboek partizipio eta adjektibo marka biak dituzte (lehenengoa aditzaren infinitibora bidaltzen duen erreferentziarekin batera azaltzen da). Halaber, *EuDeLex* hiztegian adberbio gehiago zenbatzen ditugu, adjektiboarentzat eta adberbio gisa erabilitako adjektiboarentzat entitate bana etiketatu dugu-eta, hala dagokionean (ikus 3.3.5 atala).

	***EuDeLex* DE Letter A**		***DeReWo* A RFTagger**		***DeReWo* A-Z RFTagger**		***DeReWo* ∩ de.wiktionary**	
Lemak guztira	*3,614*		*3,453*		*40,000*		*22,404*	
Izenak	1.963	% 54,32	1.813	% 52,51	25.529	% 63,82	14.017	% 62,56
Aditz infinitiboak	924	% 25,57	878	% 25,43	5.813	% 14,53	3.203	% 14,30
Aditz partizipioak	268	% 7,42	175	% 5,07	819	% 2,05	1.003	% 4,48
Adjektiboak	413	% 11,43	411	% 11,90	5.243	% 13,11	3.418	% 15,26
Adberbioak	150	% 4,15	60	% 1,74	579	% 1,45	585	% 2,61
Besteak	0	% 0,00	116	% 3,36	2.017	% 5,04	461	% 2,06
Entitateak guztira	3.718	% 102,88	3.453	% 100,00	40.000	% 100,00	22.687	% 101,26

3.2 Taula: Entitate sintaktikoen kategoriak: Banaketa alemanezko lemategian

Bestetik, *EuDeLex* hiztegiko entitateen kategoriak eskuz esleitutakoak direnez, 3.2 taulako datuek *RFTagger* tresnaren fidagarritasunari buruzko ebidentzia ematen dute.

3.2.2 Euskarazko maiztasun lemategia: proposamen berria

EuDeLex hiztegiaren euskara-alemana norabidearen abiapuntu izango den lemategia eraikitzeko proposamena aurkezten dugu atal honetan, lema-ikurren erabilera-maiztasunetan oinarrituta. Helburu hori lortzeko bidean, lemategia osatzeko metodologia landu dugu *DeReWo* eredutzat hartuz, eta beste maiztasun-lemategi eta hiztegi-lemategi batzuekin alderatu, lortutako emaitzen egokitasuna aztertzeko.

3.2.2.1 Aurrekariak

Hiru maiztasun-hiztegi ditugu egun arte, euskarazko hitzen erabilera-maiztasunaren gaineko honako hiru argitalpen hauek, hain zuzen ere:

1. Sarasola, Ibon (1982). *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia: 1977ko corpus batean oinarritua*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala (SMH1982). Kazetaritzaren eta literaturaren arloetan 1977. urtean argitaratu ziren testuetatik 800.000 bat testu-hitz dituen corpusa eskuz hautatu, egokitu eta

formatu digitalean jarri ondoren, 90.379 forma ezberdinez osatutako zerrendaren lematizatze eta POS-etiketatze lanak ere eskuz egin zituzten. Orduko Euskaltzaindiaren 2.000 lemako zerrenda ofizialaz kanpoko lemak maizenik agertzen zen aldaeraren arabera lematizatu zituzten. Corpus osoko 19 agerraldi behe-mugatzat harturik, 3.000 bat lementzat maiztasun-datuak kalkulatu zituzten ordenagailuz, corpus osoari zein testu motaren arabera sailkatutako hamar azpi-corpusi dagokionez. Ikerketa honetarako, 19 aldiz gutxienez agertzen diren 2.945 lemako zerrenda erabili dugu.[94]

2. Etxebarria, J.M. & Mujika, J.A. (1987). *Euskararen oinarrizko hiztegia: maiztasun eta prestasun azterketa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (EM1987). Ikerketa horretarako, 228.680 testu-hitzeko ahozko euskararen corpusa sortu zuten, lagunarteko elkarrizketen eta irratsaioen 130 ahots-grabaziotatik abiaturik. Lexema beraren aldaera dialektalen bateratzeak eta lematizazioak eskuz egin zituzten. Maiztasun-zerrendak 3.154 sarrera ditu, lexema guztien agerpena gutxienez bi lekukoren adierazpenetan frogaturik. Maiztasuna eta euskalkia erlazionatzeko asmoz, bizkaieraren eta gipuzkeraren eremuak bereizi egin zituzten, agerpenak eremuka sailkatuz. Bestalde, 12 domeinutako hiztegi espezializatuak ere ematen dira, lekukotasunen agerpenen informazioa barne. Hiztegi horiek ez daude oinarrizko hiztegi orokorrean barneratuta; baina hiztegi orokorraren estalduraren datu zehatzik ez da ematen, ez baita multzoen alderaketa sistematikorik egiten. Ikerketa honetarako, datu horiek ez ditugu kontuan hartu, formatu digitalean ez baitira eskuragarriak.
3. UZEI (2004). *Maiztasun Hiztegia*. Donostia: UZEI (UZEI2004). 5 milioi hitz inguru dituen XX. mendeko euskararen corpus estatistikoan (Urkia 2002) oinarritutako hiztegia da. Maiztasun-datuak kalkulatzeko hitz multzoak 3.704.135 testu-hitz ditu, izen propioak, aditz laguntzaileak eta atzizkiak, besteak beste, kendu ostean. 97.931 sarrera ditu maiztasun-zerrendak. Sarrera bakoitzak bi informazio eskaintzen ditu: lema eta aldaera. Lemak (hiztegi-sarrerak) euskara batukoak dira. Lema bakoitzaren azpian, horren formen erabilera ikusteko aukera ematen du, euskalkiaren eta generoaren edo testu

[94] SMH1982 argitalpeneko datuak EHU-ko Euskara Institutuan prestatu dizkigute formatu digitalean.

motaren arabera. Gainera, lau garai bereizi dituzte: 1900-1939, 1940-1968, 1969-1990 eta 1991-1999. Banaketa hori baliatuta, garai, euskalki edo genero zehatz bateko datuak eskura daitezke. Datuotatik abiatuz, kopuru absolutuak eta erlatiboak eskaintzen ditu hiztegiak. Lan honetarako, euskalki, genero eta denboraren arabera sailkatutako datuak batu ditugu euskara batuko lemaren azpian.

3.2.2.2 Euskarazko corpusetatik erauzitako maiztasun-zerrendak

Gure ikerketarako, egun euskarazko corpus handienak diren ondorengo corpusetatik erauzitako datuak eskuragarriak izan ditugu:

1. *Egungo Testuen Corpusa* (ETC) (Sarasola et al. 2013). 2013ko argitaraldian, corpus horrek 204,9 milioi testu-hitz izan zituen. Euskal kazetaritzaren, literaturaren, zientziaren eta telebistaren arloetan eskuz hautatutako iturriek eta euskal *Wikipedia*-ren edukiek osatzen dute. Lan honetarako, ETCtik erauzitako maiztasun-zerrenda erabili dugu, corpus horretan 10 agerpen edo gehiago dituen lemek osatutakoa.[95]
2. *Elhuyar Web-corpusa* (Elh124) (Leturia 2012). 2012an osatua, 124.625.420 testu-hitz ditu. Interneten dauden mota eta arlo guztietako testuak biltzen ditu. Corpusa biltzeko, metodologia guztiz automatikoa erabili da. Hasierako termino multzo batetik abiatuta, termino horien konbinazioez osatutako kontsultak bidaltzen dira interneteko bilatzaileetara. Kontsulta horiek emandako emaitzen dokumentuak biltzen dira.
3. *Elhuyar Web-corpusa* (Elh200) (Leturia 2014). Igor Leturiak haren tesian automatikoki bildutako corpusa. 200 milioi testu-hitz ditu. Corpusa *crawling* metodologia erabiliz osatu da: hasierako web-dokumentu batzuetatik abiatzen da, dokumentu horietan dauden estekei jarraitzeko. Topatutako esteka berri guztiak gorde egiten dira, horiek ere prozesatuak izan daitezen.[96]

ETC corpusa modu kontrolatuan eraiki da; esan dezakegu euskara batuaren ereduzko erabilera islatzen duten testuez osatuta dagoela, iturri zehatzak baliatuz. Elh124 eta

[95] ETC maiztasun-zerrenda EHU-ko Euskara Institutuan prestatu eta ikerketarako eskuragarri jarri digute.

[96] Elhuyar Web-corpusetatik erauzitako zerrenden prestaketa I. San Vicenteren ardura izan da.

Elh200 corpusak, aldiz, modu "oportunista" batean bildu dira, genero edo idazkera kontrolatu gabe, eta, ondorioz, ereduzko estandarretik kanpo dauden testuak ere onartu dira. Hala ere, Leturiak (2012) corpus horiek lexikografiaren alorrean duten egokitasuna neurtzen du, XX. mendeko corpusarekin (Euskaltzaindia 2002) eta Lexikoaren Behatokiko corpusekin (Euskaltzaindia 2009) alderatuz. Haren esperimentuek erakusten dute web-corpus horiek ereduzko corpusetan agertzen ez diren lexema berri asko dituztela, eta, ondorioz, egokiak direla hiztegigintza lanetan erabiltzeko.

Corpusetatik erauzitako maiztasun-zerrenda horiez gain, esan bezala, beste bi baliabide izan ditugu eskura formatu digitalean: batetik, SMH1982, euskaraz sortutako lehen maiztasun-hiztegia, eta, bestetik, UZEI2004.

3.2.2.3 Maiztasun-lemategien prozesamendua

Maiztasun-lemategi bat osatzeko corpus batetik abiatuz gero, testu-formaz osatutako lehengai gordin hori prozesatu egin behar da, bertatik lemak eta lema horiei dagozkien maiztasun-datuak erauzi ahal izateko, 2. atalean azaldu dugun moduan. Horretarako, lehen pausoa etiketatze linguistikoa burutzea da.

ETC corpusaren kasuan, lema-maiztasun zerrenda bat izan dugu eskuragarri, lemari dagokion maiztasun-informazioarekin. Elh124 eta Elh200 corpusen kasuan, etiketatze linguistikoa guk burutu dugu *Eustagger* (Aduriz et al. 1996) etiketatzaile linguistikoa erabiliz. Corpus horietatik eratorritako maiztasun-lemategiek lemari eta kategoria gramatikal nagusiari (*izena, aditza,...*) eta azpikategoriari buruzko informazioa dute (*izen arrunta, izen berezia,...*), maiztasunak 3 fintasun-maila horiekin eskuragarri ditugularik.

Bestalde, web-corpus handietatik eratorritako lema-maiztasun zerrendak ezin dira bere horretan onartu, "zaratatsuak" baitira, hots, lema-hautagai okerrak dituzte tartean. Horien atzean zenbait arazo nabarmentzen dira, esaterako: beste hizkuntzetako hitzak, euskarazko lema homografoa dutenak (adib. *el*, OEH hiztegian agertzen dena, ik. 3.2.3.3.1 atala) nahiz euskarazko homograforik ez dutenak (adib. *con*). Etiketatze linguistiko automatikoaren akatsak ere baditugu horien artean, hala nola lematizazio desegokiak (adib. *ona -on-*) eta kategoria gramatikal okerren esleipena (adib. *basiliko*, *ADJ -IZE-).

Arazo horiei aurre egiteko, zenbait teknika aztertu ditugu:

a) EusTagger tresnak corpusean zehar etiketa gramatikal ezberdin asko erabili baditu lema bat etiketatzeko, lema baztertzea (adib. *ona*);
b) Lema bat baztertzea corpusean oso maiztasun altua badu, baina OEH hiztegian adibiderik ez (adib. *de*) OEHko sarrerek daramaten adibide kopurua erabileraren adierazgarri gisa erabili izan baita (Sarasola et al. 2008);
c) Aurreko puntuari jarraiki, lema bat baztertzea bi corpusen arteko *rfreq* (ikus (1) ekuazioa) balioen arteko aldea oso handia denean.

Lemategiak alderatzeko orduan, izandako beste arazoetako bat da erabilgarri ditugun maiztasun-lemategiak ez direla zuzenean konparagarriak elkarren artean. Batetik, iturburuko corpusen tamainak oso ezberdinak dira, eta, bestetik, lemategi bakoitzak ematen duen maiztasun-informazioak fintasun-maila ezberdinak ditu, lehen azaldu bezala. Konparaketak gauzatu ahal izateko, lemategi guztien "estandarizazioa" burutu dugu. Lemategien mugak kontuan izanik, estandarizazio horretan hurrengo neurriak hartu ditugu:

a) Lemategiak hitz bakarreko unitate lexikoetara (unigramak) mugatu ditugu;
b) Lemaren maiztasuna hartu dugu oinarritzat, homografoak eta kategoria gramatikalen zein aldaeren araberako maiztasunak lema beraren azpian batu ditugularik;
c) Maiztasun absolutua ez da corpusen artean konparagarria. Izan ere, ez du esanahi bera lema batek 30 agerpen izatea 2 milioi testu-hitzeko corpus batean edo 20 milioi tokeneko batean. Maiztasunak konparatu ahal izateko, lemaren corpuseko agerpen-ehunekoa erabili dugu. Ehuneko hori maiztasun erlatiboan oinarrituta dago, eta (1) formularen bidez kalkulatu dugu:

(1) $$rfreq_i = \frac{100 * f_i}{N}$$

non f_i *i* lemaren maiztasun absolutua den corpusean, eta N corpusaren testu-hitz kopurua.

3.2.2.4 Hiztegi-lemategiak

Erreferentzia gisa erabilitako maiztasun-lemategien (SMH1982, UZEI2004) oinarrian zeuden corpusak tamaina oso ezberdinekoak ziren, erabili ditugun corpus-baliabideekin alderatuta. Azterketa sakonagoa osatzeko helburuarekin, maiztasun-zerrenda lematizatuak eskuz landutako baliabiderik garrantzitsuenetako batzuekin ere alderatuko ditugu, horiek "*gold standard*" edo erreferentziatzat hartuta:

1. *Hiztegi Batu*-ko lemategiarekin (HB2010). 35.640 sarrera ditu (kopurua homografoak batuta).
2. *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko lemategiarekin (OEH). 89.296 sarrera eta 36.676 azpisarrera ditu (kopurua homografoak batuta).
3. Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-ren lehenengo argitalpenarekin (SEH1996). 37.433 sarrera eta azpisarrera ditu (kopurua homografoak batuta).[97]
4. *Elhuyar Euskara-Gaztelania* hiztegiko euskarazko lemategiarekin (EEG2013). 64.459 lema ditu (kopurua homografoak baturik).
5. *Euskararen Datu Base Lexikala* datu-bildumarekin (EDBL) (Aldezabal et al. 2001, besteak beste). EDBL hizkuntzaren prozesamenduko zenbait tresnetarako datu-iturri izateko garatu zen, etiketatzaile sintaktikoak, lematizatzaileak, analisi morfologikoa burutzekoak eta zuzentzaile ortografiko automatikoak barne. EDBLen forma kanonikoak (lemak) zein forma flexionatuak eta atzizkiak eta bestelako mendeko morfemak agertzen dira. EDBLko 84.355 formetatik, 64.737 lemak dira (aurrerantzean, EDBL lemak).
6. *EuskalWordNet* sareko item lexikoekin (*EusWN*). 26.886 item lexiko ditu (kopurua homografoak baturik). *WordNet*-eko ingelesezko sarrerekin lotuta dauden *EusWN*-eko unitate lexikoak ez dira nahitaez euskarazko lemak, ingelesezko lexemen ordainak baitira. Esaterako, ingelesezko izenen ordain gisa, *-t(z)e* aditz-izenak edo *-tasun* atzizkia dutenak agertzen dira maiz. Horietako izenki asko erreferentziatzat hartu ditugun beste lemategietan (ingelesetik itzuliak ez direnetan) ere agertzen dira, beste hainbat, aldiz, *EusWN*-ean baino ez dira agertzen, eta kasu horietan, bitxia dirudi ingelesetik egindako itzulpena,

[97] SEH1994 lanaren edukiak *xml* bihurtu dituzte Arriola et al. autoreek (2003). Haiengandik eskuratu dugu lemategia eta beste zenbait datu, esperimentuak burutzeko.

kategoria gramatikala mantentzearren, ondorengoetan, adibidez: *connivance, secret approval, tacit consent*: 'ados jartze', *spraying, crop-dusting*: 'aerosolez bustitze'.

Datuak bateratzeko, sarrera-buruen grafia egokitu dugu: hitzen arteko marrak eta tarteak "_" bihurtu ditugu, "lan-bulego" eta "lan bulego" bezalakoak batzeko; bestelako marrak kendu; eta hizki larri guztiak xehe bihurtu. Atal honetan aipatu ditugun sei iturrietatik, bi maiztasun-hiztegietatik (UZEI2004 eta SMH1982) eta corpusetako maiztasun-zerrendez (ETC, Elh200) osaturiko datu-base bateratuko bi milioiko sarreretatik gertu dago. Sarrera-buru bakoitzaren azpian, datu-iturrietan horrekin homografo diren sarrera-buruak eta horiekin lotutako datuak bildu ditugu *xml* egitura berean (ikus 3.1 irudia).

```
<Homograph Homograph="alegia" type="1gram">
    <Elh200 rfreq_1g="0.0201656972" rank_1g="539" freqclass="20+"/>
    <Elh200_pos POS="LOT" counts="41106"/>
    <Elh200_pos POS="IZE" counts="5129"/>
    <Elh200_pos POS="ADB" counts="1"/>
    <Elh200_pos POS="ADJ" counts="1"/>
    <Elh200_pos2 POS="LOT_LOK" counts="41106"/>
    <Elh200_pos2 POS="IZE_ARR" counts="4208"/>
    <Elh200_pos2 POS="IZE_LIB" counts="921"/>
    <Elh200_pos2 POS="ADB_ADOARR" counts="1"/>
    <Elh200_pos2 POS="ADJ_IZO" counts="1"/>
    <ETC lema="alegia" rfreq="0.000128843338213763" rank="5898" counts="264" pos1="ADB"/>
    <EusWN hom="1" synset="eus-30-06372095-n" pos="IZE"/>
    <SAR1982 counts="0.0517805300240152" rank="224"/>
    <UZEI rfreq="0,0418631371676818000" rank="252"/>
    <EEG sf_lema="alegia"/>
    <EEG pos="ADB"/>
    <EEG pos="IZE"/>
    <EEG pos="LOK"/>
    <EDBL xuxenform="alegia" code="234"/>
    <EDBL xuxenform="Alegia" code="293"/>
    <EDBL xuxenform="alegia"/>
    <EDBL pos="ADB_ARR"/>
    <EDBL pos="IZE_ARR"/>
    <EDBL pos="IZE_LIB"/>
    <EDBL pos="LOT_LOK"/>
    <OEH lema="alegia" hom="1" adib="127"/>
    <HB lema="alegia" hbid="1820" pos="NOPOS"/>
    <SEH1996 id="9788453" EH_lem="alegia" date_simple="1749" date_EH="1749"/>
</Homograph>
```

3.1 Irudia: 'alegia' lema-ikurra datu-base bateratuan

3.2.3 Euskarazko maiztasun-lemategia: emaitzak

3.2.3.1 Maiztasun-zerrenden arteko antzekotasuna

Zer punturaino ezberdinak dira corpusen arteko lemategiak? Eta zein da elkarri egin diezaioketen ekarpena? *Rank* balioen konparaketa sistematikoki egiteko, bi bide erabili ditugu.

Batetik, maiztasun-zerrenden arteko *rank* balioak alderatu ditugu, bi corpusen arteko bilduraren *n* hitz ohikoenak konparatuz, Spearman Ranking korrelazioaren neurriaren bitartez (Kilgarriff 2001). Spearman neurriak bi rankingen arteko aldea neurtzen du, elementuek sailkapen batean eta bestean dituzten posizioak alderatuz, (2) formulak adierazten duen moduan:

(2) $$\rho = 1 - \frac{6\sum (x_i - y_i)^2}{n(n^2-1)}$$

non x_i eta y_i *i* elementuak 1. eta 2. sailkapenetan dituen posizioak diren, hurrenez hurren.

3.3 taulak *n=500* balioetarako emaitza erakusten du. Corpusak argitalpen-dataren arabera daude antolatuta. Ikus daitekeenez, Elh124 eta Elh200ren arteko antzekotasuna oso altua da, Elh200ek 80 milioi testu-hitz gehiago izanagatik. Biak internetetik era masiboan bilduak izateak eta etiketatze-prozesu bera jarraitu izanak azaldu lezake hein batean antzekotasun hori. Halaber, aipatzekoa da corpusek denboran hurbilen dituzten beste corpusekin erakusten dutela antzekotasunik handiena. Horrela, SMH1982 corpusak UZEI2004 corpusarekin du antzekotasunik handiena, corpus berriagoekin antzekotasun hori nabarmen jaisten delarik.

	SMH1982	UZEI2004	ETC	Elh124	Elh200
SMH1982	1				
UZEI2004	0.5542798107	1			
ETC	0.4056939783	0.4641690074	1		
Elh124	0.4150037011	0.5536959952	0.5627681191	1	
Elh200	0.3805365731	0.4675802057	0.5265724492	**0.9009107076**	1

3.3 Taula: Maiztasun-lemategien 500 hitz ohikoenen arteko alderaketa Spearman ranking korrelazio neurriaren bitartez

Bestetik, Baroni et al. (2009)-ek aurkeztutako neurriak aintzat hartuz, Leturiak haren tesian egindako esperimentuak errepikatu ditugu, alderaketan eskura genituen maiztasun-lemategiak sartuz. Horrela, corpus batek beste baten aldean duen estaldura (*coverage*) eta aberastea (*enrichment*) neurtu ditugu. Demagun C_a eta C_b corpusak ditugula. Estaldurak neurtzen du C_b-k maiztasun minimotik (20) gora dituen lemen artetik zein den C_a-n ere maiztasun minimo horretatik gora daudenen arteko proportzioa (ikus (3) ekuazioa). Horrek adieraziko luke C_a-ko zenbat lemarentzat eskaini dezakeen informazioa C_b-k ere. Aberasteak, aldiz, neurtzen du C_a-n maiztasun minimotik (20) behera dauden eta C_b-n maiztasun minimotik gora dauden lemen proportzioa, C_a-n maiztasun minimotik (20) behera dauden lema guztiekiko. Horrek adieraziko luke C_b-k zenbat lemarentzat informazio nahikoa duen, C_a-k eskaini ezin dezakeena.

(2)

$$estaldura(C_b/Ca)=\frac{N_a \cap N_b}{N_a}$$

non N_a den Ca-n maiztasuna>=20 duten lemen kopurua eta Nb den Cb-n maiztasuna >20 duten lemen kopurua

(3)

$$aberastea(C_b/Ca)=\frac{S_a \cap N_b}{S_a}$$

non Nb den Cb-n maiztasuna >=20 duten lemen kopurua eta S_a den C_a-n maiztasuna <20 duten lemen kopurua.

3.4 taulako emaitzek erakusten dutenez, gainerako lemategiek ere SMH1982 hiztegiko lema gehienak biltzen dituzte, normala denez, eta, aldiz, lemategi horiek oso estaldura gutxi erakusten dute beste lemategietan. 3.4 taulako lerro bakoitzak erakusten du dagokion corpusak besteetan dituen estaldurak. Zutabe bakoitzak, berriz, dagokion corpusean beste corpusek lortzen duten estaldura islatzen du. Aberaste-datuak erakusten dituen 3.5 taulako lerro bakoitzak dagokion corpusak besteekiko lortzen dituen aberaste-mailak islatzen ditu. Zutabe bakoitzak, berriz, dagokion corpusarekiko beste corpusek eskaintzen duten aberastea adierazten du. Datuok gauza bera erakusten dute: lemategi gehienek SMH1982 hiztegian maiztasun minimorik ez duten lema gehienen informazioa eskaini dezakete. Egungo corpus handietara etorrita, aipagarria da Elh124 eta Elh200 lemategiek ETCren gainean estaldura altua erakusten duten bitartean, alderantziz ez dela hori gertatzen, ETCk Elh124eko lemen % 40a besterik ez baitu erakusten, eta Elh200ekoen % 34a. Aberaste-neurriarekin ere hala gertatzen da, ETCk beste biekiko % 5etik 7rako aberastea eskaintzen duen bitartean, Elh124 eta Elh200 lemategiek % 20 inguruko aberastea ematen dutelako ETCren aldean. Corpusen osaerak azaldu litzake emaitza horiek. ETC iturri zehatz batzuetako edukiez osatuta egoteak haren hiztegiaren aniztasuna mugatzen du, sarean dagoen edozein eduki onartu duten beste bi corpusen aurrean.

	SMH1982	UZEI2004	ETC	Elh124	Elh200
SMH1982		% 26,13	% 7,11	% 4,13	% 3,36
UZEI2004	% 91,76		% 22,14	% 14,13	% 11,51
ETC	% 93,78	% 83,12		% 41,58	% 34,63
Elh124	% 95,38	% 93,04	% 72,91		% 89,80
Elh200	% 95,52	% 93,08	% 74,61	% 91,70	

3.4 Taula: Estaldura-datuak

	SMH1982	UZEI2004	ETC	Elh124	Elh200
SMH1982		% 0,60	% 0,20	% 0,02	% 0,01
UZEI2004	% 80,41		% 0,64	% 0,16	% 0,14
ETC	% 94,85	% 66,08		% 5,39	% 7,83
Elh124	% 93,81	% 82,24	% 18,78		% 10,84
Elh200	% 94,85	% 82,65	% 21,82	% 28,26	

3.5 Taula: Aberaste-datuak

Atal honetan emandako emaitzek erakusten dute Elh124 eta Elh200 corpusek antzekotasun handia dutela lemei dagokienez. Ondorioz, eta sinpletasunaren alde eginez, lan honen gainerako ataletan Elh200 corpusarekin lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu soilik. Corpus horren alde egin dugu, aberaste-indizeari dagokionez lema gehiagori buruzko informazioa eskaini dezakeelako Elh124 corpusak baino (% 28,26). Tamaina aldetik ere, ETCren parekoa da Elh200.

3.2.3.2 Hiztegi-lemategiak corpusetan

Hiztegietan sarrera duten lema multzoak corpusetatik erauzitakoarekin erkatzeko, ebakidurak eta multzo disjuntuak kalkulatu ditugu unigramentzat. Denera, 140.837 dira hiztegietako sarrera-buru edo lemak, eta horietatik 77.969 corpusetan agertzen dira. Ondorengo 3.2 irudian, multzoen banaketa agertzen da sei lemategietan. Espero genuen bezala, OEHko lemategia da corpusetan aurkitzen ez diren sarrera kopururik handiena duena, gaurko erabileratik kanpoko lexemak eta grafiak ditu eta. EDBL_lema da corpusetatik erauzitako zerrendekiko ebakidurarik handiena duena. Multzo disjuntua (EDBL_lema [61.803] \ (ETC ∪ Elh200)) neurri handi batean izen (eta leku-izen) bereziz osaturik dago (10.505etik 4.703 sarrera dira izen bereziak).

3.2 Irudia: Hiztegi-lemategiak corpusetan

3.2.3.3 Oinarrizko hiztegi-lemategia

3.2.3.3.1 Hitz bakarreko unitateak

Hizkuntza-ikasleen beharrei egokitzen zaien hiztegi elebiduna osatzeko, lemategia bera maiztasunean oinarritzeko, eta, aldi berean, maiztasun-datuak hiztegian bertan eskuragarri jartzeko asmoz, oinarrizko lemategia proposatzen dugu, aurreko atalean deskribatutako datuetatik eta metodoetatik abiatuz. ETC edo Elh200 corpusetako batean eta eskuz editaturiko hiztegietako batean agertzen diren unigramak iragazi ditugu, lehenengo pauso batean. 77.969 sarrera dituzten corpusen eta hiztegien arteko intersekzio horren konposaketari erreparatu diogu, bestelako iragazkiak aplikatuz.

EDBL datu-baseko lemei dagokienez, ondorengo kopuruak ditugu: 51.157 sarreretatik, 50.829k aditz, izen, adjektibo edo adberbio marka dute. Azken horietatik, 30.266 dira 20 agerpenetatik gora dituztenak. Lema horiek, EDBLko etiketen arabera sailka daitezke, bi fintasun-mailatan:

(1) kategoriaren arabera (IZE izena, ADI aditza, ADB adberbioa, ADJ adjektiboa, etab.);

(2) azpi-kategoriaren arabera (IZB izen berezi, LIB leku-izen berezi, etab.)

Gure asmoarekin lotuta, berebiziko abantaila dugu ondorengoa: EDBLko etiketa sintaktikoen gainean hiztegi-sarreraren oinarrizko egitura eraiki daiteke, entitate sintaktikoak, alegia. Hiztegi-zirriborroan, lema-ikur baten azpian lema homografoak entitate sintaktiko gisa antolatuko lirateke, adib.: *bat* 1. DET DZH, 2. IZE ZKI; *heldu* 1. ADI SIN, 2. ADJ ARR, 3. IZE ARR. Gainera, horrela zehaztutako entitate sintaktiko bakoitzarentzat maiztasun-datuak kalkula daitezke (zenbat agerpen ditu *alegia* lemak lokailu gisa, izen arrunt gisa, leku-izen gisa edota bestela? Ikus 3.6 taula; maiztasun-datuak 3.1 irudian ageri direnak dira), EDBL bera erabiltzen duen *EusTagger* tresnaren bitartez etiketatuta dagoen Elh200 lemategian, adibidez, oinarriturik, taulako adibidean egin dugun bezala.[98]

[98] Eskuragarri ditugun beste datu-iturrietan, lemaren kategoria hutsaz bestelako etiketarik ez dugu.

Fintasun-maila	Posizioa maiztasun-zerrendan	Agerpen kopurua	Etiketa
Kategoriarik gabe	539	46,237	(lemma)
Kategoria (POS)	609	41	lokailua
	3,378	5,129	izena
	1,475,970	1	adberbioa
	1,507,920	1	adjektiboa
Kategoria eta Azpikategoria (POS_POS2)	618	41,106	lokailua
	3,882	4,208	izen arrunta
	10,407	921	leku-izena
	1,440,023	1	adjektiboa
	1,880,968	1	adberbioa

3.6 Taula: Elh200 corpusetik erauzitako maiztasun-datuak, 'alegia' lema-ikurrarentzat

20 agerpen baino gutxiagoko[99] entitate sintaktikoak hiztegi-sarreran jasotzen baditugu, agerpen gutxiagoko entitateak baztertuz, *alegia* adibidearentzat 3.3 irudiaren bezalako oinarrizko hiztegi-sarrera izango dugu. Irudian ikusten dugun *xml* egiturako <*syntactical_entity*> elementua hiztegi-sarrera litzateke (TEI P5 izendapenean, <*entry*>); <*homograph*> elementua, berriz, sarrera-buru homografoak, hots, lema-ikurrak batzen dituena (TEI P5: <*super_entry*>).[100]

```
<homograph homograph="alegia">
    <syntactical_entity lemma="alegia" pos="lokailua" corpus_counts="41.106">
        <sense/>
    </syntactical_entity>
    <syntactical_entity lemma="alegia" pos="izen_arrunta" corpus_counts="4.208">
        <sense/>
    </syntactical_entity>
    <syntactical_entity lemma="Alegia" pos="leku_izena" corpus_counts="921">
        <sense/>
    </syntactical_entity>
</homograph>
```

3.3 Irudia: Oinarrizko *xml* hiztegi-sarrera: 'alegia'

Har ditzagun, beraz, corpusetako agerpenez egiaztaturiko erabilera dutenEDBLko lema horiek hiztegi berri baten lemategia eraikitzeko lehen abiapuntutzat. *EuDeLex* bezalako hiztegia eraikitzeko asmoz lemategi hori eskuz landu ahala, EDBL bera

[99] 20 agerpeneko atalasea finkatzeaz, ikus 3.2.1 ataleko oharrak.
[100] TEI P5 izendegiaren araberako *xml* egitura 1.1 irudian ikusi dugu.

eguneratzeko, aberasteko eta balizko okerrak atzemateko ekarpena izango da hiztegigintza-lanen etekin erantsia, eta hori lexikoari zein lema-ikur bakoitzari dagozkion entitate sintaktikoei begira.

Gainontzekoen zerrendan, hau da, corpusetako eta EDBL ez diren beste hiztegietako 24.324 sarreretan, 4.398 lemek dituzte 20 agerpenetatik gora. Horrenbestez, hautagai gehiago ditugu. Horiek hautagai ezegokietatik bereizi eta EDBLren moduko etiketa sintaktikoez osatzeko (beste hiztegietako kategoria-etiketak eskuragarri dauden heinean, modu erdi-automatiko batean), agertokiaren arabera sailkatuko ditugu. EDBLtik kanpo geratzen den multzoko lemetako bat ez da beste hiztegi guztietan agertzen. 3.7 taulan, multzoaren banaketa dugu.

∩ ((ETC ∪ Elh200) \ EDBL_lema) [26.671]]		Elh200 freq>=20 [3.985]
HB2010	4.405	1.735
OEH	19.987	2.864
SEH1996	5.079	993
EEG2013	3.854	1.645
EusWN	1.422	464

3.7 Taula: EDBLtik kanpoko corpusetako lemen banaketa

Hiztegi berria eraikitzeko gure proposamenari jarraituz, hautagaiak entitate sintaktiko posibleen etiketekin osatuko ditugu lehenengo. Aitzitik, irizpide gehiago beharko dira multzo horretakoak hautagai egoki ala ezegoki izendatzeko: EDBL lema ez direnen zerrendak sarrera ezegoki franko ditu ("zarata"), 4.000 bat, alegia, baita ohikoenen artean ere. Lema multzoa agertokiaren araberako azpi-multzo bakoitzari egokitutako irizpideak garatu beharko dira. 7.3 eranskinean, hiztegi bakoitzean agertzen diren talde honetako lemen zerrendak ematen ditugu Elh200 eta ETC corpusetan dituzten maiztasun-datuen arabera ordenaturik, baita sei iturrietakoak batzen dituen zerrenda orokorra ere. Zerrenda guztien lehenengo 60 lerroak ematen ditugu, batutako kopuruak (agerpena ETC *edo* Elh200 corpusean) 3.7 taulakoan adierazitakoak izanik.

Ikusten denez, zerrenda bakoitzak bere berezitasunak azaltzen ditu: *EusWN* lemategian, esaterako, zenbaki erromatarrak ageri dira. SEH1996 hiztegian, *-arazi*,

-garri eta *-ki* morfemen bitartez eratorritako forma ugari agertzen da (kopuru zehatzak 3.8 taulan). Aipatutako atzizkiez eratorritako formak EDBL lemen zerrendan ez dira agertzen, EDBLaren arabera posibleak diren formen artean (hau da, *Xuxen* zuzentzaileak (Agirre et al. 1992) onartzen dituen formen artean) baizik, datu-base horretan eratorpenak egiteko arauak aintzat hartzen dira eta.

Guztira	*993*	
-arazi aditza	152	% 15,31
-garren zenbaki ordinala	24	% 2,42
-ki	20	% 2,01

3.8 Taula: SEH1996: EDBL datu-basean ez, baina corpusetan bai agertzen diren lema kopuru batzuk

Adibide horrek irudikatzen duen bezala, taldekako erabakiak hartu ahalko dira zerrendak lema-hautesle bila aztertzean. Adibideko forma eratorriak 20tik gorako agerpeneko maiztasunekoak izatea hiztegi-lemategi batean onartzearen aldeko argudioa litzateke, eratorpenaren jatorria den beste lema baterako erreferentzia ezartzeko besterik ez bada ere. Taldeka egin daitezkeen erabakiak hartuta, gainerako lemak banaka aztertzera igaroko ginateke.

Beste arazo orokor bi aipatuko ditugu jarraian: gaztelaniazko lemaren batekin homografoak diren euskarazko lema urriago batzuk, eta lematizatze automatikoaren okerren eraginez agertzen direnak. Hautesle-zerrenda orokorraren (7.2 taula) maiztasunaren araberako lehenengo hiru postuetan, OEHko lemak ditugu: '*duela', 'el', 'ona'*. '*Duela'*, '*izan'* aditzaren azpi-lema gisa jasota dago OEHn. '*El'*, Añibarroren *Voces Vascongadas* eta Azkuen hiztegikoa dugu, '*erreal'* txanponaren goitizen laburra, eta kasu gehien-gehienetan, nekez izango da corpusetan agertzen zaigun '*el'*, gaztelaniazko artikulua eta izenordainaz beste ezer. Azkenik, gaztelaniazko '*Doña'* hitzaren aldaera zaharra da '*ona'* hori, eta lematizatzaile automatikoak akatsez '*on*+DET' identifikatu ez eta '*on'* lemarekin batu ez izanaren emaitza izango da. Tankera horretako parekatze okerrak saihesteko, bestelako metodologia batera jo beharko genuke, hitzaren testuingurua kontuan hartzea, esaterako. Esku artean ditugun datuei begira, aipa dezagun EDBLko datuetan oinarria duen etiketatzaile automatikoak OEHn adierazitako kategoria gramatikalarekin bat ez datozen etiketa morfosintaktikoak esleitu

dizkiela aipatutako lemei. Parekatze okerra, beraz, metadata morfosintaktikoan islatzen da, eta, horrela, parekatze okerrak atzemateko bidea genuke, corpusean etiketa morfosintaktiko ugari dituzten lemak baztertuz. Lema egokia aurkitu ezinik, analisi morfologikoan huts egin duelako (*duela, ona*) edo ez zuelako lema ezagun batekin lotzerik (*el*), "asmatu" egin ditu etiketak:

a) *duela* adjektiboa-izenondoa

b) *ona* adberbioa-aditzondo arrunta; adjektiboa-izenondoa; leku-izen berezia; izen berezia; izen arrunta

c) *el* izen arrunta; interjekzioa

Corpusetan presentzia duen gaztelaniazko materialaren eraginez okertutako emaitzak (*el* bezalakoak) iragazteko beste metodo bat gaztelaniazko corpusetako maiztasun-datuak aintzat hartzea izango litzateke.

EuDeLex hiztegi berriarentzako oinarrizko lemategia garatzeko gure proposamena laburbiltzeko, honakoa esan dezakegu: *DeReWo* zerrendak garatzeko teknika eredutzat harturik, eskuz editatutako lemategi batekiko ebakidura kalkulatu dugu, eta, horretaz gain, EDBLko datuen gainean makroegituraren lehenengo bertsio bat eraikiko dugu. Bestetik, EDBLko datuek mikroegituraren oinarrizko antolaera eraikitzeko bidea ematen dute. Hiztegia edukiez osatzeko lanetan, lemategia eskuz editatzen aurreratu ahala, metodo horren egokitasuna (lema-zerrenda bera eta etiketa sintaktikoak) neurtuko dugu, EDBL bera hobetzeko ekarpena egiteko asmoz. Bigarren pauso batean, beraz, EDBL ez diren beste hiztegietako hautagaiak xedatuko ditugu, 7.3 eranskineko zerrendetan agertzen direnak. Eta hirugarrenik, aztertutako hiztegietan agerpenik ez duten lemak hartuko genituzke kontuan. Bigarren pausoan lemategian onartzeko hautesleak zehazteak EDBL bera aberasteko proposamenak egiteko ere balioko du.

Corpusetatik erauzitako maiztasun zerrendetako ia milioi bat formak aztertu ditugun hiztegietan ez dira lema-ikur gisa agertzen. Horietatik, asko eta asko "zarata" dira, hala nola lematizatze okerrak (forma flexionatuak, atzizkidunak edo grafia ez-estandarrak, bere horretan lematizatu gabe), hizkuntza arrotzetako formak, zenbaki erromatarrak, eta abar. Multzo erraldoi horren barnean, hainbat neologismo, jatorri arrotzetatik euskarara ekarritakoak, maiztasun handiko grafia ez-estandarrak edo/eta aintzat hartzekoak diren bestelakoak "ezkutatzen" dira. Maiztasunean oinarritutako garbiketak aplikatu ditugu,

corpusetan maiztasun oso ezberdinak zituzten hitzak baztertuz, atalase ezberdinen arabera. Tamalez, guk diseinatutako neurriak ez ditu hautagai okerrak lema egokietatik bereizten. Multzo honetan hautagai egokiak antzemateko, maiztasuna aztertzeaz gain, metodologia garatzea eta eskuz banaka aztertzea izango dira bide egokiak, hautagai interesgarriak urriak baitira.

3.2.3.3.2 Bigramak

Orain arte, hitz bakarreko unitateei (unigramei) bakarrik erreparatu diegu lan honetan. Hala ere, Elh124 eta Elh200 corpusetatik, unigramez gain, n-gramak (hitz anitzeko unitateak, hitz anitzeko lema izateko hautagaiak direnak) erauzteko gai gara (300.000 bat dira maiztasun-zerrendetan). Hiztegi-lemategietan ere 25 mila baino n-grama gehiago baditugunez, bi taldeetako datuen ebakidurako bigramak ere ordenatu ditugu maiztasunaren arabera. Etiketatzaile automatikoaren laguntzaz bigramak osagaien kategoriaren arabera sailkatu ondoren (izen + aditz *–behar izan, kale egin–* eta izen + izen *–lan bulego–* motakoak, batik bat), kategoria taldeen eta maiztasunaren arabera oinarrizko hiztegi-lemategi batean sarrera eman diezaiekegu.

3.2.4 Euskarazko maiztasun-lemategia: ondorioak eta gerorako erronkak

Egun eskuragarri ditugun euskarazko corpusetan oinarritutako maiztasun-zerrenda lematizatua sortu dugu. Orobat, zerrenda horren edukia zenbait hiztegi-lemategirekin konparatu dugu, aurretik argitaratutako bi maiztasun-hiztegi barne. Corpusen eta hiztegi-lemategien intersekzioak, hots, erabilera corpusetan egiaztatua duten hiztegietako lemak, *EuDeLex* bezalako hiztegi elebidun baten euskarazko oinarrizko lemategi gisa erabil daitezke; horrez gain, horietako lema bakoitzaren maiztasun-datuak hiztegi-artikuluetara txertatu ahal izango dira, hiru fintasun-mailatan.

Erabili ditugun hiztegi-lemategiei dagokienez, hasiera batean hizkuntzaren prozesamendu automatikorako garatu zen EDBL datu-basearen balioa azpimarratu dugu, hiztegi berri baten makroegiturarako zein mikroegiturarako oinarrizko horniketa eskaintzen baitu. Bestalde, EDBL datu-baseko datuak hiztegigintzan abiapuntutzat hartu eta beste iturriekin osatzeko erabakiak ahalbidetuko du HAP alorreko hainbat tresnek erabiltzen duten datu-base hori bera eguneratu eta aberastea.

Aztertutako hiztegietan agerpenik ez duten maiztasun handiko corpusetako lemak euskarazko lemategi baten baitan sartzeko hautagaitzat jo ditzakegu hasiera batean. Hala ere, gure esperimentuek erakutsi dute maiztasuna ez dela nahikoa multzo horretako hautagai "onak" eskuratzeko. Etorkizuneko lanen artean dugu neurri estatistiko konplexuagoak eta "zarata" modu egokian karakterizatu eta baztertuko duten bestelako teknikak ikertzea. Une honetan, eskuzko lana ezinbestekotzat jotzen dugu. Edozein modutan, puntu hori ez da kritikoa, lexikografoak garbiketa hori gauza dezakeelako hiztegia landu bitartean.

Bestalde, corpusetan agertzen ez diren hiztegietako lemak *zaharkitua* edo *gutxi erabilia* oharrarekin markatzekoak ditugu. Garai ezberdinetako corpusen azterketak ohar horiek zehazten lagun dezake. Zentzu horretan, Lexikoaren Behatokiaren (Euskaltzaindia 2009) moduko ekimenak oso baliagarriak izango dira.

Azkenik, euskarazko hiztegigintza-corpusa litzateke lan honetan aurkeztutako metodoek ahalbidetzen duten aplikazioetako bat. Hori gauzatzeko, euskarazko hiztegien lemategiak bateratu beharko lirateke, lan honetarako egin dugun moduan, bigarren pauso batean hiztegigintza-corpusean jasoko ditugun hiztegien mikroegituretako edukiak lema horien azpian biltzeko. Bigarren pauso hori gauzatu baino lehen, hau da, atal honetan aurkeztutako lanetarako sortu dugun ereduaz baliaturik, makro-egiturako mailako corpus lexikografikoa genuke. Printzipioz, 2.4 atalean proposatu dugun datu-ereduaren berdina da hemen erabili duguna: 3.2.2.4 atalean esan bezala, *super-lema* baten (3.1 irudian: <*homograph*> deituriko elementuaren) azpian hiztegi (eta bestelako lema-bilduma) bakoitzeko agerpenak jaso ditugu, kasu honetan, *super-lema* horrekiko homografiaren arabera, eta lemaz gainerako oso datu gutxirekin batera (kategoria gramatikala, maiztasuna).

3.3 Mikroegitura

Etorkizun hurbil batean eskuz landutako hiztegia eskuragarri jartzeko asmoa gauzatu nahi dugu, hiztegigintza-lanak egiteko giza baliabide murriztuak izan arren. Horregatik, erabaki pragmatikoak hartu eta hiztegigintza-lanen hurrenkeran lehentasunak finkatu behar ditugu. *EuDeLex* hiztegi honen lehenengo argitaraldiaren funtzioa honela definitzen dugu: euskara lehenengo hizkuntza duten ikasleentzat zein euskarara itzultzen

duten itzultzaileentzat alemanezko hitzen adierak desanbiguatzeko argibide lagungarriak ematea. Hortaz, *EuDeLex* hiztegiaren lehenengo argitaraldi honetan, alemana→euskara atalean ematen ditugun euskarazko ordainak gainerako argibideekin osatuko ditugu, baldin eta hitzaren adiera desanbiguatzeko lagungarriak iruditzen bazaizkigu, hala nola domeinu sintaktikoari buruzko argibideak eta sinonimoak. Halaber, erabilera-argibideak txertatzeko saiakerak egin ditugu alemanezko hainbat lemaren kasuan, 3.1 irudian ikusten denez.

abdecken Derewo 4349 *trennbar*
Verb Transitiv +*haben* ▸ **1 desestali** *das Dach abdecken* **teilatua kendu** **2** (mahaia) **jaso** *Der Kellner hat den Tisch abgedeckt* **Zerbitzariak mahaia jaso du 3 estali** *Im Winter deckt sie das Beet ab* **Neguan baratzea estaltzen du**; *Die Antenne deckt die ganze Region ab* **Antenak eskualde osoa estaltzen du**

Absatz Derewo 3653 ~es, Absätze
Substantiv m. ▸ **1** *(oinetakoa)* **takoi**; **orpo 2** *(idatzia)* **paragrafo**; **lerroalde 3** HANDEL **salmenta**

Abstufung Derewo 26176
Substantiv f. s. Verbinf. abstufen ▸ **1 mailaketa 2** = Herabstufung **mailaz jaiste 3** = Nuance **ñabardura**

3.1 Lagina: *EuDeLex*: **s.v. 'abdecken', 'Absatz', 'Abstufung'**

Alfabeto osoa estaltzen duen lehengo bertsioa argitaratu ondoren, hiztegi-sarrera guztiak honelako argibideekin osatzea proposatzen dugu. Adieraren domeinuaren zehaztapena, berriz, lehenengo argitaraldiko lemategi osoarentzat egiteko asmoa dugu, domeinu bakoitzarekin lotutako glosarioak eskaini ahal izateko, *EuDeLex* hiztegiaren eratorpen gisa. Domeinu-glosario horiek erabiltzailego bati eskaini, eta, bestetik, alemanezko beste domeinu-hiztegiekin aldera daitezke, hutsuneak, "termino-adierak" eta lemategian sartzeko hautesleak finkatu ahal izateko.

Aipatu berri ditugun argibide motekin lotutako irizpideak garatuko ditugu hurrengo hiru ataletan. Ondoren, alemanezko izenari, aditzari nahiz adjektiboari eta adberbioari dagozkion hiztegi-sarreren diseinua proposatzen dugu. Lehenik, izenari buruzko atalean, hizkuntzaz hizkuntzako *lexikalizatze asimetrikoa* nabarmentzen dugu hiztegigintza elebidunean kontuan hartu beharreko arazo gisa, eta *WordNet* familiako datu-baseetan aurkitzen dugun erlazio horien isla aurkeztuko dugu labur. Bigarrenik, aditzaren kasuan,

```xml
<Lemma id="2990" LemmaSign="Abstufung" Source="DeReWo"
DerewoRang="26176" Frequency="16" >
    <SE id="335252" SectionNumber="1" POS="IZE" GramInfo="f.">
        <References id="335253">
            <reftypegroup reftype="ik. aditza:">
                <reference target="abstufen"/>
            </reftypegroup>
        </References>
        <Sense id="335254" SenseNumber="1">
            <TE id="335255" TE="mailaketa"/>
        </Sense>
        <Sense id="335256" SenseNumber="2">
            <Synonym id="335257" Synonym="Herabstufung"/>
            <TE id="335258" TE="mailaz jaiste"/>
        </Sense>
        <Sense id="335259" SenseNumber="3">
            <Synonym id="335260" Synonym="Nuance"/>
            <TE id="335261" TE="ñabardura"/>
        </Sense>
    </SE>
</Lemma>
```

3.4 Irudia: EuDeLex xml, 'Abstufung'

propietate sintaktikoen araberako antolaera proposatuko dugu. Eta, azkenik, alemanezko eta euskarazko adjektiboen eta adberbioen asimetria morfosintaktikoari buruzko deskribapenak oinarri izanik, kategoria gramatikal horri begira, gure hizkuntza bikoterako egokia den hiztegi-sarrera baten osagaiak proposatuko ditugu.

EuDeLex hiztegi elektronikoa da, 3.1 laginean ikusten dugun azaleko itxuraren azpian *xml* egitura duena (ikus 3.4 eta 3.8 irudiak). Hiztegia osatzen duen datu multzoa *xml* bezalako *markup language* batean izateak hainbat abantaila dakar. Jarraian, *xml* hizkuntzaren erabilpena hiztegigintzan izango dugu hizpide, eta *EuDeLex* hiztegirako gure proposamena aurkeztuko dugu.

3.3.1 Hiztegiaren *xml egitura*

Hainbat paperezko hiztegi-baliabide elektroniko bihurtzeko, hau da, euskarri elektronikoan paperezko hiztegiaren edukietan bilaketak egin eta bilaketa-emaitzak erabiltzaileari erakusteko, oso oinarrizko egitura bat erabili ohi da, *xml* dokumentu gisa 3.5 irudian irudikatzen duguna. Adibidean, hiztegi-sarrera <*entry*> izeneko elementuaren barruan batzen da, eta horren baitan, lema-ikurra duen <*headword*> eta hiztegi-sarreraren edukia duen <*body*> elementuak datoz. Paperezko hiztegiaren zatiketa, beraz, bi mailatan burutu da hemen: sarreren artean, eta sarreraren barruan,

lema-ikurraren eta gainerako edukien artean. Egitura horrek bi motatako bilaketak ahalbidetzen ditu: lema-ikurraren araberakoa, eta sarreren eduki osoak aintzat hartzen dituena. Hainbat eta hainbat paperezko hiztegi digitalizatu horrela antolaturik daude, sarean erabilgarriak ditugun HLEH1994 eta ZEH2005 euskarazko hiztegien argitalpenak kasu.

```
<entry>
    <headword> Lema-ikurra </headword>
    <body> Hiztegi-sarrera </body>
</entry>
```

3.5 Irudia: Oinarrizko *xml* hiztegi sarrera

Zenbait kasutan, paperezko hiztegia zena, *rtf* (edo *ms word doc*) motako dokumentu hutsa zen hori, *xml* egitura aberats batera igaroarazi dute, *parsing* deitzen den prozesuaren bitartez. Oro har, paperezko hiztegia inprimatzeko balio zuen *rtf* testuko *representational markup* deituriko formatua (letra lodia, etzana, letra-tipo ezberdinak, etab.) *xml* markup eraikitzeko erabiltzen da, baita espresio erregularretan oinarritutako algoritmoak ere. Sarasolaren SEH1996 hiztegia TEI *xml* formatudun hiztegi elektroniko bihurtu dute Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldean (xehetasunak Arriola et al. 2003 lanean), hiztegi-sarrerako elementu guztiei *xml* elementu bana esleituz. Honezkero, SEH1996 lana *xml* formatuan dugu, eta elementu bakoitzaren araberako bilaketak gauza ditzakegu bertako datuetan. Horren balioa adibide sinple batez irudikatzeko, hona hemen SEH1996 hiztegian adierazten diren lema bakoitzaren lehenengo agerpen dokumentatuaren datetan oinarritutako grafikoa (3.6 irudia).

Datu horietatik, denbora-tarte jakin bati dagokion lemategia erauz daiteke arazorik gabe, eta, halaber, *xml* egiturako beste edozein elementuren araberako iragazketak burutu daitezke. Printzipioz, *xml* egitura aberats batek funtzio anitzeko datu-base lexikalak eratzeko balio du (*Multifunctional lexical databases*, Pajzs (2009) lanean, edo *Mutterlexikon*, Gouws (2006) lanean), eta, *xml* egitura konplexu beretik, funtzio komunikatibo zehatz bati erantzuten dion hiztegia erauz daiteke (funtzio komunikatiboei buruz, ikus 2.5.2 atala). Hiztegiaren edukiak ikusteko moldea aldatzeko, mikroegiturako elementuak haren aginduz ikustarazi edo ezkutatzeko aukera badu sareko hiztegiaren erabiltzaileak, datuen antolaeraren konplexutasunak horrelakorik ahalbidetuz gero.

3.6 Irudia: SEH1996 lemei lotutako datetan oinarritutako grafikoa (Azkarate & Lindemann (2015) lanetik hartua)

Hiztegi berria hutsetik sortzean, lehenengo momentutik *xml* egitura aberatsa izatea komenigarria da, hiztegien edukiak editatu osteko *parsing* lanak egin behar ez izateko, eta aipatu ditugun abantaila guztiak baliatzeko. Gaur eskuragarri ditugun *Dictionary Writing Systems* (DWS) deituriko tresna informatikoek *xml* egitura aberatsagoarekin lan egitea ahalbidetzen digute, guk lanean erabiltzen dugun *TshwaneLex* sistema kasu (Joffe & De Schryver 2004; Joffe et al. 2003). Aplikazio informatiko horrek eskaintzen dizkigun abantailen artean, honako hauek aipatuko ditugu, gure lanean onuragarriak baitira:

(1) Sarreren arteko erreferentzia-lasterbideak eskuz eta automatikoki txerta daitezke;

(2) *xml* elementuen argumentu-balioak eskuz, erdi-automatikoki (taldeka, CSV taulak inportatzearen bitartez), eta aurretik zehazturiko zerrenda batetik hautatuz edita daitezke (kategoria gramatikala adierazten duen balioa, esaterako, aurretik ezarritako zerrendatik hautatzen dugu);

(3) Argumentu baten eskuz editaturiko balioak zerrenda itxi bihur daitezke, horrela balioei buruzko estatistikak ikusi edo balio bakoitza beste hizkuntza batera itzultzeko aukera izanik (ikus adibidea 3.3.2.5 atalean);

(4) Aplikazioaren interfazeak hiztegigileari *xml* ikuspegia eta CSS bitartez xedaturiko inprimaketa-proba erakusten dizkio aldi berean (ikus 3.7 irudia).

3.7 Irudia: TshwaneLex (TLex) aplikazioaren interfazea

7.4.2 eranskinean ematen dugun lagina *TLex* aplikazioak sorturiko *rtf* testua da, *xml markup* ez, baina elementu eta atributu bakoitzarentzat aplikazio barruan zehazturiko *markup errepresentazionala* (hizkien tamaina, kolorea, etab.) bai gordetzen duena. *rtf* horren itxura (4) puntuan aipatutakoarekin bat dator.

Lagin horri dagokion *xml* fitxategitik, hainbat datu estatistiko erauzi ditugu. 7.4.1 eranskinean, ondorengo datu-bildumak aurkitzen dira:

(1) Elementuen eta atributuen kopuruak (7.8 taula). 5.165 sarrerako hiztegi-lagina aurkezten dugu 7.4.2 eranskinean. Lagin hori, beraz, 4.1 atalean deskribatutako metodo erdi-automatikoak ebaluatzeko erabili dugun lagina (alemanezko A hizkia) baino handiagoa da.

(2) 7.8 taulan, elementu jakin batekin lotutako zenbait atributuren balio bakoitzaren kopuruak ere ematen dira, hala nola lemaren iturria, lemaren jatorrizko hizkuntza, erreferentziak eta flexio-morfologiari buruzko oharrak dituen atributuarenak, baita entitate sintaktikoei dagozkien POS-markak (kategoria

gramatikala) eta argibide morfosintaktikoak eta adierei dagozkien itzulpen-ordainak, hitz anitzeko unitateak eta definizioak ere. Ondorengoak bezalako baieztapenak egin ditzakegu estatistika horiek erabiliz: 1.149 aditz gisa identifikatutako lema-ikurretatik, 309k flexio-paradigma erregularretatik kanpoko arau irregularren bati jarraitzen diote (% 27), datuen arabera. 5.165 lemei 11.315 itzulpen-ordain dagozkie (batez beste, 2,19 ordain).

(3) Alemanezko 2.184 adierek jakintza-arloari dagokion marka daramate. Marka horien kopuru absolutuak eta erlatiboak 7.9 taulan ikus daitezke, maiztasunaren arabera ordenaturik.

(4) 650 adiera edo hitz anitzeko unitate (MWE) argibide pragmatikoren batekin lotuta daude. Erregistro-marka horien gaineko estatistikak, 7.10 taulan aurkitzen dira.

(5) 7.11 taulan, ordea, lagin osoan zehar entitate sintaktiko bati edo adiera bati lotuta dauden balentzia-formulak (ikus beheragoko 3.3.4.2 atala) zenbatzen ditugu. Balentzia-formulak editatze-prozesuan eskuz eta banan-banan ezarri ondoren, argibide mota honentzat xedatuta dugun argumentuaren balio guztiak zerrenda honetan jaso ditugu. Ikusten denez, hainbat balio behin baino gehiagotan agertzen dira. Bestalde, zerrendan agertzen diren zenbait ikur balio berdineko aldaera baten baino gehiagotan agertzen dira. Horrela, *jndn*. ("jemanden") sarrera inkonsistentziatzat jo behar dugu, balio bera beste kasu guztietan *jdn*. ikurraz adierazi baitugu. Hona hemen *xml* egitura erabiltzearen abantaila bat: Atributu baten balioen zerrenda honen bitartez, tankera honetako inkonsistentziak atzemateko eta zuzentzeko aukera ematen du.[101]

Xml egitura batean hiztegi berria oinarritu izanak, honako beste abantaila hau dakar, zalantzarik gabe aintzat hartzekoa dena: Elementuen hierarkia, eta, honekin batera, argibide motek hiztegi-sarreran duten hurrenkera modu askoz ere errazago batean alda daiteke, *markup* estruktural aberatsik ez duen hiztegi-testu batean baino. Hortaz, *EuDeLex* hiztegiko hemen aurkezten dugun egitura moldatu ahalko litzateke geroago

[101] Horrelako inkonsistentziak eskuz editatutako hiztegietan agertu ohi dira, eta digitalizatzeko lanak (mikroegiturako argibide mota bakoitzari *xml* elementu edo argumentu bana esleitzeko edo *parsing* lanak (ikus 3.3.1)) zailtzen dituzte.

ere. Eta, jakina, horrela egingo dugu, hemen egiten ditugun proposamenak eztabaidaren bitartez hobetzen diren heinean.

3.3.2 Alemanezko lemari buruzko argibideak

3.3.2.1 Etimologia

Latina eta grekoa hizkuntza klasikoez bestelako hizkuntzetatik alemanera *Fremdwort* (hitz arrotz) gisa etorritako lema bada, jatorrizko hizkuntza adierazten dugu. Laginean, 81 kasutan egin dugu horrela. Jatorri bakoitzari dagozkion kopuruak 7.8 taulan ikus daitezke.

3.3.2.2 Flexio morfologia

Flexio-morfologia ezberdinetako lema homografoak homonimotzat hartzea erabaki baitugu (ik. 3.3.3), lemarekin batera flexio-morfologiaren gaineko argibideak ematen ditugu, alemanezko hiztegietan ohikoa den moduan:

1. Aditzen kasuan
   (a) Irregulartasuna. Markarik ez badago, paradigma erregularrari jarraitzen diola ulertzen da.
   (b) Irregularren kasuan, lehenaldiko singularreko hirugarren pertsona eta lehenaldiko partizipioa (*behelfen: behalf, beholfen*).
   (c) Preposizioa+aditza elkarteen bereizgarritasuna: "Trennbare Verben" (*abfahren, ich fahre ab, ich *abfahre*).
   (d) *-ge* morfemaren galera lehenaldiko partizipioan.
2. Izenen kasuan
   (a) Singularreko genitiboa eta pluraleko nominatiboa.
3. Adjektiboen kasuan
   (a) Konparatiboa eta superlatiboa.

1 (a), (c) eta (d) puntuetan aipatutako markei buruzko txosten estatistikoa 7.8 taulan aurkitzen da.

3.3.2.3 Sinonimoak

Polisemiaren aurrean, adiera bat besteekin bereizteko lagungarria iruditu zaigun kasuetan, sinonimoak gehitu dizkiogu alemanezko adierari. Sinonimo horren grafiarekin

bat datorren lema-ikurra lemategian egonez gero, sinonimoa erreferentzia-lasterbide automatikoa da, hau da, sinonimoaren gainean klik eginez, erabiltzaileak homografoari dagokion *EuDeLex* hiztegiko sarrera ikusten du. Sinonimoak sarrera polisemiko batera bidaltzen duen hainbat kasutan, eskuz egokitu ditugu lasterbide horiek dagokion adierara. Egokitze hori, orain arte landu dugun lemategiko sarreretarako egin burutu ahal izan dugu, horien polisemia ere landua baitugu. Horrelako lasterbideak 7.4.2 ataleko laginaren 426 kasuetan agertzen dira.

Izan ere, arlo hau ere metodo automatikoen bitartez landu liteke, iturburu irekiko eta lizentzia libreko alemanezko tesauroak eta, lizentzia egokia eskuratuz gero, *GermaNet* datu-basea sinonimoak erauzteko iturri gisa balia baitaiteke, sinonimoak hiztegian txertatzeko. Homografian oinarritutako metodo automatikoak, lema homografoak eta polisemia desanbiguatzen ez dituena, aparteko arazorik gabe emango lituzke sinonimoak eskuratzeko aukera (bereizketa horiek egiten dituen *WordNet*-metodoari buruz, ikus 4.2.2 atala). Sinonimoak era masiboan EuDeLex hiztegian txertatzeko gure lehentasunen artean ez baitago, behin-behinean *openthesaurus.de* eta *canoo.net* atarietako eskaintzetara bidaltzen du *EuDeLex*-eko erabiltzaile-interfazeak sinonimoak ikusteko (ikus 3.5). Erreferentzia horiek homografian oinarritzen dira.,

3.3.2.4 Domeinua edo jakintza-arloa

Adierak desanbiguatzeko domeinu semantikoaren edo jakintza-arloaren gainean ematen ditugun argibideak aurretik finkaturiko zerrenda itxi batetik hautatzen ditugu. Zerrenda finkatzeko, SEH2007 lanean erabiltzen denean oinarritu gara. Eranskineko 7.9 taulan, jakintza-arloaren markei dagokien datu-bilduma estatistikoa ematen dugu. Argibide mota hori jakintza-arloren bateko hizkuntza bereziko terminotzat har dezakegun guztietan, marka ezartzen saiatu gara. Horrela, jakintza-arloaren araberakako bilaketak burutu edo glosarioak erauz daitezke hiztegiaren datu-base orokorretik.

3.3.2.5 Zehaztapen semantikoak

Eremu honetan, adiera desanbiguatzeko argibide osagarriak (ikus Alberdi et al. 2008: 1558) eskaintzen ditugu (parentesi artean, letra beltz etzanean), jakintza-arloari dagokion markaren antzeko modu batean arlo semantikoa zehazten dutenak. Kasu honetan, argibidea testu librea da, kasuz kasu erabakitakoa. Horretarako, adieraren

beißen *DeReWo* 4706 Flexion: beißt, biss, gebissen - *irregularra*
I *ad. tran.* *+haben* ▸
1 -i hozka egin; -i haginka egin; -i kosk egin; -i ausiki egin
2 *(intsektuak)* -i heldu; ziztatu
II *ad. intran.* *+haben* ▸
1 hozka egin; haginka egin; kosk egin; ausiki egin
III *ad. inper.* ▸
1 azkurea sortu
IV *ad. + 'sich'* ▸
1 *(koloreak)* elkarrekin ondo ez joan; gozakaiztu

3.2 Lagina: EuDeLex: s.v. 'beißen'

hiperonimoa erabili dugu, edo, aditzen kasuan, argumentu-egitura osatzen duen subjektu edo objekturen bat, aditzaren esanahia eta erabilpena zehazteko, 3.2 laginean ikusten den bezala (ikus 3.1 lagineko 'Absatz' adibidea ere).

3.3.2.6 Polisemia: Adieren zerrenda zenbakitua

Alemanezko lema-entitate sintaktikoak islatu ondoren, entitatearen adierak ematen ditugu zerrenda zenbakitu batean. Adieren ordena, printzipioz, maiztasunaren araberakoa izatea nahi dugu. Gaur egun eskuragarri ditugun corpusetan oinarritutako metodoek lema baten adieren maiztasunari buruzko informaziorik tamalez ematen ez baitigute, ez dugu irizpide horri jarraitzeko metodo fidagarririk, eta corpusetako KWIC zerrendei begiratuz adieren maiztasun-hurrenkera asmatu baino, geure intuizioari jarraitzen diogu adieren sailkapena burutzeko. Hori dela eta, *EuDeLex* hiztegiko lehenengo bertsio honetan, azken batean adieren hurrenkera ausazkoa dela aitortu behar dugu. Aurrerago, corpus-hizkuntzalaritzak auzi korapilatsu horretarako erantzunak eskaintzen dituenean (horri buruzko gehiago 4.2.1 atalean) eta adieren desanbiguazioa aintzat hartzen duten maiztasun-zerrendak eskuratzen ditugunean, sailkapena oinarri sendo eta uniboko batean eraiki ahal izango dugu.[102]

[102] Badira beste hurrenkera posible batzuk (ikus Lew 2013: 291–294), eta hurrenkera kronologikoa edo historikoa da horien artean maizen erabiltzen dena, maiztasunaren araberakoarekin batera. Adierei hurrenkera kronologikoa txertatzeko, alemanezko lemategia beharko genuke, adieren desanbiguazioa eta adiera bakoitzerako lehen agerpen dokumentatuaren data dakarrena.

3.3.2.7 Itzulpen-ordainak eta baliokidetasuna indartzeko osagaiak

Adiera bakoitzerako, euskarazko ordainak ematen ditugu kolore berdean (ordainen definizioaz, ikus 4 atala). Aurrerago esan bezala, *EuDeLex* hiztegiaren lehenengo bertsio hau euskara L1 duen erabiltzailearen beharrei begira diseinatu dugu, eta, horregatik, ez dugu itzulpen-ordaina argibide sintaktikoekin ez semantikoekin osatzen, erabiltzaileak gure hiztegitik sinonimorik egokiena aukeratzeko eta esaldi batean txertatzeko argibiderik espero ez duelakoan. Ondorengo 3.3 lagineko hirugarren adieran ikusi bezala, salbuespen bat egiten dugu argumentu-egitura gauzatzeari (balentziari) dagokionez: alemanezko akusatibozko osagaia euskaraz datibozkoa denean, "*-i*" kasu markatzailea eransten diogu ordainari. Adibide honetan, gure ustez, argiago geratzen zaio erabiltzaileari alemanezko aditzak joskera trantsitibo baterako balio duela, edo bestela esanda, "*abschlagen*" ez dela datibozko osagairik behar ez duen "*ezezkoa eman*" esapidearen itzulpen onargarria.

abschlagen *DeReWo* 10553
- irregularra, bereizgarria.
ad. tran. *+haben* ▸
1 (kolpeen bidez) moztu
2 KIROLA *(baloia)* sakea atera
3 *(eskaera, mesedea)* ukatu; -i uko egin; -i ezezkoa eman

3.3 Lagina: *EuDeLex*: **s.v. 'abschlagen'**

Bestetik, ordainaren aurrean edo atzean baliokidetasuna indartzeko osagaiak ematen ditugu berde ilunxkoago batez eta parentesi artean. Argibide horiek beharrezkotzat jotzen ditugu alemanezko adiera guztiz ulergarria izateko, eta itzulpen osoa eskaintzeko. Osagai horiek ez ditugu ordainaren beraren eremuan sartzen, aurretik edota atzetik kokatzen ditugun *OsagLex* izendatu ditugun argumentuetan baizik (ikus 3.8 irudia), ondorengo arrazoiengatik:

- Osagaia ez da nahitaez euskarazko testuinguruan eman behar, hau da, erabiltzaileak ekoitzi behar duen euskarazko esaldian.
- Itzulpen-ordaina daraman *xml* argumentuaren balioa euskarazko lema baterako erreferentzia-lasterbidearekin osatu nahi dugu (hiztegiaren EU>DE norabidean zein euskarazko beste hiztegietan bilatu ahal izateko).

- Euskarazko itzulpen-ordainak *EuDeLex* atalaren EU-DE norabideko zirriborroa eratzeko erabili nahi baditugu, lexema berari ez dagozkion bestelako ikurrak ezin ditugu *xml* eremu berean onartu.

Azken bi arrazoi horiengatik, 3.3 lagineko hirugarren adieran ikusten dugun "*-i*" datibo-kasuaren markatzailea, alemanezko akusatibozko osagaia euskaraz datibozko egitura batekin ematen dela adierazten duena, itzulpen-ordainari berari ez dagokion beste eremu batean jasotzen dugu (*ArgKasu*).

Eta berdin jokatzen dugu baliokidetasuna semantikaren eremuan indartzeko argibide osagarriekin. Jar dezagun auziarekin zerikusia duen beste adibide bat. Alemanetik itzultzean, mugimendua adierazten duten aditzek arazoak sortzen dituzte bereziki. Talmy autoreak (1991) erakusten duenez, mugimendu-gertaerak era ezberdinetan lexikalizatzen dira hizkuntzaz hizkuntza. Mugimendu-gertaeraren osagai semantikoak (objektua, mugimenduaren modua, bidea) lexemak berak ekar ditzake ala ez; itzulpenean, aditzari falta zaion adierazlea adberbiozko osagaien bidez (Talmyk: *satelite* gisa) eman behar da, ondorengo adibideetan bezala. Testuinguru gehienetan, adibideetako euskal itzulpen literalak ez dira osorik hemen bezala literalki itzulitako testu batean agertuko, ezta euren osotasunean hiztegiko itzulpen-ordain gisa ere:

1a.	rollen	*biraka ibili/joan*
1b.	der Ball rollte hinter die Linie	*baloia marraren beste aldera joan da biraka*
2a.	gehen	*oinez ibili*
2b.	ich gehe nach Hause	*etxera noa oinez*
3a.	fahren	*ibilgailuz joan*
4b.	morgen fahren wir nach Bremen	*bihar joango gara Bremenera (ibilgailuz)*

Esan bezala, itzulitako testu batean, 1b-4b bezalako euskal esaldirik ez da agertuko. Testuinguruak argi utziko du baloia biraka joan dela, zergatik euskal esaldia horretara behartu? Baina hiztegian, testuingururik gabe, alemanezko aditzak bere baitan dakarren mugimendua-modu hori adierazi behar da. *Rollen* bezalako mugimendua-modua dakarten aditzak hizkuntza germanikoetan ugariak dira; euskaraz, aldiz, ez.[103] 3.3 lagineko '*(kolpeen bidez) moztu*' adibidea sail horretako bat da, eta *OsagLex* eremuaz baliatzen gara alemanezko lexemak berez dakarren mugimendu-modua adierazteko.

[103] Oinez ibiltzearen modua adierazteko, adibidez: *Gehen, schlurfen, watscheln, dackeln, tippeln, traben,* beste hainbaten artean.

```
<Lemma id="4060" LemmaSign="abschlagen" Source="265" DerewoRang="10553" Frequency="14"
 FlexMorfTag="139;140">
    <SE id="4061" SectionNumber="1" POS="7" GramInfo="222">
        <Sense id="4062" SenseNumber="1">
            <TE id="4063" OsagLexPre="kolpeen bidez" ArgKasu="0" TE="moztu"/>
        </Sense>
        <Sense id="4064" SenseNumber="2" JakintzaArloa="57" EremuSemant="baloia">
            <TE id="4065" ArgKasu="0" TE="sakea atera"/>
        </Sense>
        <Sense id="4066" SenseNumber="3" EremuSemant="eskaera, mesedea">
            <TE id="4067" ArgKasu="0" TE="ukatu"/>
            <TE id="4068" ArgKasu="209" TE="uko egin"/>
            <TE id="4069" ArgKasu="209" TE="ezezkoa eman"/>
        </Sense>
    </SE>
</Lemma>
```

3.8 Irudia: *EuDeLex xml*: s.v. 'abschlagen'

Preposiziozko aurrizkia duten alemanezko aditzen kasuan, baliokidetasuna indartzeko osagaiak garrantzia du askotan, aurrizkiaren bitartez hiponimoa sortzen denean, 3.9 taulako adibidean gertatzen den bezala. Erabateko baliokidetasuna islatzen duen euskarazko ordainik ez badago, jokabide horretaz baliatu gara (adibidean parentesi artean adierazten duguna da baliokidetasuna indartzeko osagaia).

Alemanerazko aditza	*Euskarazko ordaina*
brennen	1. erre; 2. piztuta egon; argi egin
anbrennen	piztu, erre (-tzen hasi, „anfangen zu brennen“)
abbrennen	(erabat, „vollständig“) erre, kiskali

3.9 Taula: Alemanezko 'brennen' aditza eta preposiziozko aurrizkia duten hiponimoak

3.3.2.8 Erabilera-adibideak

EuDeLex hiztegiko alemanezko lemategiaren lehenengo % 10a landu bitartean, erabilera-adibideak hautatzeko zenbait saiakera egin ditugu (ikus 3.1 eta 4.4 laginak). Asmatutako adibiderik ez dugu jarri nahi izan, corpusetan oinarritutakoak baizik. Horretarako dauzkagun baliabideak, corpusak nahiz corpusekin lan egiteko tresna elektronikoak, izan baditugu. Baina ikusi dugunez, egun dugun corpus paraleloa gehiago garatzeko premian gaude, lemategi guztia itzulitako adibide egokiez hornitu ahal izateko (4.3 atalean argudiatuko dugun bezala). Bestalde, corpus paraleloetatik erauzitako datuak modu automatiko batean emateko aukera dugu, hau da, erabiltzaileak hiztegi elektronikoan bilaketa bat burutzen duenean, bilaketari dagokion lema duten konkordantzia paraleloak erakustea. Horrekin lotutako arazo nagusiak bi dira. Alde

batetik, corpus paraleloko datuetan ez dago polisemiaren desanbiguaziorik, konkordantziak (gaur ditugun teknologiekin) lema-ikurraren arabera hauta daitezke, ez lemaren adieraren arabera. Bigarrenik, aipatu behar da kasu batzuetan bilaketarekin bat datozen emaitza gehiegi aurkituko direla erabiltzaileari lagungarri gertatzeko. Arazo hori konpontzeko teknologiak badaude, eta ingeniaritza konputazionalean inbertitzea besterik ez genuke (horri buruz, ikus 4.4.1 atala).

3.3.3 Alemanezko izena hiztegi-sarreran

2.1.1.1 atalean aurkeztutako irizpidearen arabera, eta 3.4 laginean ikusten dugunez, alemanezko '*Ausdruck*' izenari dagozkion argibideak hiztegi-sarrera bitan ematen ditugu, grafia berdineko bi izen homonimo horiek lemategiaren parte baitira. Izenki bakoitzaren flexio-morfologiaren gaineko informazioa (genitibozko singularra eta nominatibozko plurala) eta genero gramatikala lema-ikurraren ondoan ematen ditugu.

Ausdruck[1] *DeReWo*Homograph 1918 Flexion: ~s, Ausdrücke
iz. *m.* ik. aditza: ausdrücken ▸
1 adierazpen
2 termino; esamolde; esapide
3 ezaugarri; adierazgarri
4 adierazkortasun; adierazgarritasun

Ausdruck[2] *DeReWo*Homograph 1918 Flexion: ~s, Ausdrucke
iz. *m.* ik. aditza: ausdrucken ▸
1 inprimatze; inprimaketa

3.4 Lagina: *EuDeLex*: **s.v. 'Ausdruck'**

Makroegituraren arloan egiten dugun bereizketa horren azpian, homonimo bakoitzaren polisemia azaltzen dugu adierei dagozkien atal zenbakituetan. Adiera atal horien hurrenkera maiztasunaren araberakoa izatea nahi dugu; baina, horretarako baliabiderik eskuragarri ez dugun bitartean, beste hiztegi batzuetan aurkitzen dugun hurrenkerari eta geure intuizioari jarraitzen diegu, 3.3.2.6 atalean aipatu bezala.

Izenaren genero gramatikala adierazten duen ikurra entitate sintaktikoa zehazten duen ikurraren ondoren ematen dugu. Argibide hori "bizidun" markarekin osatzen dugu, hala badagokio, hau da, izaki biziduna denotatzen duenean, 3.5 lagineko adibidean ikusten dugun legez.

Anhänger *DeReWo* 1646 Flexion: ~s, ~
I *iz.* *bizidun m.* ▸
1 jarraitzaile; aldeko; zale
II *iz.* *m.* ▸
1 AUTOMOBILA atoi; trailer

Anhängerin *DeReWo* 32203 Flexion: ~, ~nen
iz. *bizidun f.* ▸
1 jarraitzaile; aldeko; zale

3.5 Lagina: EuDeLex: s.v. 'Anhänger', 'Anhängerin'

3.3.4 Alemanezko aditza entitate sintaktiko gisa

Aditzaz bestelako kategoria gramatikaletan, badugu arazo berezi bat, jarraian interesatuko zaiguna, eta hiztegiaren mikroegitura diseinatzerakoan hartu beharreko erabakia da: aditza lehenik entitate sintaktiko ala entitate polisemiko gisa deskribatu nahi izatea, eta horren arabera hiztegi-sarreran datozen argibideen barruko hierarkia finkatzea, edo datuen diseinu arloko hitzetan esanda, elementuen guraso-seme-alaba erlazioa ezartzea. Hortaz, hemen ere *xml* elementuen hierarkiaz ari gara.

3.3.4.1 Mikroegiturako elementuen hierarkia: ordena sintaktikoa

DaF ikasleentzat diseinaturiko hainbat hiztegitan proposatzen den bezala Langenscheidt eta PONS etxeetakoak adibide), alemanezko aditzari dagokion hiztegi-sarrera lehenik eta behin lemaren propietate sintaktikoen arabera antolatzen dugu, lau kategoriatan (ikus adibidea 3.6 laginean):

(1) Aditz iragankorra edo trantsitiboa, hau da, alemanaren kasuan akusatibozko objektua onartzen duena

(2) Aditz iragangaitza edo intrantsitiboa, hau da, akusatibozko objekturik onartzen ez duena

(3) Aditz erreflexiboa, hau da, akusatibozko *sich* izenordainarekin batera agertzen dena

(4) Aditz inpertsonala, hau da, subjektu gisa *es* izenordaina baino onartzen ez duena.

Aditza lehenik entitate sintaktiko gisa islatzeko jokabidearen alde, zenbait argudio zerrendatuko ditugu jarraian (ikus Marello 2010; Dentschewa 2006: 124h):

a) Hiztegi-sarrera luzeagoetan, orientatzeko laguntza eskaintzen du.

b) Alemanezko testu bat ulertzeko edo alemanetik itzultzeko ahaleginean, DaF ikasle aurreratuagoen eta itzultzaileen ohiko jokamoldea da aditzaren esanahiari hurbildu baino lehen aditza entitate sintaktiko gisa identifikatzea, hau da, subjekturik duen, akusatibozko objekturik duen, datibozko objekturik duen galderei erantzun eta gero, adiera, esanahia eta itzulpen-ordaina zehaztea.

c) Alemanezko testua ekoizteko orduan, kasu askotan, aditzaren semantika baino, horren propietate sintaktikoak dira ikasleari zalantzak eta argibideak jasotzeko beharra sortzen diotenak: aditz hau trantsitibo gisa erabil dezaket? Zer aditz laguntzaile erabiltzen du aditz honek perpaus intrantsitibo batean?

Ordena sintaktikoaren kritika ondorengo zalantzan oinarritzen da: hiztegiaren erabiltzailea gai ote da *trantsitibotasuna* bezalako gramatika-terminoak ulertzeko? Zalantza horrek badu pisua, eta euskaratik alemana ikasten duten kasuan badira hainbat arrazoi gaitasun hori zalantzan ez jartzeko, euskaraz tasun hori oinarrizko gramatika-eskolan lantzen baita. Ildo horretatik, ondorengo izendapen alternatiboa hauta daiteke, PONSDAF hiztegian gertatzen den bezala: "*Mit Objekt*" ("objektuarekin"), "*Ohne Objekt*" (objekturik gabe), "*Mit Sich*" ("'sich' izenordainarekin").[104]

abstimmen Derewo 2628 *trennbar*
I *Verb Intransitiv* +*haben* ▸ 1 *[über etw.]* **bozkatu**
II *Verb Transitiv* +*haben* ▸ 1 *[auf etw.]* **egokitu** 2 *[mit jdm.]* **adostu; hitzartu**
III *Verb +'sich'* +*haben* ▸ 1 *[mit jdm.]* **ados jarri**

3.6 Lagina: ***EuDeLex*: s.v. 'abstimmen'**

Alemana ikasteko prozesuan arazo larria izaten da aditz laguntzailearen erabilerarekin lotutakoa. Horretan laguntzeko asmoz, alemanezko aditzak iragan burutuan darabilen aditz laguntzailea ematen dugu, entitate sintaktikoa zehazten duen ikurrarekin batera. Horri dagokiola, zera aipatu behar da: oro har, egitura trantsitibo batean *haben* ("*edun") laguntzailea erabiltzen da; intrantsitiboetan, berriz, *sein* ("izan"). Baina, euskaraz gertatzen den bezala, badira salbuespenezko kasu franko (3.6 lagineko adibidea kasu), non aditz laguntzailearen erabilerari buruzko oinarrizko arau horrek balio ez duen. Horregatik, bi argibideak ematen ditugu espresuki: aditza entitate

[104] "Objektua" hemen akusatibozko objektua da, eta ez datibozkoa. Horrek gaizki-ulertzeak ekar ditzake. "Trantsitibo" terminoa egokiagoa iruditzen zaigu, euskaraz ikasi duenak tasun hori ergatibozko egiturak lantzen dituenean bereganatu du eta.

sintaktiko trantsitibo, intrantsitibo, erreflexibo edo inpertsonal gisa, alde batetik, eta, bestetik, aditzak entitate bakoitzaren kasuan zer aditz laguntzaile[105] darabilen.

3.3.4.2 Balentzia edo argumentu-egituraren gauzatzearen inguruko argibideak

Aditzaren[106] argumentu-egituraren gauzatzea edo balentzia modu egoki batean islatzeko asmoz, *balentzia-formulak* (*Valenzformeln*, (Wolski & Cyffka 2011: 12)) baliatzen ditugu (ikus 3.6 lagina), *EuDeLex* hiztegiaren lehenengo bertsio honetan, euskara L1 eta alemana L2 dituen erabiltzailearen beharrei begira, baina alemanezko atalean baino ez, hau da, euskarazko ordainei balentziari buruzko argibideak gehitu gabe. Hurrengo bertsio baterako euskarazko datuak ere balentzia-formulez aberastuko bagenitu, 3.7 laginaren bezalako irudia ikusiko genuke. Balentziari buruzko argibideek bi abantaila ekartzen dizkiote hiztegiaren erabiltzaileri:

1. Testua ekoizteko ahaleginean, kasu-marken edo preposizioen bitartez argumentuak modu egoki batean elkarrekin josten lagunduko dioten argibideak jasotzen ditu erabiltzaileak;
2. Testua ulertzeko ahaleginean, balentzia-formulek alemanezko adiera egokia hautatzen lagun liezaiokete erabiltzaileari, aurrean dituen preposizioak edo kasu-markak hiztegi-sarreran ikusten dituenekin bat baldin badatoz.

bedanken *DeReWo* 5233 - *-ge galtzen du*
ad. + 'sich' +haben ▸
1 *[bei jdm. für etw.] [nbi. zbtengatik]* eskerrak eman

3.7 Lagina: *EuDeLex*: **s.v. 'bedanken' (aberastua)**

Balentzia-formulen bitartez aditzaren propietate sintaktikoei buruzko argibideak ere ematen ditugu, nahitaezko erabilera ditrantsiboa markatzeko, batik bat (*"jmdm. etw."*, norbaiti zerbait). Datibozko *sich* izenordaina duten egitura erreflexiboak ez ditugu "*mit SICH*" entitate sintaktiko propio gisa islatzen, akusatibozko *sich* duten egiturak egiten

[105] *Haben* edo *sein* aditz laguntzaile bietatik edozein entitate sintaktiko bererako erabiltzea gramatikaltzat hartzen da zenbait kasutan, kontu dialektala bada ere (*ich habe gestanden* / *ich bin gestanden*). Horrelako kasuetan, aditz laguntzaile biak hauta daitezkeela adierazten dugu sarreran.

[106] Aditzei dagozkien sarreretan ez ezik, adjektibo eta izenei dagozkien hainbatetan ere, gehitu ditugu balentziari buruzko argibideak, baina azken bi kategoriei begira ez modu sistematiko batean, hurrengo bertsio bat landu arte. Nahiz eta adjektiboen eta izenen balentziari buruzko argibideak hiztegietan arreta bera merezi duten, alemanezko hiztegigintzan oro har gutxiago aurkitu izan dira egun arte (Castell 2015).

ausleihen *DeReWo* 7354 - *irregularra, bereizgarria.*
ad. tran. *+haben* ▸
1 *[jmdm. etw.]* maileguz utzi; mailegatu
2 *[(sich (Dat.)) etw.]* maileguz hartu; mailegatu

3.8 Lagina: ***EuDeLex*: s.v. 'ausleihen'**

dugun bezala, "*sich (Dat.) etw.*" ('norbere buruari zerbait') oharrarekin osatutako aditz trantsitibo gisa baizik (ikus 3.8 lagina).

3.3.5 Alemanezko adjektiboa eta adberbioa hiztegi-sarreran

Adjektiboen eta adberbioen kasuan, alemanez eta euskaraz ditugun simetria eta asimetria morfosintaktikoak kontuan hartu beharra ikusten dugu. 3.9 lagineko adibideek erakusten duten bezala, alemanezko adjektiboek morfologia edo/eta lexiko ezberdineko euskarazko ordainak eskatzen dituzte, atributu ala adberbio gisa erabiltzen diren arabera. Atributu gisa erabilitako adjektiboak determinatzaile sintagma baten osagaiak dira bi hizkuntzotan, eta flexionatu behar dira. Adberbioak, aldiz, ez dira flexionatzen, eta adberbio sintagmaren osagaiak ditugu. Euskaraz, kategoria batetik bestera, sintagma mota batetik bestera igaroarazteko, atzizki jakin batzuk erabiltzen dira (batik bat, *-ki, -to,* eta *-ka* adjektiboak adberbio bihurtzeko, eta *-ko* adberbio bat determinatzaile-sintagma batean erabili ahal izateko). Antzeko arau batzuek alemanezko hainbat lexematan balio dute (ikus *allein*$_{\text{ADB}}$ vs. *alleinig*$_{\text{ADJ}}$). Alemanezko adjektiboen euskarazko ordainak postposizio sintagma gisa ere ager daitezke (*jendetasun*$_{\text{IZE}}$-*ez*$_{\text{POSTP}}$, "anständig").

Hainbat kasutan, bi hizkuntzetako lexemak kategoria batean baino ez dira agertzen, hots: ezin dira atzizkien bitartez moldatu, beste kategorian balio ahal izateko. Auzi horri dagokionez ez alemanez ez euskaraz arau orokorrik ez dagoenik, hizkuntza-ikasleek esperoko dute hiztegiak zalantza horiek argitzea, hau da, zalantzak sortzen dizkion lexema eta adberbio edo adjektibo gisa erabil daitekeen.[107]

[107] 3.9 lagineko *anständig* adibidean ikusten denez, euskarazko *zintzo* eta *zintzoki* ordainak ematen ditugu, *EuDeLex* hiztegiaren hasierako funtzioa betetzeaz gain, euskaraz zalantzak dituenaren beharrei begira. Izan ere, adjektiboen erabilera adberbio gisa *-ki* atzizkia eskatzen duen ala ez euskaraz ikasten dutenen betiko zalantza izaten da, eta *-ki* atzizkiaren gehiegizko erabilpena euskaldun berrien ezaugarritzat har daiteke. Zalantza horiek argitzeko, bi forma posibleak ematea proposatzen dugu, hala badagokio.

anständig *DeReWo* 8054
I *izlag.* ▸
1 zintzo
II *izlag.adb.* ▸
1 zintzo; zintzoki; jendetasunez

anteilig *DeReWo* 20466
I *izlag.* ▸
1 zatikako; proportzional
II *izlag.adb.* ▸
1 zatika; proportzionalki

arg *DeReWo* 3262
I *izlag.* ▸
1 latz; gaitz
2 *zahark.* gaizto; maltzur; oker
II *izlag.adb.* ▸
1 *lgart. heg.* oso

3.9 Lagina: *EuDeLex*,
s.v. 'anständig', 'anteilig', 'arg'

Irizpide berari jarraituz, alemanezko adberbio-sarrerak antzeko era batean antolatzen ditugu: alemanezko adberbio bat, predikatibo gisa erabiltzen denean ("*Jazz ist anders*$_{\text{ADB}}$", "Jazz-a ezberdin$_{\text{ADB}}$-a$_{\text{DET}}$ /bestelako$_{\text{ADB}}$-a$_{\text{DET}}$ da"), ez du flexionatzerik onartzen; euskarazko egitura paralelo batean, aldiz, adjektiboa eskatzen da, nahitaez flexionatua izan behar dena. Berdin gertatzen da alemanezko adberbioak atributu gisa erabiltzen direnean: "*die*$_{\text{DET}}$ *Sitzung*$_{\text{IZE}}$ *gestern*$_{\text{ADB}}$" vs. "[atzo$_{\text{ADB}}$-ko$_{\text{POSP}}$ batzar$_{\text{IZE}}$]-(r)a$_{\text{DET}}$". 3.10 lagineko *anders* sarreran, flexiona ezin daitezkeen ordainak ematen dira *anders* lexemarentzat horren adberbio-erabileran, eta flexionatu behar direnak, berriz, predikatibo edo atributu gisako erabileran.

anders *DeReWo* 596
I *adlag.* ▸
1 ezberdin; bestela; beste era batean
II *adlag. prd./atr.* ▸
1 ezberdin; bestelako; beste era bateko

3.10 Lagina: *EuDeLex*: **s.v. 'anders'**

3.3.6 Gainontzeko kategoria gramatikalak

EuDeLex hiztegiaren lehenengo bertsio honetarako, funtzio-hitzak ez ditugu modu sistematiko batean landu, saiakera batzuk egin arren. Izan ere, preposizioak eta lokailuak zailtasun bereziak ekartzen dizkigute gure hizkuntza bikoteko hiztegi elebidun batean, ZEH2005 hiztegian gaztelaniazko *de* preposizioari dagokion sarrerak, esaterako, erakusten digunez: 19 adiera atal ditu sarrerak. Horixe dugu, beraz, lehenengo arrazoi praktikoa kasu konplexu horiek hasiera batean baztertzeko, eta alemanezko lemategia lantzen aurrera egiteko, preposizio eta lokailuen zama izan gabe. Bigarrenik, kategoria horietako lexemaren kopurua murriztua baita, taldeka lantzea proposatzen dugu, ikerketa berezia burutzearekin batera. Ikerketa horrek euskarazko beste hiztegi elebidunetako jokabideak aztertzean oinarrituko da, ondoren ikusteko zer nolako moldapenak komenigarritzat hartzen ditugun gure euskara-alemana bikoterako. Hirugarrenik, ondorengoa aipatu nahi dugu: alemana ikasten duenak hizkuntza ikasteko testuliburuetan zein gramatika didaktikoetan badu argibide franko hitz horien erabilpen egokiari hurbiltzeko, eta argitzeke dugu ikasleriak hiztegi batera joko lukeen horien gainekoak lantzeko, edo nahiago duen gramatika didaktiko batera jotzea.[108]

3.4 Euskara-alemanezko sarreren egitura

Aurreko kapituluetan alemanezko lemetatik euskarazko itzulpen-ordainetara bidaltzen duen hiztegiaz aritu ondoren, orain euskaratik alemanera itzultzen duen *EuDeLex* hiztegiaren atalaren egitura osatzeko proposamen batzuk egingo ditugu. Makroegituraz jardun dugu jada 3.2.3.3 atalean, eta maiztasun-datuen araberako oinarrizko lemategia proposatu dugu.

Mikroegiturari dagokionez, ondorengo irizpide sorta abiatzeko proposamen gisa aurkezten dugu, euskarazko lemategirako hiztegi-sarrerak edukiez betetzen hasi baino lehen eztabaidan finkatzeko. Alemanezko sarreren egiturari buruz esandakoa kontuan izanik eta sarrera horien % 10 inguru eskuz landu ondorengo esperimentu konputazionalek izandako esperientziatik (ikus beheragoko 4.1.4 atala) egiten dugu proposamena.

[108] Aipatu beharra dago egun ez dugula euskaraz eta euskarazko ikuspuntu batetik idatzitako alemanaren gramatikarik. Sarreran esan bezala, alemana ikasteko euskarazko lehenengo testuliburua (DBH) Wolff & Reuter (2007) dugu, egun arte bakarra dena. Gerorako erronka dugu hutsune horiek betetzea.

(1) Hiztegi elebidunen *xml* egiturak eredu (*scheme* edo *DTD*) berekoak, edo, gutxienez, bateragarriak izatea komeni da, hiztegiaren norabide baten edukiak beste norabideko datuak erabiliz zirriborratu ahal izateko, alde batetik, eta, bestetik, hirugarren hizkuntza batekiko hiztegi berri baten lehenengo zirriborroa makro- eta mikroegiturako datuetan oinarritzeko. *xml* dokumentu bateko datuak transformazioaren bitartez berrantola litezke, baina arau berari jarraitzeak lanak errazten ditu. Bateragarritasuna argitalpen elektronikoari begira ere irizpide garrantzitsua dugu, euskararako hiztegi elebidun gehiago eraiki eta erabiltzaile-interfaze berdinaren bitartez argitaratu nahi baditugu.

(2) Badira arrazoi onak hizkuntza-ikasleentzako alemanezko hiztegigintzan ohikoa den entitate sintaktikoa, *xml* egituran lema dakarren elementua gurasotzat eta adierak seme-alabatzat dituen tarteko elementu hori (ikus 3.4 edo 3.8 irudian <SE> elementua) defendatzeko euskarazko hiztegigintzan gaur arte nagusia den hurrenkera semantikoaren aurrean. Gainera, euskarazko lemategirako zirriborra daiteke, EDBL datu-baseko etiketak erabiliz, 3.2.3.3.1 atalean azaldu dugun bezala (ikus adibidea 3.3 irudian), eta horrela zirriborratutako lemategia eskuz lantzea eta aberastea EDBL datu-basea bera aberasteko ekarpena izan daiteke.

(3) Homonimia, hau da, kategoria gramatikal beraren barneko homografia (adib. euskaraz *baso* eta *baso*, ikus 2.4) filologian ez ezik, eremu konputazionalean ere arazoa da. EDBL bezalako datu-baseetan homonimia ez da aintzat hartzen, corpusetatik erauzitako konkordantzian zein maiztasun-zerrendetan homonimo horien datuak nahasturik datoz, lema-ikurrean oinarritzen den edozein aplikaziok, hiztegietako edukietan-bilatzekoak nahiz hiztegi sorta baten edukiak batzen dituen datu-base bateratuak, *baso* (IZE) eta *baso* (IZE) berdin ulertzen dituelako. Alemanezko lemategia eskuz lantzean, homonimia 3.3.3 atalean azaldu bezala ebatzi dugu, hau da: *Ausdruck*[1] eta *Ausdruck*[2] bi sarrera-buru homonimo ezartzea, euskarazko hiztegi modernoagoetan ere egiten den moduan (ikus 2.4 atala, eta, adibide gisa, SEH2007 hiztegiko 7.49 lagina). Lema-ikurrean oinarritzen diren gure esperimentuetan (ikus 4.1.4 atala), homonimo horiek eskuz batu behar izan ditugu, eta, gero, zirriborro-datuak hiztegian erabiltzeko orduan, berriz desanbiguatu. Arrazoi horien guztien aurrean, hiztegiaren *xml*

heldu
I *aditz perifrastikoa* ▸
A *ad. intran.* *+da* ▸
1 = iritsi ankommen; kommen; herkommen
2 kommen; geschehen
3 reifen
B *ad. tran.* *+dio* ▸
1 fassen; greifen; halten; festhalten
2 ergreifen; anfangen
3 *(Tier)* beißen; stechen
C *ad. tran.* *+du* ▸
1 *ipar. zah.*= bidali, helarazi schicken
D *ad. intran.* *+zaio* ▸
1 *ipar.* helfen; zur Hilfe kommen
II *izlag.* ▸
1 reif
2 *irud.* erwachsen
3 *irud.* vernünftig
III *iz.* ▸
1 *(eines Tiers)* Biss; Stich

irakin
I *aditz perifrastikoa* ▸
A *ad. intran.* *+du* ▸
1 sieden; kochen
II *aditz sintetikoa* *[3. perts.]* ▸
A *ad. intran.* ▸
1 sieden; kochen

3.11 Lagina: EuDeLex: 'heldu' eta 'irakin' sarrerak (lehenengo proposamena)

egituran homografo guztiak elementu batean batzea proposatzen dugu. Horrenbestez, kategoria gramatikal berdineko homonimoak nahiz kategoria ezberdinetako homografoak elementu horren seme-alaba gisa jasoko ditugu, 3.12 eta 3.11 laginetan ikusten den bezala. Bestela esanda: homonimia ez dugu bereziki markatzen, eta homografiatzat hartuko dugu, entitate sintaktiko homografo guztiak maila berean. Entitateen azpitik, bakoitzaren polisemia kokatuko da egituran.

(4) *EuDeLex* hiztegiko alemana-euskarazko atalean, aditzak diren entitate sintaktikoak ondorengo azpikategorien arabera antolatu ditugu (ikus 3.3.4

kapitulua): (a) aditz trantsitiboa, (b) aditz intrantsitiboa, (c) aditz erreflexiboa, akusatibozko *sich* izenordainarekin erabiltzen dena, eta (d) aditz inpertsonala. Entitatearen izaera markatzen duen ikurraren ondoan, argibide bana gehitu dugu aditz laguntzailearen erabileraz (ikus 3.2 eta 3.3 laginak), entitate sintaktikoaren mota eta aditz laguntzailearen erabilera oro har ez baitatoz bat, nahiz eta kasu gehienetan honako oinarrizko arau honek balio duen: egitura trantsitiboetan eta erreflexiboetan, hau da, akusatibozko osagaia posiblea denean, *haben* laguntzailea erabiltzen da, eta intrantsitiboetan (akusatibozko osagairik posible ez denean), berriz, *sein* laguntzailea. Esan dugunez, entitateen azpikategorizazioaren eta aditz laguntzailearen erabilerari buruzko argibideak eskaintzea erabiltzaileari lagungarri gertatzen zaiolakoan gaude, hura hizkuntza-ikaslea denean, batez ere. Alemanez ez ezik, euskaraz ere egitura sintaktikoaren eta aditz laguntzailearen artean ez dago erabateko simetria, eta hizkuntza-ikasleak oinarrizko arau gisa ezagutzen duena (ergatibozkoetan, **edun*, eta gainontzekoetan, aldiz, *izan* laguntzailea) hautsi egiten da hainbat eta hainbat kasutan. Euskara ikasten duenak auzi hori hiztegiaren argibideetatik argitzea espero dezakeenez, aldagai biak mikroegituran islatzea proposatzen dugu. Euskarazko hiztegiek aditzari dagokion sarrera-mikroegitura sintaxiaren arabera antolatzen dutenean (2.4 atalean ikusiko dugunez, Sarasolaren eta Morrisen hiztegietan besterik ez da horrelako ordenik aurkitzen), aditz laguntzailearen erabileraren arabera sailkatzen dituzte aditzaren adierak (ikus, esaterako, *heldu* adibidea SEH2007 hiztegian, 7.52 lagina, edo MORR1998 lanean, 7.40 lagina). 3.11 lagineko *heldu* adibidean, ordea, entitate sintaktikoak xedatu ditugu, eta bakoitzarentzat aditz laguntzailearen erabilera zehazten duen ikurra gehitu. Hemen, bi entitate trantsitibo ezarri ditugu: (a) *dio* laguntzailea erabiltzen duena, eta (b), *du* laguntzailea erabiltzen duena. (a) bezalako irregulartasunak esplizituki islatzeko aukera ematen digu mikroegitura horrek, *irakin* adibidean ere ikus daitekeen moduan. Morrisen proposamena guretik hurbilena litzateke, *dio* motako laguntzailea erabiltzen duen egitura *du* atal batean ematen du eta. Gure ustez, erabiltzailearentzat argiago geratzen da Morrisen *du [dio]* atala *aditz trantsitiboa +dio* izendatzea, eta horixe da proposatzen duguna.

(5) Adizkiak diren entitate sintaktikoen 3.11 lagineko bezalako sailkapeneko lehenengo hierarkia maila (hemen zenbaki erromatarrez markaturik datorrena), EDBL datu-baseko kategorizazioari egokitu diogu, non lema-ikurraren azpian aditza izenetatik, adjektiboetatik eta adberbioetatik bereizten den. Horretaz gain, sailkapeneko maila horretan aditzaren izaera perifrastikoa markatzeko aukera dugu, hau da, aditz sintetikotik bereizteko aukera. Tasun hori euskara ikasten dutenentzako argibide lagungarria da, eta perifrastikotasuna ala sintetikotasuna esplizituki markatzeak, horrekin lotutako ezberdintasun semantikoak ere islatzeko bide ematen du, hala badagokio.[109] Edozein kasutan, hau da, 3.11 lagineko *irakin* adibideko bezalakoetan ere, argibide semantikoei dagokienez erredundantzia sortu arren, argibide morfosintaktikoak txertatzeko aukera ematen du jokabide honek, esaterako, adibidean egin bezala, hirugarren pertsona baino ez dela argumentu gisa agertzen adieraztea, edo aditz sintetikoak dituen formak biltzen dituen taula baterako erreferentzia ematea.

(6) Adjektiboari eta adberbioari dagokienez, alemanerako 3.3.5 kapituluan egin ditugun proposamenak euskaraz zentzudunak dira neurri berean: adjektiboa adberbio gisa bere horretan (*-ki* morfema erantsi gabe) erabiltzen den edo ez esplizituki adierazteko, 3.13 lagineko bezalako egitura proposatzen dugu.

sakon
I *izlag.* ▸
1 tief
II *adlag..* ▸
1 = sakonki tief

3.13 Lagina: EuDeLex: 'sakon' sarrera (lehenengo proposamena)

Proposatutako egitura hizkuntza-ikaslea den erabiltzailearentzat lagungarriak izateaz gain, horrela xehaturiko entitate sintaktikoek HAP alorreko aplikazioetan ere erabilgarriak izan daitezkeela uste dugu: lema batek zer entitate sintaktiko gisa ager daitekeen erabakitzeko, eta informazio horretaz baliaturik corpus-datuak prozesatzeko,

[109] Gogora dezagun EAH2007 hiztegiak (1.21 lagina), *niri doakidanez* bezalako egiturak joan sarreraren baitan nola azaltzen dituen. Aditz jokatuak duen adiera hori (alemanez, joan aditz perifrastikoak ez bezala, 'zustehen', 'zukommen', 'angehen' ordainak dituena) tasun morfosintaktioarekin esplizituki lotzea euskara ikasleari lagungarri gertatzen zaio, gure ustez.

adibidez, posible diren entitateak *esplizituki* markatu behar ditugu, kapitulu honetako laginetan egin dugun legez. Halaber, aditz laguntzailearen erabilera entitate sintaktikoarekin batera adierazteak polisemia desanbiguatzen laguntzen dio hiztegi-erabiltzaileari nahiz HAP alorreko aplikazioek erabiltzen duten erabakitzeko prozesuan. Horrela, *heldu* aditza datibozko komunztadura duen *dio* motako laguntzailearekin eta ergatibozko zein datibozko osagaiekin batera agertzen bada, 3.11 lagineko *heldu* (I B) entitatea edo ditrantsitibotasunera hedatutako (I C) entitatea izan behar du.[110] Ergatibozko komunztadura-markarik gabeko *da* edo *zaio* laguntzailearekin batera agertzen bada, aldiz, (I A) entitatearen aurrean,[111] edo, *zaio* motako laguntzailea izanik, (I D) entitatearen aurrean gaudelako ebidentzia dugu. Lehenengo erabaki hori hartuta, *heldu* aditzak dituen adieretatik (EEG2013 hiztegian, adibidez, 13 atal dira, ikus 7.60 lagina), gutxi batzuk besterik ez dira geratzen, eta desanbiguatze semantikoa errazagoa izango da.

3.5 Erabiltzaile-interfazearen egitura

2013ko maiatzetik, *EuDeLex* hiztegiaren erabiltzaile-interfazea sarean dago[112]. Erabiltzaile-interfazea (ikus 3.9 irudia) *php*-script bakar batean oinarritzen da.[113]

Hasiera-orriaren goiko aldean, erabiltzaileak alemanezko lema edo forma flexionatu bat sartzeko aukera du, bilaketak burutzeko. Eremu horretan sartzen duen laugarren hizkitik aurrera, errutina batek sartutako hizkiak *EuDeLex* hiztegiko lemategiarekin konparatzen ditu, erabiltzaileari lema osoak proposatzeko. Eremuaren aurrean, sakatzeko botoi bi aurkitzen dira, hiztegiaren meta-hizkuntza aukeratzeko balio dutenak. Aukeraketa horren arabera, interfazeak ondorengo argibideak ematen ditu hautatutako hizkuntzan:

---

110 Balentzia-formulak (alemanerako, ikus 3.3.4.2 atala) emanez gero, (I B) atalean, "-tik heldu" ("norbaiti besotik heldu") bezalako egiturak posible direla adieraziko genuke, eta horrela euskarazko testua deskodetzean zein entitate sintaktikoa izan zehaztu, eta, halaber, testua sortzeko orduan laguntza eman.

111 *da*: datibozko osagairik gabe; *zaio*: [jasale] rol semantikoa dakarren argumentuari dagokion datibozko osagaiarekin.

112 http://www.ehu.eus/*EuDeLex*.

113 *php*-script horren eta jarraian aipatuko dugun *perl*-scriptaren lehenengo bertsioaren garapena Bartzelonako *Institut Universitari de Lingüística Aplicada* (IULA, Universitat Pompeu Fabra) institutuak 2013ko udaberrian Rogelio Nazar hizkuntzalari konputazionalarekin izandako elkarlanari zor diogu. Hasierako laguntza hori jasota, ordutik aurrerako moldapenak gureak dira. Erabiltzaile-interfazea moldatzeko urratsak ondorengo helbidean kontsulta daitezke: http://www.ehu.eus/*EuDeLex*/changelog.php.

a) Sintaxiari, pragmatikari eta jakintza-arloari dagozkion *EuDeLex* hiztegiko argibideak

b) Orriaren ataleko izenburuak

c) Emaitza-orrian zehar ematen diren argibideak

3.9 Irudia: *EuDeLex* **erabiltzaile-interfazea eta glosak**

Bilaketa-emaitzak ematen dituen markoa hiru zutabetan banaturik dago:

(1) *EuDeLex* hiztegiko sarrera, edo, homonimoen kasuan[114], sarrerak eta alemanezko *Wikipedia* eta *Wiktionary* iturrietako emaitzak. Iturri horietako datuak berehala erauzten dira[115], eta, bertan zerbait aurkituz gero, erabiltzaileari erakusten zaizkio: dagokion lema-ikurrarekin bat datozen orri-izenburuak eta orri horietan aurkitutako euskarazko itzulpenak. *Wikipedia*-ren kasuan, euskarazko itzulpenak euskarazko *Wikipedia*-n dagokion orrira bidaltzen duen lasterbidea ematen da.

(2) *EuDeLex lemma browser*: dagokion lemaren inguruko hamarna lema ematen dira hemen, aurreko eta ondorengo hamarrak, hain zuzen ere. Horien gainean klikatuz gero, erabiltzailea dagokion sarrera heltzen da.

(3) Alemanezko lemari buruzko argibide morfologikoak berehala erauzten dira alemanezko *Wiktionary*-tik, eta, zerbait aurkituz gero, taula formatuan erakusten zaizkio erabiltzaileari. Taula horren azpian, erabiltzaileak egindako galdeketa-hitza erabiliz automatikoki sortutako lasterbideak daude, alemanezko beste zenbait hiztegi elebakarrera eta elebidunera heltzeko balio dutenak.[116]

3.10 Irudia: 'Häusern' formaren analisi morfologikoa *EuDeLex* hiztegian

Erabiltzaileak forma kanonikoa beharrean lema-ikurra ez den forma flexionatu baten bitartez bilaketa gauzatzen duen kasuan, hala ere *Wikimedia*-ko zerbitzarira eskaera bat bidaltzen da, dagokion forma aurkituz gero haren analisi morfologikoa eta forma

[114] Hizki larriak eta xeheak ez dira ezberdintzen. Emaitza-orriak lema homografo bat baino gehiago baldin badakar, hirugarren zutabean lema-ikurrean klik eginez lema bakar bat aukeratzeko esaten zaio erabiltzaileari, argibide morfologikoak ikus ditzan.

[115] *Wikipedia* eta *Wiktionary* zerbitzarietako APIetara orri-izenburu edo *redirect*-orri homograforik dagoen ikusteko galdera bidaltzen da, homografiarik eta desanbiguatzeko errutinarik gabe.

[116] Ez da frogatzen lasterbideek beste hiztegi-atari horietako eduki batera bidaltzen duten ala ez.

kanonikoa itzultzen duena. Datu horiek erabiltzaileari ematen zaizkio, 3.10 irudiko adibidean ikusten den bezala.

Datu-base lokalean burutzen diren bilaketek eta *Wikimedia*-ko zerbitzarietan gauzatzen direnek, beraz, elkarren beharrik gabe funtzionatzen dute. Horregatik, erabiltzaileak emaitzak izango ditu, nahiz eta *EuDeLex* hiztegiko datuetan sarrerarik ez aurkitu.[117]. *Wikipedia* eta *Wiktionary* iturrietako datu oro bilaketa gauzatzen den momentuan erauzten direnez, baliabide horien azken bertsioko datuak hartuko ditu beti. Egun, *Wiktionary*-k badu orri bat alemanezko lemategi-erdi baterako (*DeReWo*, ikus 3.2.1 atala), eta aditzen, izenen eta adjektiboen kasuan, orri horretan aurkitzen diren morfologiari buruzko argibideak erauz eta erakuts ditzakegu.

(1) zutabean *EuDeLex* hiztegiko sarrera bakarra agertuz gero, erabiltzaileari hiztegi-sarrera iruzkintzeko aukera ematen zaio. Horretarako, dialogo bat zabaltzen da, dagokion oharraren gainean klikatuz gero.

EuDeLex DE-EU hiztegi honetako euskarazko itzulpen-ordainak *EuDeLex*-eko EU-DE atalera bidaltzen duten lasterbideak dira, eta dagokion lema-ikurra euskarazko lemategian baldin badago, itzulpen-ordain hori galdeketa-hitza da. EU-DE atala landu arte, euskarazko beste hainbat hiztegi-ataletara bidaltzen duten lasterbideak eskaintzen zaizkio erabiltzaileari.

Bestetik, itzulitako erabilera-adibideak bilaketa egiten den momentuan automatikoki txertatzeko lehenengo saiakerak egin ditugu. Datu-base lokal batean instalaturiko corpus paralelorik ezean, *Glosbe* atariko APIren bitartez (ikus beheragoko 4.4.1 atala) eskaintzen diren datuetara jotzen dugu saiakera horretarako. Iturri horretatik erauzten ditugu bilaketa-hitz den ikurra duten esaldiak, itzulpenarekin batera.

[117] Hortaz, erabiltzaileak interfaze hau erabil dezake alfabeto osorako bilaketak egiteko, oraindik *EuDeLex* hiztegiko edukiak alfabeto osorako lantzeko aukera izan ez badugu ere.

3.11 irudia: Argitaratze prozesuan erabilitako tresna eta scriptak

Argitaratze-prozesuan erabiltzen ditugun tresna eta scriptak ondorengoak dira (ikus 3.11 irudia):

a) *EuDeLex* hiztegiko datuak *TshwaneLex Dictionary Writing System* aplikaziotik *xml* fitxategi batera esportatzen dira.

b) *Perl* script batek *xml* fitxategiaren edukiak *MySQL* taula batean sartzen ditu, gero datu-base gisa zerbitzarian instalatzeko.

c) Goian deskribatutako erabiltzaile-interfazea *php* script bakarrean oinarritzen da. Script horrek bilaketak gauzatzen ditu, *EuDeLex MySQL* datu-base lokaletik nahiz *Wikimedia*-ko zerbitzarietatik, eta emaitzak erakutsi.

d) Beste *php* script bat EU-DE atalaren atzean dago. Egungo bertsioan, script horrek euskarazko hainbat hiztegi-ataritara bidali, eta galdeketa-hitza duten lasterbideak eskaintzen ditu.

3.6 Ondorioak

Atal honetan hiztegigintza-egitasmo berria aurkeztu dugu, hots, *EuDeLex* hiztegi elebidun elektronikoa, hizkuntza-ikasleei zuzentzen dieguna. Baina, aldi berean, asmo orokorrago bati jarraitzen diogu egitasmo honekin: landu gabe dauden hizkuntza bikoteentzat hiztegi elebidun berriak sortzeko ideiak ematea, hain zuzen ere.

EuDeLex egitasmoak, euskararekiko hiztegi elebidun askorekin gertatzen den legez, ez du egunera edo egoki litekeen aurrekaririk. Hala ere, baliabide lagungarriak ditugu hiztegia sortu eta editatzean: alde batetik, datu-base lexikografiko nahiz corpus elebakarrak, eta, bestetik, sortu berri diren itzulpen-corpus paraleloak. Hirugarren atal

honetan, hiztegiaren lemategiak osatzeko eta mikroegitura ezartzeko gure proposamenak aurkeztu ditugu; hurrengo atalean, ordainen bikoteak zehazteko eman ditugun ikerketa-urratsak azalduko ditugu. Ikusiko dugunez, corpusetan oinarritutako metodoetan eta bestelako metodo automatiko eta erdi-automatikoen laguntzaz balia gaitezke. Hala ere, hiztegigilearen eskuzko lana ezinbesteko baliabidea izan da, eta izaten jarraitzen duela argi geratuko da.

4 Aleman-euskarazko ordainen definizioa

Atal honetan, euskara-alemanezko itzulpen-ordainen bikoteak ezartzeko metodoak aurkezten ditugu. 4.1 atalean, glosario elebidunak metodo automatiko eta erdi-automatiko batzuen bitartez sortzeko metodo sorta eta horren ebaluazioa izango dugu hizpide, eta 4.2 atalean, berriz, 7.4.2 ataleko lagina editatzeko lanetan eskuz burutu ditugun lanak deskribatzen ditugu, hala nola polisemiaren desanbiguazioa eta alemanezko adierei euskarazko ordaina esleitzeko lanak. Hor ere metodo erdi-automatikoetara hurbiltzeko ikerketa-pausoak eginak ditugu, eta dagokion kapituluetan horien berri emango dugu.

4.1 Glosario elebidunen zirriborratze automatikoa

Kapitulu honetan, hiztegi elebiduneko datuak zirriborratzeko metodo sorta bat, haren aplikazioa alemanera-euskara bikotean eta lortutako emaitzen ebaluazioa aurkezten ditugu.[118] Metodo ezberdin guzti haien helburua glosario elebidunak modu automatiko batean sortzea da, datu-iturriak kasu batzuetan aurretik existitzen ziren datu-base lexikalak, eta besteetan testu-corpusak izanik.

Sortutako glosarioak hiru mailatan ebaluatu ditugu:

(1) Ebaluazio kuantitatiboa: Glosario bakoitzeko alemanezko lemen eta *gold standard* lemategi gisa erabili dugun *DeReWo-40.000* corpusetan oinarritutako maiztasun-zerrenda lematizatuaren (IDS 2009) intersekzioa kalkulatu dugu, glosarioak eskaintzen duen lema-estaldura neurtzeko;

(2) Ebaluazio kuantitatiboa: alemanezko lemen euskarazko ordainen kopurua neurtu dugu;

(3) Ebaluazio kualitatiboa: Glosario-sarrera edo ordain bikoteen egokitasuna neurtu dugu, *EuDeLex* hiztegiko 3406 sarreren edukia (alemanezko A hizkiari

[118] Atal honetan aurkeztutakoak Lindemann et al. (2014) ingelesez Euralex kongresuan aurkeztutako ekarpena du oinarri. Lan horretan deskribatutako ikerketa eta artikuluaren erredakzioa Iker Manterola, Rogelio Nazar, Xabier Saralegi eta Iñaki San Vicente hizkuntzalaritza konputazionalekin batera burutu nuen. Talde-lanaren koordinazioa, zenbait lan konputazional (4.1.3.3 eta 4.1.3.4) eta ebaluazioa (4.1.4) niri dagozkit, 4.1.3.1 eta 4.1.3.2 kapituluetan aurkeztutako lan konputazionalak, berriz, egilekideei zor dizkiet.

dagokiona)[119] *gold standard* edo erreferentziatzat harturik. Egokitasuna bi zentzutan neurtu dugu: (a) ordainen hurbiltasun semantikoa, eta (b) kategoria gramatikalaren egokitasuna.

Ikerketa honen helburua, *EuDeLex* hiztegia osatzeko zirriborro-datuak lortzeaz gain, dentsitate ertaineko beste hizkuntza bikoteetan lan egiten duten hiztegigileei argibideak eta proposamenak egitea da.

4.1.1 Dentsitatea

Varga et al. hizkuntzalari konputazionalek (2005) dentsitatearen (*density*) kontzeptua proposatzen dute, hizkuntza batean modu digitalean gordetako materialaren eskuragarritasuna izen batez deskribatzeko. Kasu gehienetan, hizkuntza bateko hiztunen kopurua eta hizkuntzak sarean duen tamaina (*web size*) dentsitatearen adierazle fidagarriak dira; horrez gain, hizkuntza-baliabide elektronikoen eskuragarritasuna ere aintzat hartzeko adierazlea da. Varga et al. autoreei (*op. cit.*) jarraiki, dentsitatearen arabera, hiru hizkuntza-talde identifikatuko genituzke:

(1) Dentsitate altuko hizkuntzak (*high-density languages*): ehun milioi hiztun baino gehiago dituzten 12 bat hizkuntza;
(2) Dentsitate baxuko hizkuntzak (*low-density languages*): 5000 hizkuntza txiki baino gehiago, miloi erdi baino hiztun gutxiago dituztenak;
(3) Dentsitate ertaineko hizkuntzak (*medium-density languages*): 500 bat hizkuntza, (1) eta (2) puntuen artean kokatzen direnak.

Euskara (3) taldeko hizkuntza da. Ondorengo 4.1 taulan dentsitatearen adierazle batzuk erkatzen ditugu, alemanari (dentsitate altuko hizkuntza bati) eta euskarari begira.

[119] 3.2 atalean azaltzen den bezala, *EuDeLex* hiztegiko lemategia *DeReWo-40.000* zerrendan oinarritzen da.

	Alemana	Euskara
Hiztun	98 milioi	0,8 milioi
Corpus handiena (testu-hitz kopurua)	5,4 mila milioi	0,12 mila milioi
Wikipedia artikulu	4,5 milioi	0,37 milioi
Sareko edukia	% 5,7	< % 0,1
ELRA produktuak	444	6

4.1 Taula: Dentsitatearen zenbait adierazle, alemanari eta euskarari begira

Testuinguru elebidun batean hiztegi-zirriborro datuak arrakastaz zer metodoren bitartez lor daitezkeen iragarri ahal izateko, hizkuntza bikoteko kide txikiagoaren dentsitatea izango da erabakigarria. Euskara-alemanari, beraz, dentsitate ertaineko hizkuntza bikote deituko diogu.

Glosario elebidunak sortzeko metodo konputazional estatistikoetan oinarritzen diren metodoek (ikus 4.1.3.1) dentsitate altuagoko hizkuntza bikote batean emaitza fidagarriak emango lituzkete, eta gure kasuan askoz ere arrakasta txikiagoa izango dutelako susmoa dugu, Vargas et al. autoreen lanetik abiatuta. Horrekin lotuta, badugu beste galdera ireki bat: arrakasta txikiago horrek gure bikoterako eskuragarri ditugun corpus paraleloen eta konparagarrien murriztasun kuantitatibo eta kualitatiboarekin zerikusia izateaz gain, erabiliko ditugun hizkuntza-prozesamendurako tresnekin eurekin zerikusia ote duen, horiek dentsitate handiko hizkuntzetarako eginak baitira, eta hizkuntza horietan emaitza egokiak lortzeko balio baitute.

Euskararen kasuan, gainera, ez dugu Europar Batasuneko erakundeetan sorturiko corpus paralelorik, dentsitate ertaineko beste hainbat hizkuntza ez bezala, euskara ez baita Europako hizkuntza ofiziala.[120] Bestalde, filmen eta telesaioen azpitituluetatik eta software-lokalizazioetatik sortutako euskara-alemanezko corpus paraleloak kontuan hartzeko neurri batera irits litezke etorkizun hurbil batean, OPUS izeneko corpus egitasmoaren egileek iragartzen duten bezala (Tiedemann 2012).

Aurretiko argudioekin jarraituz, halaber, giza hiztegigileek mantenduriko datu-base lexikalez baliatzen diren metodoez lorturiko emaitzek ere dentsitatearekin lotutako

[120] Steinberger et al. autoreek (2006), esaterako, dentsitate ertaineko hizkuntzetako corpus paraleloak eraiki dituzte, Europar Batasuneko erakundeen itzulpen zerbitzuek sortutako testuak erabiliz.

joerak izango dituzte: *Wikipedia* eta *Wiktionary* baliabideak boluntario multzo batek eginak dira, eta alemanez aritzen diren boluntarioak askoz ere gehiago dira euskaraz jarduten dutenak baino.[121] Bestalde, testuinguru akademiko batean sortutako *WordNet* bezalako datu-base lexikalak beste hizkuntzetako horien kideen parekoak izan daitezke, neurria zein kalitateari dagokienez, hizkuntzen dentsitatearen arteko aldea gorabehera.

4.1.2 Corpus paralelo eskuragarriak

Euskararekin osatutako lehenengo mailako bikoteetan, EU-ES, EU-FR eta EU-EN konbinazioetan, alegia, corpus paraleloak eraikitzeko ahaleginak baditugu: Elhuyar Fundazioaren web-corpusen atalean euskara-gaztelaniazko corpus paraleloa dago ikusgai.[122] Corpusa automatikoki osatu da, eduki elebiduna duten domeinuak sarean bilatuz, eta domeinu horietatik elkarren itzulpena diren esaldiak erauziz. 18.753.613 testu-hitz ditu (7.891.104 euskaraz eta 10.862.509 gaztelaniaz). 659.630 segmentu elebidun ditu. Egungo euskara-gaztelaniako corpus paralelo handiena da, eta edonork erabil dezake bilaketak egiteko interfazea.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2002. urte ingurutik argitaratzen dituen ikasliburuen itzulpenez osatua da *EHUskaratuak* corpus paraleloa. Giza zientzia, gizarte-zientzia, ingeniaritza eta teknologia, osasun-zientzia eta zientzia zehatz eta materiaren zientzia arloetan ingelesetik, frantsesetik eta gaztelaniatik burututako itzulpenak biltzen ditu; corpus paralelo eleanitza da, beraz. Sareko interfaze bat erabilgarri dago UPV/EHUko webgunean.[123] Corpusa Elhuyar Hizkuntza eta Teknologiak garatu du, eta itzulpen berriak gehituko zaizkio etorkizunean.

Atal honetan ikusiko dugunez, dentsitate ertaineko EU-DE gure bikotean ere kalitatezko corpus paraleloak sortzeko ahaleginak egin berri dira. Bigarren maila horretako beste bikote guztietan, berriz, egiteke geratzen zaizkigu oraindik, guk dakigunez. EU-DE bikotea, hortaz, aitzindaritzat jo dezakegu corpusgintzan.

EHUko Letren Fakultatean kokatutako TRALIMA/ITZULIK ikerketa-taldean, alemanezko literatura-lanak zein euskarazko itzulpenak biltzen dituen corpus paraleloa

[121] Alemanezko *Wiktionary* atarian, esaterako, 78.634 erabiltzaile-kontuak dira, haietatik azken hilabetean 199k ekarpenak egin izanik; euskarazko *Wiktionary*-k, aldiz, 1.982 erabiltzaile-kontu ditu, haietatik 11k azken hilabetean datu-basean arituta (2013.09.05eko estatistikak).

[122] Ikus http://webcorpusak.elhuyar.org/cgi-bin/kontsulta2.py.

[123] Ikus http://ehuskaratuak.ehu.eus/bilaketa/.

sortu du Uribarri, Sanz eta Zubillaga hirukoteak (Sanz et al. 2015). Corpusak itzulpen zuzenak eta zeharkakoak biltzen ditu. Alemanetik zuzenean euskaratu diren testuak alemanezko jatorrizkoan zein euskarazko bertsioan jasota daude; zeharka burutu diren itzulpenak, aldiz, jatorrizkoan, gaztelaniazko "zubi-bertsioan" eta euskarazkoan. Azken kasu hori, beraz, corpus hirueleduna da. Corpusa osatzen duten testuetatik, alemanezko 81 testu literario eta euskarazko itzulpen zuzenak eskuragarri izan ditugu, paragrafotan edo esalditan lerrokaturik, hiztegigintza-arloko gure esperimentuetan erabiltzeko. Euskarazko testuen lematizatzea *EusTagger* tresnaren bidez gauzatu dugu[124]. *SketchEngine* (Kilgarriff et al. 2004) tresnaren bitartez, alemanezko testuen lematizatzea (*TreeTagger*, (Schmid 1995)) burutu, eta, testu paralelo guztiak aplikazioan kargaturik, bilaketak egin eta konkordantzia paraleloak sortzen ditugu. Horrela sortutako corpus paraleloak bi miliona testu-hitz inguru ditu euskaraz eta alemanez. *DeReWo-40.000* maiztasun-zerrendako 19.294 sarrera aurkitzen dira alemanezko corpus literario horretan (%48).

Bestetik, Bibliaren alemanezko eta euskarazko bertsio bana erabili dugu corpus paraleloa sortzeko.[125] Bibliatik corpus paraleloak sortzea nahiko ariketa erraza da, bertset-kodeen bitartez lerroka baitaiteke. Bibliaren itzulpena hainbat eta hainbat hizkuntzatan, eta, horrez gain, hizkuntza bakoitzean maiz bertsio batean baino gehiagotan eskuragarri izatea oinarri egokia da era askotako konparaketak egiteko (Resnik et al. 1999; Lardilleux et al. 2010; Nida & Taber 2003). Corpusak 700.000 bat testu-hitz ditu hizkuntza batean.

Aurrerago ere aipatuko dugun bezala, euskaraz-alemanezko corpus paraleloen garapenean aurrera jarraitzea zeregin zentzuduntzat jotzen dugu. Testu paralelo gehiago aurkitu eta erabiltzeaz gain, gaurko literatura corpus paraleloaren baitan aurkitzen diren testuen lerrotzea, Sanz et al. egileek eskuz burutu dutena, hobetu ahalko litzateke. Esaldi mailako *sentence alignment* prozesurako, badira tresna automatikoak. Alabaina, tresna horrek emaitza egokiak emateko, dagokion hizkuntza-bikoteko glosario elebiduna behar dute, zein segmentu zeinen baliokidea den erabakitzeko. Noizbait, esaldi bat esaldi bat baino gehiagoren baliokidea dela erabaki behar dute (*one-to-many-alignment*),

[124] EHUko IXA taldeko Gorka Labakari zor dizkiogu euskarazko lematizatze- eta etiketatze-lanak.
[125] Elhuyar Fundazioko Xabier Saralegiri dagokio lan hori, ikus Lindemann et al. (2014).

itzultzaileak hala jokatu duenean. Alfabeto osoa estaltzen duen glosario handirik momentu honetan ez dago eskuragarri (eta *EuDeLex* hiztegia osorik landu arte egongo ez delakoan gaude). Bestalde, corpus paralelo batek glosario elebiduna sortzeko datu baliotsuak ditu, atal honetan azaltzen dugun bezala. Hemen, beraz, corpus hizkuntzalaritzak eta hiztegigintzak elkar nola elikatzen dutenaren adibide esanguratsu baten aurrean gaude.

4.1.3 Metodoak

Lindemann et al. (2014) lanean lehenik aurkeztu genituen glosario elebidunak zirriborratzeko metodo sorta eratu dugu, eta emaitzen ebaluazioa egin.[126] Batetik, corpus paraleloetako datuak prozesatzen dituen bi tresna konputazional baliatu dugu (4.1.3.1 atala), eta, bestetik, hiru baliabide lexiko ustiatu ditugu, EU-DE itzulpen bikoteak erauzteko 4.1.3.3 eta 4.1.3.4 atalak). 4.1.3.2 atalean aurkeztutako pibotatze-metodoa bien bitartekoa da, aurretik existitzen ziren baliabide lexikoetan zein corpus datuetan oinarritzen baita. Jarraian, erabilitako tresna eta baliabideak, burututako esperimentuak eta emaitzen ebaluazioa aurkeztuko ditugu.

4.1.3.1 Corpus paraleloen ustiaketa: hitzaren eremuko lerrotzea

Hizkuntzalaritza konputazionalean, corpus paraleloak prozesatzeko tradizioa luzea dela esan daiteke, Gale & Church (1991), Brown et al. (1991), McEnery & Oaks (1995) lanetatik abiatuta, besteak beste (ikus Véronis 2000 erreferentzia gehiagorako). Metodo eta tresna ezberdinak proposatu izan dira testu paraleloak lerrokatzeko[127] eta korrespondentzia lexikalak erauzteko bertatik. Gure ikerketa honetan, *Giza++* (Och & Ney 2000) eta *Bifid* (Nazar 2012) lerrokatze-tresnak erabili ditugu.

Euskara, alemana ez bezala, dentsitate ertaineko hizkuntza izateak, Resnik autoreak (1999) proposatzen duen jokabideari jarraituz, itzulita dauden webguneen edukiak era automatiko batean erauztea zailtzen du. Sarean metodo automatikoez euskara-alemanezko testu paraleloak aurkitzen saiatzeari ez ekitea erabaki dugu, beraz. Gure esperimentuetan alemana-euskarazko bi corpus paralelo erabili ditugu, neurri

[126] Manterola, Nazar, San Vicente eta Saralegi autoreek 4.1.3.1 eta 4.1.3.2 ataletan aurkeztuko ditugun lan konputazionalak burutu dituzte; gainerako metodoen garapena eta aplikazioa zein emaitza guztien ebaluazioa guri dagozkigu. Lanaren koordinazioa eta aurkezpena taldearen ardura izan da.

[127] Testu bateko eta horren itzulpeneko segmentuak paragrafo edo esaldi barruan elkarrekin lotzeari lerrokatzea deituko diogu (*paragraph* edo *sentence alignment*).

ezberdinetakoak:alemana-euskarazko corpus literarioa (Sanz et al. 2015), alde batetik, eta euskarazko eta alemanezko Bibliaren itzulpen bana lerrokatuz sortu duguna, bestetik (xehetasunetarako ikus 4.1.2 atala).

Goian aipaturiko tresnak (*Giza++* eta *Bifid*) erabili ditugu bi hizkuntzetako hitzak lerrokatzeko (*word alignment*), hots: euskara-alemanezko ordain-hautesleak erauzteko. Ondorengo 4.2 taulan, corpusetako edukiei eta tresna haiek hautatutako balizko ordain-bikoteei dagozkien kopuruak ikus daitezke.

	segmentu lerrokatuen kopurua	*euskarazko testu-hitzen kopurua*	*alemanezko testu-hitzen kopurua*	*GIZA++ (p(b|g)<0.1 hautesleak)*	*Bifid hautesleak*
Literatura corpusa	146.457	1.948.504	2.203.307	266.678	4.838
Biblia corpusa	30.440	639.581	810.671	49.443	2.926

4.2 Taula: DE-EU corpus paraleloak

Giza++ tresnaren konfigurazio lehenetsia erabili dugu.[128] Alemanezko corpusa *Treetagger* (Schmid 1995) tresnaz lematizatu eta etiketatu dugu, eta, euskarazkoa, berriz, *Eustagger* (Ezeiza et al. 1998) tresnaren bitartez. Ondoren, iturri-corpuseko lema bakoitza lema berez eta haren kategoria gramatikala adierazten duen etiketaz osaturiko kate batekin ordezkatu dugu (etxe > etxe_IZE). Puntuazio-ikur oro ezabatu dugu, eta, emaitza desegokiak saihesteko asmoz, baita kategoria gramatikala kritikoa duten hitzak ere. Zehazki, ondorengo kategoria-markak dituzten alemanezko hitzak ezabatu ditugu: APPR (preposizioa), APPRART (artikulua+preposizioa), ART (artikulua), KOKOM (konparazio-partikula), KOUS (lokailua) eta PRELS (izenordain erlatiboa). Izan ere, horiek euskaraz morfema gisa agertuko zaizkigu, eta, beraz, lematizazioan galdu. VAFIN (aditz laguntzailea, forma flexionatua) eta VAINF (aditz laguntzailea, infinitiboa) ere ezabatu ditugu, baita euskarazko corpusetik ADL esteka duten aditz laguntzaileak, hots, haien baliokideak ere, azken horien maiztasun handiak emaitza desegokiak sortzen dituelako.

Giza++ tresnak lerrokatzeak dituzten bi fitxategi ematen ditu, itzultzeko norabiderako bana. Bikote bakoitzaren alboan, probabilitatea dator. Glosario-zirriborroetarako, 0,1

[128] IBM model 1, HMM-based model, IBM model 3 eta IBM model 4 algoritmoak.

baino gehiagoko *p(b|g)* probabilitatea duten bikoteak hautatu ditugu corpus paralelo bietatik.

Emaitza desegokiak gutxitzeko, horrez gain, 150 euskarazko lema maizenak[129] ezabatu ditugu. Glosarioen bi bertsioak ebaluatu ditugu:

(a) *Giza*++ tresnak emandako bikoteak euskarazko 150 maizenak iragazi ondoren;

(b) (a) zerrendatik, kategoria gramatikal berekoak baino ez ditugu iragazi, ondorengo 4.3 taulan adierazi bezala. Alemanezko adjektibo gisa lematizatzen den adberbiozkoak euskarazko itzulpenean maiz adberbio gisa datoz-eta (ikus 3.3.5 atala), adberbio nahiz adjektibo batekin parekatzea ontzat hartu dugu iragazketa honetan.

TreeTagger esteka	*EusTagger esteka*
NN (izena)	IZE (izena)
VV (aditza)	ADI (aditza)
ADV (adberbioa)	ADB (adberbioa)
AD (adjektiboa)	ADB (adberbioa)
AD (adjektiboa)	ADJ (adjektiboa)

4.3 Taula: POS-estekak TreeTagger (Alemanera) eta EusTagger

Erabili dugun beste lerrokatzailea, *Bifid* (Nazar 2012), *Giza*++ bezala estatistika hutsean oinarritzen den tresna da, hizkuntzari buruzko bestelako baliabiderik, datu-base lexikorik edo glosariorik, esaterako, erabili gabe. Tresna hau corpus konparagarrietatik, hau da, edukiaren aldetik elkarrengandik hurbilak diren bi hizkuntzatako testuak dituzten corpusetatik abiatzeko diseinatu duten arren, esaldi-mailako lerrokatzetik abiarazi dugu *Bifid* tresna, corpuseko edukiei iragazkirik aplikatu edo bestelako aurre-prozesatzerik gabe. Glosarioak erauzteko tresna horren algoritmoak, agerkidetasunaz gain, hitzaren hizki kopurua eta antzekotasun grafikoa hartzen ditu aintzat. *Giza*++ tresnak baino probabilitate-atalase altuagoak erabiltzen ditu, eta, ondorioz, egokitasun (*precision*) altuko emaitzak dakartza, emaitzen kopuruaren (*recall*) kalterako.

[129] ETC corpusetik UPV-EHUko Euskara Institutuan erauzi duten maiztasun-zerrendaren goiko postuetan zeuden 150ak erabili dugu.

4.1.3.2 Corpus konparagarrien ustiaketa: Elhuyar Pibolex hiztegiak

Hiztegi elebiduna pibotajearen bidez eraikitzeak hizkuntza bat elkarrekin duten bi hiztegi elebidun lotu (DE-EN eta EU-EN, esaterako) eta hizkuntza bikote berri batentzako (adibidez, DE-EU) itzulpen-ordainak erauztea esan nahi du. Elhuyar Pibolex hiztegien kasuan, alemana-ingelesezko *Beolingus* hiztegiko sarrerak[130] ELHENEU hiztegikoekin[131] lotu dituzte Saralegi, Manterola eta San Vicente autoreek (2012). Lindemann et al. (2014) lanerako, automatikoki eraikitako EU-DE hiztegi elebidun horren egokitasuna ebaluatu dugu.

Pibotatze-jokabideak polisemiaren aurrean ditu bere mugak: Zubi-hiztegiaren lema batek jatorrizko lemari ez dagozkion adieretara bidal dezake (Saralegi et al. 2011: 847). Adiera hauek jatorrizko lemaren adierekin inongo zerikusi semantikorik ez dute, beharbada, Saralegi et al. autoreek ondorengo 4.1 irudiko adibidean irudikatzen duten legez.

4.1 Irudia: Pibotatzea eta anbiguotasuna,
Saralegi et al. (2012:1443) lanetik hartua

Itzulpen-ordainen bikote desegokiak iragazteko, bi metodo baliatu ditugu. Bikoteen egokitasuna neurtzeko balioko ligukeen corpus paralelo handirik ezean, ondorengo aukerak geratzen zitzaizkigun (cf. Saralegi et al. 2011):

a) *Inverse Consultation* (Tanaka & Umemura 1994): algoritmo horrek ordain bikoteak komunean duten pibot-hitzak (bietara bidaltzen dituen zubi-

[130] http://dict.tu-chemnitz.de helbidean eskuragarria. Hiztegi hau Chemnitzeko Unibertsitate Teknikoak garatzen du 1995az geroztik. 171.775 DE-EN itzulpen-ordain bikote ditu *Beolingus* interfazeak darabilen datu-baseak (2014), lizentzia publiko baten arabera doan eskuragarria dena.

[131] 43.201 EU-EN itzulpen bikote ditu hiztegi honek.

hizkuntzako *pivot words*) zenbatzen ditu. Zenbat eta pibot-hitz gehiago aurkitu, orduan eta ebidentzia gehiago dago ordainen bikotearen egokitasunerako.

b) *Distributional Similarity* (Fung 1995; Rapp 1999): ordain bikoteetako bi kideek antzeko testuingurua baldin badute, bikotea egokia izango dela onartzean datza metodoa, Saralegi, San Vicente & Gurrutxaga (2008) lanean zehatz deskribatzen dena. Testuinguru bakoitzeko hitzak itzuli behar ditu algoritmoak, frogatutako kalitatea duten ordain bikoteez osatutako zerrendarik ezean; horretarako, momentuz, pibotatzearen bitartez lortutako glosario bera baino ez dugu. Hona hemen kalitatezko hiztegigintzak eta hizkuntzaren prozesamendurako tresna konputazionalak elkar elikatzearen beste adibide bat.

Esperimentuak ondorengo bi corpusetako datuen gainean burutu ditugu:

a) Egunkarietako edukiez osatutako corpus konparagarria, *Die Zeit* (29 milioi testu-hitz) eta *Berria* (36 milioi testu-hitz) egunkariak erabiliz eratutakoa, artikuluen gaiei eta argitaratze-datei erreparatu gabe;

b) Alemanezko eta euskarazko *Wikipedia*. *Wikipedia* lehenago erabili izan da corpus konparagarri gisa (cf. Paramita et al. 2012; Tomás et al. 2008). Kasu honetan, alemanezko eta euskarazko bertsioa *interlanguage link* baten bitartez lotuta dauden 61.484 artikuluak batu ditugu corpusa eraikitzeko. Corpus honen konparagarritasuna altua izan arren (artikulu bakoitzak beste hizkuntzan berezko kidea du), artikuluen tamaina ezberdina da oso, konparagarritasunaren kalterako: alemanezko corpusa 72,5 milioi testu-hitz dituen bitartean, euskarazkoak 18 milioi baino ez ditu. Alemanezko artikuluek, beraz, testu gehiago dute oro har.

4.1.3.3 Wiktionary eta Wikipedia

Alemanezko *Wiktionary* eta *Wikipedia* baliabideetatik, *DeReWo* lemategiko sarrerekin homografoak diren orrialde-izenburuak eta orrialde horien eduki osoa erauzi ditugu, bietako APIetara eskaerak bidaliz. Dagokion orrialdeak beste orrialde batera birbidaltzen badu (redirect-page), orrialde horren izenburua eta edukia erauzten ditugu. Birbidaltze-loturek sinonimo batera (*Abtreibung*>*Schwangerschaftsabbruch*), edo, aditzen kasuan, izen batera bidaltzen dute (*schwimmen*, 'igeri egin'>*Schwimmen*, 'igeriketa'). Bigarren pauso batean, erauzitako orrialdeen edukietatik, euskarazko lotura interlingualak

(interlanguage-links) erauzi ditugu *Wikipedia*-ren kasuan, eta, halaber, euskarazko itzulpen-ordainak *Wiktionary*-ko orrialdeetatik. Prozesatze horiek guk egindako *perl script* biren bitartez gauzatu ditugu.

*4.1.3.4 **WordNet sare** semantikoak*

Esperimentu honetan, alemanezko *GermaNet* sareko (8.0 bertsioa, ikus Hamp & Feldweg 1997) eta euskarazko EusWN sareko (3.0 bertsioa, ikus Pociello 2007) unitate lexikoak lotu ditugu ingelesezko Princeton *WordNet* sarea (3.0 bertsioa, ikus Fellbaum 1998) pibot gisa erabiliz. Alde batetik, alemanezko unitate lexikoak *GermaNet* baliabidearen parte den *Interlingual Index Records* zerrendaren bitartez ingelesezko *WordNet*-eko *synset*-ei[132] lotuta daude, eta, bestetik, ingelesezko *synset*-ek euskarazkoekiko loturak dakartza. Hiru sareetako datuak *xml* fitxategi berera kopiatuz, 4.2 irudiko adibidea bezalako datu multzo eleaniztunak sortu ditugu. *Synset* bakoitzari dagozkion euskarazko eta alemanezko unitate lexikoak elkarrekin lotuz, 18.309 EU-DE itzulpen-ordain bikote erauzi ditugu.

```
<EngSynset Synset="eng-30-00042757-n">
     <PWN30 EngLexUnit="departure_1"></PWN30>
     <PWN30 EngLexUnit="going_1"></PWN30>
     <PWN30 EngLexUnit="going_away_1"></PWN30>
     <PWN30 EngLexUnit="leaving_1"></PWN30>
     <GermaNet80 GerLexUnit="Abfahrt"></GermaNet80>
     <GermaNet80 GerLexUnit="Weggang"></GermaNet80>
     <GermaNet80 GerLexUnit="Aufbruch"></GermaNet80>
     <GermaNet80 GerLexUnit="Distanzierung"></GermaNet80>
     <EusWN30 EusLexUnit="irteera_6"></EusWN30>
     <EusWN30 EusLexUnit="joanaldi_1"></EusWN30>
     <EusWN30 EusLexUnit="joate_1"></EusWN30>
</EngSynset>
```

4.2 Irudia: Hiru *WordNet* saretako datu bateratuak

4.1.4 Ebaluazioa

Goian aurkeztutako metodoen bitartez lortutako glosario elebidunak erdi-automatikoki eta eskuz ebaluatu ditugu, metodo bakoitzaz zein metodo guztien konbinaketaz zer punturaino hel gaitezkeen neurtzeko, glosarioetatik hiztegi-zirriborroak lortzeko asmoa

[132] *Synset*: kontzeptu bati dagokion sinonimoen multzoa. *Synset* bakoitza kontzeptu horrekin bat datozen lema-adierez (*word senses*) osatuta dago. Horrenbestez, lema bat *synset* batean baino gehiagotan ager daiteke, baina lema horren adiera (*sense*) bakoitza *synset* bakar bati dagokion unitate lexikoa da. Ingelesezko eta euskarazko *WordNet* sareetan, lemaren adiera bakoitzak zenbaki bat dakar lema-ikurrari erantsita. Alemanezkoa, berriz, beste modu batean antolatuta dago; esan bezala, horren unitate lexikoak ingelesezko *synset*-ekin lotuta daude *Interlingual Index* zerrendaren bitartez.

buruan genuela betiere. Lortutako datuen kalitate kuantitatiboa (*recall*) eta kualitatiboa (*precision*) ondoren deskribatu bezala neurtu ditugu:

a) Glosarioetako alemanezko sarreren eta *DeReWo* maiztasun-zerrendaren elkarrekiko estaldura (*recall*). Alfabeto osoa hartu dugu kontuan neurketa honetarako. Aurretik bagenekien glosarioek *EuDeLex* bezalako hiztegi batean agertzekoak ez diren sarrera franko izango zituztela, hala nola *Wikipedia*-ko datu-basean sarrera duten hainbat eta hainbat arlotako termino, toponimo eta bestelako izen berezi.

b) Glosarioetako itzulpen-ordain bikoteen egokitasuna (*precision*), guk aurretik eskuz landutako *EuDeLex* hiztegiko edukien ebaluazioa burutzeko erreferentzia edo *gold standard* gisa hartuz. 3.2 atalean esan bezala *DeReWo* zerrendan oinarritzen den eta harekin oso neurri handi batean bat datorren *EuDeLex* lemategiaren alemanezko A letra (3.406 lema, proposatutako lemategiaren hamarren bat baino gutxixeago) eta bertako sarreretako itzulpen-ordainak erabili ditugu A letraz hasten diren eta aurretik zehazturiko hiztegi-lemategian agertzen diren alemanezko glosario-sarrerak eta horien euskarazko bikoteak ebaluatzeko. Neurketa hori eskuz eta banan-banan burutu dugu guztiz, konparaketa grafiko automatikoetara jo gabe. Egokitasuna neurtzeko, bi aldagai hartu ditugu aintzat:

1. Egokitasun lexikala, hau da, alemanezko glosario-sarrera eta euskarazko kidea hiztegi batean itzulpen-ordain egokiak izan daitezkeen. Lau balio ezarri dugu aldagai honentzat: OK (bere horretan egokia da), NEAR (semantikoki hurbilak dira, baina bikoteak ez du balio bere horretan hiztegian itzulpen-ordain bikote gisa), PART (glosarioko sarrera bat kidearekin osatutako hitz anitzeko unitate lexikoaren itzulpen egokia bada), eta FALSE (bikotea ez da egokia). Bigarren balioa, NEAR, ordaina egokia litzatekeen itzulpen-ordainaren hiponimo, hiperonimo, meronimo, holonimo edo sinonimo partzialtzat, hots, semantikoki oso hurbiltzat jo baldin badugu, bikoteari esleitu diogu. Semantikoki hurbila den ordain hori hiztegigintza-lanetan aurrean izateak lagungarria izango da, hiztegian erabili baino lehen egokitzapena behar badu ere. Hirugarren balioa, PART, *sprechen-*hitz* (hitz egin) edo *Bushaltestelle-*autobus* (*autobus-geltoki*) bezalako bikoteetan

markatu dugu. Hitzak lerrokatzeko tresnek hitz bat hitz batekin lotu dute beti, *sprechen-hitz egin* bezalako itzulpen-ordain bikoteen kasuan hitz-mailako *one-to-many alignment* egokia izango balitz ere. Argi dago, NEAR balioa daramaten bikoteen kasuan bezalaxe, PART bikoteek hiztegigintza-lanetan balioa dutela, egokitzapena beharrezkoa dela kontuan izanda.

2. Aurrean dugun euskarazko ordainaren kategoria gramatikala eta alemanezkoaren kategoria gramatikala (*part of speech*, POS) bat baldin badatoz, OK balioa esleitu dugu bigarren aldagai horretan, eta ez badatoz bat, aldiz, FALSE. Corpus-datuetan oinarritutako metodoen emaitzetan POS desegokiak aurkitzea espero genuen, esaldi osoak itzultzean itzultzaileek maiz kategoria ezberdinetako ordainak erabiltzen baitituzte, hiztegigintzan ez bezala, ez baitute kategoria mantentzeko premiarik, helburu-hizkuntzako naturaltasuna baizik (auzi horri buruz 4.4 atalean gehiago esango dugu). Bestalde, *Wikipedia*-ko datuetan oinarritzen den metodoak ere POS desegokiko emaitzak ekarriko ligukeela pentsatzen genuen, 4.1.3.3 atalean azaldu dugun bezala, *Wikipedia*-ko aditzei dagozkien orrialdeek familia lexiko bereko izenera birbidali ohi baitute.

Ebaluazio guztia *TLex* aplikazioaren barruan egin dugu. A hizkiz hasten diren alemanezko glosario-sarrerak eta horien euskarazko bikote guztiak *EuDeLex* datuetan txertatu ditugu, sarrera bakoitza dagokion lemaren azpian. Jokabide horrek bi abantaila ekarri dizkigu: alde batetik, horrela ondo-ondoan izan ditugu *EuDeLex* hiztegiko eskuz landutako edukiak eta glosario-sarrerak, eta, bestetik, aprobetxatu dugu *TLex* aplikazioak ematen digun aukera aldagaien balioak markatzeko, *xml* elementu gisa txertatu dugun euskarazko glosario-sarrera bakoitzaren barruan bi atributu sortuz, alegia. Atributu horiek arestian azaldu ditugun balioak edukitzeko aukera ezarri dugu *xml* egiturari dagokion eskeman: OK, NEAR ala FALSE egokitasun lexikalaren kasuan, eta OK ala FALSE kategoria gramatikalaren egokitasunaren kasuan. 4.3 irudiak *TLex* aplikazioaren interfazeko argazkia dakar, ebaluazioa burutzeko aldagaiei balioak esleitzeko botoiak ageri direlarik.

4.3 Irudia: TLex aplikazioko argazkia: eskuzko ebaluazioa

4.1.5 Emaitzak

4.1.5.1 Alemanezko erreferentzia-lemategiaren estaldura

GermaNet sareko unitate lexikalek *DeReWo* zerrendako lemekiko estaldura osatuena eskaintzen dute, *Wikipedia* eta *Wiktionary* baliabideekin alderatuta. Azken bi horiei dagokionez, zera esan daiteke: *Wikipedia* eta *Wiktionary* konparaturik, biok antzeko estaldura ematen dute; bi iturriotako multzoak batera, berriz, maila nabarmen altuago batera iristen dira (ikus 4.4 taula). Alemanezko hiru baliabide lexikal horien sarrerek euskarazko ordain batera bidaltzen duten ala ez, ez dugu aintzat hartu alfabeto osorako neurketa honetan.

	Derewo		*GermaNet*		*Wikipedia*		*Wiktionary*	
∩ *Derewo*			32.199	% 33,73	19.461	% 2,22	22.028	% 7,01
∩ *GermaNet*	32.199	% 80,50			47.588	% 5,43	34.309	% 10,93
∩ *Wikipedia*	19.461	% 48,65	47.588	% 49,86			46.968	% 14,96
∩ *Wiktionary*	22.028	%55,07	34.309	% 35,94	46.968	% 5,36		
∩ *Wikt OR Wiki*	29.164	% 72,91	59.995	% 62,86				
Lema guztira	*39.998*		95.449		*876.309*		*314.016*	

4.4 Taula: Alemanezko baliabide lexikoen eta *DeReWo* zerrendaren elkarrekiko estaldura

Bestetik, hiru baliabide lexikoetatik erauzitako glosarioen *gold standard* gisa erabili dugun *EuDeLex* hiztegiko lemategiaren elkarrekiko estaldura neurtu dugu alemanezko A hizkirako; 4.4 taulan aurkeztutako neurketan ez bezala, oraingo honetan glosario-sarrerak, hau da, euskarazko ordain batera bidaltzen dituzten alemanezko lemak soilik kontuan hartzen ditugu. 4.5 taulan islatzen den bezala, *WordNet* sareetan oinarritzen den metodoak estaldura handieneko emaitzak dakartza, beste bi metodoekin konparaturik.

	GermaNet		Wikipedia		Wiktionary		WiktORWiki	
∩ *GermaNet*			114	% 43,02	65	% 44,22	165	% 42,09
∩ *Wikipedia*	114	% 14,73			20	% 13,61		
∩ *Wiktionary*	65	% 8,40	20	% 7,55				
∩ *WiktORWiki*	165	% 21,32						
Lema guztira	774		*265*		*147*		*392*	

4.5 Taula: Alemanezko baliabide lexikoetatik erauzitako glosarioen elkarrekiko estaldura (3.406 lematako gold standard, A hizkia)

Corpusetan oinarritutako eta HAP alorreko tresnen bitartez lortutako glosarioei dagokionez (ikus 4.6 eta 4.7 taulak), nabarmentzekoa da *Giza*++ tresnak corpus literariotik erauzi dituen glosarioko (LitGiza) alemanezko sarrerak direla estaldura handiena eskaintzen dutenak, gainontzekoen aurrean, Biblia-corpusetik *Giza*++ tresnak erauzi duena (BibleGiza) barne. Bigarrena, Pibolex hiztegiko glosarioa da, eta LitGiza glosariotik urrun dago. LitGizaPos eta BibleGizaPos, 4.1.3.1 atalean esan bezala kategoria gramatikalaren esteka erantsirik daramaten lema-ikurrak lerrokatu ondoren sortutako glosarioek, estaldura txikiagoa dute lema-ikur soilak aintzat hartzen duten lerrokatzeetakoak baino. Literaturako zein Bibliako corpusetatik *Bifid* tresnak erauzi dituzten glosarioek, aldiz, oso estaldura txikia ematen dute. Alfabeto osorako neurketa honetarako, glosario-sarrerak hartu ditugu aintzat, hots: euskarazko ordaina alboan daramaten alemanezko lema-ikurrak, ordaina egokia izan ala ez jakin gabe.

	Derewo		*BibleGiza*		*BibleGizaPOS*		*LitGiza*		*LitGizaPos*	
∩ *Derewo*			4.639	%34,97	3.500	%38,69	15.775	%23,30	12.846	%24,93
∩ *BibleGiza*	4.639	%11,60			9.047	%100	5.001	%7,39	3.879	%7,53
∩ *BibleGizaPos*	3.500	%8,75	9.047	%68,19			3.763	%5,56	3.248	%6,30
∩ *LitGiza*	15.775	%39,44	5.001	%37,70	3.763	%41,59			51.533	%100
∩ *LitGizaPos*	12.846	%32,12	3.879	%29,24	3.248	%35,90	51.533	%76,12		
∩ *BibleBifid*	1.007	%2,52	2.372	%17,88	1.699	%18,78	1.125	%1,66	935	%1,81
∩ *LitBifid*	2.995	%7,49	1.122	%8,46	957	%10,58	4.389	%6,48	3.864	%7,50
∩ *PibolexWiki*	5.812	%14,53	1.868	%14,08	1.518	%16,78	4.571	%6,75	3.960	%7,68
∩ *PibolexNews*	5.753	%14,38	1.851	%13,95	1.504	%16,62	4.549	%6,72	3.955	%7,67
Lema guztira	*39.998*		*13.267*		*9.047*		*67.699*		*51.533*	

4.6 Taula: Giza++ tresnak erauzitako glosarioen, *DeReWo* zerrendaren eta gainontzeko glosarioen elkarrekiko estaldura

	Derewo		*BibleBifid*		*LitBifid*		*Pibolex Wiki*		*Pibolex News*	
∩ *Derewo*			1007	%40,84	2,995	%67,27	5,812	%77,34	5,753	%77,14
∩ *BibleGiza*	4.639	% 11,60	2.372	%96,19	1.122	25.20%	1.868	%24,86	1.851	%24,82
∩ *BibleGizaPos*	3.500	%8,75	1.699	%68,90	957	%21,50	1.518	%20,20	1504	%20,17
∩ *LitGiza*	15.775	%39,44	1.125	%45,62	4.389	%98,58	4.571	%60,83	4.549	%60,99
∩ *LitGizaPos*	12.846	%32,12	935	%37,92	3.864	%86,79	3.960	%52,69	3.955	%53.03
∩ *BibleBifid*	1.007	%2,52			526	%11,81	544	%7,24	546	%7,32
∩ *LitBifid*	2.995	%7,49	526	%21,33			1.404	%18,68	1.398	%18,74
∩ *PibolexWiki*	5.812	%14,53	544	%22,06	1.404	%31,54			7.309	%98,00
∩ *PibolexNews*	5.753	%14,38	546	%22,14	1.398	%31,40	7.309	%97,26		
Lema guztira	*39.998*		*2.466*		*4.452*		*7.515*		*7.458*	

4.7 Taula: Bifid tresnak erauzitako glosarioen, Pibolex hiztegien, *DeReWo* zerrendaren eta gainontzeko glosarioen elkarrekiko estaldura

4.1.5.2 Glosarioen egokitasuna

Ebaluazio kualitatiboa A hizkiaz hasten diren alemanezko lemetarako burutu dugu, *EuDeLex* hiztegiko A letraz hasten diren 3.406 lema-ikurrei dagozkien sarreretako itzulpen-ordainak erreferentzia edo *gold standard* gisa hartuz.

WordNet sareak elkarrekin lotuz eraikitako glosarioek itzulpen-ordain egokien kopuru absoluturik handiena dute. *Wikipedia* eta *Wiktionary* baliabideetatik

erauzitakoek, aldiz, zenbaki absolutuetan ordain egoki gutxiago izanda ere, horien egokitasun-tasa handiagoa da *WordNet*-eko glosarioena baino.

HAP alorreko tresnetan oinarritutako metodoen bitartez lortutako glosarioak bi talde osatzen dituzte, *Giza*++ tresnak emandako glosarioek eta *Pibolex* hiztegikoek ordain egoki gehiago, baina, aldi berean, egokitasun baxuagoa izan dute *Bifid* tresnak erauzitako datuek baino. Egokitasunaren tasari begira, aldiz, kontrako banaketa ikusten dugu: lehenengo taldeko glosarioetako ordainen egokitasuna bi herenera ez da iristen, *Bifid* glosarioko egokitasuna ia erabatekoa izan bitartean, bai egokitasun lexikalari, eta bai kategoria gramatikalaren egokitasunari begira ere. *Giza*++ tresnak sortutako glosarioek, eta, neurri txikiago batean, *Pibolex* hiztegikoek, emaitza desegokien, "zaratatsuen", ehuneko handiak dituzte. 4.8 taulan eskuzko ebaluazioan batutako datu guztiak batera ikusten ditugu. Alfabeto osoari dagozkion datuak, letra etzanean aurkezten ditugunak, A letran oinarrituriko datuetan abiatutako estimazioak dira.

	LitGiza	LitGiza Pos	BibleGiza	BibleGiza Pos	LitBifid	BibleBifid	Pibolex News	Pibolex Wiki	Wikipedia	Wiktionary	WordNet	GUZTIAK
Itzulpen-ordainak	5.361	3.826	1.349	818	265	230	682	730	5.457	396	1.076	
EuDeLex Gold Standard: intersekzioa	1.276	696	434	323	177	49	559	567	265	147	774	2.928
Intersekzioa/3406 GS lema	%35,41	%19,31	%12,04	%8,96	%4,91	%1,36	%15,51	%15,73	%7,35	%4,08	%21,48	%81,24
Ø ordain/lema	2,27	1,73	2,35	1,46	1,07	1,22	2,64	2,82	1,00	1,33	2,57	2,85
Lema ebaluatuak (metodoka)	1.276	696	434	323	177	49	559	567	265	147	774	4.248
Ordain ebaluatuak	2.901	1.206	1.019	470	189	60	1.476	1.601	265	195	1.988	9.694
• OK	746	537	256	215	178	43	939	1.007	236	189	1.654	5.248
• FALSE	1.923	519	728	230	3	15	414	513	6	3	188	3.793
• PART	186	122	11	6	6	1	14	7	4	0	17	246
• NEAR	46	28	24	19	2	1	109	74	19	3	129	407
POS ebaluatuak	2.901	1.206	1.019	470	189	60	1.476	1.601	265	195	1.988	9.694
• OK	1.071	965	448	422	186	52	1.321	1.286	245	195	1.983	6.787
• FALSE	1.830	241	571	48	3	8	310	315	21	0	5	3.063
1+ ordain OK duten lemak (A)	609	439	213	189	168	39	443	454	236	147	700	2.081
1+ ordain OK duten lemak (A-Z)	*7.152*	*5.156*	*2.501*	*2.220*	*1.973*	*458*	*5.203*	*5.332*	*2.772*	*1.726*	*8.221*	*24.439*
Ordain guztiak OK duten lemak (A)	315	294	111	149	168	35	316	322	236	142	601	1.123
Ordain guztiak OK (A-Z)	*3.699*	*3.453*	*1.304*	*1.750*	*1.973*	*411*	*3.711*	*3.782*	*2.772*	*1.668*	*7.058*	*13.188*
Zerbait erabilgarria duten lemak (A)	444	232	129	62	7	6	165	164	23	5	143	1.056
Ordain guztiak FALSE duten lemak (A)	517	170	194	112	2	8	78	82	6	0	30	371
Ordainak OK/ordain ebaluatuak	%25,72	%44,53	%25,12	%45,74	%94,18	%71,67	%63,62	%62,90	%89,06	%96,92	%83,20	%54,14
POS OK/POS ebaluatuak	%36,92	%80,02	%43,96	%89,79	%98,41	%86,67	%89,50	%80,32	%92,45	%100,00	%99,75	%70,01
1+ ordain OK duten lemak/lema ebaluatuak	%47,73	%63,07	%49,08	%58,51	%94,92	%79,59	%79,25	%80,07	%89,06	%100,00	%90,44	%48,99
Ordain guztiak OK duten lemak/lema ebaluatuak	%24,69	%42,24	%25,58	%46,13	%94,92	%71,43	%56,53	%56,79	%89,06	%96,60	%77,65	%26,44
Zerbait erabilgarria duten lemak/lema ebaluatuak	%34,80	%33,33	%29,72	%19,20	%3,95	%12,24	%29,52	%28,92	%8,68	%3,40	%18,48	%24,86
Ordain guztiak FALSE duten lemak/lema ebaluatuak	%40,52	%24,43	%44,70	%34,67	%1,13	%16,33	%13,95	%14,46	%2,26	%0,00	%3,88	%8,73
1+ordain OK duten lemak	*%17,88*	*%12,89*	*%6,25*	*%5,55*	*%4,93*	*%1,15*	*%13,01*	*%13,33*	*%6,93*	*%4,32*	*%20,55*	*%61,10*
ordain guztiak OK duten lemak	*%9,25*	*%8,63*	*%3,26*	*%4,37*	*%4,93*	*%1,03*	*%9,28*	*%9,45*	*%6,93*	*%4,17*	*%17,65*	*%32,97*

4.8 Taula: Glosario elebidunen ebaluazioa: Emaitzak

4.1.6 Glosario elebidunak zirriborratzea: Ondorioak

Hemen glosarioak zirriborratzeko aurkeztutako metodo guztiak konbinatuz, *DeReWo* zerrendaren % 80 bat estaltzen duten glosarioak lortu ditugu. Bestetik, itzulpen-ordain egoki bat edo gehiago duten alemanezko lemak lemategiaren % 61era heltzen dira, ordain egokiak baino ez dituzten lemak lemategiaren heren bat izanik (% 32,97).

Glosario-zirriborroak hiztegian erabiltzeko, itzulpen-ordain egokiak desegokietatik bereizi behar ditugu, ordainen egokitasuna hiztegigintzan lehenengo irizpidea izan behar baita, glosario-sarreren kopuruaren aurretik.

Taldea	*Baliabideak*	*Glosario-zirriborroak: ordain egoki bat edo gehiago dituzten alemanezko lemak*
(1) ia erabateko doitasuna	*Wiktionary*, *Wikipedia*, *Bifid* (Literatura corpusa)	% 40,6
(2) doitasun altua (ordain desegoki gutxi)	*Bifid* (Biblia), *WordNet*	% 20
(3) doitasun baxua (ordain desegoki asko)	*Giza*, *Pibolex*	% 18,7

4.9 Taula: Metodoen sailkapena, ebaluazio kualitatiboaren arabera

Lortutako ordain bikoteei *EuDeLex* hiztegiko datu-basean sarrera emango diegu, aipatu dugun irizpidearen arabera glosarioak hiru taldetan banatu ondoren, 4.9 taulan adierazten dugun bezala. Alfabeto osoan zehar ia datu desegokirik ez aurkitzea espero dugunez, (1) taldeko datuak zuzenean sartuko ditugu datu-basean, ondoren eskuz editatzeko; (2) taldeko datuak, berriz, eskuz errebisatuko ditugu datu-basean sartu baino lehen; eta (3) taldeko datuak, azkenik, tartean datu desegoki franko dituzten glosarioen taldekoak, ez ditugu datu-basean sartuko. Esperimentu gehiago burutuz, *word alignment* tresnek erabiltzen duten algoritmoen konfigurazioa aldatu eta atalase egokienak zehaztuko ditugu, zarataren eta isiltasunaren arteko erdibide emankorrena erdiesteko asmoz, hau da, ahalik eta glosario-sarrera kopuru, eta, aldi berean, ahalik eta egokitasun handiena lortzeko asmoz. *Giza++* tresnari dagokionez, maizen agertzen diren 150 lema-ikurrak emaitzetatik kentzea eta kategoria gramatikalen estekak lema-ikurrarekin kateatzea norabide horretarako bi urrats izan dira, eta kentzekoak diren euskarazko

lema-ikurren zerrendari ebaluazioan behin eta berriz FALSE balioa esleitu diogunez, aberastea hurrengo urratsa izan daiteke.

Eskuzko lana nabarmen erraztuko duen datu multzoa lortu dugu. Horrez gain, honako bi baieztapen hauek azpimarratu nahi ditugu: proposatutako metodo sorta, printzipioz, edozein hizkuntza bikoterako balio du, eta beste hainbat konbinaziotan errepika daiteke, bai hiztegi-zirriborro gisa balia daitezkeen glosario elebidunak lortzeko, bai eta hizkuntza bikote ezberdinen arteko erkaketak egiteko ere.

Ikerketa honetan jakin dugunez, *DeReWo* zerrendaren bi heren *Wikipedia* edota *Wiktionary* baliabideetako orrialde-izenbururen batekin bat dator. Ebaluazio kualitatiboan neurtu ditugun egokitasun-maila altuak baliabide horietatik erauzitako glosarioak hiztegigintza-lanetan erabiltzeko argudio ona da, eta datuen lizentzia libreari esker, besterik gabe erabil daitezke. Beste glosarioetako datuak eskuz editatu beharko ditugun bitartean, *Wikipedia* eta *Wiktionary*-ko datuak hiztegiaren datu-basean sartzeaz aparte, hiztegi elektronikoko bilaketa-emaitzak erakusten dituen orrialdean zuzenean txerta daitezke, beheragoko 4.4.1 atalean azaltzen dugun bezala. Horrela, azken bertsioko edukiak islatuko genituzke betiere. Euskarazko itzulpen-ordainak daramaten *Wikipedia* eta *Wiktionary*-ko orrialdeen kopurua haziko dela espero daiteke, *crowdsourcing* batean oinarritzen diren entziklopedia eta hiztegi horietan dabiltzan euskarazko editoreen kopurua haztearekin batera. Hemen aurkeztu bezalako neurketen bitartez, editoreen komunitateen hazkuntzari jarraipena egin dakioke.

Euskarazko *WordNet* sarea, *EusWN*, alegia, UPV-EHUko IXA taldeko ikerlariek garatutako baliabidea da, eta lizentzia eta data-iturri irekiko baliabide lexikorik handiena eta fidagarriena da egun. Horren *synset*-ak ingelesezko *Princeton WordNet* sarearen bitartez *GermaNet* sareko item lexikoekin lotzea izan da itzulpen-ordain egokien kopururik handiena eman digun metodoa.

Pibolex hiztegiak azaldu dituen emaitzak guk ebaluatu dugun hizkuntza bikotean beste zenbait hizkuntzetan bezalakoxeak dira, baliabide horren garatzailearen arabera (Manterola, San Vicente & Saralegi, kom. perts.). Esperimentuetan erabilitako corpusei dagokionez, egunkarietakoak *Wikipedia*-ko edukiak dituenak baino emaitza zertxobait hobeak eman dizkigute. Beraz, uste dugu *Wikipedia*-ko corpus konparagarriak, nahiz

eta testuen gaiei begira guztiz konparagarria izan, bi hizkuntzetan dituen testu kopuruaren ezberdintasunaren erruz etekin gutxiago eman digula.

Word alignment tresna biren bitartez corpus paralelo ezberdin bietatik lortutako emaitzek erakusten digute, espero genuen bezala, itzulpen-ordain bikoteen kopurua corpus paraleloaren tamainarekin erlazionatuta dagoela, eta baieztapen berak bikoteen egokitasunerako balio duela. Euskara-alemanezko corpus paraleloen garapenean aurrerapausoak egitea komenigarritzat jotzen dugu, beraz.

Euskara-alemana dentsitate ertaineko eta corpus eta baliabide gutxiagoko hizkuntza bikotea izan arren, aurkeztu ditugun esperimentuen bitartez lortutako glosarioen tamaina aintzat hartzekoa dela erakutsi dugu, eta, zalantzarik gabe, hiztegigintza-lanetan giza baliabideak aurrezten lagunduko dute glosario horiek. Hala ere, esan gabe doa giza hiztegigileen eskuzko lana ezinbestekoa izaten jarraituko duela hizkuntza bikote honetarako kalitatezko hiztegiak ekoizteko orduan.

4.1.7 Glosario elebidunak zirriborratzea: Gerorako erronkak

Ikerketa-ildo honetan jarraitzeko zenbait proposamen aipatuko ditugu jarraian. Corpus paraleloen garapena aurrera eramatea oso zentzuduntzat jotzen dugu, esan bezala, *word alignment* tresnak elikatu ahal izateko, alde batetik, eta bestetik, 4.3 atalean hizpide izango ditugun eskuzko hiztegigintza-lanetan laguntzeko. Hirugarrenik, corpus paraleloko datuek hiztegi elektronikoaren bilaketa-emaitzak osatzeko balio dute (4.4.1 atalean ikusiko dugunez). Corpus konparagarrien ustiaketari dagokionez, aplikatu ditugun metodoen errendimendua hobetzea izango litzateke helburua. Horretarako balio lezaketen urratsen artean, corpus-datuen etiketatzea fintzea, hitzen arabera lerrokatzean saihestu beharreko hitzen zerrendak osatzea eta algoritmoen konfigurazioa egokitzea aipa daitezke. Bestalde, hemen aurkeztu dugun metodo sorta beste hainbat hizkuntza bikoteetan aplikatuko bagenu, emaitzak konparatu ahalko genituzke, ondorengo galdera hauen erantzunetara hurbiltzeko: zer eragin du hizkuntza baten izaera morfosintaktikoak, eta zer eragin corpus paraleloaren tamainak, zer haren osaerak? Momentu honetan erdietsi ez ditugun helburuen artean, hitz anitzeko unitate lexikoak aintzat hartzea eta glosario elebidunek lemen polisemia noraino estaltzen duten neurtzea daude. Azken arazo horren gainean jardungo dugu jarraian.

4.2 Bi arazo pisutsu: Polisemia eta Lexikalizatze Asimetrikoa

Metodo erdi-automatikoen bitartez lortu ahal izan ditugun ordain-bikoteetan aurreko kapituluan aipatu ditugun kopuruek argi utzi dute metodo horiek eskuzko hiztegigintza-lanak modu eraginkor batean murrizten lagun dezaketela. Bestalde, eskuzko lanaren esparrua handia da oraindik, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamenduaren alorreko tresnek eta corpus-hizkuntzalaritzak urrats handiak egiteke baitituzte zenbait auzitan. Bi arazo nagusi ikusiko ditugu jarraian, metodo automatikoei buruzko 4.1 atalean konponbiderik gabe geratu direnak, eta, ustez, kalitatezko hiztegiak ekoizteko oro har giza hiztegigilearen ardura izaten jarraitzen dutenak: hizkuntza bateko lexemetan aurkitzen dugun polisemiaren edo adiera-aniztasunaren desanbiguazioa, alde batetik, eta kontzeptuen lexikalizatze asimetrikoa hizkuntzetan zehar, bestetik. 7.4.2 eranskinean aurkezten dugun hiztegian, adieren sailkapena eskuz burutu dugu.

Hala ere, orain arte garatu diren baliabide elektronikoak oso lagungarriak izan daitezke aipatutako arazoei begira ere. *WordNet* sare semantikoak jorratuko ditugu, hizkuntza gehienetan lizentzia irekien arabera argitaratu den baliabide horrek polisemia eta hizkuntzen arteko asimetriak islatzeko proposamenak ekartzen baititu, baita corpus paraleloen ustiapenean oinarritzen den polisemia desanbiguatzeko metodo bat ere.

4.2.1 Arazoaren deskribapena

Tesi honen gaia hiztegigintza elebiduna baita, hizkuntza batean ageri den polisemia ez da interesatzen zaigun arazo bakarra; hizkuntzen arteko muga gainditzean, polisemia nola lexikalizatzen den deskriba daiteke polisemiaren lexikalizatze simetriko ala asimetriko gisa.[133] Alemanez-euskarazko hiztegian adierak bereizteko, alemanaren eta euskararen arteko lexikalizatze asimetrikoa kontuan izaten saiatzen gara, hala badagokio. Baina, oro har, nola islatu behar dira polisemia asimetrikoak hiztegian?

Alde batetik aurkitzen ditugu lema bereko polisemiaren sailkapen ezberdinak, 2.4 ataleko adibideetan ikusi dugun bezala, eta, bestetik, polisemiaren sailkapenak hiztegi elebidun batean adiera bakar baterako edo adiera bat baino gehiagorako ordain bereko egokitasuna aintzat hartu beharko luke. Izan ere, hiztegi elebiduna egitea ez datza

[133] *Asymmetric lexicalization* kontzeptua Hartmann (2007: 33) lanetik hartu dugu.

alemanezko hiztegi bat adieraz adiera itzulpen-ordainekin osatzean,[134] jatorrizko polisemiaren sailkapena helburu-hizkuntzari egokitzean baizik: ordain berberez itzul daitezkeen adierak atal berean batu daitezke. Jokabide hori hiztegigintza eskuliburuetan mandamentu gisa dator:

> "[...] the semantic structure of the source language should not be allowed to prevail universally; instead, the structure of the target language should also be allowed to influence the division into senses." (Svensén 2009: 278)

Lew (2013) autorea bat dator irizpide horrekin. Polisemia iturri-hizkuntzaren arabera sailkatzeari, hizkuntza horretako hiztegi elebakarra izango balitz bezala, *meaning structure* araberako antolaera deitzen dio, eta *equivalence structure*, aldiz, helburu-hizkuntzako itzulpen-ordainen araberakoari. Jatorrizko hizkuntzako polisemia itzulpen-ordainen arabera antolatzeak bi ondorio dakartza, hiztegi elebiduna editatzeko lanak hiztegi elebakar baten (edo batzuen) datuetatik abiatzen badira:

> "There are actually two opposing aspects of equivalence structure: (1) sense distinctions in the source language may be redundant and undergo elimination; and (2) it may be advisable to introduce extra distinctions so as to provide a tighter match between the lexical items in the two languages." (Lew 2013: 289)

Bi ereduzko kasu horiek bereizirik, badugu lexikalizatze asimetrikoaren definizioa, eta haren bereizkuntza hizkuntza batean agertzen zaigun polisemiatik. Oro har, Lewek aipatutako lehenengo arazoak bigarrenak baino garrantzi gutxiago du hiztegigintza elektroniko batean: Erredundantziak, murriztutako toki batean dira oztopo, eta murriztapen hori hiztegigintza elektroniko bihurtu denetik desagertu egin da. Bestetik, erabiltzailea hiztegi-artikulua ikustean erredundantzia artean galtzeko arriskua aipa daiteke, baina hemen erredundantzia deitzen dioguna, mota bereko datu-eremu talde batean balio homografoak agertzea, alegia, modu automatiko batean iragaz edo batu daiteke. Hortaz, hiztegiko datu-basea eraikitzeko orduan horrelako erredundantziak ez ditugu problematikotzat hartuko. Lewek bigarrenik aipatzen dituen *extra distinctions*, aldiz, ezin dira era automatikoan sortu. Horiek, helburu-hizkuntzak iturri-hizkuntzako adiera bat sinonimoak ez diren itzulpen-ordain ezberdinez ematearen kasuan

[134] Alemanezko *Wiktionary* hiztegian horrela gertatzen da, hain zuzen ere: iturri-hizkuntzako polisemiaren sailkapena mantendu, eta itzulpen-ordainak adieraren zenbakiaz osatzen dira. Ordain batek adiera bat baino gehiago estaliz gero, adiera-zenbaki bat baino gehiagorekin markatzen da.

komenigarriak izango dira, hots, iturri-hizkuntzako lemaren hiponimo talde baten aurrean gaudenean, *Holz* alemanezko izenaren orain aipatuko dugun adibidea kasu.

Gaztelaniaz, *leña* eta *madera* sinonimo ez diren ordainak ditugu hiztun aleman batentzat adiera bera denarentzat, eta, beraz, *Holz* izenaren adiera bat[135] bitan banatuko dugu alemana-gaztelaniazko hiztegi-sarrera batean, eta *leña* ordainarekin osatuko duen atalari alemanezko izenaren hiponimo bat gehitu, erabiltzaileak baliokidetasuna uler dezan: *Feuerholz.*

Hiperonimo eta hiponimo talde bateko lexikalizatze asimetrikoa ondorengo 4.4 eskeman irudikatzen dugun bezala isla daiteke hizkuntza batean baino gehiagotan zehar. Hizkuntza bikote baterako hiztegi elebidun egokirik ezean "zubi" edo "pibot" gisa hirugarren hizkuntza batetik abiatzeak erabiltzailea bide desegokira eraman dezakeenaren ebidentzia ematen digute horrelako asimetriek. Horrenbestez, iturri-hizkuntzaren lexemaren polisemia era jakin batean lotu behar da hiztegigintzan helburu-hizkuntzako unitate lexikoekin, hizkuntzaz hizkuntza azaltzen den asimetriak kontuan hartuz.

<table>
<tr><th colspan="3">DE</th><th colspan="2">EU</th><th colspan="2">EN</th><th colspan="2">ES</th></tr>
<tr><td rowspan="6">Holz</td><td colspan="2">Brennholz, Feuerholz</td><td colspan="2" rowspan="2">egur</td><td>su-egur</td><td colspan="2">firewood</td><td colspan="2">leña</td></tr>
<tr><td colspan="2">Bauholz</td><td>zur</td><td colspan="2">lumber, timber</td><td colspan="2" rowspan="2">madera</td></tr>
<tr><td colspan="2">Holz</td><td colspan="2">egur, zur</td><td rowspan="4">wood</td><td></td></tr>
<tr><td rowspan="2">Gehölz</td><td>Wald</td><td rowspan="2">ohian, baso</td><td></td><td>woods, forest</td><td rowspan="2">bosque</td><td></td></tr>
<tr><td>Forst</td><td>baso (ustiatua)</td><td>forest, woodland</td><td>arbolado, arboleda</td></tr>
</table>

4.4 Irudia: Lexikalizatze asimetrikoa

[135] Eraikuntzarakoa zein su-egurra adiera berean agertzen dira DGW2011 hiztegian: s.v. 'Holz': **1.** *feste, harte Substanz des Stammes, der Äste und Zweige von Bäumen und Sträuchern (die als Baustoff, Brennmaterial usw. verwendet wird).*

Hortaz, 4.4 irudian aipatutako alemanezko lexemak 4.10 taulan adierazi bezala euskarazko itzulpen-ordainekin lotzekoak dira, baliokidetasuna indartzeko osagaia parentesi artean adieraziz, beharbada (osagai horiei buruz, ikus 3.3.2.7 atala).

Holz	1. egur, zur; 2. ohian, baso
Gehölz	baso, zuhaizti
Wald	ohian, baso
Forst	baso, zuhaizti (ustiatu)
Brennholz	su-egur
Feuerholz	su-egur
Bauholz	(eraikuntza) zur

4.10 Taula: Alemanezko 'Holz' izena eta hiponimoak, euskarazko ordainekin

Nahiz eta lexikalizatze asimetrikoaren gaineko deskribapen horiek izenki baten adibidean egin, kategoria gramatikal guztietako hiperonimoen, hiponimoen eta paronimoen taldeen kasuan errepika daitezke.

ausleihen *DeReWo* 7354 - *irregularra, bereizgarria.*
ad. tran. *+haben* ▸
1 *[jmdm. etw.]* maileguz utzi; mailegatu
2 *[(sich (Dat.)) etw.]* maileguz hartu; mailegatu

4.1 Lagina: *EuDeLex*: **s.v. 'ausleihen'**

EuDeLex hiztegiko adibide esanguratsu bat ematearren, 4.1 laginari begira diezaiogun. *Ausleihen* aditzak *mailegatu* esan nahi du euskaraz, eta goian aipatutako *equivalence structure* islatu nahiko bagenu, printzipioz alemanezko aditza estalita izango genuke bikote hori emanez. Bestalde, argumentu-egitura ezberdin bi izan ditzakegula aditzaren testuinguruan adierazi nahi diogu erabiltzaileari: *norbaiti* mailegatzea, eta *norbaitengandik* mailegatzea.[136] Oraingo honetan, argumentu-egitura ezberdin bi horiek gauzatzeari buruzko balentzia-argibideak gehitu ahal izateko eta ezberdintasuna euskarazko ordain ezberdinen bitartez islatzeko, bitan banatzen dugu

[136] *Norbaiti mailegatu* (alemanez 'jemandem etwas (aus)leihen'), eta *norbaitengandik mailegatu* ('(sich) von jemandem etwas (aus)leihen). 4.4 aipatutako *maileguz utzi* (alemanez literalki: „geliehen überlassen“) eta *maileguz hartu* „geliehen nehmen“ ordainak zuzen eratutako hitz anitzeko unitateak dira, kasu honetan *mailegatu* aditzaren hiponimo gisa balio dutenak.

adiera. Argumentu-egitura modu egoki batean islatu nahi izatea, beraz, beste arrazoi posible bat dugu hiztegi elebidunean adiera bakartzat har dezakeguna gehiago desanbiguatzeko, itzulpen-ordaina lema bera bada ere.

EU	**EN**	**ES**	**DE**	***etiketa semantikoak***	***azalpena EN***
egur_1	firewood_1	leña_1	Feuerholz = Brennholz = Holz_3	*chemistry substance tissue function natural substance tops*	*wood used for fuel*
egur_2 = zur_1	lumber_1 = timber_1	madera_3	Bauholz, Holz_2	*building industry substance artifact function object tops*	*the wood of trees cut and prepared for use as building material*
egur_3 = zur_2	wood_1	madera_2	Holz_1	*botany building industry base concept substance tissue natural part plant solid substance tops*	*the hard fibrous lignified substance under the bark of trees*

4.11 Taula: 'egur' izena *EusWN* datu-basean eta sinonimo interlingualak

Ariketa horretan laguntzeko lanabes bila, badago hizkuntza askotarako (ingelesa eta euskararako, adibidez) lizentzia librearekin eskuragarri dugun baliabiderik: Esan bezala, *WordNet* familiako baliabide lexikoetan, hainbat hizkuntzatako lexemak elkarri lotuta aurkitzen ditugu, elkarrekin duten *kontzeptu* deitzen zaion esanahiaren bitartez. Kontzeptu bakoitzari *synset* bat dagokio, kontzeptua denotatzen duten lexemez osaturik dagoen sinonimo taldeari. Lemak, beraz, *synset* batean baino gehiagotan ager daitezke lexema edo *lexical unit* gisa, eta agerpen anizkoitz horrek lemaren polisemia adierazten duela asumitu dezakegu.

Euskarazko *egur* izenaren polisemia, adibidez, 3 azpisarreratan banatuta dago. *Egur_1* azpisarrerak ingelesezko *firewood*, gaztelaniazko *leña* eta alemanezko *Feuerholz/Brennholz/Holz_3* ordainetara bidaltzen du. *Egur_2* unitateak euskaran bertan ordaina du: *zur_1*; hau da, ingelesez *lumber_1* eta *timber_1* ("*building industry artifact*"), gaztelaniaz *madera_3*, alemanez *Bauholz* eta horren hiperonimo den *Holz* unitatearen bigarren adiera *(Holz_2). Egur* izenaren hirugarren adierak, aldiz, euskarazko *zur_2*, eta, beste hizkuntzetan, *wood_1*, *madera_2* eta *Holz_1* unitateekin loturik dago. *Egur_3* adierak, *egur_2*-k ez bezala, "*natural part plant*" etiketa darama, hots, *egur_3* unitatearen adierazgarria landare bizia izatea da, ez eraikuntza-zur

bihurturikoa. Ikus ditzagun datu horiek denak batera, 4.11 taulan. *WordNet* sare semantikoetara itzuli baino lehen, polisemia aintzat hartzen duen hiztegi elebidunak zirriborratzeko metodoak automatizatzeko aukerei begirada bat eskaini nahi diegu.

4.2.2 Polisemiaren desanbiguatzea: Metodo erdi-automatikoak

Lexema baten adierak corpusetako datuez eta metodo automatikoez baliaturik desanbiguatzeko jokabideak, Kilgarriff eta Rychlý corpus-hizkuntzalarien hitzetan "*the great problem of Word Sense Disambiguation*" (2010), gai handia da corpus hizkuntzalaritzan, eta arazo horren konponbidea izatea, "*remains a dream*", ametsa izaten jarraitzen du (*ibid.*). Autore horien arabera, emaitza onenak eman dituen corpusetan oinarritutako metodoak kolokazioak (hitzaren agerkideak, alegia,) hartzen ditu aintzat, eta metodoa adiera bakoitza testuinguru jakin batzuetan agertzen delako susmoan oinarritzen da, hots, *collocation clustering* deitzen dutena. Autoreok norabide horretaranzko aurrera-pausoak iragartzen dituzte, hizkuntza bateko polisemia automatikoki desanbiguatzeko ahalmen baterantz, alegia.

Printzipioz automatiza daitekeen beste metodo bat corpus paraleloetan oinarritzen da (Lefever 2012). Hizkuntza bereko kolokazioen klusterrak beharrean, lema batek beste hainbat hizkuntzetan dituen itzulpen-ordainak dira lemaren agerpenak adiera-taldeetan antolatzen laguntzen duen lehengaia. Itzulpen-ordainak zehazteko, hau da, esaldi-mailako lerrokatze batetik hitz-mailako lerrokatze batera heltzeko, estatistikan oinarritzen diren *word alignment* tresnak erabiltzen dira, corpus paraleloekin egin ditugun esperimentuei buruzko 4.1.3.1 atalean deskribatu dugun bezala. Lefever autorearen emaitzen lagin bat dugu 4.12 taulan. Ingelesezko *pot* izenaren adierak beste hizkuntzetan dituen ordainen arabera taldekatu ditu bertan; izen horrek adieraren arabera hizkuntza desberdinetan dituen itzulpen-ordainen distribuzioak tresna automatiko bati ebidentzia eskaini diezaiokeela argi geratzen da.

Tamaina eta kalitateari begira egokiak diren corpus paraleloak eskuragarriak diren heinean, Lefeverrek aurkeztutako metodoak adierak sailkatzeko eskuzko lanak modu nabarmen batean sustatzeko bide ematen du. Halaber, *WordNet* sareetako datuek polisemia desanbiguatzeko eskuzko lanak erraz diezazkigute, aurreko ataleko amaieran iragarri bezala. 4.11 (*WordNet*) eta 4.12 (Lefever) tauletako bezalako datu-sorta

eleaniztunak lemategi oso baterako erauz litezke automatikoki, ondoren hiztegi-zirriborroa sortzeko asmoari erantzunez prozesatzeko, eta hori da, hain zuzen ere, Kilgarriff eta Richlý autoreek *Semi-Automatic Dictionary-Drafting* (SADD) deitzen dutena, hiztegigintza elebiduneko beharretarako erabilia.

4.1 atalean aurkeztu dugun glosarioen zirriborratzeak itzulpen-ordainen bikoteak ematen dizkigu, bikoteen kideren bat polisemikoa den ala ez kontuan hartu gabe. Adierak, beraz, metodo erdi-automatikoen bitartez taldekatzetik (klusterrak definitzetik) urrunago doa, eta etorkizun hurbileko helburu dugu metodo horiek euskara-alemana gure bikoteari aplikatzea. Glosarioak zirriborratzean egin dugun bezalaxe, horretarako ere metodo automatikoak lemategiaren % 10 batean ebaluatuko genituzke, metodo bakoitzak ekartzen dizkigun emaitzen doitasunaren arabera lemategi osoan nola aplikatu erabakitzeko: doitasuna % 100-eik gertu baldin badago, metodoak ematen dizkigun datuak gure datu-base lexikalera kopiatuko genituzke, ondoren eskuz errebisatzeko; doitasuna zalantzazkoa baldin bada (emaitza "zaratatsuak" baldin baditugu), aldiz, eskuzko errebisioa datu-basean sartu aurretik egingo da; eta, azkenik, doitasuna ez bada bi herenera-edo iristen, hiztegigileak hiztegia eskuz editatzeko orduan ondoan izateko datu-bilduma gisa baino ez ligukete balio emaitza horiek.

4.1 ataleko emaitzak ikusita, esan gabe doa *word alignment* batean oinarritutako metodoen emaitzak erabilitako corpus paraleloaren tamainaren eta kalitatearen araberakoak izango direla. Lefever autoreak (*ibid.*) erabiltzen duen corpus paralelo eleaniztuna erraldoia da euskara-alemana bikoterako dugun baliabide birekin konparatuta, sei hizkuntzatan zehar lerrokatutako 884.603 esaldi baititu (Lefever 2012: 33), eta guk egun eskuragarri dugun DE-EU corpus handienak, literatura-corpusak, berriz, 146.457. Hortaz, gure bikoterako corpus paraleloa garatzeko beste arrazoi pisutsu bat gehi diezaiokegu 4.1.6 atalean aipatu dugunari, *word alignment* bitartez eraikitako glosario-zirriborroen kalitatea corpus paraleloaren tamainarekin erlazionatuta dagola deritzon baieztapenari, alegia. Horrez gain, aipatu behar dugu Lefeverrek sei hizkuntzatako corpus paraleloa baliatzen duenez, iturri-hizkuntzako hitz baten adiera sortari bost itzulpen-ordain distribuzio jar diezazkiokeela aldamenean, eta, horrela, hizkuntzetan zehar dagoen asimetriak ematen dion ebidentzia areagotu. Euskararekiko corpus paralelo eleaniztunak garapen bidean daude, Euskal Herriko Unibertsitateko

English	Dutch	German	French	Spanish	Italian
1. Cooking Vessel, pot					
1.1. General					
honey pot	pot potje potje	Topf Mann Töpfchen Honig§§glas	chaudron marmite pot pot	caldero olla cazuela tarro	calderone vaso vasetto vasetto
1.2. Mixture					
pot pourri melting pot	geheel hoop ketel hutspot potpourri-achtig smelt§§kroes mengsel	Fass Topf Glas Potpourri Schmelz§§-tiegel Gemisch	Magma pot sac fourre-tout pot-pourri melting-pot enchevêtre-ment	magma olla saco variopinto popurrí crisol cúmulo	magma calderone vasetto accozzaglia guazza-buglio crogiolo melting-pot
1.3. Flower pot					
	pot bloem§§pot	Blumen§§topf	pot	olla maceta	vaso
2. Marijuana					
	blowen hasj	kiffen Cannabis	herbe	maría	canna
3. batch, great deal of					
pot of money	hoop pot aardig	Topf Pot Reibach	sac montagne cagnotte	saco cazuela cantidad	calderone mucchi risparmi
4. funding					
	bedrag fonds kas	Geld Fonds Topf	cagnotte fonds poste	ayuda fondo beneficio	somma fondo cassa
5. take a pot shot					
	onder vuur nemen	Schuss	tirer à vue	quemarropa	attaccare
6. toilet					
	po	Toiletten-eimer	vase de nuit	orinal	vaso
7. Pol Pot					
	Pot	Pot Pot-Regime Pol-Pot-Truppe	Pot	Pot	Pot

4.12 Taula: Adieren eta itzulpen-ordainen klusterrak ingelesezko 'pot' izenarentzat (Levefer 2012: 87-tik hartua)

Euskara Zerbitzuaren gidaritzapean prestatzen ari den *EHUskaratuak* bilduma adibide.[137] Alabaina, esan bezala, alemanarekiko corpus paralelo bakarrak lan honetan aurkeztutakoak ditugu egun.

orth_form	*lex_unit_id*	*synset_id*	*synset: Alemanezko sinonimoak*
Absatz	44750	32481	Textabschnitt, Abschnitt, Absatz
Absatz	61883	42437	Absatz
Absatz	68025	47522	Ablagerung, Absatz
Absatz	10310	7155	Absatz, Schuhabsatz
Absatz	14225	10198	Schwelle, Türschwelle, Absatz, Türabsatz
Absatz	21390	15367	Verkauf, Vertrieb, Absatz

4.13 Taula: Alemanezko '*Absatz*' izena *GermaNet* datu-basean

WordNet sareetako datuen balioa frogatu ahal izan dugu 4.1 atalean, alemanezko eta euskarazko lexemak ingelesaren bitartez lotu eta glosario elebiduna zirriborratzeko ahaleginean. Helburu horrekin, hizkuntzetan zehar sinonimo diren lexemak erauzi ditugu, *WordNet* sarean polisemiari buruzko datuak aintzat hartu gabe. Alemanezko unitate lexiko bakoitzari lotutako ingelesezko *WordNet*-eko *synset*-zenbakia baliatu dugu zenbaki bereko euskarazko *synset*-ek dituzten unitate lexikoekin lotzeko (ikus 4.2 irudia). Alemanezko unitate lexiko homografoei dagozkien ingelesezko *synset* ezberdinak lema baten adiera ezberdinak direla onartu, eta erlazio horiek erauziko bagenitu, polisemia kontuan hartzen duen hiztegi-zirriborroa izango genuke. Ikus ditzagun, adibide gisa, alemanezko *Absatz* izen polisemikoaren gainean *WordNet* sareetatik eskuratzen ditugun datuak. 4.13 taulan *Absatz* izenari dagozkion sei unitate lexiko edo lexema ikusten ditugu, horietako bakoitza biltzen duen sinonimo taldearekin batera. 4.14 taulan, *aufgeben* aditzari dagokion datuak gehitzen ditugu, jarraian *Absatz* izenaren adibidean egingo dugun ariketa beste kategoria gramatikaletan ere[138] aplika daitekeela erakusteko.

[137] Euskarazko corpusgintzaz (corpus paraleloak) Ikus 4.1.2 atala.
[138] *WordNet* sareek izenak, aditzak, adjektiboak eta adberbioak dituzte.

orth_form	*lex_unit_id*	*synset_id*	*synset: Alemanerazko sinonimoak*
aufgeben	77841	55172	aufgeben, verzichten, versagen
aufgeben	79558	56440	aufgeben, auftragen
aufgeben	79874	56689	aufgeben
aufgeben	83470	59320	schmeißen, fallen lassen, fahren lassen, aufgeben, aufstecken
aufgeben	73903	52343	aufgeben

4.14 Taula: Alemanezko '*aufgeben*' aditza GermaNet datu-basean

Datu horien araberako hiztegi-sarrera eraikiko bagenu, *Absatz* izenaren polisemia sei ataletan azaltzeko ebidentzia genuke, baita seitik bost adierarako sinonimoak ere; *aufgeben* aditzaren kasuan, bost adiera izango genituzke, horietatik lauk sinonimoak izanik. Baina, horrez gain, *WordNet* sareetan hiztegi-sarrera batean baliatzeko informazio gehiago dugu, eta sare horietan kodifikatuak dauden erlazio semantikoetatik bi aipatuko ditugu jarraian: sinonimo-taldeen kategorizazio semantikoa (hiperonimotasuna eta hiponimotasuna), alde batetik, eta ingelesaren bitarteko lotura eleaniztunak, bestetik. Hirugarrenik, *WordNet* sareek dituzten azalpen entziklopedikoak ere kontuan hartzekoak dira. 4.15 taulan, *Absatz, Schuhabsatz* sinonimo-taldeari dagozkion datuak zerrendatzen ditugu.

Datu-eremua	*Edukia*
Synset DE	Absatz, Schuhabsatz
Hiperonimoak DE	Vorrichtung, Konstruktion
Hiponimoak DE	Blockabsatz, Plateauabsatz, Pfennigabsatz, Stöckel, Hacke
Azalpena DE	"Bekleidung: der erhöhte Teil der Schuhsohle am hinteren Schuhende"
Sinonimoak EN	heel
Hiperonimoak EN	bottom, underside, undersurface
Hiponimoak EN	spike, spike heel, stiletto heel, Cuban heel, wedge, wedge heel, stacked heel [...]
Azalpena EN	"the bottom of a shoe or boot; the back part of a shoe or boot that touches the ground"
Sinonimoak EU	takoi

4.15 Taula: 'Absatz, Schuhabsatz' synset-aren zenbait erlazio semantiko *WordNet* sareetan

Euskararako, *EusWN* baliabidean oinarrituriko hiztegi-zirriborroak sor daitezke arazorik gabe, baliabide hori, esan bezala, lizentzia librearekin eskuragarria baita. 4.16 taulan ingelesezko, euskarazko, eta, beste adibide bat ematearren, katalanezko *WordNet* sareetatik hartutako datuak ikusten ditugu.[139] Hemen ikusten den bezala, euskarazko *adar* izena euskarazko *WordNet*-eko sei *synset*-etan agertzen da, hots, oinarri horretan izenaren sei adiera bereizi beharko lirateke, horietako bakoitza ingelesezko *synset* baterako lotura izanik. Ingelesezko sinonomo talde hori kodetzen duen zenbakiaren bitartez beste hainbat hizkuntzatako itzulpen-ordainetara irits gaitezke, hemen katalanerako egin bezala, ordain horiek hizkuntzari dagokion WordNet sareko zenbaki bereko *synset*-ean agertuz gero, behintzat: Adibidean, laugarren eta bostgarren adieretarako, katalanezko ordainik ez da aurkitu. Horrelako datu-bildumak erauzita adieren sailkapen bat eskaintzen duen euskarazko hiztegi-zirriborroa dugula argi geratzen da.

WordNet familiako datu-baseetan aurkitzen diren hizkuntzetan zeharkako loturak, polisemia, sinonimotasuna, hiperonimotasuna eta hiponimotasuna adierazten dituztenak, oinarri izan dira *EuroWordNet* (Vossen 1998; Vossen 2004) eta *MCR* (Atserias et al. 2004; Gonzalez-Agirre et al. 2012) eta *BabelNet* (Navigli & Ponzetto 2010)[140] bezalako datu-base eleaniztunak sortzeko (ikusi egun existitzen diren WordNet sareen zerrenda bat 4.17 taulan, lizentzia motaren arabera ordenaturik). Aipatutako ekimenetan erabilitako WordNet datu-baseak guztiz lizentzia librekoak baitira, horietan oinarritutako hiztegi-zirriborroak arazorik gabe sor daitezke ordenagailu lokal batean. Alemanezko *GermaNet* kasua, berriz, ezberdina da, horren edukiak erabiltzeko lizentzia egokia eskuratu behar delako.[141] Aipatutako baliabide horren bertsio osoa izanez gero, datuak beste *WordNet* batzuetako edukiekin lotzeko bestelako arazorik ez litzateke egongo, *GermaNet*-eko unitate lexikoak *Interlingual Index* izeneko aurkibidearen bitartez ingelesezko *synset*-erako loturak baitituzte (ikus 4.1.3.4 atala).

---

[139] Datuak hainbat *WordNet* sare batzen dituen *MCR 3.0* bildumatik *(Gonzalez-Agirre et al. 2012)* hartuak dira.

[140] http://babelnet.org/. Datu-bilduma horrek *WordNet*-familiakoak baino askoz ere datu gehiago ditu. Alabaina, euskarari eta euskarazko lemetara bidaltzen dituen erreferentzia interlingualei dagokienez, *EusWN, Wikipedia* eta *Omega-Wiki* baliabideetatik erauzitako datuak baino ez ditu egun.

[141] Ikerketa helburuetarako (esperimentuak egiteko) lizentzia akademikoa eskuratu dugu. Hiztegi oso bat eraikitzeko erabilpena, aldiz, horrekin ez dago baimenduta.

Adiera	Definition EN	EU	EN	CAT
adar_1	*one of the bony outgrowths on the heads of certain ungulates*	adar_1	horn_2	banya_1
adar_2	*a railway line connected to a trunk line*	adar_2	branch_line_1 spur_track_1 spur_5	enforcall_1 forcall_1
adar_3	*a warning signal that is a loud wailing sound*	adar_3 sirena_2 turuta_5	siren_3	
adar_4	*a local branch of some fraternity or association*	adar_4	chapter_3	capítol_2
adar_5	*a division of a stem, or secondary stem arising from the main stem of a plant*	adar_5 abar_2 besanga_1 beso_12	branch_2	branca_1 branc_1
adar_6	*an alarm device that makes a loud warning sound*	sirena_4 adar_6 turuta_6	horn_9	

4.16 Taula: 3 *WordNet* saretatik erauzitako datuak 'adar' izenerako

WordNet sareak gero eta hizkuntza gehiagorako garatzen ari dira (Bond & Paik 2012), euskararekiko hiztegi elebiduna argitaraturik ez duten hainbat hizkuntza barne. Hortaz, hiztegi elebidunetarako adiera-sailkapenak eta adieraren araberako itzulpen-ordain sortak zirriborratzeko jokabide hori aukera onuragarria iruditzen zaigu. Horrela sortutako zirriborroak eskuz landu ahala, zirriborratzeko erabili diren baliabideetako hutsuneak aurkitu eta betetzeko aukera genuke. Aipatu berri dugun *adar* kasurako, HB2010 hiztegiak *WordNet* sarean aurkitzen ez den adiera bat aipatzen du, oinetakoan sartzeko balio duen tresna denotatzen duena, alegia. Adiera hori *WordNet* aberasteko balio lukeen adibidea dugu, beraz. Kasu honetan, euskarazko *adar_7* unitate lexiko bat eus-30-04200537-n zenbakiko *synset*-ari gehitu beharko genioke, ingelesezko *shoehorn* ordaintzeko, egun *oinetakoak sartzeko* unitatea baino ez duenari.

Name	Language	# Synsets
Open Source		
Princeton WN*€	English	155,000
FinnWordNet	Finnish	117,700
Russian WN	Russian	117,000
Thai Wordnet	Thai	73,593
DanNet*	Danish	65,000
Japanese WN*	Japanese	57,000
Catalan WN*	Catalan	42,000
LSG	Irish Gaelic	32,742
Hindi WN	Hindi	28,687
WOLF	French	22,000
Wordnet Bahasa*	Malay, Indonesian	20,000
Spanish WN*⊙€	Spanish	15,556
Catalan WN*⊙€	Catalan	15,556
Arabic WN*	Arabic	11,269
Hebrew WN*	Hebrew	5000
Free for Research		
Chinese WN*	Chinese	115,424
KorLex*⊙	Korean	90,000
Spanish WN*€	Spanish	62,000
Cornetto*€	Dutch	70,371
GermaNet*€	German	69,594
MultiWN*€	Italian	38,877
MWN*	Macedonian	33,276
Ro-WordNet*	Romanian	30,000
Czech WN *€	Czech	29,000
SloWnet*	Slovene	20,000
Non Free (Available for Research)		
KorLex*	Korean	130,878
Estonian*€	Estonian	47,000
EuroWordNet		
Dutch	Dutch	44015
Spanish	Spanish	23370
Italian	Italian	48529
German	German	15,132
French	French	22,745
Czech	Czech	22,745
Estonian	Estonian	9,317
ItalWordNet	Italian	49,360
BasqWN	Basque	30,281
BulNet*⊙	Bulgarian	23,715

4.17 Taula: WordNet sareak munduan zehar (Bond & Paik (2012:66) lanetik hartua)

Hiztegia zirriborratzeko metodo horren aurrean, jakina, ondorengo kritika egin liteke: Berez, ingelesezko hiztegi baten aurrean gaude, ingelesezko lexemei dagozkien kontzeptuak ditu-eta. Horri begira espero dezakegu hobekuntzak ekarriko dituen lanketak, corpusetako edukiekin eta bestelako lemategiekiko konparaketak ere aintzat hartzen dituenak (ikus 3.2.3.3 atala), hutsune kontzeptual horiek zehazteko balioko duela. Lehendabiziko froga batek ondorengo emaitza ekarri du: Lau kategoria nagusietako maiztasun handieneko lema, EusWN datu basean ez, baina HB2010 eta EDBL lemategietan, aldiz, bai agertzen dena, *euskal* adjektiboa da.

Aurrean ditugun datuetan oinarriturik berehala egin daitekeen 3.2.3.2 atalean aurkeztu ditugunak bezalako konparaketa bat burutu dugu, ondorengo emaitzarekin: *EusWN* sareko 19.523 grafia ezberdineko unitate lexikoak ditu (eta 4.16 taula bezalako datu-sortak eskura daitezke horietako bakoitzerako). Unitate lexiko horiek lema-ikurtzat hartu eta beste lemategi batzuekin alderaturik, horietatik 18.216 bi corpus handienetako batean agertzen direla badakigu, eta, ondorioz, lema-ikurraren gaineko maiztasun-datuak ditugu.

EusWN-eko 13.281 lema-ikur EDBL datu-basean agertzen dira. Ikur horiek EDBL datu-basean dituen entitate sintaktikoak (kategoria gramatikalak) konpara daiteke *EusWN* jasota dauden kategoria-etiketekin, horrela bi iturriotako datuetan oinarritutako zirriborroa lorturik. 3.6 taulan aipatu dugun *alegia* lema-ikurra bezalako kasu batean, emaitza baliotsuak ekartzen digu konparaketak: *alegia* izen arrunta *EusWN* datu-basean agertzen da, maiztasun handiko beste bi entitateak, aldiz, ez. Datuak entitate

sintaktikoko mailan konparatzea zeregin erraza da, *WordNet*-eko *synset* guztiek kategoria gramatikala adierazten duen etiketa baitute.

Arazoa genuke, berriz, *EusWN* eta EDBL datu-baseen datuak konparatuz homonimiaren inguruko datuak lortu nahiko bagenitu, *baso* (IZE) eta *baso* (IZE) bezalako homonimiaren aurrean homonimoei hiztegi-sarrera bana esleitzeko irizpidea defendatuz bero, bederen. EusWN zein EDBL datu-baseetan, homonimia eta polisemiarekin berdin jokatzen da, bestela esanda, kategoria bereko homografoak lema beretzat hartzen dira. Horregatik, euskarazko hiztegi-lemategia eraikitzeko orduan irizpide berari jarraitzeko proposatu dugu 3.4 atalean, homonimoak lema-ikur berdinaren azpian batzekoak liratekeen bi entitate sintaktiko gisa bereizita bada ere. Entitate homonimoen bereizkuntza eta *WordNet*-eko ordainak entitate egokiari esleitzeko lana eskuzkoa izan beharko litzateke; EDBL datu basea darabilen *EusTagger* tresnaz etiketaturiko corpusetik lortutako maiztasun-datuak, berriz, ezin izango lirateke zentzu honetan desanbiguatu.

4.3 Eskuzko lana

Aurreko ataletan proposatu ditugun metodo automatikoak eta erdi-automatikoak ez ditugu 7.4.2 eranskinean ikus daitekeen *EuDeLex* hiztegia editatzeko lanetan erabili, ondoren azalduko ditugun arrazoiengatik. Lehenik eta behin, metodo (erdi-)automatikoak ebaluatzeko *gold standard* gisa erabil daitekeen oinarria sortu nahi izan dugu. Horregatik, alemanezko lemategiaren ia % 10erarako hiztegi-sarrera elebidunak edukiez osatu ditugu eskuz (alemanezko A hizkiko 3406 *DeReWo* zerrendako lemak). Helburu hori lortu dugu, 4.1 atalean aurkeztu dugun glosario elebidunen zirriborratzeari eta horren ebaluazioari dagokionez. Adiera-aniztasuna eta lexikalizatze asimetrikoa islatzen dituen hiztegi bat metodo erdi-automatikoen bitartez sortzeko abiatzeko proposamena besterik ezin izan dugu egin oraindik. Aipatu bezala, abiatzeko proposamenak bi baldintza betetzea eskatzen du: *GermaNet* sareko lizentzia egokia alde batetik, eta euskara-alemanezko corpus paraleloen garapenean jarraitzea, bestetik.

Adibide batez aurkezten dugu atal honetan alemanezko lemaren polisemia islatzeko eta euskarazko itzulpen-ordainekin osatzeko *EuDeLex* hiztegiko lanetan erabili dugun

Bedeutungen:
[1] eine semantische Einheit im Unterschied zum Wort oder zur Wortgruppe als sprachlicher Einheit
[a] der gemeinte Bedeutungsinhalt eines Wortes oder einer Wortgruppe
[b] der begriffliche Gehalt einer Vorstellung
[2] klare Vorstellung, Auffassung, Meinung
Synonyme:
[1] das Definierte, das Gemeinte, das Bezeichnete, Benennung, Bezeichnung, Fachausdruck, Terminus
[2] Vorstellung, Auffassung, Meinung, Idee
Beispiele:
[1] Denn eben, wo Begriffe fehlen, da stellt ein Wort zur rechten Zeit sich ein. (Goethe, Faust I.)
[1] Für einen Begriff kann es mehrere Benennungen (Synonyme) geben; und mehrere Begriffe können durch eine Benennung (Homonym) bezeichnet werden.
[2] Du hast einen zu negativen Begriff von dieser Entwicklung gewonnen.
[2] Du hast keinen Begriff davon, was das bedeutet.
Redewendungen:
[2] im Begriff sein, im Begriff stehen (kurz davorstehen, etwas zu tun), schwer von Begriff sein (etwas schwer verstehen)

4.2 Lagina: de.wiktionary.org: s.v. '*Begriff*'

gure eskuzko metodoa. Alemanezko eta euskarazko hiztegi elebakarrez eta elebidunez gain, corpus elebakarrak eta paraleloak ditugu iturri.[142]

Alemanezko lemaren polisemia islatzeko asmoz, hau da, lemaren adierak sailkatu eta horietako bakoitzari hiztegi-sarrerako atal bat esleitzeko, alemanezko zenbait hiztegi-sarrera elebakar ikusten ditugu. Gure adibidea alemanezko *Begriff* izena izango da, *abstracta* denotatzen dituen izena da, eta, beraz, hiztegigilearentzako kasu zailenetakoa.[143] Ikus ditzagun hiztegi elebakar biren laginak:

Wiktionary hiztegian, bi adierako sailkapena dugu. Sinonimoak eta *Begriff* lema dituzten adibideek eta esapideek adierari dagokion zenbakia daramate. DGW2011 hiztegian, aldiz, lau adierako sailkapena dugu, eta sinonimoak, adibideak eta esapideak dagozkion ataletan txertaturik edota aparteko atal gisa markaturik aurkitzen ditugu.

[142] Euskarazko corpus-hiztegigintzaren berri Leturia (2012) lanak ematen du. Eskuragarri ditugun euskarazko hiztegiak 2.3 eta 2.4 ataletan aipatzen ditugu. Euskara-alemanezko corpus paraleloak, berriz, 4.1.2 kapituluan deskribatzen ditugu.

[143] 4.4 atalean beste alemanezko izen abstraktu baten konkordantzia paraleloak emango ditugu: *Ärger*.

1. *Gesamtheit wesentlicher Merkmale in einer gedanklichen Einheit; geistiger, abstrakter Gehalt von etwas:* ein fest umrissener, schillernder, dehnbarer Begriff; zwei Begriffe miteinander verwechseln, voneinander abgrenzen; Hielscher deutete den Begriff „Reich" mystisch (Niekisch, Leben 126). **etwas auf den Begriff bringen**
2. (umgangssprachlich) *Ausdruck, Wort.*
3. *Vorstellung, Auffassung, Meinung von etwas:* Ich kann mir keinen rechten Begriff davon machen; keinen Begriff (keine Ahnung) von etwas haben; nach menschlichen Begriffen unschuldig sein; ein neuer Begriff von Öffentlichkeit (Jacob, Kaffee 88); Sie schwimmt für meine Begriffe etwas zu weit hinaus (Gregor-Dellin, Traumbuch 48); **[jemandem] ein Begriff sein** *([jemandem] bekannt sein; in jemandem eine bestimmte Vorstellung wachrufen:* Ulrich Maier? Ist mir kein Begriff).
4. Im Begriff[e] sein/stehen *(gerade anfangen wollen, etwas zu tun:* sie sind im Begriff zu gehen; ich stand im Begriff, das Haus zu verlassen); **schwer/langsam von Begriff sein** (umgangssprachlich abwertend; *lange brauchen, um etwas zu verstehen:* da Sie etwas schwer von Begriff zu sein scheinen, ... muss ich wohl deutlich werden [Kirst, 08/15, 620]

4.3 Lagina: DGW2011: s.v. '*Begriff*'

Ikusitako hiztegi-sarrera eta corpus-konkordantzia elebakarretatik[144] bi zerrenda egiten ditugu: euskarazko ordainarekin osatu behar diren alemanezko lemaren adierak, alde batetik, eta alemanezko lema duten hitz anitzeko unitateak, bestetik. Hurrengo pauso batean, alemanezko polisemia alemana-euskarazko gure hiztegiari egokituko diogu, honako bi arazo hauei aurre eginez: lehenik, laginetan ikusi bezala, alemanezko polisemiaren sailkapen ezberdinak ditugu, eta, bigarrenik, hiztegi elebidunean darabilgun polisemia-sailkapenak euskarazko itzulpen-ordainak alemanezko adiera bat baino gehiagorako egokiak ote diren aintzat hartzea nahi dugu.

Baina itzul gaitezen gure adibidera. Alemanezko corpus-konkordantzia elebakarrak zein alemana-euskarazko paraleloak (deskribapena 4.1.2 atalean) ikustean, ondorengoaz ohartzen gara berehalakoan: *Begriff* hitz bakarreko izenaz aparte, aditz-balioa duen *im Begriff sein* hitz anitzeko unitatea kontuan hartzeko moduko maiztasun batekin agertzen zaigu. Corpus paraleloko 86 aipuak ikusi eta gero, 4.18 taulako irudia dugu:

[144] Corpus handietan oinarritutako alemanezko konkordantziak http://www.dwds.de atalean eskuragarriak dira.

Alemanezko unitate lexikoa	*Euskarazko ordainak (agerpen kopurua)*
Begriff	kontzeptu (18), ideia (11), hitz (3), adigai, burutapena, ezagutza, gai, ikusmolde, pentsaera, termino, ulerbide, ulerkera (je 1)
im Begriff sein	-tzera joan (5), -tzeko zorian (4), -tzear egon (3), -tzeko asmoa izan (3), -tzeko asmotan egon (2), -tzea pentsatu, -tzear izan, -tzeko duda egin, -tzekotan izan, -tzera apoderatzen izan, ekarri, gutxi falta, hasia izan, nahi izan, nahian, egin behar izan (je 1)

4.18 Taula: 'Begriff' izenaren ordainak konkordantzia elebidunean

Bestalde, maiztasun gutxiagoko hitz anitzeko beste zenbait unitate zein itzulpen aurkitzen ditugu corpus paraleloan (4.19 taula):

Alemanezko hitz anitzeko unitate lexikoa	*Euskarazko ordaina*
kein Begriff sein	ez ezagutu
kein Begriff sein	horren entzuterik ere ez izan
keinen andern Begriff haben als ...	... baino ez pentsatu
nicht allzu schnell von Begriff sein	ez oso azkarra izan
schwer von Begriff sein	burugogorra izan
sich einen stillen Begriff machen	gutxi gora behera irudika ahal izan
sich kaum einen Begriff machen	ozta-ozta behera irudika ahal izan
sich keinen Begriff machen	ez jakin
sich keinen Begriff machen	ezin imajinatu ere egin
über alle Begriffe	ezin izan bezain
der Begriff X	X [Auslassung]
einen Begriff geben	aditzera eman

4.19 Taula: '*Begriff*' izena duten hitz anitzeko unitateak eta ordainak

Esku artean ditugun euskara-alemanezko corpus paraleloak kopuru murritzekoak dira oraindik. Hala ere, datu erabilgarriak eskaintzen dizkigute: *Begriff* adibide honetarako, hiztegian erabiltzeko egokiak diren adibideak zein itzulpenak ditugu hiru adierentzat. *Schwer von Begriff sein* esapidea, aldiz, hiztegiaren erabiltzaileari ulergarri gertatzeko adibide-esaldia beharko lukeena, *hapax* gisa agertzen zaigu corpusetan, eta kasu bakar

horretan, itzulpena “askeegia” da; testuinguruan balioko luke, baina hiztegigintzak behar duen doitasun zorrotzean ez.[145]

Corpusetako itzulpen-ordainak euskarazko hiztegiek edo corpus elebakarrek emandako datuekin konpara eta osa daitezke. Gure adibidean, polisemiaren sailkapena ondoren datorren bezala islatuko da hiztegiko sarreran, alemanezko hitz anitzeko unitateez, itzulpenez eta corpusetatik eskuz bilatutako adibideez aberastuta (4.4 lagina).

Begriff *DeReWo* 1526 Flexion: ~s, ~e
iz. *m.* ik. aditza: begreifen ▸
1 kontzeptu; ideia; hitz; termino
Was die Menschen jeweils unter dem Begriff "Mensch" verstehen, ist stets nur eine vergängliche bürgerliche Übereinkunft ▸ Gizonek "gizaki" kontzeptuaren bidez gehienetan ulertzen dutena, akordio burges iragankor bat besterik ez da betiere.
Den Begriff der Pflicht allerdings kenne ich nicht ▸ Egitekoaren ideia egiaz ez dut ezagutzen
● jdm. (k)ein Begriff sein ▸ (ez) ezagutu
2 ezagutza; ulerbide
Ihre Zoepfe, die Form ihres Kopfes, Hals und Nacken waren ueber alle Begriffe schön ▸ Ilekordak, burua, lepoa eta garondoaren forma ezin esan ahaleko edertasunekoak zituen
Dieses gibt mehr als irgend etwas anders einen Begriff von dem, was er war ▸ Honek, beste ezerk baino hobeki ematen du aditzera zer izan zen hura
● sich (k)einen Begriff (von etw.) machen ▸ (ez) jakin
● schwer von Begriff ▸ tentel
3 ● im Begriff sein (etw. zu tun) ▸ -tzera joan; -tzeko zorian egon; -tzeko asmoa izan
Sie war gerade im Begriffe, in die Garderobe zu gehn ▸ Aldagelara joaten ari zen

4.4 Lagina: *EuDeLex*: **s.v. '*Begriff*', corpus paraleloetako adibideekin**

7.4.2 eranskinean ematen dugun laginean, berriz, ez ditugu adibide-esaldirik jaso, horiek orain arte modu sistematikoan landu ezin izan baititugu. Gorago esan bezala (ikus 3.5 atala), corpus paraleloetako konkordantziak modu automatiko batean eman daitezke hiztegiaren erabiltzaileak bilaketa burutzen duen momentuan. Itzulitako adibideak hautatzeko eta iturri-hizkuntzako adierei egokitzeko nahiko baliabiderik (gizazkoak zein automatikoak) ez izan bitartean, jokabide interesgarria iruditzen zaigu hori. 4.4 atalean itzuliko gara horretara.

[145] *Schwer von Begriff* den norbaitek ulermen-arazoak ditu; 'tentela' da 'burugogorra' baino.

4.3.1 Ebazpen zailak

7.4.2 eranskinean ematen dugun lagina editatu ahala, hainbat kasu zail agertu zaizkigu, eta eskuragarri genituen baliabideen bitartez ebazterik ez genuen lortu. Zenbait alemanezko lementzat ez dugu euskarazko ordain dokumentaturik aurkitu. Honako behin-behineko irtenbide hau aurkitu diogu: izartxo batez markatu ditugu gure ikerketaren arabera dokumentaturik ez zeuden (eta, beraz, guk asmatutako) itzulpen-ordainak edota handik edo hemendik (prentsan, esaterako) aurkitu ditugun erdarazko kalkoak; dagokion kalkoa inongo hiztegian aurkitu ez badugu, hori ere izartxoaz markatu dugu. Ikus ditzagun zenbait adibide 4.5 laginean.

Achterbahn *DeReWo* 17529
iz. f. ▸
1 *errusiar mendi

Achterbahnfahrt *DeReWo* 33002
iz. f. ▸
1 *bidaia errusiar mendian
2 *fig.* gorabehera handi

Aktionismus *DeReWo* 17123
iz. m. ▸
1 *ekinkeria

alleinerziehend *DeReWo*Egokitua
adjektiboa (lehenald.part.) ▸
1 *guraso bakar gisa hezten duen

Altersteilzeit *DeReWo* 14080
iz. f. ▸
1 *adinagatiko lanaldi murriztapen

4.5 Lagina: EuDeLex: s.v. '*Achterbahn*', '*Achterbahnfahrt*', '*Aktionismus*', '*alleinerziehend*', '*Altersteilzeit*'

Bestetik, ebidentzia dokumentatua duen itzulpen-ordainik ez badugu aurkitu, euskarazko azalpen entziklopedikoa gehitu dugu kasu urri batzuetan. Definizio horiek, gainera, ez ditugu *EuDeLex* hiztegiko *xml* egituran itzulpen-ordain gisa ezarri, <*definition*> gisa baizik. Euskara-alemanezko hiztegiaren edukiak alemana-euskarazko ataleko datuen gainean zirriborratzean, 4.6 laginekoak bezalako datuak ez dira itzulpen-ordain gisa aintzat hartuko.

Aipatutako kasuetan ezarritako itzulpen-ordainak behin-behinekoak dira, eta dokumentaturiko euskarazko ordain egokia zehaztuz gero, ordeztu beharrekoak. Azalpen entziklopedikoak itzulpen-ordaina ordezten duen kasuetan ere, ordain egokirik ote dagoen galdetzen jarraituko dugu. Kasu horietako marka unibokoak ezarri baititugu (izartxoa itzulpen-ordainaren eremuan, definizioaren presentzia), erraz iragaz ditzakegu ebazterik gabe gelditu zaizkigun kasuak, zerrenda gisa emateko, adibidez.

Kasu zailak lantzeko, baita *EuDeLex* hiztegiko beste edozein sarreraren edukia zuzentzeko edo aberasteko ere, erabiltzailearen ekarpenak jasotzea[146] baliabide baliotsua izango zaigu.

Babyklappe *DeReWo* 39839
iz. f. ▸
1 ▸ *jaioberriak anonimoki zaintzan hartzen dituen erakundeak jarritako atetxoa*

BAföG *DeReWo* 29965
iz. (Laburtzapena) n. ▸
1 HEZKUNTZA ▸ *unibertsitate ikasketak burutzeko mailegu publikoa*

Bahncard *DeReWo* 23437
iz. f. ▸
1 ▸ *Trenbide sareko deskontu-txartela*

Bankleitzahl *DeReWo* 24526
iz. f. ▸
1 FINANTZAK ▸ *finantza-erakundea identifikatzeko zenbakia*

Bannmeile *DeReWo* 35506
iz. f. ▸
1 *barrendegi babestu ▸ *elkarretaratzeko eta ekimen publiko egiteko debekua duen gunea*

Berufspendler *DeReWo* 28516
iz. bizidun m. ▸
1 LAN HARREMANAK ▸ *lanera egunero trenez, autobusez edo autoz bidaiatzen duena*

4.6 Lagina: EuDeLex, azalpen entziklopedikoa duten zenbait sarrera

4.4 Corpus paraleloen ustiaketa

Hiztegi elebidunak eraikitzeko lanak corpus paralelo edota konparagarrien ustiapenean oinarritzea joera berritzailea eta emankorra dugu hiztegigintzan. Aurreko kapituluan

[146] Erabiltzailearen iruzkinak jasotzeko mekanismo baten hastapena egin dugu (ikus 3.5 atala).

ikusi ditugu DE-EU gure corpusetatik erauzitako zenbait adibide (4.18 eta 4.19 taulak). Corpusek emandako ebidentzia hobetsiko dugu oro har, hiztegigilearen "introspekzioak" emandako datuen aurrean. Hiztegigintza elebakarrean, corpus-hiztegigintza eta hiztegigilearen introspekzioaren arteko erdibide bat dugu: eskuz bildu ohi dira milaka aipu, lema bakoitzaren azpiko "zapata-kaxa" famatuetan (Sagarna 2011), OEH editatzeko prozesua kasu. Hiztegigintza elebidunean, erdibideko jokabiderako adibiderik ez dugu, eskuzko lana bikoitza izango zen-eta, jatorrizko aipua eta horren itzulpena bilatu beharko baitziren.

Hiztegigintza elebidunean, beraz, corpus-hiztegigintza ekarpen berezia egiteko gai da, edo izango da. Izan ere, egun arte, ez dago corpus paraleloetan eta konparagarrietan oso-osorik oinarritutako hiztegi elebidunik, metodo estimatua izan arren, bai makroegitura osatzeko, bai eta mikroegiturako edukiak izan daitezkeen datuak erauzteko orduan. Adamska-Sałaciak autoreak honela laburbiltzen ditu gabezia horren arrazoiak:

> "Disappointingly, no bilingual dictionaries are known to have been compiled exclusively on the basis of either parallel or comparable corpora. Apart from the obvious obstacle (i.e. unavailability of the right kind of corpus), the main problem seems to be the enormous amount of time required to analyse the wealth of corpus data in a satisfactory way [...]. A bilingual corpus offers too many equivalence candidates, each of which might seem important to the lexicographer at some point, with the likely result that a dictionary compiled in this way would contain 'too much detail for most users' [...]. In principle, of course, these difficulties could be resolved if enough time - and, consequently, money - were to be devoted to editing the preliminary version of the dictionary, allowing the lexicographers to scrutinize equivalence candidates carefully, and, ultimately, trim oversized entries. Meanwhile, as a sort of half measure, corpus data are sometimes incorporated into the electronic versions of bilingual dictionaries [...] in an attempt to offer additional assistance to more advanced users, especially translators and professional linguists." (Adamska-Sałaciak 2013: 218)

Aipatu bezala, denbora murriztua dugu guk ere *EuDeLex* bezalako hiztegia editatzeko orduan. Gainera, hutsetik eraikitako hiztegia, hau da, hizkuntza bikote horretarako aurretik existitzen zen lanetara jo gabe egindako hiztegia dugu *EuDeLex* egitasmoa. Horregatik, metodo erdi-automatikoetara jo dugu corpus paraleloetatik ordain bikoteak erauzteko. Adamska-Sałaciak-ek aipatzen dituen beste arazoek ere pisua dute gure kasuan. Izan ere, dauzkagun EU-DE corpusak tamaina eta erregistro-aniztasun gutxikoak dira hiztegi orokor baten lemategia emaitzekin estaltzeko: DE-EU corpus literarioak (ikus deskribapena 4.1.2 atalean) *DeReWo-40.000* maiztasun zerrendaren

erdia baino ez du estaltzen (19.294 lemek osatzen dute bien intersekzioa), eta, bestalde, lema batzuen konkordantziek sarrera eta itzulpen-ordain gehiegi dituzte hiztegi-sarrera batean agertzeko. Autoreak aipatzen duen bitarteko konponbidea hartzen dugu aintzat: corpus paraleloek eskaintzen dizkigun datuak, KWIC edo konkordantzia paraleloak, alegia, *EuDeLex* hiztegiko sarrerei erantsi nahi dizkiegu osagai gisa, nahi duenak itzulitako erabilera-adibideak ikus ditzan.

Corpus paraleloetatik erauzitako konkordantziak hiztegi elebidunetako sarreretan islatzeko aukera 1990eko hamarkadaren hasieratik aipatu izan den arren (lehenengo aipamenak Atkins 1996: 523; Dickens & Salkie 1996: 556), gauzatu izanaren zenbait adibide baino ez ditugu egun arte. Alde batetik, gorago esan bezala, corpusak hitzen adiera nagusiak dauzka, hiztegi-sarrera editorial batean maiztasun gutxiagoko adieren artean "ezkutaturik" gera litezkeenak. Bestetik, hitz baten adiera helburu-hizkuntzan islatzeko, itzultzaileek maiztasun gutxiko ordainak hautatzen dituzte maiz, hiztegi-sarrera editorial batean agertzen ez direnak. Wolfgang Teuberten hitzak hona ekartzearren:

> "The translator's design space is much larger than the language-neutral conceptual ontology (or the traditional bilingual dictionary) would leave us to believe." (Teubert 2002: 203)

Hitz bat hitz batez emateko aukerari erreparatzeaz gain, egitura sintaktikoa ere moldatu, laburbildu, garatu edo helburu-hizkuntzan egokia gertatzen den esapide batekin itzul dezake itzultzaileak, esaldia (eta ez hitza) modu egoki batean islatzeko haren ardura betetze aldera. Esaldia da itzultzailea kezkatzen duen entitateak, eta hainbatetan, paragrafo osoa da aintzat hartzen duena, ez hitza. Giza itzultzaileak baino beste ezerk sortu ezin dituen moldapen horiek dira kalitatezko itzulpenez osaturiko corpus paralelo batek eskaini ditzakeen altxorrak.

Konkordantzia DE	*Konkordantzia EU*	*Transformazio sintaktikoa*
Aber auf dieser Route **hatte** ich noch nie **Ärger** mit ihnen!	Baina bide honetan ez **dut** inoiz haiekin **arazorik izan**!	V+N > V+N
Nun war der **Ärger** in Capricorns Stimme nicht mehr zu überhören	Dagoeneko nabaria zen Kaprikornioren ahotsean **haserrea**.	N > N
Meggie konnte nicht verhindern, dass ihre Stimme **vor Ärger** zitterte.	Meggiek ezin ekidin zezakeen ahotsak **amorruz** dar-dar egin ziezaion.	prep.+N > N+postp.
Meggie sah, wie sich Bastas Schultern **vor Ärger** spannten.	**Haserrearen haserrez**, Bastaren sorbaldak tenkatu egiten zirela ikusi zuen Meggiek.	prep.+N > (esapidea) adb.
Mensch, biste nicht froh, daß du den ganzen **Ärger** los bist mit den Weibern?	Eta hi zer, ez al hago pozik, andreekin hituen **saltsa** guztiak bukatuta?	N > N
Bastas Lippen wurden schmal **vor Ärger,** doch er verkniff sich eine Antwort und...	Bastak ezpainak estutu zituen **haserre**, baina erantzuteko gogoari eutsi zion.	prep.+N > adb.

4.20 Taula: Corpus paralelotik erauzitako alemanezko '*Ärger*' lemaren konkordantziak

Egokitzapen ezberdinak ikusten ditugu goiko 4.20 taulako euskara-alemanezko adibideetan. Corpus paraleloetako datuetan, hortaz, itzultzaileek jorratutako bideak azaltzen zaizkigu, baita itzultzaileek kasuz kasu zer prozeduraz baliatu diren ere, testuingurua kontuan harturik; eta horixe da hiztegi-sarrera elebidun batek bere estutasunean orain arte nekez aurreikus eta isla zezakeena.[147] Hizkuntzalari konputazionalek horrelako datuetan bilatzen dute itzulpen-makinek oraindik imitatzen ez dakitena, taulan islatu dugun hori, "*syntactically motivated transformation rules that explain human translation data*" (Galley et al. 2004: 273). Testuingurua duten itzulpenez, corpus paraleloez elikatzen dituzte estatistika hutsa soilik baliatzen dakiten itzulpen-tresna automatikoak, horiei giza itzultzaileen jokabideak "ulertarazteko" ahaleginean.

[147] Vachková autoreak (2011: 51) hiztegigintzako "ordain sistemikoak" eta testuingurua aintzat hartu beharrari erantzuten dion moldatze ahalmena duen giza-itzultzailearen "itzulpen ordainak" bereizten ditu.

Hiztegi-sarrera editorial batean, lemaren izaerak entitate sintaktiko gisa, hau da, horren kategoria gramatikalak, mantendu ohi dira hizkuntza batetik bestera, helburu-hizkuntzan posible den heinean, bederen.[148] Errealitatean erabiltzen den hizkera islatzeko, beraz, hiztegi-sarrera elebidunarekin batera, egiazko adibideen ondoan benetako itzulpenak ematea lagungarria da, eta corpusetako konkordantzia paraleloak horretarako baliatzeko jokabide egokia izan daitezke. Zalantzarik gabe, corpus paraleloaren edukien osaera eta kalitatea aldagai garrantzitsuak dira; orain arteko gure esperientziaren arabera, liburuen itzulpenak dira helburu horretarako emankorrenak direnak.

4.4.1 Konkordantzia paraleloak hiztegi elektronikoetan: artearen egoera

Itzulpen-corpusetatik erauzitako datuak hiztegi-erabiltzaileari zuzenean erakustea, eta horrela, erabiltzailearen galdeketa benetako erabilera-adibideez eta horien itzulpenez erantzutea, joera berria dugu hiztegigintza elebidun elektronikoan. Bide berriak jorratzen dituzten bi hiztegi-atari aipatuko ditugu ondorengo ataletan.

Linguee izeneko egitasmoa 2007an sortu zen, eta 2009tik aurrera, erabiltzaile-interfazea erabilgarri dago edonorentzat.[149] 2015ean, 25 hizkuntzatako datuak jaso, eta horien arteko oinarrizko hiztegi-sarrera elebidunak eta itzulpen-adibideak eskaintzen ditu. Itzulitako esaldien datu-baseak interneten aurkitutako testu paraleloak ditu.

[148] Batzuetan, helburu-hizkuntzan posible dena azken mugetaraino jorratzen da, kategoria gramatikala mantentzearren. Horrela, 3.2.2.4 atalean esan bezala, *Euskal WordNet* datu-base lexikaleko unitate lexikoak ingelesezko hainbat izenetako ordainak eratorritako formak dira. Horietako hainbat ez dira euskarazko hiztegi-lemategi batean eratorritako forma horretan aipatzen.

[149] Ikus http://www.linguee.com.

Linguee

español ↔ inglés á é í ó ú ü ñ

falda

▼ Diccionario inglés-español

falda sustantivo, femenino (plural: faldas f pl)

skirt s (plural: skirts)

slope s (plural: slopes)

lap s (plural: laps)

Ejemplos:

falda escocesa f — kilt s

falda corta f — short skirt s

falda con vuelo f — fit and flare skirt s

[...]

© Diccionario Linguee, 2015

▶ Wikipedia

▼ Fuentes externas

Godet: pliegues de tela cortados a capa que se añaden en la parte baja de la falda para darla más vuelo y más peso. esflamenco.com	Godet: folds of cloth cut into layers that are added to the bottom of the skirt to give it more fullness and weight. esflamenco.com
La segunda figura lleva falda y sostiene algo que podría ser una bolsa de red. paracas.se	The other figure is wearing a skirt and is holding what may be a net bag. paracas.se
Incluso antes de que los bebés puedan sentarse por sí mismos, pueden acurrucarse en su falda y mirar imágenes de libros con dibujos en blanco y negro o fotos de rostros. es.4children.org	Even before babies can sit up on their own, they can cuddle on your lap and look at board books with black and white drawings or pictures of faces. 4children.org
Corte y deshuesado: separar toda la falda del cuarto trasero desde el corte recto a la altura de la octava costilla, cortando [...] eur-lex.europa.eu	Cutting and boning: remove the full flank from the eight-rib straight-cut hindquarter by a cut from the point where the [...] eur-lex.europa.eu
Si, tenemos un pantalón corto o una falda en beis, una camiseta roja y una camisa azul. fimcap.org	Yes, a beige trouser or skirt and a red T-shirt with a blue shirt. fimcap.org
La mujer lleva una blusa blanca y una falda negra. resources.rosettastone.com	The woman is wearing a white blouse and a black skirt. resources.rosettastone.com
La villa está enclavada junto al río Matarraña, en las proximidades del límite de provincia de Tarragona, en la falda de la Reserva Natural de los Puertos de Beceite. expozaragoza2008.es	The town is right next to the River Matarraña, near the frontier with the province of Tarragona, on the edge of the natural Reserve of the Puertos de Beceite. expozaragoza2008.es
Asimismo, las autoridades han prohibido a las mujeres usar bicicletas (un vehículo esencial para poder comerciar) y las han obligado a llevar falda. daccess-ods.un.org	The authorities have also been prohibiting women from using bicycles (a key vehicle for access to trade) and compelling them to wear skirts. daccess-ods.un.org
El pistón de falda corta se mueve en un cilindro recubierto de un compuesto cerámico que reduce las pérdidas friccionales, [...] yamaha-motor-europe.com	The short skirt piston runs in a ceramic composite plated cylinder which reduces frictional losses, thereby enhancing throttle [...] yamaha-motor-europe.com
Alojamiento en suites con piscina o pabellones de caprichosa arquitectura en la falda de cuatro volcanes humeantes. guiaiomejordelmundo.com	Accommodation in suites with a swimming pool or pavilions with a capricious design set on the slopes of the four steaming volcanoes. guiaiomejordelmundo.com
En el armario, todavía están la blusa y la falda del primer día, nada más. basqueliterature.com	The jacket and skirt from the other day, but nothing more, are still in the wardrobe. basqueliterature.com

4.7 Lagina: Linguee EN-ES: s.v. 'falda'

Ikus dezagun 4.7 lagineko adibidea, gaztelaniazko "*falda*" lema polisemikoaren ingelesezko itzulpenak dituena. Ikusten dugunez, galdeketaren erantzunak biltzen dituen orri honen goiko partean, hiztegi-sarrera elebiduna dator, eta gaztelaniazko hitzaren ezaugarri morfosintaktikoak eta hiru adieretarako ingelesezko ordain bana ematen ditu.

Horrez gain, hitza entzuteko aukera ematen duten botoiak, eta "*falda*" ordainez osatutako ingelesezko hitz anitzeko unitate lexikoak ematen dira "adibide" gisa. Azpian, ingelesezko zein gaztelerazko *Wikipediek* ematen dituzten definizio laburrak ikus daitezke, dagokion gezian klikatuz. Horraino, beraz, oso eskaintza oinarrizkoa da ikusten duguna.

Hortik behera, itzulitako adibide-esaldiak datoz, eta irudi honetan, horien parte txiki bat baino ez dugu islatu. Ikusten denez, gaztelaniazko hitza zein ingelesezko ordaina nabarmentzen dira, bilatutako hitza eta ordainak testuinguruetan zehar bizkorrago ikusteko. Honelako esaldi-bildumaren balioa bistakoa da: hiztegi-erabiltzaileak haren kasuari hurbiltzen zaion testuingurua bilatuko du, edota kasuz kasu nola itzuli den ikusi. Jakin nahi duena, beharbada oso galdera berezitua izan liteke, termino gisako erabilera bat, esaterako, hala nola ibilgailu-motorreko *pistón de falda corta* ingelesez "*short skirt piston*" ote den, eta datu-base terminologiko egokirik ezean, hemen bai erantzun bat aurkitzen du, kasualitatea dei badiezaiokegu ere. Gaztelania-ingelesa konbinazioan kasu horretarako banku terminologikoak egon badaude[150]; baliabide gutxiagoko hizkuntza bikote baterako, aldiz, corpus paraleloak baliatzen dituen tresna bat edukitzea bereziki lagungarria dela iruditzen zaigu.

1.: ya que	2.: sin embargo	3.: por lo tanto	4.: además	5.: por otro lado
6.: aunque	7.: es decir	8.: a partir de	9.: llevar a cabo	10.: por lo que
11.: asimismo	12.: no obstante	13.: por otra parte	14.: a continuación	15.: aprovechar
16.: actualmente	17.: a pesar de	18.: so	19.: así como	20.: mediante
21.: en cuanto a	22.: realizar	23.: aportar	24.: sobre todo	25.: cumplir
26.: a su vez	27.: debido a	28.: en este sentido	29.: por su parte	30.: atentamente
31.: presupuesto	32.: conseguir	33.: seguimiento	34.: destacar	35.: siempre y cuando
36.: tener en cuenta	37.: de esta manera	38.: vigente	39.: por tanto	40.: posteriormente
41.: con respecto a	42.: facilitar	43.: funcionamiento	44.: empresa	45.: convocatoria
46.: sino	47.: si bien	48.: propuesta	49.: compromiso	50.: resumen

4.5 Irudia: Linguee ES: ikustaldi-maiztasun zerrenda

Linguee gunean bertan ematen diren ikustaldi handiko sarrera-zerrenden arabera (ikus 4.5 irudia), ondorengoa bezalako kasuak dira oso maiz baliabide honen bitartez argitzen saiatzen direnak: hizkuntza batek berezko dituen hitz anitzeko esapideak, gaztelaniazko *en cuanto a* kasu. Ikus ditzagun horren itzulpenak 4.8 laginean:

[150] Egun, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak batzen dituen IATE datu-base terminologikoa puntako baliabidea dugu; ikus http://iate.europa.eu.

En cuanto a la composición demográfica del país, el proceso de envejecimiento de la población impone un reto a la política social. *daccess-ods.un.org*	With regard to the country's demographic composition, the ageing of the population poses a challenge to social policy. *daccess-ods.un.org*
En esta labor se debe tener en cuenta que persisten las diferencias entre los países en cuanto a su capacidad para la difusión de información. *daccess-ods.un.org*	Those initiatives must take into account the differences that persisted among countries' capacities to disseminate information. *daccess-ods.un.org*
En cuanto a la cuestión de la energía, por desgracia soy bastante pesimista. *europarl.europa.eu*	When it comes to the energy issue, I am unfortunately rather pessimistic. *europarl.europa.eu*
Dado que la búsqueda se inicia en cuanto empieza a escribir, si por ejemplo escribe "B", todos los archivos con nombres [...] *windows.microsoft.com*	The search begins as soon as you begin typing-so if you type "B," for example, all the files with names starting with the [...] *windows.microsoft.com*
En la actualidad, ellos deciden en cuanto a las ofertas sobre la base de la calidad y el precio. *gopacnetwork.org*	At present, they decide on bid offers using the bases of quality and price. *gopacnetwork.org*
[...] Unidos se encuentra mucho más adelantado que el resto de las naciones en cuanto al gasto en servicios de salud per cápita, ocupa el lugar 48 en expectativa de vida, dijo. *forumfed.org*	At the same time, the United States remains far in front of all other nations in per capita health care spending while it ranks 48th in life expectancy, she said. *forumfed.org*
En cuanto a mí, no puedo pensar en hacer películas en las que no me involucre, prefiero esperar un proyecto que me estimule de verdad. *cineuropa.mobi*	It is impossible for me to get involved in films that I don't like so I just wait for a project that really tickles my fancy. *cineuropa.mobi*
[...] diversifica la oferta de educación se observan desigualdades de una magnitud sin precedentes en cuanto al acceso y la calidad. *unesdoc.unesco.org*	But as educational demand increases and supply diversifies, disparities of unprecedented proportions can be observed in respect of access and quality. *unesdoc.unesco.org*
El parlamento es útil a la burguesía en cuanto logra crear la ilusión de que los obreros eligen a quienes los malgobiernan. *ibrp.org*	Parliament is useful to the bourgeoisie in that it gives the illusion that workers choose who is to misrule them. *ibrp.org*

4.8 Lagina: Linguee ES-EN: s.v. '*en cuanto a*'

Ikusten dugunez eta espero genuenez, *en cuanto a* esapidearen ingelesezko ordainak ezberdinak dira testuinguruaren arabera. Ordain bakar bat ere ez da errepikatzen. Kasu batzuetan, ohiko hiztegi-sarrera batean aipa litzatekeen ordain zuzenik ez dago, bigarren adibidean duguna kasu: genitibozko egitura baten bitartez itzultzen da gaztelaniazko esapidea. Aipatzekoa da ere gaztelaniazko laugarren adibideko *en cuanto* egiturak, grafiaren hurbiltasuna gorabehera, ez duela zerikusi semantikorik bilatutako *en cuanto a* esapidearekin; horra hor atari honetan erabilitako metodoaren muga bat. Erabiltzailearentzako onura, berriz, agerian dago: ohiko hiztegi-sarrera batean agertuko ez litzaizkion itzulpenak, testuinguru bana iturri duten itzulpenak datozkio hemen.

Bestalde, maizen gauzatzen diren bilaketa horiek ikusita, ondorengo susmoa datorkigu: hitz anitzeko unitate ugari dira zerrendetan, erabiltzaileek hitz anitzeko unitate horiek testuingurudun itzulpenak ematen ez dituzten beste hiztegi batzuetan aurkitzea espero ez dutelako ote da hori? Hiztegien erabileraren gaineko ikerketa-galdera irekia dugu hemen.

Linguee atariko garatzaileek haien metodoen berri ematen ez badute ere, bistan da corpusaren adibide-esaldi guztien artean kontsulta bat erantzuteko egokienak hautatzeko logaritmoak ere erabiltzen direla, oso esaldi motzik edo luzerik ez baitago, ezta oso testuinguru edo hitz bitxirik daukan esaldirik ere. Adibide "onak" hautatzeko logaritmo

automatikoak garatu izan dira, eta zenbait kasutan horiek erabiltzeko arautegiak publikoak dira, Kilgarriff (2008) adibide.

Glosbe hiztegi-ataria[151] euskarazko esaldiak eta hiru erdara nagusien gainerako hainbat hizkuntzetako itzulpenak eskaintzen dituen baliabide bakarra da egun, guk dakigunez. Izan ere, hizkuntza bikote askorentzako itzulpenak ditu atari horretako datu-baseak. Ehun bat hizkuntzatan ditu loturak, euskaratik edo euskarara, eta arlo jakin batzuetarako baliabide baliotsutzat jo dezakegu dagoeneko, informatikarekin zerikusia dutenak, alegia. Izan ere, software-lokalizazioetako edukietan oinarritzen dira *Glosbe* datu-baseak dituen euskarazko laginak batez ere. Horri begira, *Glosbe* atariko garatzaileek mota guztietako testu paraleloak aurkitu eta datu-basean sartzeko asmoa azaltzen dute; euskara-alemana bikoteari dagokionez egun ditugun mugak ezagunak dira (ikus 4.1.1).

DE-EU bikoterako ere datuak eskaintzen eta API baten bitartez doan ematen dituenez, iturri horretara jo dugu, *EuDeLex* hiztegiko erabiltzaile-interfazerako DE-EU corpusak ustiatzen dituen eta konkordantzia paraleloak bistarazten dituen aplikazioa garatu bitartean: egun, *Glosbe* datu-baseko edukiak aurkitzen ditugu *EuDeLex* hiztegiko bilaketa-emaitzen azpian.

4.4.1.1 Corpus paraleloak hiztegigintzan: zenbait ondorio

Itzulpen-corpusak hiztegigintzan baliatzea, bai hiztegigilearentzat eta bai hiztegi erabiltzailearentzat ere aberasgarria da, zalantzarik gabe. Corpusak tamainaren eta osaeraren arabera eskaini ditzakeen adibideek eta itzulpenek hiztegi elebidun arruntetan aurkitutako edukiak aberasten dituzte. Corpusen garaiaren aurretik egiten zen legez, adibide-esaldiak eskuz hautatzea eta dagokion hiztegi-sarreran txertatzea lan erraldoia izaten zen. Gaur, corpus-konkordantziek errazten diote hiztegigileari eduki egokienak hautatzeko lana. Ibon Sarasolaren *Egungo Euskararen Hiztegia* (EEH) corpus elebakar batetik eskuz hautatutako erabilera-adibideak baliatzearen etsenplu bikaina da. Adibiderik egokienak eskuz aukeratzeko lana gauzatzeko baliabiderik ez dagoenean edo ahalik eta adibide gehiago emateko asmoz, erabiltzaileak bilaketa egiten duen momentuan sorturiko corpus-konkordantziak erants dakizkioke hiztegi-sarrera estatiko

[151] Ikus http://eu.glosbe.com/eu/.

bati, goian aipatutako DWDS atarian gertatzen den legez. Corpus paraleloetatik automatikoki erauzitako itzulpen-adibideak hiztegi elektroniko baten sarreretan zuzenean txertatzea joera berria da; eskuz landu gabeko hizkuntza bikote askotan, corpus paraleloetan oinarriturik automatikoki sortutako hiztegiak dira baliabide eskuragarri bakarrak. Dena den, kalitatezko corpus-hiztegigintza batean eskuzko lanaren premia ezin dugu ahaztu, metodo automatikoen bitartez sortutako emaitza desegokiak iragazteko eta hutsuneak atzeman eta betetzeko orduan, batik bat.

5 Ondorioak

Tesi honetan, azkenengo bost urteotan burutu ditugun ikerketa-lanak aurkeztu ditugu. Euskarazko eta alemanezko hiztegigintza elebiduna izan da jorratutako ildo guztiek elkarrekin duten gaia. Hiztegi berria sortzea zen asmoa, euskara-alemanezko hiztegi elektronikoa, hain zuzen ere. Asmoa gauzatzeko bidean, Hiztegigintza Historikoan, Metalexikografian, Hizkuntzalaritza Konputazionalean eta Hiztegigintza Aplikatuan kokatuko genituzkeen lanak egin ditugu.

Lau arlo horietako bakoitzeko ikerketa-ildoak jorratu ditugu, euskarazko testuinguruan berrikuntzatzat jo ditzakegunak. Bakoitzean urrats batzuk egin ditugu, eta bideari nola jarraitzeko proposamenak gehitu. Tesi hau hiztegigintza lan-erreportaia gisa ulertzen dut, urrats horiek dokumentatu eta aurrera daraman eztabaidetarako aurkeztu nahi dituena.

Lehenik, gaiari ikuspuntu diakroniko batetik hurbildu gara. Alemana-euskara konbinazioan gaur arte ditugun lanak aztertu ditugu, horien artean XIX. mendeko hiru lan. Lan haien lehendabiziko azterketa bat, tesi honetarako sakondu eta osatu duguna, Lindemann (2011) artikuluan aurki daiteke. Humboldt (1817) lanaren parte den 600 bat sarrera dituen euskara-alemanezko hiztegia da sortu zen garaian argitalpena izan zuen bakarra. Beste biak, Mahn (1840) eta Charpentier (1823b) lanak dira. Bigarrenik aipatutako eskuizkribua inprimatutako edizio gisa dugu egun, edukien azterketa sakonarekin batera. C. A. F. Mahnen datu-bilduma lexikografikoari, berriz, iturri askotatik ekarritako euskarazko formen multzo erraldoi horri, arreta zor zaio oraindik, euskararen Hiztegigintza Historikorako egin dezakeen ekarpena neurtu ahal izateko. Eskuizkribu horren gaineko zalantzak ugariak dira, gainera. Eskuizkribuaren laginak aztertu ondoren, zenbait aurkikuntza eta ebidentzia berri aurkeztu ahal izan ditugu, datuen iturriei eta eskuizkribuaren datazioari dagokienez. Eskuizkribuaren balizko edizio bati begira, lehenengo ohar batzuk gehitu ditugu eskuizkribuko datu lexikoez eta horien iturriak jasoko lituzkeen edizio digital baten egituraz, *xml* dokumentu batean. XIX. mendeko alemanezko euskalaritzaz geroztik, beste hiru lan ditugu euskara-alemanezko hiztegigintza elebidunean, 1968ko, 1999ko eta 2007ko argitaratuak, hain

zuzen ere. Hiru lan horiek deskribatu ditugu, eta lan horiek aleman-euskarazko hiztegi berri baten garapenerako zer ekarpen egiteko duten galdetu.

Tesiaren bigarren atalean, euskararekiko eta alemanarekiko hiztegigintza elektronikoan dugun artearen egoera aztertu dugu, aro elektronikoaren aurreko zenbait lan ere kontuan hartuz. Hainbat paperezko zein formatu elektronikoan datozen hiztegitako laginak ikusi eta elkarrekin konparatu ditugu. Gaurko hiztegi elektronikoak edukiaren aldetik hiztegigintza elebiduneko klasikoen mailara iristen ote diren izan da horien inguruan egin ditugun galderetako bat. Hiztegi elektronikoen egiturari eta formatu digitalak egin dezakeen ekarpenari buruzko oharrak egin ondoren, funtzio zehatz bati erantzuten dioten hiztegien ingurukoak aztertu ditugu, alemana bigarren hizkuntza gisa ikasten duenarentzako hiztegi baten ezaugarriak, alegia. Euskarazko hiztegi elebidunen atalean, galego eta portugeserako existitzen den hiztegigintza-corpusen ereduari jarraitzen dion egitasmoaren inguruko hausnarketa egin dugu.

Bigarren ataleko irizpideetatik abiatuz, proposamen zehatz batera igaro gara hirugarren atalean: alemana eta euskara lotzen dituen *EuDeLex* hiztegi elektroniko elebiduna delako egitasmo berria egituratzeari ekin diogu. Maiztasunean oinarritutako lemategiak proposatzen ditugu *EuDeLex* hiztegiaren lehenengo argitalpen batean lehengai gisa erabiltzeko. Alemanaren kasuan, corpusetan oinarritutako maiztasun-lemategia eskuragarri dago, *DeReWo*-40.000 zerrenda, alegia. Lemategi hori garatzeko metodologia hartu dugu oinarritzat euskarazko oinarrizko lemategia eraikitzeko. Horretarako, euskarazko hainbat corpusetako, hiztegitako eta bestelako baliabide lexikaletako datuak erabili ditugu. Ikerketa urrats horiek I. San Vicenterekiko elkarlanaren fruitua dira, eta Lindemann & San Vicente (2015a; 2015b) artikuluetan jasota daude lehendabizikoz; tesi honetarako, emaitzak osatu ditugu datu gehiago aintzat hartuz eta horien azterketa sakonduz. DE-EU norabideko hiztegi-sarreretako elementuen antolaera proposatu dugu jarraian, alemanezko lau kategoria gramatikal nagusientzat. EU-DE norabideko sarreren egituraz ere zenbait gogoeta gehitu ditugu, horien artean, EDBL datu-baseko edukietan euskarazko lema bakoitzari dagozkion entitate sintaktikoak zirriborratzeko proposamena.

Laugarrenik, *EuDeLex* hiztegia alemana-euskarazko itzulpen-ordainez osatzeko egun arte egin ditugun urratsak izan ditugu hizpide, baita helburu horretarantz proposatzen

ditugun etorkizuneko urratsak ere. Alemanezko A hizkirako, hau da, proposatutako lemategiaren % 10erako (3.400 bat lema) hiztegi-sarrerak editatu ditugu, alemanezko lemaren gaineko argibideak, lemaren polisemia desanbiguatzea eta euskarazko ordainak barne. Alemanezko maiztasun-zerrendako 40.000 lementzat euskarazko ordainak lortzeko metodo sorta ezarri dugu hizkuntzalaritza konputazionaleko lankideekin elkarlanean, eta aurretik eskuz landutako datuak baliatu ditugu metodo erdi-automatikoen eta automatikoen bitartez sorturiko euskaraz-alemanezko glosario elebidunen egokitasuna ebaluatzeko. Glosario elebidunak sortzeko metodo sorta eta horien ebaluazioa Lindemann et al. (2014) lanean aurkeztu ditugu lehenik. Hiztegigintza konputazionaleko metodook eskuzko lana neurri nabarmen batean murrizten laguntzen dutela argi geratu da. Bestalde, ez dago zalantzarik hiztegigintzan eskuzko lana ere berebiziko baliabidea izaten jarraitzen duela, automatikoki sortutako zirriborro-datuak egiaztatu eta osatzeko, baita datu horiek *EuDeLex* hiztegiko sarreretan jasotzeko ere. Batik bat, polisemia eta lexikalizatze asimetrikoa dira orain arte erabili ditugun metodo automatikoek aintzat hartzen ez dituen arazoak. Egoera hori gainditzea etorkizu hurbileko erronka dugu, eta haranzko bide metodologiko bat aipatu dugu.

Ondorengo baieztapenak burutu ditugun ikerketa guztietan egiaztatu dira, baita tesi honen testuan zehar ere: Lehenik, *xml* bezalako egitura erabiltzen duten hiztegigintzarako software-aplikazioak hiztegia egituratu eta editatzean erabiltzea zentzuduna dela ondorioztatu dugu, horrelako egiturak eskaintzen dituen abantailez baliatzeko. Bigarrenik, hiztegigintza elebidunak, alde batetik, eta corpus hizkuntzalaritza eta hizkuntzalaritza konputazionalak, bestetik, elkar elikatzen dutelako ebidentzia aurkitu dugu behin eta berriz. Hizkuntza bikote baten inguruan alde batean zenbat eta gehiago garatu, orduan eta aberatsago bihurtzen da beste aldea ere. *EuDeLex* hiztegi elebidunaren eta aleman-euskarazko corpus paraleloen garapena ditugu gogoan batez ere, elkarren baldintza baitira: Hiztegiak corpus paraleloetako datu aberats eta modu egoki batean prozesatuak behar ditu, eta corpus paraleloek kalitatezko hiztegia behar dute, esaldi- eta hitz-mailan lerrotzeak burutzeko tresna automatikoek erabil dezaketena.

Hasieran aipatu dugun asmoari begira, aleman-euskarazko hiztegi elebiduna garatzeari, zenbait urrats teoretiko zein praktikoak egin ditugu. Tesi honen bitartez

proposamen emankorrak egin ditugula espero dugu, aleman-euskara hizkuntza bikoteko hiztegi osoa lantzeari begira, baita euskarazko hiztegigintza elebidunean orain arte arreta gutxi izan duten konbinazioetako egitasmo berriei begira ere. Hiztegigintza lan-erreportaia dugu tesi hau, euskarazko testuinguruan oraindik ohiko bihurtu ez den formatua, eta horren bitartez interesa dutenentzat ekarpen baliagarria egin izana espero dugu.

6 Erreferentzia Bibliografikoak

Adamska-Sałaciak, Arleta, 2013: Issues in compiling bilingual dictionaries. In: H. Jackson (arg.): *The Bloomsbury companion to lexicography*. London: Bloomsbury, 213–231.

Adelung, J C, 1809: Cantabrisch oder Baskisch. In: J. S. Vater (arg.): *Mithridates oder allgemeine Sprachenkunde*. Berlin: Vossische Buchhandlung, 9–30. [sarean]

Adorez Taldea (arg.), 2009: *Adorez 5000 hiztegia*. Bostak Bat Lantaldea

Aduriz, I., Aldezabal, I., Alegria, I., Artola, X., Ezeiza, N. & Urizar, R., 1996: EUSLEM: A lemmatiser/tagger for Basque. In: *Proceedings of EURALEX 1996*. Göteborg: Göteborg University, 17–26. [sarean]

Agirre, E., Alegria, I., Arregi, X., Artola, X., Ilarraza, A. Díaz de, Maritxalar, M., Sarasola, K. & Urkia, M., 1992: XUXEN: a spelling checker/corrector for basque based on two-level morphology. In: *Proceedings of the third conference on Applied Natural Language Processing*. Trento, Italy: Association for Computational Linguistics, 119–125. [sarean]

Aizquibel, José Francisco, 1883: *Diccionario basco-español titulado euskeratik erderara biurtzeco itztegia*. Tolosa: Casa Editorial de Eusebio López, Sucesor de la Viuda de Mendizabal

Alberdi, Xabier, García, Julio & Ugarteburu, Iñaki, 2008: Definición lexicográfica y orden de la información y de las palabras: el caso del euskera

Alberdi, Xabier & Ugarteburu, Iñaki (arg.), 1999: *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Aldezabal, I., Ansa, O., Arrieta, B., Artola, X., Ezeiza, A., Hernandez, G. & Lersundi, M., 2001: EDBL: a General Lexical Basis for the Automatic Processing of Basque. In: *Proceedings of the IRCS Workshop on linguistic databases*. Philadelphia [sarean]

Arratibel, Miren, Atela, Aintzane & Navarro, Koro (arg.), 1996: *LUR Eskolarako hiztegi entziklopedikoa*. Donostia: Lur

Arriola, J., Artola, X., Arregi, X., Díaz De Ilarraza, A., García, E., Laskurain, B. & Sarasola, K., 2003: Semiautomatic conversion of the Euskal Hiztegia Basque Dictionary to a queryable electronic form. *T.A.L. journal*, 44:2: 107–124.

Astarloa, Pablo Pedro, 1805: *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*. Bilbo: P. Velasco

Atkins, B. T. S., 1996: Bilingual dictionaries: Past, present and future. In: M. Gellerstam, J. Jarborg, S.-G. Malmgren, L. Rogström, & C. R. Papmehl (arg.): *Proceedings of EURALEX 1996*. Göteborg: Göteborg University, 515–546.

Atkins, B. T. Sue & Rundell, Michael, 2008: *The Oxford Guide to Practical Lexicography*. Oxford University Press

Atserias, Jordi, Villarejo, Luıs, Rigau, German, Agirre, Eneko, Carroll, John, Magnini, Bernardo & Vossen, Piek, 2004: The meaning multilingual central repository.

Augst, Gerhard, 2009: *Wortfamilienwörterbuch der deutschen Gegenwartssprache : Studienausgabe* 2. Aufl. Tübingen: Niemeyer

Aulestia, Gorka & White, Linda, 1992: *Euskara-Ingelesa Ingelesa-Euskara Hiztegia*. Donostia: Elkar [sarean]

Azkarate, Miren, Kintana, Xabier & Mendiguren, Xabier (arg.), 1996: *Elhuyar hiztegia: euskara-gaztelania, castellano-vasco* 1. arg. Usurbil: Elhuyar

Azkarate, Miren, Kintana, Xabier & Mendiguren, Xabier (arg.), 2000: *Elhuyar hiztegia: euskara-gaztelania, castellano-vasco* 2. arg. Usurbil: Elhuyar

Azkarate, Miren, Kintana, Xabier & Mendiguren, Xabier (arg.), 2006: *Elhuyar hiztegia: euskara-gaztelania, castellano-vasco* 3. arg. Usurbil Gipuzkoa: Elhuyar Edizioak

Azkarate, Miren & Lindemann, David, 2015: Basque Lexicography and Purism. *The Role of Lexicography in Standardisation and Purification of Lesser Used Languages*, Leeuwarden. [sarean]

Azkue, Resurrección María, 1984: *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo: Euskaltzaindia

Barandiaran, Sagrario & Etxeberria, Elixabete (arg.), 2000: *Euskal hiztegi modernoa*. Usurbil; Donostia: Elhuyar; Elkarlanean

Baroni, Marco, Bernardini, Silvia, Ferraresi, Adriano & Zanchetta, Eros, 2009: The WaCky wide web: a collection of very large linguistically processed web-crawled corpora. *Language Resources and Evaluation*, 433: 209–226. [sarean]

Beaumont, Jean-Charles & Lazkano, Ramon, 2002: *Kauderwelsch, Baskisch Wort für Wort*. Bielefeld: Reise Know-How Verlag (Kauderwelsch, 140) [sarean]

Bera, Erroman, 1909: *Euzkel-iztegitxua / Bera tar Erroman Aba*. Iruña [sarean]

Bera, Erroman & López-Mendizabal, Ixaka, 1916: *Diccionario castellano-euzkera / Bera'tar Eroman Mirena aba, buruñurduna. Euzkel-erdel iztegia / López Mendizabal'dar Ixaka.* [sarean]

Bond, Francis & Paik, Kyonghee, 2012: A survey of wordnets and their licenses. In: *Proceedings of the 6th International Global WordNet Conference*., 64–71. [sarean]

Bostak Bat Kultur Elkartea, 2013: 5000 Hiztegia. *Azkue Fundazioa*. [sarean]

Bouda, Karl, 1948: Baskisch und Kaukasisch. *Zeitschrift für Phonetik und allgemeine Sprachwissenschaft, Berlin*, 2: 182–202.

Bouda, Karl, 1949: *Baskisch-kaukasische Etymologien*. Heidelberg: Winter [sarean]

Braun, Sina, 2010: Die Rolle der Muttersprache im Deutschunterricht in zweisprachigen Gebieten am Beispiel des Baskenlandes. In: C. Jarillot (arg.): *Bestandsaufnahme der Germanistik in Spanien: Kulturtransfer und methodologische Erneuerung*. Peter Lang, 25–36.

Brown, Peter F., Lai, Jennifer C. & Mercer, Robert L., 1991: Aligning sentences in parallel corpora. In: *Proceedings of the 29th annual meeting of the Association for Computational Linguistics on Computational Linguistics*. Stroudsburg, PA.: Association for Computational Linguistics, 169–176. [sarean]

Castell, Andreu, 2015: Die Adjektivvalenz in Wörterbüchern des Deutschen und des Spanischen. In: J.-A. Calañas Continente & F. Robles i Sabater (arg.): *Die Wörterbücher des Deutschen: Entwicklungen und neue Perspektiven*. Frankfurt: Peter Lang (Spanische Akzente. Studien zur Linguistik des Deutschen, 2) [sarean]

Charpentier, Johann von, 1823a: *Essai sur la constitution géognostique des Pyrénées*. Paris: Levrault

Charpentier, Johann von, 1823b: Paradigmen Baskischer Declinationen und Conjugationen, nebst einem kleinen Wörterverzeichnisse, in der zu Saint Etienne (Donostiÿ) Hauptdorf des Thales von Baigorrÿ bei Saint-Jean-Pied-De-Port üblichen Mundart. , Gèneve.

Charpentier, Johann von, 2002: Paradigmen Baskischer Declinationen und Conjugationen, nebst einem kleinen Wörterverzeichnisse, in der zu Saint Etienne (Donostiÿ) Hauptdorf des Thales von Baigorrÿ bei Saint-Jean-Pied-De-Port üblichen Mundart. In: B. Hurch (arg.): *Die baskischen Materialien aus dem Nachlass Wilhelm von Humboldts: Astarloa, Charpentier, Fréret und anderes*. Paderborn: Schöningh, 125–173. [sarean]

Corvo Sánchez, María José, 2008: Breve historia de la lexicografía bilingüe española y alemana hasta el siglo XIX. *Philologica hispalensis*, 22:1: 113–139. [sarean]

Coseriu, Eugenio, 2002: Wilhelm von Humboldt und die Sprachtypologie. In: K. Ezawa (arg.): *Linguistik jenseits des Strukturalismus : Akten des II. Ost-West-Kolloquiums Berlin 1998*. Tübingen: Narr, 21–47. [sarean]

Darrigol, Jean-Pierre, 1827: *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique de diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet

Dentschewa, Emilia, 2006: DaF-Wörterbücher im Vergleich: Ein Plädoyer für «Strukturformeln». In: A. Dimova, V. Jesenšek, & P. Petkov (arg.): *Zweisprachige Lexikographie und Deutsch als Fremdsprache: drittes Internationales Kolloquium zur Lexikographie und Wörterbuchforschung, Konstantin Preslavski-Universität Schumen, 23. -24. Oktober 2005*. Hildesheim; New York: G. Olms (Germanistische Linguistik, 113-128), 49–58.

De Schryver, Gilles-Maurice, 2003: Lexicographers' Dreams in the Electronic-Dictionary Age. *International Journal of Lexicography*, 162: 143–199. [sarean]

De Schryver, G.-M., Joffe, D., Joffe, P. & Hillewaert, S., 2010: Do dictionary users really look up frequent words?—on the overestimation of the value of corpus-based lexicography. *Lexikos*, 161.

Dickens, Alison & Salkie, Raphael, 1996: Comparing Bilingual Dictionaries with a Parallel Corpus. In: M. Gellerstam, J. Jarborg, S.-G. Malmgren, L. Rogström, & C. R. Papmehl (arg.): *Euralex'96 Proceedings*. Göteborg: Göteborg University, 551–559.

Domínguez Vázquez, María José, 2015: Wörterbuchbenutzung: Tendenzen, Entwicklungen und Fragestellungen. In: J.-A. Calañas Continente & F. Robles i Sabater (arg.): *Die Wörterbücher des Deutschen: Entwicklungen und neue Perspektiven*. Frankfurt: Peter Lang (Spanische Akzente. Studien zur Linguistik des Deutschen, 2), 269–302. [sarean]

DUDEN, 2011: *Duden - Das große Wörterbuch der deutschen Sprache, 4. Aufl.* Mannheim: Bibliographisches Institut

Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak, 2007: *Elhuyar Euskara-Ingelesa Hiztegia*. Elkar

Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak, 2013: *Elhuyar hiztegia: euskara gaztelania = diccionario castellano vasco* 4. arg. Usurbil: Elhuyar

Engelberg, Stefan & Lemnitzer, Lothar, 2004: *Lexikographie und Wörterbuchbenutzung* 2. Aufl. Tübingen: Stauffenburg-Verl. (Stauffenburg-Einführungen, 14) [sarean]

Etxebarria, J.M. & Mujika, J.A., 1987: *Euskararen oinarrizko hiztegia : maiztasun eta prestasun azterketa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Etxeberria Otaegi, Elixabete (arg.), 2001: *Ikaslearen hiztegia*. Usurbil; Donostia: Elhuyar; Elkarlanean

Euskaltzaindia, 2000: *Hiztegi batua* 2. arg. Bilbo: Euskaltzaindia [sarean]

Euskaltzaindia, 2002: XX mendeko corpusa. [sarean]

Euskaltzaindia, 2009: Lexikoaren Behatokia. [sarean]

Euskaltzaindia, 2010: *Hiztegi batua* 3. arg. Donostia: Elkar [sarean]

Euskaltzaindia, 2012: *Euskaltzaindiaren hiztegia: adierak eta adibideak*. Bilbo; Donostia; Usurbil: Euskaltzaindia; Elkar; Elhuyar

Eys, Willem J. van, 1867: *Essai de grammaire de la langue basque* 2. ed. Amsterdam: C.M. van Gogh [sarean]

Ezeiza, Nerea, Alegria, Iñaki, Arriola, José María, Urizar, Rubén & Aduriz, Itziar, 1998: Combining stochastic and rule-based methods for disambiguation in agglutinative languages. In: *Proceedings of the 17th international conference on Computational linguistics*. Association for Computational Linguistics, 380–384.

Fauriel, Claude, 1846: *Histoire de la poésie provençale*. Paris: Labitte [sarean]

Fejér, Rita, 1995: *Zur Geschichte der deutsch-ungarischen und ungarisch-deutschen Lexikographie: von der Jahrhundertwende bis zum Ende des Zweiten Weltkrieges*. Tübingen: Niemeyer

Fellbaum, Christiane, 1998: *WordNet: An Electronic Lexical Database*. Cambridge MA: MIT Press

Fuertes-Olivera, P. A. & Bergenholtz, Henning, 2011: *e-Lexicography: The Internet, Digital Initiatives and Lexicography*. Bloomsbury

Fuertes Olivera, Pedro (arg.), 2010: *Specialised Dictionaries for Learners*. Berlin: de Gruyter (Lexicographica Series Maior, 136) [sarean]

Fung, Pascale, 1995: Compiling bilingual lexicon entries from a non-parallel English-Chinese corpus. In: *Proceedings of the 3rd Workshop on Very Large Corpora*. Boston, MA., 173–183.

Gale, William A. & Church, Kenneth Ward, 1991: Identifying Word Correspondences in Parallel Texts. In: *Proceedings of the ACL Workshop on Speech and Natural Language*. Stroudsburg, PA: Association for Computational Linguistics, 152–157.

Galley, Michel, Hopkins, Mark, Knight, Kevin & Marcu, Daniel, 2004: What's in a translation rule. In: *Proceedings of HLT/NAACL*. Boston, 273–280.

Gárate, Justo, 1933: *G[uillermo] de Humboldt: estudio de sus trabajos sobre Vasconia*. Bilbo: Impr. Provincial

Garate, Justo, 1936: *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio de Moguel*. Bilbao: Diputación de Vizcaya

Gómez, Ricardo, 1996: La aportación de W. von Humboldt a la gramática vasca. *RIEV*, 41:2: 607–622. [sarean]

Gómez, Ricardo, 2006: *XIX. mendeko euskal gramatikagrintzari buruzko ikerketak*. PhD Thesis. Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU. [sarean]

Gómez, Ricardo, 2008: Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: XVII-XVIII. mendeak. In: *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua (ASJUren gehigarriak, 51), 329–349. [sarean]

Gonzalez-Agirre, Aitor, Laparra, Egoitz & Rigau, German, 2012: Multilingual Central Repository version 3.0. In: *Proceedings of the Eighth International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'12)*. Istanbul

